



 BOOKTEGI

K.L. REICH

Katalanak Hitlerren
esterminio-esparruetan

Joaquim Amat-Piniella

itzulpena:
Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOAQUIM AMAT-PINIELLA

K.L. REICH

Katalanak Hitlerren estermínio-esparruetan

Wehe dem Morder!

– Goethe

Pere Vives i Clavé naziek 1941eko urriaren 31n erailari,
anaiarteko adiskidetasun baten gomutan.
1945ean liberatu ninduten indar iparramerikarren Omar N. Bradley general
buruari, eskerron eta miresmenezko testigantzaz.

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

Bizi-bizia da hotza. Ez dago haragian atximur egin beharrik lorik ez dela egingo ziurtatzeko. Behatzek, duela hiru egun zapata burdindunetan atxilo eta galtzerdi zikinek hezeturik, erresistentziarik gabe amore ematen dute lurrari zerion izotzaren pean. Hotz zorrotz hau gabe, bat-batean esnatzeagatik aztoratutako ehunka gizonei irreal iritziko litzaieke goizalba. Eguna esnatzen doan neurrian loditzen den behe-lainoan zehar hurbileneko paisaiaren forma lausoak baino ez dira bereizten. Elurraren zeharkako argiak egunsentia ebakitzen du Geltokiaren teilatu gainean, oso maldatsua bera, elur-multzotz potoloa dago, lisoa, pixka bat ondulatua eta ertzik gabea. Bagoiek, trenbide ikusezinen gainean geldituta, hilotz erraldoiak dirudite, elur azpian abandonaturik. Errepidearen beste aldean, non etorri berriak iladatan astun ezarriak dauden, muino mutilatu bat ia bertikalean jausten da.

Frantziako armadaren uniforme heteroklitoekin jantzita, batzuk urdin argiak (lehen mundu gerrakoak), beste batzuk urdin ilunak, asko kaki-kolorez, abrigo akanpanatuekin, buruak txapelaz, bi puntatuko kapelaz, buru-berokiaz, eta kasu batzuetan senegaldarren kapela gorritz jantzita, gizon haiek nahasturik, antsiaturik, mantso, panikoaren zurrunbiloan mugitzen dira. Hainbat maleta, fardel eta zakuren artean, formazio dudatsuaren iladatan toki bat bilatzen saiatzen dira. Elurrak zapart egiten du oinetako burdindunen pean eta, zurtasun aratza errepidetik desagertzen den bitartean, soilik tropako plateren, kantinploren eta fianbreren tintin-hotsak apurtzen du egunsentiko isiltasun hau. Isiltasun honekin berberarekin kontrastean, gero eta zakarrago, guturalago eta beldurgarriago ematen dute, fusila desesekita eta hatzamarra katuan, Alemaniako armadako uniforme berdetsua jantzita, atxilotu-masa inguratzen duten soldaduen buruzagien oihuek. Oihu berriak, ezezagunak, mehatxu misteriozuz beteta hizkuntza ezagutzen ez dutenentzat.

—Eta maletina? —galdetzen dio atxilotuetako batek bere kideari.—Hik ez al daukaku? Emilik etsipen-keinua egin eta, aho-estalkiaren azpian, adierazle fatalistako irribarrea erakutsi du.

—Presta hadi aurpegia sekula ez garbitzera —esaten du lurretik motxila bat gainezka batuz.

—Ez gaituk saboi-faltan egongo. Ez kezkatu.

—Beldur nauk ez diagula behar izango. Hau ez diat batere atsegin, Cisco.

—Gustatu ala ez, eutsi egin beharko zioagu. Ikusiko diagu zer gertatzen den.

Francescek bere lagunaren sudur gorrituari so egin dio, zeinak, argi ahula egon arren, aski nabarmentzen baita, eta aurpegia bilatu dio. Irribarre egin dio berak ere. Ezaguna du Emiliren etsipenerako joera. Egia esan, gogorra izan da trenetik jaisterakoan eman dioten trataera, erabat gogorra, baina ez du ondorio presaturik atera nahi. Nahiago du goizegi jaikitako goardia batzuen umore txarrari, egiten duen hotzari edota ofizialaren jenio txarrari esleitu.

—Alemaniarrak ez gara basati batzuk —esan dio teniente batek atxilo hartzeko unean—. Badakigu kamarada onak izaten. Ikusiko dugu.

Izan ere, orain datozen gerra-atxilotuen esparruan, espainiarrak gizalegez tratatuak izan dira. Gerra bat egin izanak, haien langiletasunak eta aurrera ateratzeko daukaten jarrera bitxiak izango dute errua. Zer dela-eta, beraz, bi eguneko bidaia baten ondoren, trenetik jaistean agertzen dira alemaniar berriak, ezagunak ezbezelakoak? Zergatik kulata-kolpe hauek, zergatik ostikoak ipurdian, oihu eta zalaparta, prekauzio esageratu hauek? Mundu guztia berdin jaitsiko zen hainbesteko presarik gabe, eta behar bada formazioa errazagoa izango zen, animoak ez hain aztoratuta.

—Egurra emango zieten frontean —suposatuta du norbaitek.

Eta Emilik ekipajea batu eta zenbaketaren amaiera pazienteki itxarotea erabaki du. Sekula ez da naziekin fiatu, herrialde okupatueta jantzen duten otso-larrua gorabehera. Kontsigna-usaina dario. Oraingo tratua basakeriak baiezen dio. "Zergatik ez ote dut ihes egin?", galdetzen dio bere buruari arrankuraz. Kide batek berarekin alde egiteko eman zion aholkuari muzin egiteko baldarkeria eduki zuen, argi dauka orain. Sorbaldak jaso ditu etsipen behartuan, baina ezin du bihozkada batek deprimitzea ekiditerik. Laino artean, sekretu beldurgarria somatzen du.

Formazioak amaigabea dirudi. Gero eta laino lodiagoan zehar, atxilotuen ilara beltz eta trinkoa nabarmentzen da, eta segizioan zehar zehatz-mehatz banandutako zentinelan mantxa gris-berdeak, fusila prest.

—*Adi!* —egin du oiheri batek—. *Adi!*

Sakonago egin da isiltasuna. Atxilotuen esparruan erantzule-funtzioak onartu dituen interprete batek hitz egiten du.

—Gure zaintzaren ardura daukan indarraren buruak ondo eta azkar forma gaitzen nahi du. Gero eta atzeratuago, orduan eta hotz handiagoa jasango dugu. Izan esanekoak, bistan da gauza ez dela broman hartzekoa.

Atxilotuen esparruko zenbaketetan sekula ez dira zenbakiak ateratzen. Iheslari bat gehiagok ala gutxiagok ez dirudi garrantzia handirik daukanik. Ofizial arduradunak atxilotu erantzulearen agiria sinatu eta ez du finago jokutzen. Hemen gauzak aldatuta daude, batek daki zergatik. Arazoa da ofizialak, azpifizialak, sarjentu eta soldaduek berak bata bestearen atzetik pasatzen direla kontu propio bat atera eta zifren zehaztasuna ziurtatzeko. Zutabearen bururaino iritsita, osterala alderantziz ekiten diote, eta horrela behin eta berriro, emaitzek sekula bat egiten ez dutelarik. Lortuko al dute inoiz?

Operazio grotesko hau baino garantitsuagoa da, iladan gaizki kokatuta edo distraiturik egoteagatik, lana eragozten diotenekin goardiek darabilten "hizkera". Holako arazoren batekin topo eginda, gogoratzearen, iritsitako zenbakia ozen errepikatu eta han-hemenka belarrondokoak astintzen hasten dira.

Azkenik, zenbaketa amaituta, zutabea ez da martxan jartzen hasten. Hiru egun lo egin gabe eta bero jan gabe dauden gizon hauen hanketatik gora igotzen da hotza. Asko dira dantzan edo oin-kolpeka hasten direnak. Beste batzuek hatzamarren mamietan putz egin edo besoak zabaldu eta sorbaldan kolpeak ematen dituzte esku-ahurrekin. Bi lagunengandik hurbil dagoen mutil bat zigarro bat piztera ausartu da. Goardiako bat garrasika hasi da bere jagoletza-tokitik.

—Itzali —esan dio Emilik—. Hiregatik da, ergel hori!

Erretzaileak ezikusiarrena egin aurretik iritsi da sarjentuetako bat, eta ukabilkada batez odola isurarazi dio sudurretik. Emilik uniformearen lepoa ikusi ahal du.

—Konturatu al haiz —galdetu du Emilik sarjentua urrunduta—, SSen eskuetan gaudek.

—Ez izorratu!

Esparruan ere porrotean doa goiz hartako behe-lainoa, *Blocketako* berde argitua jaten duen lainoa bera. Zurezko blokeak, solairu bakarrekoak, luzanga eta estuak, pendiz mailakatueta iladatan kokatuta, itzalaren antzekoak dira ordu honetan. Tximinietatik, *Block* banako pare bat doi bananduta, ke beltza, ikatz piztu berriarena, isuri eta lainoaren lodian gutxika-gutxika diluitzen da.

13. *Blockeko* jantokian, August interprete espainiarra mutil-talde batek bere kargu daukan garbiketa-lanean laguntzen ari da: beirak garbitu, armairuei eta mahaiei hautsa kendu, eskobatu, ontzien metala distirarazi...

Espainiarrak dira gaur iristen ari direnak, dio Augustek. Mila eta bostehun.

Stubendienste direlakoek lana utzi dute instant batean. Espainiarrak izatea ez da ezer berririk, kopuruak ematen zuen berezia.

—Mila eta bostehun! —esan du erratza bat eskuetan—. Labekada ederrak Erraustegirako!

—Ixo! Agian hire anaiaren bat zatorrek —egin du protesta beirak garbitzen zebilenak.

—Zer nahi duk? Negar egitea? Egunero iristen da jendea eta mundu guztiak egiten dik bide berbera. Gainera, ez zaukaat anaiarik.

—Beraz, ez esan kirtenkeriarik.

Augustek eztabaidan utzi ditu. Bere zeregina izan ez arren garbitzen entrettenitzen zen armairutik aldendu eta hurbilen topatu duen mahiaren ertzean eseri da, hankak zintzilik. Haren begiek ez dute islatzen beste preso batzuen begiradetan nabari izan ohi den kezka etsia eta hustua. 13. *Blockeko* interpretea da eta aski ez izatera berea bezalako kargu baten ziurtasun ttikia, abenturazalearen kuriositate axolagabeen mugitzen den gizona da. Zoriarekin jokutzen duen abenturazalea. Oso izaera mendebaldetarrekoa, naturaz matxinoa, bere familia-inguru erosoaren aurrejuzkueatik libre, erabateko independentzian bizi izan zen gaztetatik: aitaren diruak erne egon ziren hark bere grinak betetzen zituen bitartean. Giro oparoak haiek! Anarkistatzat jo, bizarra utzi eta sandaliak jantzi, eta, inoiz, barazkijale azaltzea, trikimailu txundigarriak ziren; etxetik alde egin eta barietate-konpainia batean pianista izatea, bihurrikeria xelebrea; gerra zibilaren lehen egunetatik lubakietara jo eta nazioarteko brigada batean komunistekiko aurkaritzagatik nabarmentzea heriotzara kondenatua izan arteraino, benetan emozionagarria zen. Azken xeleberekia estermíniozko esparru nazi batean denboralditxo bat ematea da. Beti konpondu izan bada, zergatik orain ez? Aurrean agertutako aukera guztiak nortasun propioa finkatzeko aukeratzat hartzen ohitua, nahasmendu sozialek eta politikoez eta belikoez osatu izan ohi dute haren giro kuttunena. Harentzat garrantzitsuena, behatzeko materia edukitzea da.

Mahai gainean eserita, Augustek espainiarren espedizioa erritmo hartan iristekotan esparruan gertatuko den giroaz pentsatzen du. Bera bezalako gizonak, gutxi gorabehera alemanen hizkuntzaren jabe, gero eta beharrezkoak izango dira eta interprete izateak eraginkorra izatea esan nahi du. Alemaniarrak, SS zein preso, arantzazko burdinen alde banatan agintzen dutenek, nahiago dute maiz beren ahalak interpretearen esku jarri itzulpenaren bitartez erabili baino. Gutxika-gutxika sartzean dago koxka, haien konfiantza irabaztean, buruz jokatzean, ezinbesteko bihurtzean, eta bitartekaritzalanaekin bukatzean, zeregin zuzena eta exekutiboa edukitzeko. Enpresa arriskutsua dela badaki Augustek aspalditik, zorigaitzean erortzeari heriotzarik txarrena baitagokio. Baina arriskua da enpresaren erakargarritasunik handiena. Nazien esparru batean agintea lortzea eta munduko kartzela-sistematik inhumanoena gutxienez bertan bukatzen duten aberkide zorigaitzokoen bizitzak salbatzea posible izango duen erregimen bihurtzea, ankerkeria hitlerianoaren historian esperimendu bakana izango da, politikorik handienaren neurriko gertakari bat.

Pentsatu bitartean, Augusten amanda-itxurako begiek diz-diz egiten dute, eta urduri kulunkatzen ditu hankak. Haren lepo sendoa bizkarrartean sartzan da besoak mahaiaren zurkaiztuta dauzkalako, eta posizioak areago markatzen ditu poltsa okzipitalaren zimurrak. Oso azal beltzaranean zehar matrail irtenetako giharren kontrakzioak agertzen dira, eta ezpainak, lausoki semitikoak, uzkurto egiten zaizkio ahoaren trazoa zabalduz. Esperimendua bere ezpaleko gizonak grinatzen dituenetakoa da.

Zeregina amaituta, estufan berotzen dituzte eskuak zerbitzuko mutilek. *Blockältesterra* (*Blockeko* preso alemaniarra) zurrungaka dago, astunki, burua mahairantz eta burua besoaren mami gainean bermatuta. Jantoki honek soilik kanpoko elur eta lainoarekiko kontrastean eman ahal du abegikor. Logela bakarti eta parez pare irekitik haizekorrantea eta lasto hartituaren usaina sartzan da. Norbaitek irekita utzi duen atearen markotik koltxoi-plataforma izugarri handia ikus daiteke, kontu handiz eraikia eta errezel modura zabalduetako burusiek estalia. Aurreko egunetik despulatua, Augustek aditzera eman duen egoiliarren esperoan dago *Blocka*.

—Itxi atea, Miquel —dio oihuka.

Goizeko ordu honetan bi garbiketa-txanda orokor eginak dituzte *Blockean* zerbitzuko mutilek. Denak dirdiratsu egon behar du, bernizatuta, garbi, presoek sekula ukituko ez duten guztia, non jan ezin izango duten mahaiak, esertzerik ez dauzkaten aulkiak, inork zapaltzen ez duen zorua, ezer ez daukaten armairuak, *Blockältesterraren* eta haren ingurukoen zerbitzu eskusiborako estufa. *Block* batek ez du bizitzeko balio, baizik esparru nazi bateko instalazio eredugarriaz konbentzitu behar diren bisitak datozenean eder agertzeko.

Gaur etorriko den jendea bizigarritasun-baldintza minimoekin egokitzeko, barraka hau eta beste batzuk beharko lirateke. Ez dago tokirik hainbeste jenderentzat, baina ezarritako ordena ez dago arriskuan holako txikikeriengatik. Jantokiak aratz jarraituko du, orain bezala, huts eta *Blockältesterraren* zurrungekin dardar. Logelan sartzeko zeharkatuko dute presoek, non abereak bezala txokoratuko dituzten, eta kalera irteteko, non egunaren zatirik handiena pasatu beharko duten. Beti iladan banaka zeharkatuko dute, burua desestallita eta isilik. Zikintasuna izugarria da, baina esparruaren garbitasun itxurazkoa ankerkeriaren finezia da.

Bat-batean ezohiko zalaparta batek desegin du eremuaren geldotasuna, ustez hutsik beharko lukeena lanordu honetan. Txistuak, kanpaikadak, oihuak, ate-danbadak eta korrikaldiak kalezuloetan. 13. *Blockältesterra* malguki batek eraginda-edo mahaitik altxatu, kapela jantzi, jantokia ziztu bizian gurutzatu eta, oraindik erdi lo, kalera atera da.

—Etorri direla dirudi —dio Augustek inori zuzendu gabe—. Banoa.

Ez du bere burua besteen presarekin kutsatzen uzten. Barrakatik presarik gabe atera, eta kalea jantzen duen elurratik, zatika aratza, zatika laratzez zabarkiro profanatu, gora eta behera ibiliaren poderioz ibiltariak egin dituzten bidezidorrei jarraitzen saiatzen da. Erraustegiko kea esparrura jausi eta lainoarekin nahasten da. Hotz bizia dago izotz-partikula mikroskopikozko forman, estufaren hozmindura deseginez. Mila eta bostehun biktima gehiago, bera iritsi zen eguneko inpresio berberak jasaten dituzten mila eta bostehun gizon. Bide desberdinetatik emaitza berberera dramatzaten inpresioak: beldur, kuriositate gaizto eta zorabialdizko nahasmena.

Eremua eskualde oso bateko muinorik altuenaren gainean kokatuta dago, non terrenoak bat-batean solidifikatu den itsaso zakarraren antza daukan. Ez dira mendiak, baizik ondulazio gutxi-asko nabarmenak, aldiari behin baso-zati sarriek jantzita, eta urtealdi hartan zabalera elurtu handien lisotasun zurian bistakoak. Neguko lauzpabost hilabete paseak, beti agertzen da belaze aberats eta izugarri handi batzuetako belar berdea, eta etxeak, isolatuak baina ugariak, buztinezko teilatu gorriekin.

Egun hartako lainoak bigarren mailetako soslaiak lausotzen ditu, eta zerua eta lurra etenik gabe batzen dira beirazko grisean, hotzaren kolorea bera.

Bidea luzea eta nekosoak izan da, eta mila eta bostehun gizonen segizio amaigabea kanpoko itxituraren arantzazko hesira iritsi da azkenean. Izotz kixkali eta irristakorrezko bidezidorretik igoz, igoaldiak ez dio zailtasunik aurreztu ekipajez eta beldurrez zamatutako jendeari. Goardiak etengabe oihuka eta xaxaka ibili dira bide osoan, martxa bizia izan da eta pertsona batzuek gogotik jaso dute. Ez da harritzekoa, beraz, eremuko sarreran, nekea eta angustia jendetzaren espresioan, ibilkeran eta isiltasunean islatzea.

—Etxean gaudek —esan du Francesek ironiaz.

Esparruko hormatzarra erdi eginda dago. Harrizko hormen zati izugarri handiek egoiliar berrien espiritua gaingitzen dute, ordu zurbilak tonalitate urdinska hartzen du. Harresien monotonía hautsiz, dorre batzuk, eurak ere amaitu gabeak, tarte erregularretan banatzen dira, egunen batean, behin bukatuta, orain egurrezko garita hondatuetatik baino erosoago zelatatu ahalko dute zentinelek. Harresien bestaldera, pabiloi-barraketako teilatuen diedro elurtuak azaltzen dira.

Eraikitze-bidean dagoen hormaren oinetan, kanpoaldeko arantzazko hesietara ematen duen sarreratik bertatik, langileen soslai ttiki beltzak bistaratu ahal dira, seguru asko internatuak berauk, zeinen zeregina presondegia bera gotorrago egitea baita.

Kontrol-barra altxatu da igarobidea libre uzteko. Etorri berriek aski begi ez dauzkate xehetasun guztiak jasotzeko. Haientzat ez dago hotzik, nekerik, zama edo jasotako kolpeengatiko minik, baizik beste sentimendu guztien artean gailentzen den kuriositatea. Sekretua, jende-multzo haren zentzumen kitzikatuetara irekitzen ari da. Kontzentrazio-esparru batek –inork ez du jadanik zalantzan jartzen hori besterik ez dela– ongietorria ematen die bere erregimen beldurgarriaren jantzi ederrenez hornituta. Propaganda antifaxistan aski hitzeginak ziren kontzentrazio-esparru alemaniarrei buruz, baina segur aski iritsitako inork ez du halako gotorleku-itxuraz imajinatu izango.

Errepidea ehun metro areago doa aldapan gora, eraikuntzaren alde guztia inguratzen du esparruaren ateetaraino bertaraino. Segizioak, formazioa desegin gabe, suge beltz bat bezala jarraitu du bide elurtuan aurrera. Larru errearen sunda atxikitzen da zintzurretan. Emili et Francesc isilik daude luzaroan. Aldian behin burua, normalean jaitsita bizkarrean daramaten zama orekatzeko, altxatu, eta eskaintzen zaien paisaia bakanaren bariazioetan jartzen dute arreta. Emili izan da hiruzpalau gizonetako talde bat bistaratzen lehena –ahalegin handia behar izan zuen gizontzat *hartzeko*–, zeinak, bigarren mailako bideren batetik errepideraino iritsiak, zutabea pasatu arte itxaroteko zain dauden.

—Begira –esaten du.

Urdinez marratutako zarpailez jantzita, kapelu berdin marratua belarrietaraino sartuta, elur-haizeak erretako aurpegiak, ezpainak eta sudur-punta hotzak ubelduta, gorputz osoa uzkurtuta dardar batean, gehien erakartzen duena argaltasun kadaberikoa da. Hezurrak, azaletik ez ezik, estalgarri dauzkaten zarpailetatik irteten dira. Galtza laburregietatik gehiegi hanpatutako orkatilak eta zurezko zorua duten oinetakoak, zabalegiak, ateratzen dira; zoruetara itsatsitako izotz-puskek ziurgabe bihurtzen ditutze giza oskol haiek.

Francescek birao bat bota du.

Eskeleto bizidun haietako batek ahoa zabaldu du:

—*Espainiarrak* al zarete? –galdetu du ahoskera andaluziarrarekin.

Atzerapenez-edo atera zaio ahotsa, eta ez dator bat haren potentzia zerabilen arranpaloarekin. Inor ez da ausartu hari erantzuten. Gizonak nekatu arte errepikatuko beharko du galdera. Haren ahotsak eta haren figurak, ilararen buru izatera behartuak, mila eta bostehun gizon kondenatuta dauden existentziaren laburpenaren irudia ematen diete etorri berriei.

—Arretaz ikusi al duk? –galdetzen du azkenean Emilik.

—Zelako aurpegiak! –adierazten du Francescek, bisioak ikusi dituela sinistuta. Eta gaztelaniaz mintzo dira.

—Haiek bezala bukatuko diagu.

—Antza denez, gaixoak dituk.

—Kontsolagarria.

Poliki-poliki abiatu dira jendearen iruzkinak, ahots-crescendoan, ezustetik atera bezain pronto. Ahots isilak, eztarri estutuetatik aterata bezala, ilunpeari eta bakardadeari beldur dioten haurraren ahotsak. Inora ez daramaten hitzak, hitz egin eta entzuten dutenak oraindik bizirik daudela ziurtatzeko afanarekin esanak eta entzunak, oraindik ez direla arropa marradun haien ez eta bisaia espektral haien jabe.

—Hau hiltoki bat da!

—Kabroiak!

—Hil gaitzate behingoz!

—Kriminalak!

—Arratoi bat ere ez da hemendik aterako!

Beste preso batzuk, aurrekoen antz handikoak, ageri dira, ugariago eta aldi gehiagotan. Presoei dagokien erritmo mantso eta astunean egiten dute lan denek. Errebeldia pasiboa, abantailarik atera ahal ez den inposatutako lan baten aurrean eduki ahal den bakarra, behar bada akidura progresiboa. Batzuk elurra jasotzen ari dira pala eta erratzekin, beste batzuk materialak garrantzen andeetan, eta hirugarren batzuek harriak daramatzate lepoan, sinestezinak, hain baitira erraldoiak, eta sartu-irten dabiltza amaigabeko eraikinetan. Beti oinak arrastaka, hotzez uzkur, egun, aste eta hilabetetako saminak zigortutako begiradak. Zutabeari begira ari dira denak, espedizioak ahalbidetzen dien atsedeen-tartea aprobetxatuz. Begirada itzaliaren bitartez, ez da zaila erruki eta poz arraroz gauzatutako espresio estragizatiarra sumatzea. Orain zuek zatozte —pentsatuko dute—. Zorigaitzokoak zuek! Ikasiko duzue ze ogi-mota jaten den hemen.

Lantalde bakoitzean lanabesik gabeko pertsonaia bat ageri da, marraduna hura ere baina arropa berriarekin, biserako kapela beltza edo urdina alemaniarren gustukoa, eta maiz gomazko bastoi edo hodi bat eskuan. Norbanako hauek beste preso-klase batekoak dira zalantzarik gabe, izan ere, itxura guztien arabera, agintea baitaukate. Euren eztarriko hots zakarrek, etorri berrietako inork ulertzen ez dituenak eurek, lana aktibatzea beste xederik ez daukate. Emilik pentsatu du: *cabo de varas* izango dira. Ez ditu lehenago inon ikusi, zineman ezezik.

—Toki guztietan zakur-aurpegi berbera —ozen, iruzkina eginez.

Errepidea pikoago doa eta, alde banatan, barraka batzuk daude, zeinen inguruan inurritegi antzeko animazioa dagoen. SSen uniforme berdeak dira nagusi. Segur aski troparen dependentziak, gelak, sukaldeak. Igoeraren buruan, urrutitik bistaratutako hormatzarra. Bebarria enkuadratuz, bi dorre handi, beiraztatuta, txinatar tankera lausoko teilatuekin. Ezkerreko aldean horma bat-batean amaitu eta arantzazko hesi elektrikoak jarraitzen du, non portzelanazko isolagailuak nabarmentzen diren. Behin atea pasata, iritsi direnak patio handi batean, edo hobeto esanda, errepide-zati zabalago batean sartu dira, espaloi eta guzti, zeina, barraka baxu eta uniforme artean alde batetik, eta pabiloitzar tximiniadunen artean bestetik, bideratzen den. Tximinia hauetatik etorriko da eztula eragiten duen larru-ke garratz hura. Kanpai-, txistu- eta oiuhu-zalaparta arraro batek harritu ditu etorri berriak. Alde guztietatik korrika datoz *cabo de varas* haien antzeko pertsonaiak. Antolakuntzako maniobrak zuzentzen dituzten Ssko ofizial edo sargentuen aurrean tente jarri, kapela kendu eta buru soilduak erakusten dituzte, posizioa bezain tente; keinu mekanikoz, parodia baten beste exajeratuak, aginduak hartzen dituzte eta, takoi-kolpe batez, bi silabako hitz bat jaurtitzen dute beti. Gero itzuli erdia eman eta barreiatu egiten dira, gora eta behera desesperatuki lasterka, eta fusil-tiroen soinua daukaten oiuhu lehorrak eginez, handik gutxira ostera aurkeztu eta txontxongilo-emankizun hura berrabiatzeko.

—Ez da zoroetxe bat izango? —Francescek, galdezka.

—Ondo doakie itxita egotea.

Eta zenbaketak etorri dira, berrogeita hamar aldiz errepikatuak, eta inork erantzuterik ez dauzkan galdeketa arbitrarioak, inork erantzuterik ez dauzkanak ez dutelako hizkuntza ezagutzen eta belarrondokoka amaitu ohi direnak. Artalde-zakurrek, gelditu barik harat-honat, are amorratuago egiten dute zaunka aginduak ematen dituzten uniformatuak hurbiltzen direnean. Eromen-errepresentazio honen une jakin batean, solista baten ahotsa altxatu da, gaztelaniaz tonu afeminatuarekin mintzo den preso alemaniar batena. Eremuko interprete ofiziala da.

—Esterminiozko esparru alemaniar batean sartu berri zarete, esan du lasaikiro. Lan egin eta obeditzera etorri zarete hona eta, naturala denez, ezin izango duzue protestarik egin zuen artean ohitura denez. Ez duzue ezer galdetu beharrik, dena dago debekatuta, eta espabilatuak direla uste dutenentzat, oso gogorak dira zigorrak. Gogoratu irrist

txikiena batzuetan bizitzarekin ordaintzen dela. Imajina dezakezuen diziplinarik zurrunena ezarriko zaizue hemen; barre egiteko gogoa kenduko zaizue betiko...
—*Maricón!* —esaten du Emilik.

II

“Block 12”, dio ate gainean. Etorri berriak taldexkatan dabilta iritsialdiko formalitateak betetezeko. Bada zatitxo bat Emili eta Francesc txandaren zain daudela. Ilaratan elur gainean, hainbat emozioen ostean, ahoa lodi eta ezpainak idor bero ez jateagatik, nekearen zama hertsigarria sentitzen hasiak dira. Bizi-bizia da hotza, elurra zati txikitan erortzen ari da gero eta irmoago, eta oinek, geltokitik korrika igotzeko ariketa bortitzaren beroa galdurik, ostera sentitzen dituzte azala ziztatzen duten orratz izoztuak. Maiz, esparrura atxilotu beteranoak iristen direnean, bi adiskideek aukera izan ohi dute behatzeko, konturatu baitira ezen, ondo jantzirik badaude, inork ez diela deus esaten, baina, alderantziz denean, belarrondokoka uxatzen dituztela. Atentzioa erakartzen du igarotzen diren batzuk espainiarrak direla; holakoetan norbaiten edo herri jakin batekoen berri galdetzen dute, eta nagusitasuna nabarmenduz erantzuten diete egindako galderei, etxeko ohitura eta ekanduen jakitun balira bezala. Bakoitzak bere erara azaltzen ditu gauzak, baina lasai asko kontatzen dituzte denek pentsaezinezko izugarrikeriak.

Oso putzu sakonean eroriak direla sentitzen dute berriek.

—Dena kenduko digutela diok?

—Ezer gabe utziko zaituztete. Hemen dena zagok debekatuta.

—Esan ziguk *marikoi* hark, bai.

—Baina egon izan ez balitz bezala. Ez harrapatzea da kontua...

—Bistak agintzen dik.

—Argazkiak?

—Ez eta argazkirik ere.

—Zergatik ez dizkidak hik gordetzen?

—Ez nauk izorratuko. Ez nauk ergela.

—Eta tabakoa?

—Orain utziko dizuete baina barrakoira igo ahala *Blockältestek* kenduko dizue.

—Eta zergatik ez argazkiak?

—Galdetu Hitlerri.

—Eta dirua? –galdetu du atxilotuen esparruetan asko irabazitako batek.

—Zer egingo huke?

—Kantinan erosi.

—Betun-kutxak eta orraziak baino ez zaudek.

—Orraziak? Denak kaskamotz zabiltzak-eta!

Ezer galdetu gabe, esparruko legeaz jabetu dira bi adiskideak. Zeramatzen guztiaz gabetuko dituzte.

—Eman ohi duten pijama horrekin hotzez hilko gaituk –dio Emilik.

Daramatzaten puskek ez dute asko balio. Jantzi militar zaharra, ehun latzekoa eta gaizki garbitua, atxilotuentzako esparru bezala atondutako kaserna frantsesetan jasotako liburuak, sukaldeko tresnak, zapata maiztuak... Ezer ez eta asko. Daukaten guztia.

—Nire marrazteko materiala –dio Emilik hasperenka.

—Eska ezak gordetzen uzteko. Auskalo.

Atxilotu frantses batek bi lerro banandu ditu ilaratik; sartzeko txanda da bi lagunentzat. *Blockeko* bi hegaletako logelara igaroko dira. Logela izatetik izena baino ez dauka; ez dauka altzaririk, arropa, motxilak, pakete, maleta, plater eta kantinplora sakabanatuak baino ez, zeinak bi atxilotuk metatan sailkatzen dituzten nagiki. Izerdi-sunda nazkagarriak betetzen du airea, alderik alde irekitako leihoak ez baitira aski hura mugitzeko. Burua zuritutako atxilotu alemaniarrak oihuka dabilta aginduak ematen, ostikoak banatuz.

Emilik eta Francescek txoko bat bilatuko dute lasai erantzeko. Besoetan eraman zezaketen guztia batu eta, erabat biluzik, oilo-ipurdiz eta hortzak karraskatuz alboko jantokira igaro dira. Taulak zeregin burokratikoetarako moldatuta daude; atxilotu-idazkari batzuek filiazioak hartzen dituzte eserita. Beste atxilotu batek paperezko zaku bat ipini du non ekipaje bakoitzeko altxorra edozein moduz sartzen den. SS batek bijilatzen du operazioa, baliorik duten gauzei begiradaxoa bota, eta hala iritiz gero, poltsikoan sartzen ditu. Emilik marrazkiak egiteko trasteak eta lanen bat edo beste gordetzen dituen karpeta erakutsi dizkio. Mimikaz saiatu da adierazten gorde egin nahi dituela. SSk marrazkiei erreparatu die:

—*Gut, prima!* —onartu du harengandik itxarondako gorazarrea delakoan. Zakura joan dira arkatza, paperak eta karpeta.

Artean biluzik, gerrikoa lepoan eta zeukaten tabako-apurra eskuetan, *Blockaren* beste hegaleria pasatu dira. Jantokiak kanpamentu nudistaren hileapaindegia dirudi. SS batek poltrona batean jesarrita mediku-azterketa pasatzen ari den itxura egiten du, eta begirada huts batekin denak onartzen ditu. Adamita behartuak ilaran jarri beharra daukate depilazioa egiteko ardura duten hileapaintzaile batzuen eskuetara iristeko, eta haien txanda iritsita, aulki motz batean esertzen dira burua zuritu arte; gero zuzen jarri eta bularra eta galtzarbeak eskaintzen dizkiote makinari; azkenik, aulkitxora igo eta alde pubikoa soiltsen zaie. Leihoak itxi eta zarratuta, medikuak hozteko beldur delako, zorabiagarri bihurtzen da gorputzen usaina.

Hileapaintzaile espainiar bat topatu du Emilik, gremiokoei dagokien hitzontzikeria duena. Gizonak ez ditu erantzunak exijitzen.

—Gaur bai etorri zaretela andana —dio makina burutik pasatuz—. Laster denok espainiarrak izango gara esparru honetan. Nongoa haiz? Katalana, ez da? Hemen ez da oso ondo egoten, batik bat orain neguan. Hotz handia egiten dik. Ni ezin nauk kexatu. Ofizioari esker ez nauk harrobira joaten. Hi ez al haiz hileapaintzaile? Ez? Hileapaintzaileak oro moldatzen gaituk.

Makinak era jasanezinean urratzen du azala. Emili uzkurto eta negarretan hasi da.

—Altxa hadi —agindu dio hileapaintzaileak torturaren lehen zatia bukatutakoan.

Marrazkilariak eskua burutik pasatu du hazkatzeko gogoz, eta konturatu da ile batzuk beste batzuk baino luzeagoak geratu direla.

—Tresnak, badakik —desenkutsatu da gizona. Berdin zio, hemen ez zagok harrotzerik.

Emilik, aulkitxora igo eta izter-zabal jarrita:

—Gorantz, eskatzen du depilatzaileak—. Horrela... Jendeak gose handia pasatzen dik. Asko hil dituk. Espainiarrak, erortzeko zorian daudenean, beste esparru batera eraman ohi ditiztek. Orain, eskubira. Oso ondo. Atsedeen-esparrua dela, ziotek. Irain bat da. Hantxe errematatzen ditiztek. Bukatzen ari nauk. Lehen egunak oso gogorak dituk, baina ohitura hartzen da. Ala hil. Zori-kontua eta moral-arazoa. Bost urte dituk hemendik nabilela. Ongi, alde egin dezakek.

Emilik jaitsi eta gorputzalde martirizatua hazkatzten du.

—A, bibotea daukak. Debeekatuta.

Marrazkilariak ezin izan du nazka-dardara ekidin. Bere gorputzaren txoko guztiak eta ehunka gorputzenak miatu dituen makina bere aho gainetik pasa da gupidagabe.

—Ez hondatu aurpegi hori —hileapaintzailearen aholkua—. Iguina luxu bat duk hemen.

Behin jantzi marraduna soinean, Francescek, besteek bezala, alboko *Blockera*, 13.era, hura baita haren destinoa, daraman kalera ematen duen leiho batetik jauzi egin behar izan du, eta haren aurretikoak bezala egurrezko zapata zoladunek traizionatu dute: elur gogortua zapaldu ahala ziplo erori da. Zain dauzkan lagunen algarari esker daki, azkenean, iritsi dela lasaitasun-pixka bat, kirioak laxatu daitezkeela. Kalea betetzen duten taldeek goizeko gertakariak komentatzen dituzte ahalik eta umorerik onenean. Ezer onik aldarrikatzen ez duen buila zaratatsua, baina baimentzen zaien bakarra.

Emiliren ahotsa entzun du, deika. Aurpegietara begiratu behar izan du hura aurkitzeko eta, nekez eta lanez lortuz gero, ezin izan du barrea ekidin mundu guztiaren antzera. Neguko uniformeak agortuta, udakoak baino gehiago babesten ez duten arren ilunagoak izanik ilusioa erakartzen dutelarik, pijama marradun batzuk eman dizkiete, alde guztietatik adabatuak, estuegiak edo zabalegiak, laburregiak edo luzeegiak, kontraste bitxia egiten dutenak gero eta ugariagoa den elurrarekin.

—Halako piura!, egin du oihu Emilik.

—Hirea, denona. Zebrak Artikoan. Mozorro ederra.

Eta modelo baten keinuak parodiatuz, takoi en ganean biratu du. Taldeak algaraka egin du barre. Marrazkilariak besotik oratu du itzuli erdia emanarazteko. Francescen jakak orban handia dauka bizkarraren erdi-erdian.

—Gaizki garbitutako odola zirudik.

—Balitekek —zirkuluko batek—. Errazago odola tomate-saltsa baino.

Bi adiskideek taldetik aldendu eta isilik eman dituzte pauso batzuk.

—Hau patibulo kolektiboa duk —Emilik.

—Ez naik harritzen. Zerbait bagenekian.

—Ez genian erabat sinisten.

Eskailera batzuk igo eta beste betelan batean daude.

Alanbrezko hesiek galarazten dute aurreko kaleetan sartzea. Bestaldean, atxilotu eskeletikoak eta erdi biluziak ageri dira. Eslaboak dirudite. Denek begiratzen dituzte, inork ez die deus esaten. Pixka bat harago, muturreko kalean, etorri berrien multzo handia dago, hesi arantzadunerantz bideratuak, eta zarata izugarria egiten dutelarik.

—Espainiarren barrakoa izango duk —dio Emilik. Badira sei hilabate hemen daudela espainiarrak eta heren bat desagertu da. Beste esparru batera, honen sukurtsalera, eramaten ditiztek, eta multzoka esterminatzen ditiztek han.

—Esan zidatek. Egia izan behar dik, baina ez diat horretan pentsatu nahi. Etortzen ikusi, ulertzen diak. Beti agertzen da zuloren bat non uzkurto eta zorteari itxaron.

Emilik eszeptizismoz egin du barre.

—Gerrak ez dik asko iraungo —insistitzen du Francescek. Gogoratu Grazianiren inpotentzia-deklarazioak, egunkaria eskuetan.

Tartetxo bat eta irribarrez esan du:

—Animo, Emili. Badakik: abuztuan Sant Feliun, herriko festa nagusian.

—Ez hago burutik sano.

Jendea ugariagoa den kale-bururaino iritsita, izugarria da begien aurrean zabaldutako ikuskizuna. Zorigaitzoko haietatik inork ez dauzka berrogeitahamar urtetik gora (konpainia frantziarretan lan egiten hasteko gehieneko adina, eta handik datoz denak). Baldintza haietan, agure hil hurrenak, zimelduak, momifikatuak dirudite. Hotzez hiltzen ari dira, kolpe gogorak ematen dizkiote elkarri bizkarrean, eta bisitariekin mintzo dira etengabe, herri-kontuetaz, esparruko izugarrikeriez, ohiturazko tonu lasaian, garrantzizkoa sentitzeagatik ia alai. Haietako gehienek, jatekoa eskatu ordez, zigarrokinak eskatzen dituzte.

—Goazemak —dio Emilik—. Goazemak, mesedez.

Lantzean behin elur-malutak jausten dira. Hodei baxuek sabai konpaktoa osatzen dute.

—Ke madarikatu hori! —dio une batzuen buruan, errausketa-labearen tximinian begiak iltzatuta—. Luze arnastu behar baldin badut, erotuko nauk.

13. *Blockeko* egoiliar berriei baimena eman zaie afaldu baino pixka bat lehenago logelan sartzeko. *Blockältesterrak*, *Popeye* ezizenez ezagutuak, August interpretearen bitartez esana du babesean sartzeko uzten diela zarata ez ateratzeko baldintzapean, bestela, kalera atera eta egun osoa pasatuko dutela han.

Ilara amaiezinean, etorri berriak alfonbra modukoa osatzen duten zakuen gainean pasatu dira, zapatak eskuetan, burua estali gabe eta isilik, logela ustu, izozturantz, non ohantze eta burusi-pila dauden erdi-erdian.

Gela txikiegia delarik hainbat jenderentzat, giza saldoaren lurrinak leihoak estaltzen ditu, eta gizonak laster gaingitu dute hotza. Lehen unetako isiltasunari ahopekako elkarrizketak egin dio leku. Egoera desesperatuak alaitasun faltsua dakar, behar bada edozeren gainetik bizitzeko premiagatik; histeria hazkor eta kutsagarriaren modura, eta goraka doa elkarrizketen tonua. Une baten buruan, benetako buila dago gelan. Baten bat zigarrotxoa piztera ausartu da. Laster ireki du atea *Blockältesterrak*:

—Ixooo, esan dut!— egin du oihu ahots txundigarritz.

Eta sartu egin da. Eskuak bizkarrean, enborra aurrerantz okertuta, mantso eta urrats handika ibiliz, haren figura patibularioak berehala berregin du gizonak bromaz eta berriketaz estali nahi izan duten beldur-atmosfera. Tximuantzeko morroia da, prognatoa, edozein portu-hiriko behe-mailako produktua. Moilako zamaketaria edo tabernako pintxea. Haren alemaniera ertzez eta argotez betea da. Ahoaren zirrikituetatik zipriztintzen du hitz egitean. Lurretik altxa eta ihesean korrika ateratzen direnen zurezko zapaten hotsa baino ez da entzuten.

Popeyeren atzetik Augustek imintziaz adierazten du abisua emanda zeukala. Alemaniarra, isilik, abere-tratulari bat ilarako alerik onena aukeratuz bezala pasatzen da gizonen aurrean. Ez da geratu arropa-metaren aurrean pasa arte. Atseginez piztu dira haren begiak.

—Interpretea, interpretea —egin du oihu eroaren pare—. Zeinek egin du hau?

Mutur batean urratutako burusi bat seinalatu du esku bateko hatz erakuslearekin.

—Nor izan da? E? Nor? Ez al dakizue hau sabotajea dela?

Hitza modan dago Alemanian. Plater hautsia, ate-danbada bat, kasko baten galera, edozein gauza da sabotajea.

Popeyeren galderak itzultzen ditu, baina inork ez du erantzun.

—Bursi hau tarte honetan apurtu da —insistitzen du *Blockältesterrak* sutan—. Atera dadila autorea. Bestela...

—Ez dira eurak izan, antza —esan du Augustek alemanieraz—. Beldurrez hiltzen daude. Inor ez zen ausartuko...

Sua abiarazteko hitz hauen zain egongo balitz bezala, oihu, mehatxu eta irainez lehertu da *Popeye*. Jendearen tartean bira egin eta urrats handiz gorantz eta beherantz, jarrera teatrala erakutsiz, laidoak botatzen ditu. Jendea kuriositatez ikusten du ikuskizuna.

—Laster jakingo dugu. Ez dadila inor atera.

Blockältesterraren laguntzaileak (*Blockaren* hegal bakoitzeko bana) ehunka gizon haiek miatzeko operazioa antolatzeke aurkeztu dira.

—Aitzakia bat da zuek erabat arpilatzeke —azaldu du Augustek. Espedizioa dagoen bakoitzean gertatzen da hau.

Gizonak pasatzea lortu zuten “altxor” guztiak, tabakoa, pizgailuak, patrikako labanak, luma estilografikoak, argazkiak, xaboi-puskak, laster asko metatu dira gelaren erdian. Bursi-zatia ez da agertzen. Augustek esana zuen errudunen bat izatekotan ez salatzeke bere burua, segurua baitzen heriotza.

—Kalera —esan du *Popeyek*—. Ileretara! Hotza irenstera sabotajearen autorea azaldu arte.

Augustek ez du astirik izan ordena itzultzeke. Hiru alemaniarrek ukabilkada eta ostikoka hasi dira han-hemenka. Ateak, aldi berean irten nahi duten berrehun gizonentzat estua, birrintzeke moduan egiten du karranka. Batzuk erori eta beste batzuk zapaldu egin dituzte.

Behin bakarrik, harrapakina batu eta jantokira eramaten dute aukeratzeko. Atarian elurra da, erruz. Inork ez du arratsalde erdira arte bazkaldu.

Hankak luzatu! Luzatu erabat, desartikulaziora arte. Hankak luzatzerik ez duten berrehun gizon. Bata besteari oztopatu, madarikatu, gorroto.

Esparruko arduradunak dio ezen, ordu hura iritsita, lo egin behar dela, eta badira minutu batzuk kanpaiak isiltasunera deitu duela. *Popeyek* argiak amatatzen ditu, artean kokatu gabe daudenei erreparatu gabe. Kokatzeko zirrikitu bat topatzeko saiatzen direnen eta hainbat nekez lortutako tokitik mugitu nahi ez dutenen arteko sesioak, protestak, askotan isekak, mututu egiten dira, *Popeyek* araudiaren edozein urraketa zigortzen duen ahaleginen eraginez. Arratsaldeko ilara egin berria denez, orduak elur gainean mugitu ezinik, zalapartarien ahotsak ozeneziak direnean, alde guztietatik sortzen dira zuhurren ixkxoak.

Atzeratuak kokaturik, lasaitasun erlatiboa nagusitu da. Batzuk arnasa zaratatsu hartu edo zurrungaka daude, beste batzuk ezutlaka ari dira, baina marmar horiek bizitza ematen diote isiltasunari, lurrunak, hautsak eta izerdiak amaierarik gabeko gauari dentsitatea ematen dioten gisara.

Lurrean zabalduetako ohandze haietan gorputzen iragazgaiztasunaren printzipioa gezurtatzen da. Atzekoz aurrera jarritako gizonen multzo haren gaineko burusi sakabanatuek zorua uniformatu eta alfonbra izugarri handiaren antza ematen diote, non berrehun dekapitatu leudekeen.

Eta hala ere, lo egiteko ordua da, kontzentrazio-esparrurik gabeko mundu hobeetara ihes egiteko unea; une laburra, labur bakarra, lo egiteko zortea dutenentzat.

Nekeak neke Emilik ezin ditu begiak bildu. Leihoetatik sartzen den argi eskasak, leihatila irekietatik irtetea lainoa bezala zuritzen diren lurrun-sortak, alde guztietatik datozen zurrungek, pixa egitera ateratzen direnen zapaldurek, dena mantentzen dute esna, lo egiteko ahaleginak egin arren. Beharbada horrexegatik, ahalegina egiten duelako, trufariago egiten dio loak ihesi. Pentsamenduak desordenatuki dauzka lanean eta behar zuen oreka, izpiritua lasaiago edukiz lortu dezakeena, dohaneko irudi-superposizio bat baino ez da, jostari joan, itzuli eta osteria alde egiten duena, arabesko obsesiboaren antzera gurutzatuz.

Haren aldamenean Francescek sakon hartzen du arnasa. Lo da haren kuraiak egiten dion oparia. Amaiera zoriontsuan sinisten du; soldadu ingelesez aurrerapen berehalakoan eta zapalduen matxinada nazionaletan. Alemanen artean usteldura-sintomak ikusten daki, horrekin dena esanda dago. Emilik irribare egiten du adiskidearen fede inozoan pentsatzen duenean. Esparruaren errealitatea ametsen gainean inposatzen da astun. Hotza, gosea, nekea, depauperazio organikoa, hantxe daude erasokor. Agonia luzea zalantzarik gabe, baina laburragoa, gerra baino askoz laburragoa.

Esparru bereziko alanbradaren ondoan zigarrokinak eskatuz izotz gainean dantzatzen ikusitako agure haien irudiak mamuen gisan hurbiltzen dira lotien luze-zabalera, Emili une honetan izerditzen eta dardarka ari den txokorantz hain zuzen. Indartsuago itxi ditu begiak, ikuskizuna aldendu nahirik, eta berrehun gizonen isiltasun nabarmenak mugagabetasun-inpresioa ematen dio. Bera ere fluktuatzen ari da espazio itogarri hartan, non arnasa hartzeak benetako ahaleginak eskatzen dituen.

Bere ausentziaren sentimendu etereoak dauka. Gorputz etzana utzia dauka beste gizonen artean, baina horregatik ez dio uzten unibertso ostalari izateari. Hazi, euren artean izarrek uzten duten hutsunean hazten da, eta zelistia osoa argizko aureola handian batzen da bere intimoak enmarkatuz. Matilde, bere emaztea, barre egin eta bakar-bakarrik dantzatzen hasia dela dirudi, berak behin ikusi bezala, eta haren oinetatik urrundutako lurretik, erritmo lauso eta solemnea iristen da, timbal goibelen antzekoa. Traste baten barruko belaki-multzo batetik San Martin arkuko koloreak isurtzen dira, likido, eta *Popeye* gogoratzen duen gorilaren keinuak dituen pertsonaia batek makila batekin jo eta haginik gabeko ahoa irekitzen du, abestu nahiko balu bezala. Baina gizonen artean abandonaturiko gorputza mugitzen ari da eta Emili atxilo sentitzen da

berrero toki elastiko batean. Ezin hankak luzatu hainbat hilotzen artean! Ezinezkoa mugitzea, altxatzea, korri egiten, hurbiltzen ari baitira zigarrokinak eskatzen zituzten agure argal haiek. Zapaltzeko zorian daude, ez baitute begiratzen oinak non ipintzen dituzten eta begiak leihatilen artetik ateratzen ari den lurrunean finkatuta dauzkate. Haietako baten oinak sentitu ditu... Oihu egiteko gogoia dauka, eta egin egiten du, oso ozen.

Izardiz blai esnatu da. Mukosak idor, ahoa zabaldu behar du bere angustiak eskatzen duen airea irensteko. Burua amorrutik mugitu du arroparekin egindako kuxin inprobisatuaren gainean. Gorputz osoa minbera du eta burua lehertzeko zorian. Orduantxe sentitu du erredura arraroa izterondoan eta galtzarbeetan. Hazka egin du. "Depilazioa", pentsatu du. Haragi eta azazkalen artean arroz-ale baten antzeko zerbait atzeman du, bigun eta biziduna.

—Arkakosuak —pentsatu du nardaz.

Francesc esnatu egin da.

—Zer da?

—Ez al duk arkakosurik aurkitu?

—Egik lo eta utz itzak bakean.

Eta bi eskuak, atzekoz aurrera lo dagoearen hanken gainean eta burusi kirastuen gainean, euren artean topatu dira.



Augustek ez du ondo ezagutzen alemaniera, baina gizonak tratatzen bai. Bada garaia *Popeye* konbetzitu nahirik dabilela kaleko hotza bi orduz jasaten ari diren gizonak sartzen utz ditzan.

—Halako gizonak, zure espainiarrak! —*Blockältesterrak* bromatan. Bost minutu eguratsean eta elkar hiltzen daude.

—Bost minutu? —interpreteak, irribarrez-. Erlojua gelditu zaizu! Baina hartuko dut mendekua Espainiara zatozenean. Bost minutu hauek eguzkitan pasaraziko dizkizut. Ondo larrutuko zaizu sorbalda!

—Ez egin hainbeste propaganda zure eguzkiari buruz —idazkariak. Saharan bi urte pasatua naiz eta ez zait larrua aldatu.

—Sendoegia daukazu.

Asoziala izateagaik atxilotutako alemaniar bat da idazkaria, Legio frantziarrean egona eta Espainiari buruz dakien gauza bakarra Uzkudun izeneko boxeolari baten existentzia da. Espainiako Tertzioetan egonaldi imaginario baten era guztietako xehetasunak emanaz bereganatu du Augustek, ofiziala izan omen zela ziurtatu diolarik. Tipo honek atsegin du afera afrikarra, eta Augustek hari erantzuten egotea gaian aditua balitz bezala eraztun bat bezain egokia egiten zaio. Gizon honen adiskidetasunaz profitatzen ari da August —izan ere jendea *Kommandoetan* (lantaldeak) banatzeko ardura daukanez, izatez presoen bizitza dauka bere eskuetan—, kide ahulduenak toki onenetan kokatzeko.

—Hotzari egokitzea komeni zaie —dio *Popeyek*-. Ez dira egun osoan barraka barruan egongo. Lanera aterako diren egunean ez zaie arraro egingo.

—Bai —idazkariak, txantxa-airez lagunduz-. Utz itzazu olgutzen; horrela ez dizute burukominik emango.

Augustek anekdota zikina azaldu du eta alemaniarren barrea eragin du aldi batean. *Popeyek* baimena eman du.

—Esaiezu, zalapartan badabilta, dozena erdi bat akabatuko dudala.

Ilara jantokitik arauzko baldintzetan igarotzen ari da. Hiru egun dira zorigaiztoko hauek eremuan daudela eta oraindik ez dira lanera atera, baina goseak eta hotzak triskantza egiten ari dira eutsigarritasun ttikieneko organismoetan. Batzuek aurpegia zigorrek markatuta daramate, zuhaitzetako ostoen gisara dardar batean daude adindunenak, eta, denak, salbuespenik gabe, irrikaz begiratzen diote *Blockeko* alemaniarrek eskusiboki erabil dezaten jantokiaren erdi-erdian kokatutako estufa goriari. Badaude segundo bat gelditzen ausartzen direnak, aurretik pasatzeko unean doi, eta esku hotzituak luzatzen dituzte. Hori berori delitu bat da.

—Ez gelditu estufa parean —ohartarazi du Augustek lelo baten gisara.

Arima matxinatuta sartu da Emili kaletik. Jasan behar dituzten tortura gehienen erantzuleak ez dira SSak, baizik preso alemaniarrek, kapritxosoak eta eroak. Beste barraka batzuetan presoek tratu erlatiboki humanoagoa izan ohi dute eta barrualdean pasatzen dute lanekoa edo formaziokoa ez den denbora-tartea. Haren aurrean, ilaran, berrogei urtetik gorako gizaseme bat sartu da. Gerra-atxilotuen esparrutik ezagutzen du Emilik, eta adiskidetasun zintzoa dauka harekin. Sufrimenduek lehertuta, erdi gaixorik, gizon hau hotzak birrinduta dago. Modu konbultsiboan igurzten ditu eskuak eta sudurrari tantak darizkio etengabe. Zorigaiztokoak ez du kontuan hartu *Popeyeren* traza txarra, zeinak, estufaren alboan kokatuta, bere altxorra gordetzen duen.

—Ez gelditu —esan du Augustek.

Besteak ez dio entzun edo ez du ulertu. Gelditu ahala zartako batez jaurti du lurrera alemaniarrek.

Emilik pentsatu gabe erreakzionatu du. Erasotzailearen aurka oldartu eta buruan zapata-kolpe bat emanez, zabukatu egin du. Idazkaria begiak paperetatik altxatu eta eszena barregarria ikusteko prestatu da. Azkenean Uzkudunen antzeko bat espainiarren artean. Harridura-une bat izan du Augustek: “Zertan ari haiz, doakabe hori?”

Popeye erreakzionatu eta erasotzaileari begira dago, harridura, miresmena eta basakeria nahastuz. Bat-batean eraso egin dio. Zapatarekin defendatzeak ez dio deusetarako balio izan: alemaniarrek besoa bihurritu dio, aurpegia odolez gorri eta haginak amorruz estututa. Zapata astunki erori da lurrera.

Emili ez da gizon ahula. Batik bat altua, bere haragiaren argaltasuna ez da erkintasunaren seinale. Giharren fineziak zalutasun labainkorra ematen dio *Popeye* astunaren kolpeak saihesteko. Halako batean, ordea, aurpegian hartu du kolpea betebete. Lurrera jausi da aulki eta mahaien zalapartarekin. Ia konorterik gabe ziztada bat sentitu du ezkerreko aldean, eta une batez, arnasa eten dio. Ostikoka, *Popeye* mendekua dastatzen ari da.

Idazkaria altxatu eta ikusle ugarien artean nahastu da, eta haietako askok estufara hurbiltzeko baliatzen dute tartea, hark, berriz, adituaren zaletasunarekin behatzen du palestra. Jatorra iruditu zaio espainiarren keinua. Asetasun maleziotsua sortzen dio norbait *Popeye* izugarriarekin ausartzeak.

—Aski da —esan dio garaileari. Utzi bakean, aditu? Mutila kementsua da.

Baina *Popeyek* ez dio entzuten. Laidoen errosarioa abiatuta, ez da erraza harrapakina ebastea.

—Zer uste du zakurtzar honek? —ohikua—. Nork dauka legea hemen? Ordainduko duzu broma hau! Lehertu egingo zaitut, entzuten al duzu? Lehertu.

Idazkariak oster a klementzia eskatu arren, *Blockältesterrak* etengabe kolpatzen du, gorputz inerte a nekeak geldiarazi arte. Emili, geldi, ez da jadanik kitzikagarria.

—Alde hemendik! —esan du bat batean jantokia lepo dagoela ohartzean—. Kanpora! Urde horiek! Alde, esan dut!

Eta sua nahasteko burdina hartu du braustadaz. Marmarka, ispiluan begiratzen tematzen da *Popeye*. Kozkor bat atera berri zaio buruan eta aurpegia urratuta dauka.

—Azazkalekin, emakumezkoek bezala! Harrapatuko zaitut beste egunen batean, zakur ergel hori! Ijito zikina! Ez zara nitaz trufatuko!

Ostera mahaira erretiratu da idazkaria, burlaizez. Emili logelara sartzen laguntzen ari da August.

—Non dago nire baselina? —*Popeye* oihuka armairua hankaz gora jarritz.

Denbora luzez bizi da Vicent eremuan. Destinoak iseka egin zion sarrera-eguna jaiotza-egunarekin kointzidiaraziz, hogeita hamabi urte lehenago, eta hori aurkako seinalea balitz bezala, ez zuen kide gutxi batzuen zortea izan trukean gehienen zorigaitza aurkitzeko. Bizitza osoan etxeko paella ugariak, ortuko fruta mardulak, arrain gozoa, zati onduak jaten ohitua, kalitatea kantitatearekin ordezkatzetik hasi behar izan zuen errefuxiatuen eremu frantziarretara iritsita, eta, gero, langileen konpainian lan egin zuen hilabeteetan, non alemaniarrek harrapatu zuten Maginot lerroan zehar egindako oldartze bizkorrean. Orain, Vicent, “Valenciarra” mundu guztiarentzat, ez dauka ezta kantitatea ere eta, kontzentrazioko hiru hilabetetako erregimenaren ondoren, azken indarrak akitzen ari dela esan daiteke, mami guztia galdua. Azal belztua, hein batean elurrak eta eguzkiak erreta eta beste hein batean garbitzeko gogo gutxiagatik, bigun eta zimur ageri da hezurrek beren kozkorak finkatzen ez dituen gorputz-ataletan. Eta bere umore ona ere galdua dauka, nekazariaren bitalitate sinplea, oihuz, jokuz, uzkerrez, barrealdiz, bizitza basati liskartuan ondua. Begien inguruko eraztun ubela gutxika-gutxika aurpegi osora zabaltzen joan da eta haren begiradaren espresio bakarra zorigaitzean anaiak direnen kamaradek jaten duten ogi-kozkorrengatik irrika da berak, pixka bat sabelkoi eta oso goseti, eguneko anoan dagokiona bi ahokadaz irentsi duenean. Gaur egun galdarako jakia hartzeko azkenak diren kideekiko inbidia dauka,

lodiagoa jasotzen baitute; orduak eta orduak pasatzen ditu bagoiko auzoekin oturuntza imajinarioz mintzatzen edo eguerdiko galdarakadaren kalitate eskasari buruz suhar susmakaitzarekin eztabaidatuz; korrika joan ohi da otorduko termoetako hormak garbitzera beti aldean daraman ezpaltxo batekin, sukaldera itzultzeko ardura duten preso alemaniarren zigorkadei aurre eginez; etxera-buelta kimerikoarekin amets egiten du gauero, non Eugenia bere emazteak, Pantagruelen neurriko bazkari bat prestatzen dion, ortu eta barrakako Pantagruel bat bera.

Gose da Vicent, gose handia dauka. Eguerdioroko salda urduneko litro eskasa, edo bere afari osoa den ogi-puska beltza irentsi ahala, hasieran baino gose handiagoa dauka. Ez da urdail exigentea lokartzeko gai, izan ere uzkuritu egiten baitzaio minbera, onartzen zaizkion ekimen digestibo hain ugarien garaian. Beti tortura mantso, isil, aringarririk gabeko berbera sufritzen, eta bere gorputza ahitzen ari da, gero eta argalago, eta besoak tolestu egiten zaizkio bagonetak bultzatzerakoan, eta belaunek ez diote eutsi nahi eta begiek ez dute egun eguzkitsuen argia agoantatzen. Heriotzara kondenatutako bat da Vicent, berak ez daki aski ongi, baina, hil aurretik, bere burua erroz gora defendatzearekin egiten du amets. Ekitaldi miserableak, gorrotoko sentimenduak, umore txarra, gehiegizko norberkoikeria bere destino injustuaren aurkako protesta heroiko bihurtzen dira, gizonen ankerkeriaren kontra azken buru, soilik heriotza astitsuko eremu batean posible den balioen alderantzikatzeari esker. Existentzia haren zitaltzeak ez du eraginik beregan; pilota baten antzera errebotatzen du biziriauteko bere afanaren gogortasunaren kontra.

Oso gogorra izan da goiza. Beste edozein egunetan baino nekatuago altxatu da eta ahalegin handia egin behar izan du 2. *Blockeko* ateraino iristeko (preso pribilegiatuena, sukaldariena, biltegiko langileena, bulegariena, hots, goserik ez daukatena), non behar bada norbaitek bere buruaz errukitu eta zopa-plater baten hondarrak emango dizkion, goiz batzuetan bazkaltzeko banatzen duten hezur-salda harena. Gaur ez zaio ezer egokitu eta, 13. *Blockera* itzuli ondoren jakin du bere anoa jasotzeko ardura daukan kideak mailadietako izotzean laprast egin eta daramatzen bi ontzietako edukia bota duela.

Alferrik da oihu, intziri ala protesta egitea. Gertatutako liskarrak ez dio galdutako saldaren tantarik itzuli, baina are tentsioago eta mingarriagoa egiten du gosearen obsesioa.

Lana ere inoiz baino gogorragoa izan da. Harrobia animatuta dagoela dirudi, nahiz eta soilik hotzari aurre egiteko izan, elur-geruza hormatuaren bitartez harrien bihotzeraino iristen den izozteari. Hotza dela-eta aire konprimituko mailuak ez dabilta, baina harri metatu asko dagoenez, olio astuneko makinak joan-etorrian dabilta Vicent zamaketan dabilen tokira. Tren bakiotzak hamar bagoi, ehun bat harri bagoi bakoitzak eta, goian, *kapoak* beren buila garratzekin, gomazko matraka astinduz, errukirik gabe, beren menekoei inolako meniarik eman gabe.

“Valenciarrak” ezin du gehiago. Hotza hezurretaraino iritsi zaio eta, esku ubelduekin, automata batek bezala zamaten ditu bagoiak. Iristen ez den eguerdia du amets. Oraindik beste tren bat, eta bese bat, eta... Bakoitzean, makinaren txistu erridukulua, bere tap-tap-tap ankerrarekin hurbilduz. Mendeak dira norbait tematzen dabilela hamaikak direla esaka. Hankek, egurrez zolatutako zapatatzarren barruan, zubi egiten diote hanketan gora iristen zaion hotzari. Urdailaren kontrakzioek heriotzaren hustasun osoa islatzen dute haren espirituan. Eguerdia! Handik ordu betera bere jatena osatuko duten arbi irakinen kolore arrosa eta makinaz egindako ebakinen forma erregularrak imajinatzen ditu, patata-partikulak dastatzen ditu ametsetan bezala, arbienak baino irintsuagoak. Ia esan daiteke eskuetan daukala aluminiozko platera, arbiz beteta goraino, litro bat baino gehiago, azkenean zortea izan duelako termoen azkeneraino iristeko eta banatzaileak bi buruntzalikada bete-beteak ipini baitizkio. Jaki lehorra, saldarik gabea... Eskuak gutxika berotzen dihoazkio, gorputza gozoki suspertzen.

—Lanera, zu! Ez al didazu entzuten? —esan du *kapoak*, alemanez—. Azkarrago, azkarrago! Aski lasterka joango zara jateko orduan! Hala, alferrontzi hori! Lanera, bizkarrera iristea ez baduzu nahi.

“Valenciarrak” begirada lerdoaz begiratu dio. Negreroaren ahotsa erabat atzerrikoa egiten zaio une honetan. Matrakak ere ez dio jada beldurrik ematen. Sufrimenduaren gaitasunak muga bat dauka, eta Vicentek erdietsia dauka. Hurbildu egin zaio *kapoa*.

—Ez al didazu entzun, ergel hori?

Saihetsak zigortu dizkio gomarekin.

Harrobiko sirenak jotzen duenean, goialde hartako ehun harri kargatu berri ditu. Egia da ordu laurden eskas geroago ostera hasi beharko dela, baina perspektiba hori beltzegia da orain kontsideratzen hasteko, eguneko unerik onenean, jatekoa jasotzera doanean. Ahaztu du bere hotza, nekea uxatzen doala dirudi eta aiseago obeditzen dizkiote belaunek. Elurra oinetakoen zolara itsastean, balantza hasi da mozkor balego bezala.

Zerua hautsaren tankerako grisez estalita dago, eta elurrak berak distira galdu du; esango zenukete harrobia bigun dagoela. *Kapoen* ahotsek pausoa markatzen dute:

—*Links, zwei, drei, vier... Links, zwei, drei, vier...*

Azkarregia formazioaren martxa Vicentek jarraitu ahal izateko. Hain dago urrun harrobiko zenbaketak egiten diren plaza. Baina hortxe daude termoak ilaran, beren eduki preziatua banatzeko zorian. Oinetan hotza sentitu arren, hausteko arriskuarekin kanporantz okertu balitzaizkio bezala, ausart sentitzen da Vicent. Zerk dakarkio uneoro pausoa galtzea, atzean doakion poloniarrek nabarmenki marmar egitea tamainako irregulartasun handiagatik *kapoen* atentzioa deitzeko-edo? Vicent sufritzen ari da eta bere aho ireki eta lehorretik neketan irteten den arnasa jakaren lepo altxatuaren muturretan gel-partikula diminitotan gauzatzen da. Holako ezerk ez du garrantziarik berarentzat, hamaika usain on darion zoparekin pentsatzen baitu.

Biharamunean altxatzerik ez daukan sentsazioarekin esnatu da Emili kanpaiaren hotsa entzunda. Zailtasunez hartzen du arnasa sudurrean dauzkan odolbatuen erruz, eskubiko begia oso hanpatuta dauka, min ematen diote hezur guztiek eta, aldi behin, oinaze zorrotzak zulatzen dio ostikoak hartu dituen saihetsa. “Gorputza ubeldua edukiko dut”, pentsatu du. Eta nekez altxatu da.

“Kommandoen” sorrerako formazioa amaituta, erizaindegira eraman du Augustek, non mediku adiskide batek lesio larririk ez daukala esan dion. *Blockera* itzulita, aholku eskatu du marrazkilariak.

—*Popeye* amorratuta dago —adierazten du Augustek—. Saia zaitetz itzuri egiten. Jokaldi gaiztoa egin ahal dizu. Zorionez grazia egin diozu idazkariari eta, eskatzen badiot, beste *Block* batera eraman ahal zaitu.

—Askoz mingarriagoak zaizkit atzoko errepresaliak, ziurtatzen dizut.

Ordu pare luzeak eman dituzte elurretan lorrintzen, kukubilko saltoka, eremuan gora eta behera korrika, “*Mützen ab*” egiten. Umore txarra egurasteko eskoba-kirten bat hartu eta makilazoka ibili da *Popeye*. Batik bat jendeak ariketak bukatzean. Lortu nahi dena da lauhun gizonek (*Blockeko* hegal bakoitzeko, berrehun), denak batera, kapela akasgabetasun prusianoz kendu eta ipintzea; “*tente*” posizioan ehunka aldiz egin beharra dago, eta haren kolpea iztarraren kontra bat eta indartsua izan behar du. Zoritxarrekoak mugimenduan huts egiten dutenak!

—*Mützen ab, Mützen auf, Mützen ab, Mützen auf...*

Lotara joateko orduan, *Blockälteste* amorratuak ur hotzeko pertz bat prestatu du barrakaren sarreran, “oin-azterketa” egingo dela abisu emanda. Ur harekin berberarekin garbitu behar dituzte oinak lauhun gizonek, ez xaboirik ez xukaderarik. Lehen ehunekoa igaro ondoren, lau-atzamarreko lohi lodia dauka pertzak. Jendeak

listuz edo pixaz igurtzi ohi ditu oinak. Zikindura ttiki bat, azal normala baino gogor pixka bat ilunagoa, makilazo-sail batekin ordaindu ahal da, Augustek abisatu duenez.

Emilik kasuari dagozkion ardura guztiak hartu ditu eta *Popeyek* ez du injustutzat hartua izan nahi.

Hirugarren ekitaldia gauerdian izan da. Komunera ateratzen direnak buila gehiegi egiten duten aitzakiaz, *Popeyek* jendea esnatu eta, makilazoka, formatzera atera ditu. Presa eta kolpeen eraginez, inor ez du senik eduki konturatzeko kanpoaldea izoztuta dagoela. Batzuk erdi biluzik, gehienak oinetakorik gabe, ordu erdi luze egon dira "tente" elur gainean.

Bere ekintzaren ondorioak erreparatzean, Emilik bere akatsa onartu du. August bere taktika azaltzen hasi da.

—Kolpeak, beti egokituko zaigu jasotzea. Gu baino indartsuagoak dira. Soilik zerebroarekin frenatu ahalko ditugu eta, auskalo, behar bada egunen batean menderatu ere bai.

Marrazkilariak ez du Augustek intsinatzen duena ulertu. Hauxe esatera mugatu da.

—Ez dut uste inteligentziaren hizkera ulertuko dutenik.

Augustengandik urrundu eta barrakara sartu ezinik, kalea zeharkatu du Francescen bila. Eguzkiak aurpegia ateratzen du Danubiotik sortzen ari diren lainoen artean eta, pixka bat beldurti bada ere, onbera eta gozo jausten da. Baten batek, erabat biluzik, zorri bila dabil alkandoraren josturetan. Besteren batzuek azken tabako-hondakinak erretzen ditu. Inork ez du hitzik egiten; ez dago esateko ezer. Kanpoko ezer ez da ezagutzen; eta barrukoaz, jakinaren gainean daude denak. Gosea da, mingarri izaten hasita, bezeroren batek daukan gaia.

Barrakaren alde batean berमतuta topatu du Francesc, non eguzkia inon baino hobea den. Goian dauka begirada eta lotan dagoela dirudi, epeltasun haren gozotasunera emana. Konfiantza ematen duten aurpegi haietako bat da. Behar bada begizulo sakonengatik, behar bada okots zuzen eta luzeak...

—Lo ala pentsakor?

Buelta eman du Francescek.

—Hemen al hago?

—Antza.

—Gero eta beltzago daukak begia —ohartaraziz. Eta segidan: Zer esan diate han behean?

—Ez daukala garrantziarik.

—Ezetz? Gutxi iruditzen al zaik nortasun-agiri hau eman beharra?

Irribarre egin du Francescek ere, erizaindegian ikusi duena azaldu eta kideak zerbait esan dezan itxaron du. Baina Francescek begiak itxi berri ditu eta ez dirudi ezertaz konturatu denik.

—Ez al duk inolako iruzkinik entzun? —galdetu du marrazkilariak.

—Zertaz?

—Atzo hemen egindako txorakeriaz.

Segundo batzuk igarotzen utzi ditu Francescek.

—Gizajo bat defendatu duk. Zer nahi duk esatea?

—Ergel bat izan nauk. Doilor horren gehiegikeriak...

—Utz itzak eskrupuluak. Ardura hadi hire kasuaz.

Beste kide bat hurbildu eta Emilirengana zuzendu da.

—Zu ez al zara 4386a?

Marrazkilariak ezkerreko aldean, arropazko triangelu urdin baten pean, josi zioten zenbakia gogoratu behar izan du.

—Bai —ihardetsi du—. Zergatik?

—Ordu bete da deika dabiltzala barrakan. Nire zenbakia zurearen ondotik doa...

Blockera jo dute bi adiskideek. Emili jantokira sartu da eta Francescek, kanpotik, idazkariarekin eta preso ezezagun batekin, seguru asko preso alemaniar bat bera, mintzatzen ikusi du. *Popeye* ez dago.

Emili ezezagunak lagunduta atera dela ikusirik, Francesc hurbildu egiten zaio:

—Nora hoa? Nora haramate?

—Ez zakiat. Ez zieat ulertzen. Iruditu zaidak bulegora esan dutela.

—Zer egitera?

—Ez zakiat ba. Behar bada galdetzera ia jatekoa gustukoa dudan.

Sentitu du gogorra izatea. Kezkatuta baitirudi Francesc.

—Askatzen banaute-edo, agur —umorez, erantsiz.

—E, zu! —alemaniarrek, parte hartuz.

Emilik ulertu ez duen zerbait galdetu du, baina keinuagatik suposatzen du belusezko begi hari buruz mintzatu zaizkiola.

—Atzo! —erantzun du Emilik, herrialdeko hizkuntzaz ezagutzen duen hitz bakanetako bat erabiliz.

Eta keinu adierazgarria egin du ukabila itxita.

—Boxeolaria al zara?

Eta alemaniarrek bere talo-aurpegi osoarekin egin du barre.

Bakarrik geratu da Emili, pentsatu du: “Bakeak egiteko modua topatuko zuen *Popeyek*”.

IV

Hans Gupper, "Beltza", bere bulegora sartu berri da. Egunero, bederatziak inguruan, etxetik irten, esparrutik pare bat kilometrora presoegi eginarazi dien txaleta bera, eta minutu eskasez motorrez egin du ibilbidea. Esparruko komandante efektiboa da eta bazter haietako SSen artean beldurgarriena. Partiduaren militante fundatzailea Austriako lurraldean, garai haietako borroka guztietan parte hartua, batik bat Dollfusseko *putschean*, zeinaren ondoren Alemanian errefuxiatu behar izan zuen. *Anschluss* gertatutakoan itzuli zen bere herrrialdera. Bularra izarrez, galoiz eta dominaz beteta sartu zen Vienan. Maila eta domina bakoitzak ehunka bizitza Alemania handiari inmolatuak esan nahiko zuen. SSko *Obersturmführer* delakoak juduak eta komunistak akabatuz lortu zuen heroen ospea.

Orain keinu haietatik urte batzuk igarota, bere portaeran ezerk ez du kemen propioaren satisfakziorik adierazten, baizik eta gizonak zorrotasunarekin mozorrotzen duen etsipen eta garraztasuna. Faltan hartuko ditu zapatari zeneko garai onak, zola erdiak eta gomazko takoiak ipintzen zituen garaiak eta epelak botatzen ditu populismo kristauari eta sozial-demokraziari buruz, adiskidez, bezeroz eta auzoz inguratuta.

Gorpuzkerak ondo laguntzen dio. Bere txirrista-kapelarekin, larruzko jaka orkatiletaraino, botak akasgabe, ezproiak tintinlari (motorrean ibiltzeko) eta bi zakur ikaragarri handi haiek bere inguruan arabeskoak ehuntzen dituztenak esparrutik paseatzen duen bitartean, eta batik bat bere presentzia hutsak erradiatzen duen terrorearekin ez dauka ukatzerik kargua bere neurrian eginga duela.

—Hans Grupper eremuan sartu da.

Barrakaz barraka pasa da ahotsa. *Blochältesterrak*, *Stubenältesteak* eta idazkariak azkar hartu dituzte beren neurriak. Txukunduta dagoena txukundu, garbi dagoena garbitu eta ezkutuan dagoena ezkututzen dute. Batik bat azken hori, Hans Gupper katutzarra baita eta ondo ezagutzen baititu kargu "administratiboak" dauzkaten presoek jakiekin, arrokekin eta era guztietako materialekin estraperloan ibiltzeko dauzkaten amarruak. Hans Gupperrek "antolatzaile" bat aurkitzen duenean (Alemanian horrela esaten da argotean), oso gogorak izan ohi dira neurriak. Burdinazkoa du eskua Hans Gupperrek! Behin eremuan, bihotzik ez: ordenak obeditu eta eman ematen ditu.

Gaurkoan, bulegora sartzean, ez ditu abrigoa eta kapela kendu. Soilik goanteak, eta hori atzamarrak izoztuta dauzkalako motorrean etortzeagatik. Ordenantzak prest utzi dion termotik kafea hartu, zigarroa piztu eta eskuak berotu ditu estufan. Bulegoko txoko batean esparruko maketa-proiektu bat dago. Tokia hartu zuenean, presoen barrakak baino ez zeuden, arantzazko hesi bat inguruan eta barraka-dependentsia gutxi batzuk kanpoaldean. Harresiak, atetzarrak, lorategiak, eskailerak, garagea, troparako *Blocka* eta beste instalazio batzuk bere agintepean egin dira. Eta hori hasiera baino ez da. Esparru eredugarri bat eraikiko du, esparru pilotua. Sakrifikatzeko bizitzak ez ditu falta izango, batik bat orain, alemaniarrek garaile doazelarik oinak edonon jartzen dituztela. Beste behin behatu du Hans Gupperrek bere obra eta bere programa den maketa. Begirada azkarrez, denbora balioetsi eta irribarre-hasiera izan beharko lukeen imintzioan uzkurto zaizkio aurpegiko giharrak.

—Bi urte —marmartu du—. Bi urtetan amaituko dut.

Materialak metatu beharra dago. Giro ona iristean, bultzada handi bat. Harria, batik bat harria. Reichek ezin du porlan eta burdina asko eduki, baina Hans Gupperrek harri ugari eta ona dauka, eta hartu, garraiatu eta kokatzeko gizonak. Erakutsita dauka badakiela esparruak antolatzen, eta berak bat eraikiko du, non nazional-sozialismoaren aurkakoak hobeto hilko diren.

Amets-gizona ez delarik, maketari bizkarra eman eta irten egin da. Preso batzuek esparruaren sarrerako izotza birrintzen ari dira, eta etortzen ikusirik, laneko erritmoa azkartu dute. Bikaina da eguna, baina ofizialak nahiago du lana goiza goxatzen duen eguzkia baino. Langileei begirada bat bota eta haien erabateko argaltasuna nabarmendu du. Pentsatu du: "Gehiago jango balute, hobeto beteko lukete lana". Bulegora iritsi da.

—*Achtung!* —ahots batek oihukatu eta mundu guztia tente jarri da.

Hans Gupperrek begirada bakarrez bildu du gelako giroa eta bat-batean ulertu du ezen, arestian, han inork ez zuela lanik egiten, estufan jakiak egosi direla, norbaitek zigarroa itzali duela azkar asko eta *Lagarälteste* zilborduna (esparruko preso arduraduna) izan dela tertuliaburu. Bulego hartan "entxufatuak", delitu arruntengatiko preso alemaniarrak, gainera burokrata perfektuak dira.

—Jarraitu lanean —Hans Gupperrek erretizentziaz.

Erabilgarriagoak ditu borrero bezala idazkari bezala baino; SSk uste du nahikoa dela ondo betetako funtzioa.

Preso idazkari orokorraren mahaira hurbildu eta, presarik gabe gauzak soilik behin agintzen duenaren jasarekin, esan du:

—Bihartik aurrera bostehun gizonetaraino igo behar dira harria garraiatzeko ekipoak. Izan daitezela gizon indartsuak.

—*Jawhold!* —erantzun du idazkariak eta, ondoren, zain dauden afera batzuei buruz mintzatu zaio.

—Etorri nirekin, Hermann. Obrak bisitatzera joango gara.

Lagerältesterrak ere *Jawhold* esan du. Eite erraldoia dauka, obesoa Municheko seme on baten gisara, buru ttiki eta puntazorrotzekoa. Espainiarrek *King-kong* goitizena jarri diote eta, garrasizale bat izan arren, berez ez dauka erantzukizun-karguko beste preso batzuek bezain portaera txarra. Bere menpe daudenak presionatu besterik ez ditu egiten, era horretara eskuak eta ospea zikindu barik.

—Askok lapurtzen da eremuan —esan dio Hans Gupperrek ibiltzen puska bat daramatelarik—. Presoak gizenago egon beharko lukete.

Eta zeharka begiratzuz, gehitu du:

—Aldiz batzuk gizenegi zaudete.

King-kongek entzungorrena egin du.

—Nik dakidalarik ez da lapurtzen. Anoa egokia da eta presoek lan asko egiten dute.

—Nik badakit lapurtzen dela; zuk baino hobeto ezagutzen dut esparrua.

—Zaila da erabat eragozte, *Obersturmführer*.

—Saiatu nik ez esku-hartzen.

—Bijilantzia muturrera eraman eta abusuak moztuko ditut —agintzen du *King-kongek*.

Eurekin gurutzatzen diren presoak kapela kendu eta besoak gorputzera itsasten dituzte zurruntasun prusianoz. Eraikin barrura iritsita, obretako *kapo* gorena esparruko obretako berritasuna erakustera azaldu da.

—Etorri, etorri —esaten du Hans Gupperrek. Zuri ere gauza bat esan behar dizut.

—*Kapoak* arnasa hartu du, arinduta; itxura guztien arabera, umore onean dago komandantea.

—Eraman nazazu *Kommandantur* berrira; nola dagoen ikusi nahi dut.

—Aldaketak ikusiko dituzu, *Obersturmführer* —adierazi du kapoak, meneko.

—Hobeto.

Hans Gupperrek ez du *kapoak* ematen dizkion xehetasunetan erreparatzen.

—Esan —moztu du—, zenbat jende behar duzu udako hiru hilabeteetan eremuko hegoaldeko horma bukatu eta ospitale handiko oinarriak botatzeko?

Kapoak ez du segidan erantzun.

—Zaila da zifrak ematea, horrela, kolpean.

—Gutxi gorabehera.

—Uste dut berrogei igeltsero eta bostehun peoiekin moldatuko naizela.

—Presta zaitetz lanerako eta lan eginarazteko.

Erdi egindako eraikinera iritsiak dira, harri xehatuzko eraikin bat bera, zeinaren barruan erlauntzeko burrunba dagoen. Hans Gupperrek ez du ilusiorik egiten eta badaki mugimendu hura dena bere presentziak eraginda dagoela. “Era honetara ez nituzke bi urte beharko”, pentsatu du. Igeltseroak harriak harrien gainean ipintzen dituzte eta peoiek banaka eramaten dituzte materialak —edo binaka, andeetan. Bateon batek txingarrak mugitzen ditu zementua izoztu ez dadin. Harago oraska bat ikusi ahal da, non preso batzuk pala eta arrasparekin morteurua egiten duten. *Kapoen* eta *azpikapoen* garrasiak eta begirale-lanetan dauden SS batzuen presentzia gailentzen dira aztoramen hartan.

Hans Gupperrek obraren egoera aurreko bisitakoarekin alderatu eta inpresio ona jaso du.

—Lana zuzena da eta horma azkar doa gorantz —*kapoaren* iritzia.

—Nongoak dira igeltsero hauek?

—Denetatik dago. Batzuk poloniarrek, gehienak espainiarrak.

—Eta onenak?

Zalantza izan du *kapoak*; ez daki bere iritzia ondo hartua izango ote den.

—Aukeratu beharko banu espainiar batzuekin geratuko nintzateke, baina nik...

—Ongi da, ongi da.

Ofizialak oraindik itzuli batzuk eman ditu aldarnio, su-ontzi eta harri-pila edo zementuzakuen artean; bisitarekin gustura, *kapoa* agurtu eta, *King-kongekin* batera, laneko beste toki baterantz abiatzen da.

—Hermann —esaten du—, eremuan dauden igeltsero espainiar guztien zerrenda bat egin behar didazu. Biharko behar dut.

August *Blockera* iritsita, Francesc gainera etorri zaio, hitzez hitz.

—Ba al dakizu nora eraman duten?

—Nor?

—Emili.

—Zein Emili?

Francescek dakiena azaldu dio.

—Jokaldi makur baten beldur naiz.

—Informatuko naiz.

Francescek ez du asko itxaron behar izan; albisteekin itzuli da August.

—Eraman duen alemaniarrak arropa zibileko biltegian lan egiten du.

—Are gutxiago ulertzen dut.

—Zailtasun administratiboren bat —Augustek, suposizioz. Dirurik ba al zenuten?

—Sosik ere ez.

—Arroparik?

—Zaharra, mundu guztiak bezala.

Beraz ez dut ulertzen. Baina ez tematu; ez dut uste ezer larririk denik.

Bakarrik gelditzean, irribarre egin du Francescek: argi dago *Popeyek* ez duela parte hartu. Eguzkiak barrakako atearen mailak pixka bat lehortu dituela baliatzen du zertxobait esertzeko. Nekea sentitzen du eta gosez aho zabalka dago. Beste inoiz ere asko pasatuta dagoela gogoratu du. Gosea, nolabait esateko, jakina. Ulertzen ez duena da ankerkeria hotz hau, era miresgarrian antolatua. Mentalitate naziak gainditzen du: bere izaera mendebaldetarra matxinatu egiten zaio makina deshumanizatzailearen aurka.

Esparru nazi batek salbatzeko aukera bat ematen du ez lortzeko milaren kontra. Han itxita dauden gizonak desesperatuki bilatzen dute aukera bakar hori. Kartzela-erregimen hau asmatu duen zorrotasun psikologikoa deabruzkoa da. Gizonak hiltzen direnean, existentzia miserableenari helduta hiltzen dira, atzamarrak zurrunduta eta

azala hezurretara atxikita, beti ustekabeko zoriaren etorrera itxaroten. Ezinezkoa da irribarrea egoera horretan. Borrokatu? Hara hemen pentsamendu gehiegizkoa eta pretentsio erridikulua. Borrokatu, nola? Zerekin? Nondik hasi? Bera ere zortearen zain egongo da, gainerakoak bezala. *Kommando* on bat, lan arina, elikadura hobea...

Bihotza estutu dio bere etorkizunaren sekretuak.

—“Entxufatu” egin naute —esan du oihuka. Ez dakit zerezko biltegi batean.

Eta mailadi berberean jesarrita, miraria azaldu dio. Arroparen zakuak nahasterakoan, bere marrazkiak aurkitu ditu norbaitek. Dependentsiaren SS arduradunak ikusi eta haien autoreaz galdegin du.

—Galdetu zidak ea harentzat marraztu nahi dudan. Pornografia, jakina! Eta nik hiltzera neramatela ustez!

Irribarre egin du Francescek:

—Horrekin larrua salbatzen baduk...

Eta tarte baten ondoren:

—Pornografiari eraso! Ez didak ukatuko ergelkeria dela.

Esparruaren koloreak ez dira jada berberak. Pozik daude bi adiskideak. Heroiarena egitea ez da orduoro atsegina.

Zenbaketarako plazaren etorbidearen ezkerretara ilaran dauden hiru pabiloi handietan garbiketa-desinfekzioa, sukaldea eta erraustegi-kalaboak daude. Sukaldea, erdigunean, toki egokia kontuan hartzen bada eremu osoa antolatzen den ardatza dela. Instalazio eredu garria: dena esmaltatua, nikelatua, aratza, distiratsua, ebakuntza-gela dirudi. Lurrun bidezko egosketarako galdarek estalkiak irekita dauzkatenean, Prusiako eran hezitako ostra-espezie berriko norbanakoen ilada irudituko zenukete. Sukalde perfektu hartatik bazofia nazkagarria ateratzen da: zuhainezko arbiak eta patatak azalarekin, dena urez eta gatzez egosia ore homogoneoa lortu arte. Arauzko margarina galdarara iritsi aurretik desagertzen da; truke klandestinoen urre-patroia baita.

Preso pribilegiatuak dira sukaldariak. Esparrura iristen lehenak diren preso alemaniarrek hortzekin defendatzen dute abantaila. Morroiak dauzkan jauna da sukaldari bat, uniforme onak janzten ditu, populazio zibil alemaniarrek ez dauzkan zigarroak erretzen ditu, gogoa ematen dionean mozkortzen da (ezkutuan, noski) eta lagunak eta “laguntxoak” izan ditzake. Badira sukaldariak SSetako subalvernoen artean zordunak eta babestuak dituztenak.

Sukaldearen sotoan, aldiz, ez daude arraza alemaniarreko lagunak bakarrik. Poloniar asko ari dira lanean eta espainiarrek ere sartzen hasiak dira. Lana arbiak eta patatak zuritzea da. Argia ahula da; hezetasuna, erabatekoa. Garbitoki handietako urak zorua blaitzen du, hormetatik, mahietako hanketatik, gizonen oinetakoetatik igotzen da, dena betetzen du. Proporzio handiko kalabozoa da. Erabateko isiltasunean egon behar da hamabi-hamalau ordu, edozer egiteari utzi gabe. Bertan lan egiten duten presoak, ordea, inbidiatuak dira.

Ernest batxilergoa egiten ari zen gerra zibila lehertu zenean. Eremuan sartu ziren lehen presoetatik, *Blockeko* idazkari batek “patatetarako” bost aukeratzeko agindua jaso zuenean bereganatu zuen. Ernest mutiko garbia, delikatua, tankera onekoa eta jatorra zen. Patatetako *kaboak* bere morroi bihurtu zuen: hari oinetakoei distira atera, arropa garbitu, ohea egin eta janari berezia prestatu. Horren truke, ondo jantzita zebilen, zigarro onak erre eta asebate egiten zen. Laster ahaztu zituen bere kideak, laster enoratu zituen itxita dagoen tokiko baldintzak. Bere pribilegioa nobleziako titulu bat dela sinisterra iritsi da.

—Zer iruditzen zaizkik oinetako hauek? —galdetu dio bere atzetik papurren bat erortzen ote den segika daukan zorigazitoko bati. Hiru ogien truke lortu ditiat. Ez dituk garestiak, ez da?

—Tori, erre —esan dio biharamunean beste bati, zigarrokina luzatuz. Ehun zigarroko kutxaren truke, kilo bat margarina eskatu didate. Garestia da, baina zer nahi duzue egitea?

Aurreko astelehenean alkondara bat erosi edo kapela biseradun berria eginarazi du *kapo* baten antza edukitzeko, edo masajerako pomadak erosten ditu, edo galtzetako zangoak zabalarazten dizkio Ssko jostun bati. Bere laketasunak babes ematen dion *kapoarentzat* gordetzen ditu. Hau bai *gentleman* bat: sendoa eta ondo zaindua, lurrindu, eta burua astean bi aldiz egiten du, eskuak mugimendu axolagabeekin mugitzen ditu eta jantziak neurrira eginarazten ditu. Ernestek gogoz barre egiten du bere adiskide ospetsuak makila jaso eta patata-azalak hondakinetatik hartu eta gordinik jaten dituzten gizagaixoak sakabanatzen dituenean. Soto hartako jainkoak aukeratua izan da eta inor ez da ausartzen ezer esatera. “Pribantzaren” bitartez errespetatua sentitzen da, losintxatua eta urtetan bikoizten duten gizonen beldurgarri.

Atea bat-batean ireki eta ziztu bizian atera da Ernest, kongestionatuta eta astindu urduriez barrezka. *Kapoa*, haren atzetik segika, patata-pertz batean estropezu egin eta ura ixuri du. Bankuaren mutur hartan lanean ari diren presoek oinak jaso behar izan dituzte ur-zaparrada ekiditeko. *Kapoa* Ernesten zalantza profitatu du jendearen protesten artean jakako lepotik hartu eta bulego barrura eramateko, txontxongilo bat bezala aidean. Atea osterara itxita, osterara hasi dira barre-algarak.

Arbiak zuritzen dabilen espainiarretako batek halaxe komentatu du bre auzoarekin:

—*Jolas hauek ohantzean amaitzen dira.*

Oso gaztea da Ernest, egia da, baina ez hainbeste kontuan ez hartzeko.

V

Oheak dauzkaten barrakak eta oherik gabekoak daude; lehenengoetan preso pribilegiatuak bizi dira. Ohea gauean atsedena hartzeko altzaria ez ezik maila sozialaren adierazlea ere bada. Aldiz, pribilegiatuei burukomin bazterrezinak ekartzen dizkie oheak, eremuko araudi eta ohiturek arte zail bihurtzen baitute “oheak egitea”. Lastoz betetako koltxoi bat paralelepipedo perfektu bihurtu behar da. Burusiak, maindire eta zorro koadrodunak ordena berezian ipini behar dira, beti lerroan, angelu zuzenak osatuz, eta beti ondo lisatuta. Zeregina amaituta, *Blochältesterrak* errebista pasatu eta zimurrik edo lerro desberdin ttikiena nahikoa izan ohi baita maindirea mutur batetik hartu eta ordu erdiko lana begi-kliska batean desegiteko. Presoa goi mailakoa bada ez da besterik gertatzen; baina bigarren mailako “pribilegiatua” izatekotan, kolperen bat jasoko du, edo maiz, igande arratsaldea oheak egin eta deseginez igarotzeko zigorra. Esan beharra dago eremuko goi aristokraziak morroiak dauzkala zeregin hau betetzeko. Biltegian lana egiten duenez geroztik, Emiliren egunak esanahi uniformeak dauka eman dioten oheari dagokionez. Harentzat, lo egiteko altzaria edo bere estamentuaren sinboloa baino areago oheak sintesi-adierazgarritasuna dauka. Haren eskuak trebeak dira eta bi aldiz egin ondoren, *Blockältesteak* “balekoa” eman dio, hots, gaitasun-agiria. Egunean behin egin behar du ohea. Kontu erraza eta argia ematen du, baina aste batzuk igarota, berrogeita hamabi ohe eginak dituela kalkulatu duenean, ezin izan du ezusteko-sentsazioa ekidin. Klitxe berbera da ohea berrogeita hamabi aldiz egitea, eta irudiek, superposizioak elkarren artean ederki egokituak eurak, ez dute kantitate-ideiarik ematen.

Argi dago aldatuta dagoela paisaia eta, negua luzea eta elurra urtzen zaila izan den arren, otsail errukigabearen ondoren martxo onbera eta gardena etorri dela. Harrizko hesia ez dagoen tokitik ikusi ahal den munduaren zatitxoa berrezarpen bitalaren koloreak izan daitezkeen berde berri eta distiratsuz janzten ari dira, baina, Emilirentzan, bere inpotentziarekiko burla baino ez dira. Paisaia hura kontenplatzean denboraren jarraikortasun inexorablearen inpresio zehatzagoa iristen zaio eta orduan gizon harrituaren erreazio-prozesua goizekoaren alderantzizkoa da, ohea egiten dueneko ez bestelakoa: bi hilabete paseak dira eta bi hilabete denbora galduaren kopuru dezentea da. Eraldatzen ari den naturari buruz jasotzen dituen irudiak ez dira oheari buruzkoekin gainjartzen.

Harresia amaitzea atxilotu haien etsipena erraztea litzateke, bijiliako ametsekin jarrai dezaten baimentzea, kanpoaldeko mundutik kontraste gaindiezinaren mina baino aurkitu ezin duten gizon haiek erabat isolatzea. Harresia existitzen ez den bitartean, soluzioa denbora neutralizatu eta ohearen lau egurretan errefuxiatzea, non burusien biloak beti marrazki berberak egiten dituen, non altzarien eta hormen kolorea beti aldakaitza den, non denbora beti apal mantentzen den, oin-puntetan ibiliko balitz bezala.

Kontzentrazio-esparru batera egokitzea pribilegiorik handiena da eta ez dago arau finkorik. Batere babesik aurkitzen ez duten gizonak, goserik pasatzen ez dutenek, gutxika-gutxika hiltzen doazenek ez dute beste batzuek bezainbeste sufritzen, zeinentzat premia larrienak beteta edukiz gero, imajinazioa izan ohi den arazo konponezinak sorten dituen eta, are okerrago, esperantzarik gabe. Zorigaiztokoentzat beti dago aldeko aldaketarako aukera. Ongi daudenei zortea okertzearen mehatxuak badaukaten zortearen poza kentzen die, eta sentiberak izanez gero, gainerakoen gaitz konponezinak ikustea aski tortura da. Gainera, gosea min fisiko eta urrupatzaile eta eskusibista da. Gosetiek ez dute beste ezertan pentsatzen eta, egunen batean urdaila

betetzea lortuz gero, euforia-egoera ezagutu ohi dute, gainerakoek ulertzerik ez daukatena, nahiz eta euren desioak ezin diren eremuan ase.

Esparrura egokitzea, lekuaren mugak destilatzen duen drogarekin sentikortasuna lotaraztea da. Bat uneon parte den mundura murriztu beharra dago zentzumenen irismena, behin galdutako kanpoaldea ahanztea, familia, adiskide, ondasun, gerra, ideiekiko edozein interes galtzea; bizitza begetatiboak dimentsio guztiak betetzea lortzea. Behin denari uko eginda, inkomunikazioa da kontsolamendu posible bakarra dakarrena. Esparruan itxita egotea luzapen ezezaguneko gau polarra da; hara egokitzeko, argiaren existentzia enoratu behar da. Gizonaren astotze erabatekoa da: gosetientzat, elikagaiak erdiesteko tema obsesiboa; pribilegiatuentzat, norberekoikerien, irriken, basakerien eta bizioen estoldetan hondoratzea.

Paraje hartako patio osoa ikusi ahal den begiratoki batetik igarotzea du gustuko marrazkilariak, nondik Danubioko lautada zabala ikusi ahal den, Alpeetako kozkorak hondoan tailatua, ia ortzimugan. Presoentzat tokiak dakarren arriskua eta guzti, balkoi hartatik pasatzea sekula ukatu nahi ez duen mundura ihesaldi txikia egitea da Emilirentzat. Egokitzeko pribilegioak ez dauka adierazgarritasunik beretzat, prezioa giza izaeraren ukapena baldin bada. Hobe da mundu partikular bat moldatzea, beretzat bakarrik behar izanez gero, mundu intimoa, zeinak, imajinazoaren laguntzarekin, espazio berde eta urdin haiek eta urrutiko tontorrak baliatu ditzakeen.

Eta udaberri hasiberrian, esparrura iritsi eta bi hilabetera, esparruko espirituaren aurkako erresistentzia aktiborako prestatzen ari da marrazkilaria. Nazismoa, etsaiak fisikoki desegiten saiatzen da eta, erabat ez lortzekotan, moralki betiko eliminatzeko giroa prestatzen du. Bi probak gairiditzen saiatuko da Emili.

Iluntzean lotara joaterakoan, arrankurarik gabe desegin du ohea: biharamunean berregiteko egitateak aurreko eguneko garrantzia galdu du bere zentzumenetan. Molestia materialen gainetik sentitzen da, eta ohea unaduraren erlojua izateari utzi eta aliatu bihurtu da. Bertan makurtuta, orduz geroztik ihesaldi intimorako bakardade aldekoa aurkituko du. Bere baitan batzen den indarrarekin etzango da iluntzean.

Maiz ikusi behar izan ditu indarkeria-atalak. Arropa zibileko biltegiko *Kommandoko* enplegatua delarik, atxilotu berriak esparrura sartzen ikusi behar du, eta salbuespenekoak dira arropa-aldaketaren unean makilazoak banatzen ez diren aldiak, erritu-moduko inposizioa balitz bezala.

Bereziak izan dira egun hartako neurriak. Iritsi berriak diren zazpi gizonak biluzten diren bitartean, *Kommandanturreko* ofizial eta sargentu guztiak sartu dira biltegiko atetik. Gutxi batzuk itzuli dira beren ukabilen indarra frogatu gabe.

Oraindik ez dituzte uniformeko alkandorak jantzi et zazpi gizon gizajoek odolez tindatuta dauzkate aurpegia eta gorputza. Emilik ez du aski ongi ezagutzen alemaniera "galdeketa" gorabeheratsu haien terminoez jabetzeko. "Arrain lodiak izango dira", pentsatu du. Kuriositateak zuhurtziak baino indar handiagoa izan duenean, arropa-pakete bat hartu eta besteengandik apartatuta dagoen etorri berriarengana zuzendu da:

—Alemaniarra? —galdegin du ahopeka.

—Ez, hungariarra. Judua. Eta zu?

—Espainiarra.

—Espainiarra? —egin du galde besteak, harrituta. Eta gaztelania zuzenean: Eta zergatik zaude hemen?

—Apatrida izateagatik.

SS bat hurbiltzen ari da, eskuan zigorra. Arropa-zati bat bilatzen ari den planta egin du Emilik.

—Zein da zure lanbidea? —soldaduari galde eginez.

Marrazkilariak burua altxatu du berari ez diotela galde egiten ziurtatzeko.

—Medikua —juduak.

—Medikua, e? —SSk, sarkasmoz. Ondo etorriko zaizu. Medikua, mediku asko behar ditugu... harriak garraiatzeko. Kar, kar... Aurpegian bete-betea ukabilkada batez, lerroatuta dauden kutxa batzuen kontra jaurti du judua.

—Tori, jardun ahal izateko. Hasi zaituz sudurra zaintzen, kar, kar...

Balantzaka altxatu da biktima. SSk distiratsu dauzka begiak.

—Tira, tira azkar —ero baten pare oihuka—. Jantzi zaituz, lanera joan behar duzu-eta. Azkar, azkar! Amaitu da alferkerian ibiltzea.

Juduak obeditu du, baina kirioek, deslotuta, ez diote galtzen hankak topatzen uzten.

—Jantzi behar al zaituz, zakur hori!

Eta ostiko batez sabelpean, zaku bat bezala bota du lurrera.

—Komediak egiten orain? —alemaniarrek, garrasika-. Altxa! Entzuten? Makilarekin joka hasi da, non jotzen duen begiratu gabe. Begiak izuz zabaldurik altxatu da hungariarra. Besoekin estaltzen du burua. Makilazoen ildo gorritza utzi dute haren aurpegian, eta sudurretik irteten zaion odolak orbanek bete du bere gorputz erdi biluzia. Geldi-geldi, ahoa zabaldu gabe jasaten du tortura. Buila egiten nekatu denean, beste biktima baten bila alde egin du SSk.

Hanken artean dauka Emilik arropa-paketea. Ahalegina egin behar izan du, esateko:

—Izan bihotz!

Ez dago animatu beharrik.

—Dena batera ordainduko dute inoiz —juduak, zin eginez.

Behin jantzita, zazpi zorigaiztokoak eremuko hormaren aurrean zutik jarri dituzte, goardia-sailetik hurbil. SSren bat itxituren sartzen denean, ez dauka zail *puching* bat aurkitzea, pixka bat entrenatzeko. *Führerrek*, aitakoi, entretenimendua eskaintzen die bere seme kuttunei.

Biharamun goizean, oinazezko arratsalde eta gau batzuen ondoren, hil egin dira judu haietako bi. Bizirik dauden bostak harriak altxatzen dituen konpainiari atxiki zaizkio. Biltegiaren atetik pasatzen ikusi ditu Emilik eta ez zukeen mediku hungariarra ezagutuko, hain desitxuratuta egonik, adiskidetasun-keinua egin izan ez balio.

Iluntzean, afaldu ostean Emilik itzuli bat eman du Francescekin kontaketen plazan barrena. Ordurako badaki tragediaren amaiera:

—Hiru erortzen ikusi ditut —azaldu dio besteak—. Bere bigarren harri-garraioaren ondoren izango zen. Nire lanetik berrogeita hamar metro gorago, zentineladorre bat dago. Handik pasatu dira hiru zorigaiztokoak. Eskutik oratuta eta mantso-mantso ibiliz joan dira burua nabarmenki altxatuta. Himnoak ahots gora abestuz gurutzatu dute arantzazko hesia. Goardiak fusil metrailadorearekin egin du tiro.

—Eta medikua, nola hil da?

—Ez dut ezagutzen.

—Denetan altuena.

Francescek azaldu du nola bien artean hirurogeita hamar bat kiloko harri batekin zamatu zuten.

—Ezin zen bere oinen gainean egon —azaldu du. Astindu gogorraren ondoren nekez altxatu zenean, trapuzko panpina balitz bezala tolesten zitzaizkion hankak. SS batek arantzazko hesi-zati bat eman eta harri-jotzaileen barraka nola erakusten zion ikusi dut. Bertan zegoen batek dio bi minutu eman zizkiotela. Diote, askatu zutenean, lepoko azalaren azpian ezkutatuta zeukala arantzazko alanbrea.

Hotzikara sentitu du Emilik. Artile errearen usaina are haserregarriago hautematen du.

Eguraldi onaren etorrerarekin, jakiak bere kontsistentzia finaren zati on bat galtzen du.

—Desizozteak ere bete du sukaldea —esan berri du gosetietako batek umore beltzez.

Eta Vicentek, erresistentzia-errekorra gainditzen ari delarik, are mingarriago sentitu ditu bere oinazeak. Izatez, gosea berbera da, baina ontzia gelditu eta ur arrezko

burduntzalikada, arbi eta pataten hondakinekin, ustutzen ikusten duenean, zerebrora iristen zaio zuzenean begien bidez. Argi dago ur zikinarekin inor ez duela agoantatzen eta, nahiz eta Vicenten adimena urria den, aski bada bere hausnarketaren ondorio zuzenak ateratzko.

—Ez pentsatu jakietan —aholkatzen diote goserik ez daukatenek. Ez duzu hainbeste sufrituko.

Nola nahi dute bere gosean ez pentsatzea, hankak gero eta ahulago baditu, burua itzulika badauka, barneko hustasun horrek zurrumbilo batek bezala urrupatzen badu? Ezin du ekidin bere begiak janariarekin zerikusia daukan edozeren atzetik galtzerik; plater-, goilara-soinua, duela urte batzuk herrian bertoko bandaren kontzertuak bezain erakargarria izatea. Zein da bere errua inork baino lehenago entzuten badu sukaldetik termoak jasotzeko unea adierazten duen txistua? Zer egin dezake inor baino hobeto informatuta baldin badago biharamuneko “menuaz” eta galdarakada osatuko duen material bariabileen dosiaz, termo bakoitzetik irteten diren burduntzikaden kopurua zehatz-mehatz ezagutzera iritsi baldin bada eta, egunero iladan ikustearen ikusteaz, zerbitzu berezien truke, aldi behin platera osagarri bat jasoko duten zorionekoen izenak bihotzez ezagutzen baditu?

Oholtzoz eta listariz eginiko balantza-moduko bat inprobisatu du Vicentek, ogiaren banaketa ekitatiboagoa egitearren, zeina, eguneroko azken zenbaketaren ondoren, hiru lagunentzat banatzen duten. Eta ekitateak huts egiten badu balantzak eduki arren, zatiak lekukoan aurrean banatzen ditu, galdera hau eginez: “Hau, nozentzat?, entonazio ia liturgikoz. Beranduago, dagokion zatia jaten du inoiz ahaztu gabe belaunen gainean zaku-zati bat ipintzea, ezpain-zapi modura, papurrik ttikiena jasotzea ahalbideduko diona. Ogi hori zerrautsez eginda dirudi eta erabat apurtzen da.

Hondakinak itxarotera ugaritasuneko *Blocketara* aurkezteko trikimailuak, janaria gero eta txarragoa izan arte emaitza hobea ematen dio, eta ez du desatseginik hartzen han orduak eta orduak pasatzean, egun haietan, igandeetan adibidez, zeinetan eremuan jaten duten. Minak ez du harengan eraginik, *Blockältesterrak* erratz-kirten batekin ezker-eskuin kolpeak emanez irten eta berak handienak jasatzen dituenean, hanka ahulen eraginez.

Zakur batek bezala usnatzen ditu Vicentek garniziorako den kanpoko itxiturako zarama-ontziak, hauts, lasto, zerrauts eta hautserre artean patata-azal batzuk edota ogi lizunduaren azal bila.

Haren pentsamenduak denbora librea izan balu gosez gain beste gai batzuetara dedikatzeko, eta oraingo “Valencierra” lehenagoko Vicentekin alderatzen saiatu izan balitz, nekez iritsiko zen. Izan ere oraingo azal pergaminatua, beste garai batzuetakoa, atezatu eta distiratsua, al da? Bere bizkarrak izan al du oraingo okerdura, dena urdail hustuaren gainean tolestuko balitzaio bezala. Eta mendean daukan umore beltza, kideekiko tratuan gero eta suminkorrago egiten duena? Vicent ez da jabetzen bere aldaketaz, beretzat ez baitago gosea besterik. Norbaitekin txikikeriengatik borroka egiten duenean, bere suminak, bere ahotik ateratzen diren irainek, bere argaltasuna astintzen duen haserre santuak eta auskalo nondik ateratzen duen indarrak, izatez zuribiderik baliagarrienak daukate. Bizitzea baldin bada bere eskubide naturala, baita bere eginbeharra ere, sumin harekin gosez hiltzeko asmoarekin bere aurka batzen den gizartearen aurrean bere burua defendatu baino ez du egiten. Arantzazko hesietatik haragokoez atxilotu eta gaizki tratatua, zorigaitzean kide direnek mesprextatu eta iraindua, gizon bat, printzipioz, etsai bat da. Era guztietako gabeziek, hainbat astetako min fisikoak gorrotoa sortu dute haren bihotzean, gorroto errotoa, bizirauteko senaren arabera lehertzen dena. Abere basati kaiolatuaren lez, bere hortz horitu eta haragigabeak erakusten ditu egokiera dagoenean.

Luze doa Vicent egoera horretan bizi dela. Berebiziko erresistentzia berea, antzeko beste hainbat kasuk hiru hilabete gaingaitzen ez dutenean. Destinoa esperimenduak

egiten dabil haren gorputz gaixoan. Oinazeek gaindituta daukate sentikortsuna anulatzen den maila. Horregatik “Valenciarrak” ez da jabetzen azalduenezko superbibentzia-kasu arraro-arraroa dela, bere liseritze-aparatuaren aktibitate ezak bere baliabide konszienteak paralizatu balitu bezala. Vicentek deus ez daki, deus ez du ulertzen, deus ez du gogoratzen. Soilik gose da.

Augustek, bera bezala valenciarrak, aldian behin laguntzen dio, baina bera bezalako hainbeste kasu daude eremuan!

—Ez itzazu zikinkeriak jan, adiskide —aholkatzen dio—. Ez dizute gosea kentzen eta aldiz beherakoa dakarkizute.

Nekez eta oinez lortu du harrobitik barrakagunera doan bideko berrogei mailak igotzea. Bera bezain hondatutako bi kidek eraman behar izan dute lepoan, meritu bikoitzeko sakrifizioa, kontuan harturik nola egin duen Vicentek igoera guztia marmarrean gelditu gabe. Luzea izan da zenbaketarako formazioa, inoiz baino luzeagoa, seguru aski zifrak ez datozelako bat, eta pabiloian sartu baino lehen, behin lerroak hautsita, Vicent etengabe liskarrean egon da, bera bezala ogiaren ilarara lehenago iristeko atean metatzen direnekin. Une haietan, “Valenciarrak” sukarra dauka; minutu gutxi falta dira ogi laurdena eta butifarra-xerra ia gardena jasotzeko, eta jadanik sentitzen ditu ahosabai lehorrean irin lakarren garratzasuna eta nahasketaren puntu mikatza. Listua isurka dauka eta ondorioz mintxoak sentitzen du belarrietan. Bere tokia dauka Vicentek ilaran, eta gutxika aurrera eginez, egoki bildu eta ilaran jarritako ogien mahaiari finko begira dago. Aurrean dauzkanak kontatu eta begiz jo du banatzeko moduaren arabera segurki egokituko zaion alea. Bai ogi eskasa! Txikia, errea, zatikatzean apurtuko dena. Bere betiko zorte txarra madarikatu du gizonak eta hari iskin egitea erabaki du, ahal murrizten arabera. Ilaratik ihes egin nahi du, eta pixa egitera joan beharra aitzakia ona da. Atzerago jarrita, ostera probatuko du.

—Et, et! —atzekoak protestaka maniobra susmatuz—. Bakoitza bere tokira, elkar ezaguzten dugu-eta.

“Valenciarrak” ez da mugitu eta, segundu batzuk geroago, amaitu da obsesioa. *Blockältesterrak*, *Popeye* basatiak, bere armairu pertsonaleko atea ireki du, jantokiaren hondoan, idazkariarekin jan ohi duen mahaiaren atzean doi, eta Vicentek, bere tokitik begirada botata, ogi osoak bistaratu ditu, bat bestearen gainean, goiko apalean ipinita. Ez, ez dago ametsetan. Armairua ostera itxita dago, baina bi ogien irudia ez da bere betsaretik ezabatzen. Anoa egokitu zaiona hartu du haren akatsak kontuan hartu gabe, bazkaria soberan balego bezala; bere matrikula-zenbakia eman, jarraitzen dioten kideek, haiekin konpartituko baitu, berena banatu dezaten itxaron, eta logelan sartu da. Banaketan, Vicent ez da beste egunetan bezala liskartu; txintik atera gabe onartu ditu beste bi kideen sugestio igoalitarioak.

Orain zati bat bada argi guztiak amaitu direla. Baina Vicent, neke ikaragarria jasan arren, ez du lorik egiten. Begiak irekita, ametsetan dago. Eremuko jakien biltegiaren infiltratzea lortzen duela amesten du, nora kutzak garraiatzen ibili den beste aldi gogoangarrian bezala. Bere usaimenak zehatz asko usaintzen du jaki-denden usain nahastezina, ogi bigunarenarekin nahastuta, eta zehatz-mehatz ikusten du nola irristatzen den bost kiloko marmelada-poteen zuku itsasgarria. Imajinazioaren ahalegin ttikiarekin dena berea izan daiteke lo egiteko une honetantxe. Paper parafinatuz bildutako butifarretatik hasiko da, margarina askorekin igurtzi eta azukre finez hautseztatutako ogi-xerrekin jarraituko du eta goilarakadaka amaituko du marmeladarekin. Ametsa, soilik ametsa. Eta pentsatzen du badela norbait bere eldarnioaren objektua den guztia daukana. Ez berak, egia esan! Berak ez du sukaldean lan egiten, biltegiaren ere ez, ez da *Blockeko* arduraduna. Zergatik dauzka *Popeyek* bi ogi osorik bere armairuan, berak administratutako presoek ebatsitako bi ogi, eta berak, aldiz, ez dauka bat bera ere, ez koskorrik, ez papurrik? Hiru egunetan behin jaten du bat

eta, daukan gosearekin, bi ogiak bata bestearen atzetik pasatuko lirateke, ukitu gabe. Bere gaitzak ez dauka erremediorik.

Biharamunean jaikitzerakoan, zopa urduna edo "kafea" hartu eta eguerdira arte iraungo du, eta orduan litro bat eskas ur zikin jasoko du. Ogia, jaki solido bakarra, ez du hogeita lau ordu pasatu arte ikusiko. Vicentek ogia nahi du, ogi gehiago behar du, eskubidea du, *Blockeko* arduradunak beste jaki hobeekin ase eta bere trukeentzako gordetzen duen ogia lortzeko.

Eta Vicent bere ohantzetik jaiki, kide lokartuen lagunak gorputz gainetik pasatu eta, oinutsik, galtzontzilotan, komunera joango balitz bezala, logelatik irten eta jantokira sartu da. Isiltasuna eta iluntasuna ez dira erabatekoak: esparruan ezin dira inoiz izan. Jantokian administratzaile alemaniarren, interpretearen eta zerbitzuko mutilen literak daude. Haien arnas-hartze konpasatua eta han-hemenkako eztulen bat entzuten dira. Erreflektore gehiegi hormaren luzeran eta zenbaketen plazan, lehiatilarik gabeko leihotatik islak sar ez daitezten. Zoruak krak egiten du Vicenten pausu arinean, eta beldur garaitezinak hartzen du mendean. Segundu batzuetan gelditu, zuhaitz-orri bat bezala dardarka, adi-adi entzuten du. Inguruan inor ez da mugitzen. Pixatokitatik isurbideen txistuak baino ez dira etorriko. Gelan, denak lo daude. Vicent terrorearen hormatzea utzi eta, zentzumen guztiak ezabatuta, armairuetarantz abiatzen da...

Biharamunean ez du zopari ogia birrintzeko ergelkeria egingo, *Popeye* lapurretaz jabetuta egongo baita eta ikerketak egingo baititu. "Valenciarra" urdail torturatuan betetasun-sentsazioarekin irtengo da lanera; liseriketa zailaren zehar atsegin ugariaren iturria aurkituko du egonezin hartan.

VI

Pozik egoteko arrazoiak dauzka Hans Gupperrek. Gerrak alemaniarren aldeko jitea dauka, prestaketa militarrek beste kanpaina erraldoia abian dagoela adierazten du, eremuaren eraikuntza erritmo egokian doa, ospitalearen instalazioa komisio-zati onak utziko ditu eta, hori dena gutxi izatera, preso-kopuru handien etorrera aldarrikatu berri diote telefonoz, eta horrek faltan hasita dagoen eskulana ekarriko dio. Dena ondo doa; eguraldi ona ere egiten du. Perspektiba ezin hobeen balantzearekin, ofizialak ileapaindegiko atea bultzatu du.

SSen erabilpen eskusiboko dependentzia da, bere bulegoaren ondoko pabiloiaren departamendu batean instalatuta dago. Barraka bakoitzaren inguruan dauden soropil-parterre apalak lore horiz tartekatutako berdez estalita daude.

Ofizial bat sartzean denak tente jarri ohi dira, eskuaren keinu ttiki batek lanari berrekiteko adierazten duen arte. Atalasea gurutzatu orduko egin du keinu Hans Gupperrek. Erreserbatuta daukan besaulkiak biguntasunik handienarekin hartu du, eta *kommandoko kapoa*, ileapaintzaile vienatar oso sabelduna eta gozaten duen pribilegioekin harrotuta, prest dago, beti bezala, bizarra egin ez ezik eremuko berriketa guztiak buruz kontatzeko. Hans Gupperrek soilik aldi behin entzuten dio eta, orduan, pozik dagoenez, irribarre egiten dio.

Ohikoa da alemaniarren artean aurpegiko masajeen ez ezik kremen mania. Nazismoaren *parvenus* artean ohikoa da luxuzko, jas eta refinamenduzko artikuluen erabilpen inmoderatuak, zeinek, aurreko aldietan, artean ezer ez zirenean, aberats eta boteredunen pribilegioak kontsideratuko zituzten. SS batzuek goanteak jantzita eta goanteen gainean letoizko eraztun potoloak ipinita jaten dute. Uniforme militarrek fantasia handirik onartzen ez duenez, ileapaindegian azaltzen da trabarik gabe handikeria-jorana. Garaiotako ukenduak "gerrakoak" dira, baina daukaten kalitate eskasa ez da oztopo artista dotoreentzat. Kontua da ondo lurrinduta eta azala ondo olioztatuta joatea. Eremuko komandantea da Hans Gupper eta, bere kategoria sozialaren arabera, jatorri frantziarreko masajeak dauzka bere eskura, Frantziako inbasioan prezio onean lortuak, eta komtsumitu ahala flaskoak ematen dizkio bere ileapaintzaileari. Vienatarrarentzat, benetako altxorra da ukendu hura. Preso sukaldari edo biltegiko batek edozer gauza egingo luke halako pote bat lortzeko. Komandantearen krema! Ez dago aski ogi eta aski margarina hura ordaintzeko.

Aspalditik pentsatuta dauka *kapoak* bere negoziatarako bat gordetzea eta, ikusirik Hans Gupper umore onean ailegatu dela, une egokia dela uste izan du:

—*Obersturmführer* —hasi da—, ekarri didaten masaje bat probaraziko dizut. Frantziarra baino hobea dela esatera ausartuko nintzateke. Belar naturalekin egina...

—Ez dut ezer probatu nahi.

—Izan ere... bestetik ez baitaukat ezer.

—Aste bete da pote bat eman dizudala.

—Ez dakit nola esan, *Obersturmführer*. Disgustu handi bat daukat... Apurtu egin da...

—Engainatzen nauzu.

Kapoaren irribarrea zurikeria higuinarririkoa izan da.

—Utikan nik zu engainatzea... Oraindik ez naiz erotu.

—Ongi, pasa zaitetz gero nire bulegotik.

Salbatuta dagoela uste izan du *kapoak* eta osteria itzuli da lanera. Baina Hans Gupperrek ez dauka irribarrerik eta, aukerarik altxatzean, aurpegia xukatzen duelarik, solairutik paseatzen hasi da. Bere indiferentzia afektatuak *kapoaren* desasosegua pizten du.

—Material askirik ba al daukazu?

—Bai, badaukat.

Armairua ireki eta beste inoiz baino interes handiagoarekin begira dago ofiziala. Beste armairua ere ireki du, trapuena, eta ezpainzapi eta baten pakete artean sartu du eskua. Zati batean haztatzen egon da. Zurbil dago *kapoaren* aurpegia.

—Beste behin ezkutatu hobeto lapurtzen duzuna —esan du Hans Gupperrek irribarre lazgarriarekin.

Flasko zuri bat ipini du mahaitxoaren beira gainean. Ofizialaren azpegia gogortu egin da bat-batean.

—Zer egin nahi izan didazu?

Kapoa dramatiko ipini da:

—Espainiar hauek izango dira. Apurtu zela esan didate eta nik haiei sinistu. Hau dena gertatzen zait...

—Ixo! Lapurra izatea, tira; horregatik zaude hemen. Baina ez dut gezurrik nahi... —Eta orduan espainola eta alemana era bitxian nahastuz, esan du: *Espanyòler!*

Bat seinalatu du, hurbilena:

—Zu, zu.

Hogeita hamar bat urteko gizona tente jarri da.

—Ba al dakizu hau hemen dagoenik?

—Ez dut ulertzen —erantzun du espainiarrak aleman zailean.

Ataka gaiztotik ateratzeko modurik onena izan da. Hans Gupperrek irribarre ttikia egin eta *kapoarengana* zuzenduz:

—Bihar, zigor-konpainiara. Eta hemendik aurrera —espainiarrarengana zuzenduz—, zu izango zara nire ileapaintzailea.

Espainiarrak ergel-aurpegia ipini du, eta mimikaz ulertarazten saiatu da ofiziala. Laster ohartu da egoera erridikulua dela: besteak ongi asko ulertu du hasieratik. Bukatzeko, izena eskatu dio.

—Rubio —espainiarrak.

—Barcelona? Madrid?

—Madrid.

Txirrista-kapela jaso eta kalera irteteko prestatu da Hans Gupper.

—Langile onak espainiar hauek —inorengana zuzendu gabe.

Mundu guztia zutik paratu da *Achtung!* entzunda. Kanpoaldean epeltasunaren geruza zabaltzen du. Hans Gupper motorraren bila atera da; gaur familian bazkalduko du.

Emili pribilegiatuen *Blockera* bizitzera pasatu den geroztik Francesc maiz biltzen da Augustekin, batik bat afal ondoren, kontzentrazio-esparru bateko tertulia-ordu bakanetarikoan. Portaera ona izan du Augustek Francescekin. Kapo alemaniarrekiko harremanak baliatuz, lantoki lasaia eskaini dio, elikaduran abantailekin eta guztiarekin. Ez da arraroa beraz, ondo zainduta, berriketarako gogoia edukitzea, August polemikazalea baino diskurtso-gizona den arren.

Ilunabarrean, interpreteak jantokiko txokoan daukan ohean jesarrita, *Blockeko* arduradunak lo egiten duten toki bereborean sukalde-kontuekin, begetarismoaz eta gerrari buruz hasi da berriketa. August grina bereziz “bihurritasun britaniarraz” mintzo den unean iritsi da Emili.

Bere mahaitik, non afaldu berri duen, *Popeyek* burua altxatu du, onberaz irribarre egiteko. Aurreko hilabeteetako mehatxuetatik, non Emilik burua zapatarekin markatu zion, irribarre meneko hau baino ez da geratzen. Wernerrek, arropa zibileko biltegian lan egiten duen eta frantsesez mintzatzen den alemaniarrek, egoki asko azaldu du:

—Latinoek ezin gaituzue ulertu. Tenperamentu indibidualisten sentimentu propioa da arrankura. Laidoa, duintasuna, onorea, esanahirik gabeko kontzeptuak dira alemaniarrontzat. Zuen Calderon horrek barrea eragiten digu. Ohituegiak gaude obedientzia eta hierarkien onespenera. Gure artean boteredunen galga bakarra are boteretsuagoen autoritatea da. Ahulak indartsuaren abusuak jasaten ditu eta, herrialde osoa kaserna bat balitz bezala, bakoitzak bere boterea erakusten du, behekoarekiko

goikoak inposatzen dion mendeku gisa. Bitxiena irudituko zaizuen da kategorian gora egiten duen alemaniar ahul batek sekula ez duela pentsatzen laidoztatu dutenekin bakea egitea. Sentimentu estramilitarra da arrankura, eta gure artean ez dauka sarbiderik. Gora egin duenak zurruntasunez eta objetibitatez aplikatuko du bere autoritatea eta behean geratu denak bizkarra jarriko du, berak agindu dueneko inpasibilitate berberaz. Eta maila berean dauden bien artean, elkarri dioten beldurraren araberakoak edo batak besteari egin ahal dizkion zerbitzuen araberakoak dira harremanak.

Kargu garrantitsua dauka *Popeyek* baina Emilik *Effektenkammerrean* lan egiten du eta ziurtatzen dute SSKo ofizial baten babesa daukala. Hierarkia-parekatze bat dago, beraz. Gizon zuhurra (*ältester*) da *Popeye*, eta marrazkilaria pasatzen denean, irribarre egiten du.

—Ohea hondoratuko didazu! —Augustek barrezka, Emili bertan jesarri denean.

—Albiste on bat —aditzera eman ez, marrazkilaria—. Ingelesek ofentsiba berria abiatu dute Afrikan.

—Esaten nizuena —Augustek—. Ingelesek jolasean dabilta gerra honekin. Gaur aurrera, bihar atzera... Denbora egin eta orokortzen utzi, Estatu Batuek, Japoniak...

Laster berotu da elkarriketa. Emilik diskurtsuak moztu ditu Ingalaterra defendatzeko, eta Francescek eraso egiten dio ESSBi itun germano-sobietarrarekin gerra probokatzeagatik.

—Rusia ez da sorgor geratuko alemaniarren hedatzearen aurrean hegoekialdeko Europan. Parte-hartu beharko du, ziur.

Francescek ziurtatzen du komunista guztiak, eremukoak barne, konbentziturik daudela, goiz ala berant, eginkizun erabakiorra izango dutela gerraren bukaeran.

—Esparrukoak? —galdetu du Emilik, harrituta.

—Ez al zenekiten antolatuta daudela?

—Espainiarrak?

—Nor bestela? Ez dira alemaniar gaizkileak edota katoliko poloniarrek izango!

—Betiko mania —Augustek mespretxuz—. Edonon, antolatuta. Ez eman garrantzi handirik!

Francescek azaldu du komunistak laguntza euren artean antolatzen saiatzen direla, esparruko administrazioan pribilegiozko-tokiak erdiesten, beren jendea salbatzen, indartzen, antolatzen, kanpoaldearekin kontaktuak bilatzen. Eta amaitzeko:

—Uste dute kontzentrazio-esparruko presoak zeregin garrantzitsua egitera deituak daudela bosgarren zutabearen azken matxinadan.

—Hori ameskeria da —Augustek, burlati—. Lortuko duten bakarra SSen interbentzioa izango da.

Emilik uste du hobe izango litzatekeela espainiar guztiak partiduak bereizi gabe batzea.

—Komunistei jokia egitea izango litzateke hori eta denak batera konprometitzea —dio Augustek—. Pellokeria hori gauzatzea ekidin behar dugu.

—Eta zergatik talde bakoitzak ez du egiten komunistek egiten dutena? —Francescek.

—Gerra zibila hemen jarraitu? Egin behar duguna da esparruko agintarien konfiantza erakarri eta haien tolerantziaren bidez daukaten joera berritu. Trebetasun eta pazientziatzeko zeregina...

—Ondo halere pazientzia! —Francescek, moztuz—. Hori posible denean ez gara mundu honetakoak izango.

—Esparruan espainiarrak baino ez daudenean, oso gauza posiblea esan didatenagatik, SSK gure kolaborazioa beharko dute nahita nahi ez. Orduan izango da gure sena erakusteko unea.

—Eta esan dizutena egia ez bada, sekula ez bagara minoria besterik?

—Nirea konponbide bat izan daiteke, aldiz taldetxo eta borroka politikoa antolatzea ez da sekula suizidio kolektiboa besterik izango.

Iluntzen ari du. *Blockältesterra* zerbitzuko mutilei deitzen ari da iluntzeko garbiketari ekiteko. Txokoa utzi eta garbiketari paso eman beharra dago.

—Erretzera gonbidatzen zaituztet —dio Emilik.

Kanpoaldean, esparru gainean etzaten da eguna. Izarrak distirutzen hasiak dira, gizakien gauzeekin desinteresaturik. Isilik erretzen ari dira hiru lagunak. Behar bada euren pentsamenduak azalduko balituzte bat etorriko liriateke, kontsideratzean, pixka bat lehenagoko burutazioak ezdeusak direla ordena unibertsalean, zeinaren gau lasaia isla bat den. Milaka gizon hiltzen ari dira, triskantza eta miseria gailentzen dira Europako lurraldeetan eta, aldiz, eguzkia egunero bezala etzaten da, gaua beti bezala dator eta beti bezala desegingo da urrengo egunsentian. Ziurtasun hartatik jaio da esperantza, betiereko gauzetan sortua. Mantso doa denbora, baina egun eta gauen segida lasaitik etorriko da gaurko arazoek konponbidea. Hilabeteak, urteak eta mendeak pasatuko dira. Eta munduak gerra hau ahazturik, orduan ere eguzkia arratsero sartu eta goizero irtengo da.

Oinak lurrean ipini beharra dago. Hiru lagunak, hitzaspertu baten ondoren, lotara joateko banandu direnean, eremuko zuzendaritzan eragina izateko planetan pentsatzen jarraitzen du Augustek, lagun sindikalistekin mintzatzeko geratu da Francesc, eta espainiar guztien batasunari atxikita dago Emili.

Erraustegiko *kapoa* oka egiteko gogorarekin esnatu da. Pultsuetan oldarka dauka odola eta laster hotz-dardarrez edukiko du gorputz osoa. Zerbait mugaezinak eragozten dio erabat esnatzea. Ahalegina egin eta burua astindu du edozein mugimenduk dakarkion min-zitadak gorabehera. “Lurrean egin dut lo”, esan du harrituta. Beste ahalegin bat eta zutik jartzea lortu du. Aho lodiak mozkorraldiko beste esnatze batzuk ekarri dizkio gogora. Memoria egiten saiatu da: “Ez dut edan, urteak dira ez dudala edaten”. Poltsikoko erlojuari erreparatu dio. Ordubata; minutu batzuk falta dira. Mahaian bermatuta, “kafe” kizarak begiratzen ditu zeinak, gauero lez, Seppl kapoarekin eta Peter sanitarioarekin hartu dituen. Bat-batean dena ulertu du: hiruetatik berak bakarrik hustu du katilua. Tximista bat bezala atera da. Bere gaitzei erreparatu gabe eta mozkorraren pausu zalantziatuekin, solairua zeharkatu eta eskailera metaliko batzuk jaitsi ditu. Ez da erratu: Kalefakzioaren lurrazpiko galeriako burdin-sarea, den bestean irekita dago. Lurrean, txoko batean, jantzi marradun-multzoa ikusi du. Ez du gehiago jakin nahi izan eta, ziztu bizian, kanpoaldera irten da.

Zalapartan jo du kanpaiak eta harresiko erreflektoreek gaua zigorkatu dute. *Blockeko* leihoak ere argiz eta soslaiez animatu dira. Goardia-saileko SSak eremutik sartu-irtenean dabilta, erraustegitik *Blocketara* eta *Blocketatik* idazkaritzara. *King-kongen* ahots eta gorputzarrak gailentzen du nahasmendua. Txistu-hotsez, eroaren pare garrasika:

—*Blockältesterren* bilera! *Blockältesterren* bilera!

Une bat beranduago, bakoitzari dagokion *Blockera* itzuli eta mundu guztia formatzeko agindua eman dute. Gizonak ateratzen hasi dira barraketatik, pixka bat lehenago lozorroan, hainbeste, gezurra dirudi hainbeste daudenik. Alemaniar arduradunek presahotsak eta kolpeak banatzen dituzte. Jende logaletuak euli urdinen erlauntza dirudi.

—Zenbaketa, plazan —horiexek dira ordenak.

Eta han batzen diren kaleetatik *Block* bakoitzeko gizakumeak iristen dira, hamarreko zutabetan eta lelo errimatuarekin: *Links, zwei, drei, vier...* Operazioa luzea da, baina, bakoitza formazioko bere tokian dagoenean, *Blockältesterren* aginte-ohtsak baino ez dira entzuten, lerrokatze perfektuak egiten saiatuz. Ahots lehor eta zorrotzak, elisioen bidez eginak, altxatzen dira plazatik zakur-saldo baten zaunkak bezala edo basatien tribuaren oihiak bezala, gerrara kitzikatzen.

Zenbaketa egin, denek ulertu dute altxatzearen arrazoia. Erreflektoreen argi gordinak figurak ebaki eta formazioaren erregularitate akasgabea nabarmentzen du. Milaka eta milaka gizon, burua biluzik, geldi, lerrotan, begiak loak hartuta, alde batetik bestera gelditu gabe korrika dabiltzan SSen maniobratzearen emaitzaren zain daude umore txarrez.

Motor bat iritsi da burrunba handiarekin. Makina gelditzean, takoi-kolpeak eta oihuka esandako "nobedadeak" entzuten dira. Hans Gupper sartu da. Mugimendu inutilak eginez erakusten dute SSek beren ardura. Aginduak eta kontra aginduak jarraian, zigorkolpeak bezala plazan joka.

Popeyeren azalpenak entzuten ari da August.

—Zer diote? —galdetzen du Francescek, haren aldean formatuta.

—Ondo gaude! —Augustek, erantzun gabe.

—Zergatik?

—Bi gizonak alde egin dute. Aurkitu arte ezin ditugu iladak desegin. Araudia da.

—Eta ez badituzte aurkitzen?

—Orain arte beti aurkitu izan dituzte.

Eta isilune baten ondoren:

—Behin, zuek iritsi baino lehen, hiruk egin zuten ihes eta hamaika ordu jarraian egon ginen elurra jasaten.

—Halako zorrea!

—Ixo! —*Popeyek* oihuka.

Erraustegirantz igaro da Hans Gupper. Mantso eta zurrun, mami gainean balihoa bezala. Bere bi zakurrak ditu lagun itzulipurdiak egiten, eta SS batzuk, beren zelatari-bizitzari monotonia aldatzen duen gertakariak animatuta-edo. *Blochältesterrak* takoi-kolpez agurtzen du koadro bakoitzaren burua.

—Seppi! —esaten du idazkariak. Zure *kommandoak* egin du lurrazpiko galeria, ez da?

—Horregatik ezagutzen dut bidea.

Une batzuen buruan, *Popeyek*:

—Dirudi Erraustegiko *kapoa* parte izan dela.

—Baina berak ez du alde egin.

—Narkotizatu egin dute. Koldar bat da, badakizu.

—Kantarazi egingo dute eta dakiena eta ez dakiena esango du.

Berriketaz jabetu da Francesc baina pertsonaia haietako inor ezagutzen ez duenez, istorioak aski indiferente uzten du. Soilik pentsatzen du, gauez, aski zail egingo dela iheslariak topatzea eta, eguna argitzen utzi behar baldin bada, eta hori suposatuz jarraitzaileek asmatzea, egoera aski astuna izango dela. Min egiten diote giltzurrunek eta hankek. "Eta indartsu nago ni!, pentsatu du. Normalean zutik irauten ez duten zorigaitzokoentzat, jasanezina izango da tortura.

Erraustegira itzuli da Hans Gupper. Konplize abandonatua haren segizioan doa orain. Galdeketaren txanda da. Ordenantza batzuk pasatu dira minutu batzuk geroago, tresna egokiekin kargatuta: egurrezko astoa, asto-bizkar formakoa, esertokiak edukitzeko erabiltzen dituzten bezalakoak.

—Hogeiabosten kadira da —esaten du Augustek.

Entzuna dauka hori Francescek. Kontzentrazio-esparruetako tortura-klase arruntena da. Edozein akats, indisziplina ttiki bat, SS baten aurrean burua estalita igarotzea, patata batzuk *errekisatzea*, lan-tresna bat zoritxarrez apurtzea, huskeria bat aski izan ohi da gizon bat astoaren gainean jesartzeko eta, zigorkolpeak, hogeita bost zigorkada ematea. SS indartsuenen artean kirol-konpetentzia moduko bat gertatu ohi da borro-eginkizunerako. Biktimak kolpeak ozen zenbatzera behartzen dira eta, norbaitek zenbaketa galdu eta deskontua eginez gero, ostera abiatu ohi da seriea.

Plaza osoan zehar entzuten dira zigorraren kolpeak, mailua ingudean nola. Bat-batean, oihu lazgarri batek zartatu du jendetzaren isiltasuna, hainbat segundotan hedatu den

oihua, ulu bat bezala. Erraustegiko *kapoari* serie hirukoitza ezarri zaio. Hiruna kolpe bakoitzeko zenbaki bat ahoskatu behar da eta hitzak minak deformatuta ateratzen dira, guturalak eta ulertezinak, baina kalean zutik dauden gizonek zehatz-mehatz daramate zenbaketa. Gehienentzat, *kapoa* gaizkile alemaniar bat besterik ez da, beste presoen biktimarioa izatera makurtzen dena eta, aldiz, une haietan, eremu osoa dauka alde. Borreroek zigorra eten dutenean, galdetzeko prest ote dagoen aitortzeko, bat datoz denak, hirurogeita hamabost zigorkadak jaso ditu. Laguntza moral hark galdekatua isilik dagoen bitartean iraungo du. Batek ez badaki agoantatzen, bizitzaren prezioan izanda ere, gainerakoen mespretxua izan ohi du.

Koldar-ospeak aditzera emango lukeena baino gehiago agoantatzen ari da *kapoa*. Jadanik ez da entzuten zigorraren errea, nahiz eta torturatua are modu makurragoan kexatzen den. Intziri luzeak dira, abere zaurituarenak antzo, aldika zorrotzak eta sarkorrak, aldika itzaliak aurrekoen oihartzun gisa. Augusten suposizioa:

—Eskumuturretatik zintzilik edukiko dituzte. Bizkar atzean lotuta. Hankak luzatzen dizkiete besoak lokatu arte.

Une batzuk geroago, zakurren zaunkek eta uluek menderatu dituzte intziriak. Hotzikarak astindu du asanblada, korronte elektrikoa balitz bezala. Akuaforte goyeskoa dirudi goizak: dena da argi gordin eta terrorearen mailukada amarruzkoak anulatutako pentsamendu.

Hiru ordu irauten du paradak eta, ekialdetik, egunsentiaren lehen argi-printza ageri da. Gauaren geldotasun eta freskurak oso gogorak dira preso ahulentzat. Atsedenduak amaitzen ari dira, eta gertuago dago diana, eta lorik egin gabe atera beharko da lanera. Francescek buruan du laister hasiko den egunaren gogortasuna. Betiko hondoratuko diren gizonak ditu gogoan. Orokortu nahi du, azalpenak aurkitu: distraitzeko, probak jasateko, duen modua da. Bistan dago naziek zigor kolektiboekin egiten duten amarrua: gero eta injustuagoak izan, gero eta dentsuagoa terrore-giroa, gero eta ikusgarriagoa *mise en scène* delakoa, are efikazagoak suertatzen dira. Gorputza eta arima desegitea. Francescek harriduraz ikusten du naziek nola dakiten antolatzen etsaiaren estermioa. Nekeari aurre egitea da, oraingoz, estermintzaileen xedeei aurka egiteko modurik onena.

Koadroaren azken ilaretatik, ahots eta mugimendu-olatu bat altxatu da. *Popeye* suminkor hurbildu da.

—Ixo! —agintzen du. Zer gertatzen da hemen?

Gizonetako batek konortea galdu du eta bi kide hari eusten saiatzen ari dira. *Popeyek* aginduak eman ditu, Augustek itzuli, gaixoa formaziotik atera eta lur hezearen gainean utzi da zerraldo.

—Pasatuko zaio —alemaniarrek, marmarka.

Beste gizon batzuek ere konortea galtzen dute formazioaren koadro batean ala bestean eta, sortzen ari den egunak bere argi indiferentea asanblearen gainean ezarri duenean, koadroen arteko tartekak konorterik gabeko gizonez beteta daude.

Bitartean, erraustegiko *kapoa* bulegotik atera da, nekez eta dolorez agoantatzen, besoak erorita, burua besaburuan hondoratuta eta hankak zurrun, arropa odoleztatu eta zarpailduak ipurmasail haragi bizikoan ez igurzteko. Hormaren kontra ipini dute. Behin ikerketa bukatuta, *Arrest*-era pasatuko da, zigor-ziegetara, kartzela kartzela barruan bera, nondik gutxi ateratzen diren bizirik. Eta *Blocketako* formaziotik, txistukada soil baten bitartez, lantaldekako formazioara pasatu da, eta presoek lanera atera behar izan dute arauzko “litro bat kaferik” gabe.

VII

Etorri berri diren ehunka holandarrek inauguratu dute hilakintza handien denboraldia. Hans Gupperren esparrua, Austria Reich Handi alemaniarreara atxiki ondoren eraikia, "Danubio urdin ederraren" uren goialdean, Gestaporen jazarri kuttunenak jasotzen hasi da. Inbasoerak, ardi-larrua jantzita eta, propaganda-hedatze handiarekin, "lan-eremu boluntarioa" aldarrikatzen du, non juduak azkarrago erredimitu ahalko diren. Lakioan eroritako inozenteak kontzentratu egin dira, eta filiazioak, helbideak eta erreferentziak hartu dizkiete. Tratua egokia da. Lanik batere ez. Laster ikusi dute nola ahaideak, lagunak eta ezagunak haiek laguntzeko sartzen diren. Alemaniarrek ondo erabili dituzte lortutako informazioak. Horrela gertatu da, "lanera" joateko orduan, familia osoak joan direla heriotzara.

Hirurehun judu holandar, haietako batzuk 14 edo 15 urteko mutikoak, ekipajez, elikaduraz, diruz eta bitxiz kargatuta, estermio-esparruan sartu berri dira.

—Ireki begiak —esan dio Wernerrek Emiliri murrikaz, zeinari hau dena berria egiten zaion—. Ireki begiak, adiskidea, gaurko saioa bikainetakoa izango da-eta.

Juduek biluztu egin behar izan dute, poltsikoak hustu, maletak zabaldu, paketeak hautsi ondoren. Une batzuk ahoa zabalik geratu dira SSak, saltoka agertuz, euren begien aurrean ageri den ugaritasun-altxor haren aurrean. Jantziak, abrigoak, barruko arropa (setazkoa), luxuzko zigarroak, bonboi bitaminadunen kutxak, txokolate-pastilak, fruta konfitatuak, erlojuak, eraztunak, korbatarako orratzak, florinez betetako karterak eta... urrezko txanponak.

Iherarkiekiko errespeturik gabe, "nork bere burua salba dezala" gertatu da. *Rotenführer* soil bat (lehen graduko soldadua) etor litekeen lehen *Oberstunführer* batekin borrokatzen da erloju bat eskuratzeko. SS eta preso alemaniarrek maila berdinean lehiatzen dira luma estilografiko bat edo "solitario" distiratsu bat ebasteko.

—Ez dizuet esan ba? —Wernerrek, sarkasmoz—. Urre judua! Zelako ipuina! Urrea arraza batena izatekotan, arioena da, puruenarena. —Eta barreari ekin dio bere begitxoak jostorraz-buru bihurtu arte—. Arrazismoa doktrina geniala da.

Ez da SS arduratuta dagoenik itxurak gordetzearekin, baina ez esatearren gauzak dohain eramaten dituztela, konfluentziaren sarreran eta irteeran beren grina antisemitaren proba ematen saiatzen dira. Horrela bada, parean jarritako edozein juduri ukabilkadak eta ostikoak ematen hasten dira, gehiegi entretenitu gabe, ordea; harrezkero gauzak aukeratu eta sakelaratzeko eman dute tarte on bat eta, azkenean, barruan eraginkor daukaten sumindura sakratuaren proba batzuk emanaz agurtzen dira, gutxi batzuek, mugimendurekin, sakelak hustu ez zitzaizten. Aldi baten buruan, osterita itzultzen dira. Batik bat txokolatearekin obsesionatuta daude.

—Gorde iezadazu txokolatea, *espanyòler* —esaten diote Emiliri. Eta hark paperezko zakuak betetzen ditu. Batzuek hozkaka irensten dute, han bertan.

Behin trafikoa amaituta eta biltegira itzultzerakoan, zaku-meta batean jesarri eta zigarro bat piztu du marrazikilariak. Werner hurbildu zaio.

—Zer iruditu zaizu? *Kommandoko* presoak lanpetuta egon dira orritsaren hondarrekin.

—Ez nukkeen sekula sinistuko.

—Oraindik ez gara aspaldi bizi alemaniarrekin.

—Preso gosetiek neurriatsua egingo zuketean.

Jesarri egin da Werner.

—Ez harritu —bere frantses geldoan. Kongo edo irla ozeanikoak beste primitiboa da Alemania. Gure zibilizazioa materiala besterik ez da. Hots, ez da existitzen. Erregimenak espiritua erail du eta soilik progreso zientifikoa geratzen zaigu, industrializazioa,

indartsuaren legea, estatuaren idolatria eta talenturik gabeko oligarkia handinahikoa. Eta ikusten duzue, txokolatea ezinbestean behar izatera eraman gaitu.

Eta are, eten txiki baten ondoren:

—Hitlerrek esan izan balu Londres txokolate-biltegi handi bat dela —eta ez Ingalaterrako hiriburua, juduek eta oro har patriota txarrek diotenez-, Inperio Britaniarraren jabe izango ginateke orain.

Irribarre egin du Emilik. Werner alemaniarra da, Saxoniakoa, erloju-egile ohia, Frantzian eta Suitzan luze egona. Bere herkideen kontra epelak esateko orduan zorrotza ez ezik, elokuenta izan ohi da. Mendebaldetik, ondo bizitzea eta espirituaren askatasuna oroitzen du. Erlojugintza suitzarrerako materialen osagarriekin kontrabandoa egitearen akusaziopean, hiru urtera kondenatua izan zen, “gaizkile” izateagatik. Kartzelatik irtetea, esparruan internatu zuten, gaizkileen triangeluarekin bularrean. Bost urte egiten du beraz preso dagoela, eta familiarekiko gaizki-ulertzeei egozten die arbitrariotasuna. Iradokitzen du, xehetasunik eman gabe, emazteak antihitlerianotzat salatu zuela negozioaz jabetzearren. Emilik dio miserian oinarritzen dela germanismoa, mugimendu hedatzaile guztion abiapuntuan alegia.

—Populu alemaniarrek mendebalagoko beste herriekiko duen abantaila da denaren gabezia, hain zuzen —dio Wernerrek. Gosea, gero eta atzeratuagoa hobeto, daukan soldadu batek, ase doan beste batek baino errendimendu hobea ematen du.

Zigarro bat pizteko etena egin du.

—Nolabait esateko —gehitzen du desenkusa eskatzen duen baten joerarekin—, arrazoi berbera dela medio dira kementsuak espainiarrak. Baina ez ditut konparaketa gorrotagarriak egin nahi.

Protesta egitera behartuta sentitu da Emili.

—Gurean ez guke gerra egingo besteena dena eskuratzeko.

—Orain ez, masen esku-hartzearen kontu horrekin soilik herri kolketiboki irrikatsuak dira eraso egiteko gai, eta zuek, espainiarrak, ez zarete. Italiaren kasu berberetsua da. Ducea eduki arren, italiarrak gelditu gabe iheska dabilta ingelesen aurrean. Gu alemaniarrok, ordea, Ekialde bidean dagoen herri irrikatsu bakarra da; japoniarrak dira azkenak. Gu, beti bezala, Erromako inbasoreak gara. Egia da irrikak ideal handiusteeekin mozorrotzen ditugula, mendebaldeko estatu zaharren prozedurak imitatuz, erasoko gerrak egiten zituztenean, baina egia da gure buruzagien ezein hitzek ez daukala batere baliorik barrualdera begira; hemen inork ez die sinisten, ez gobernatzaileek ez gobernatuek. *Führer*, ministro, general, soldadu edota herriko emazte izan, denak batera egiten dugu gerra auzoen aberastasunak harrapatzeko, gure aurrekoek bezalaxe.

—Ez zara oso onbera zure aberkideekin.

—Jada ez naiz alemaniarra; uko egiten diot loriari —ziurtatzen du Wernerrek ironiaz—. Ez dut txokolatea prezeski estimatzen, baina bai Europako ardoak, eta zeuenak ere bai; latinoen sukalde bixia, eta haien espiritua, are bixiagoa. Oraindik ona den ezer ez daukan alemaniarra naizelako da, zalantzarik gabe, auzoen aberastasunen bila noala; beste batzuk dira nire armak. Tanke eta hegazkinekin ez da ezer definitiborik lortzen. Ni baketsu sartzen naiz.

Irribarre egin du Wernerrek eta haren begiek are ttikiagoak dirudite:

—Soilik beren miseriaren abantaila bazter uzten dutenean hobetu ditzakete alemaniarrek posizioak —dio ondorio gisara, germanistak izateari utzi eta beren herria madarikatzen dutenean, nik bezala. Orduan jarraituko dute nire programa eta...

—Oraindik beste hainbat gerra galdu beharko dituzte lehenago.

—Galduko dituzte, galduko dituzte —baiesten du Wernerrek konbikzioz.

Egun osoan jausi da larreak emankor bihurtu eta spirituak tristetzen dituen mendiko euria. Euri ttikia da, isila, geldoa, sarkorra... Loreak berauk, belarra, frutondoak, kexu dira inguratzen dituen tristuragatik. Leihotik, zeinaren atzean marrazkiak egiteko

mahaia ipinita daukan, Emilik behatu ahal izan ditu, orduak eta orduak, barraken arteko tarte estaltzen duten soropil eta lorezko parterreak eta haien zurtoinen mugimendu zakarrak itxuraz kanpoko eraginik gabe. Beraren eta landareen artean sentimendu arteko komunitatea sortu da, berak ere protesta egiten baitu egunaren tristuraren aurka.

Matilderekin ezkondu zeneko urteurrena da gaur; ekaineko eguna izan zen, Bartzelonako zerupe dirdaitsuan eta sentimenduak bor-bor. Malenkoniak areagotu egiten du bere egonezina. Gozaten duen pribilegiozko egoerak, beste hainbatek erremediorik eta kontsolamendurik gabe bizi duten bitartean, duintasunik gabeko sentazio lausoa uzten dio, azken boladan. Aparteko zein meritu dauzka berak gainerakoek zorte berbera ez izateko? Marrazten duelako, genero arbuigarria marrazten duelako hain zuzen, SS doilor batek babesten duelako bizi da bera, eta ondo bizi ere bere kideen aldean. Gogoratzen ditu orain lana onartzeko egun batean erabili zituen argudioak, eta gogogabetuta konturatzen da ezen, destino kolektiboari iskin egitearen zeregin lotsagarria onartuz, zama gero eta astunagoa ezartzen duela bere kontzientziaren gainean. Eskrupulu hutsalak esango du jendeak, eta behar bada arrazoiz, bere sakrifizio pertsonalarekin ez bailuke ezer konponduko, baina bera lohi sentitzen da. Eta erremediorik gabe. Keinu deigarri batekin orain artezteak, soilik azken ondorioetara iristeko aski indarra balu baimenduko litzaioke. Onartu izana ekiditea ahalbidetuko ziokeen indar berbera gutxienez. Pauso bat atzera, une honetan birpentsatzea, erridikulua litzateke.

Ez afaltzeko, ez paseatzeko gogorik gabe iritsi da *Blockera*. Ohean luzatu da, bere ordu garratzen babestokian, eta irakurri nahi izan du. Ezinezkoa orritik irtetea. Lurrez harago, alor asko pasata, larre askoz, erreka askoz eta mendizerra askoz harago darama buruak. Gaur-gaurko honen gristasun huts eta disolbagarriak itotzen du, eta gehiago gaur, kolore haluzinagarri batzuen oroitzapenak kitzikatzen duenean. Berebiziko biolentzia hartzen du nostalgiak; sekula ez da hain galduta sentitu, hain umezurtz, hain bakarrik.

Matilde ere pentsakor egongo da egun osoan, zeinek daki, agian are esperantza gutxiagorekin. Nola ulertuko du albiste-falta? Bi hilabete Emilik ezin izan duela hitz bakar bat idatzi. Alemanian atxilotutako denek ahal dute etxera idatzi, espainiarrek salbu, beren bahitu-izaeragatik seguru asko eta tamainako arbitrariotasuna hedatzea ekiditeko. Zenbaezinezko kasuetan alferrik itxarongo dute familiek, absenteak betiko izango baitira. Agian Matildek ere sinisten du; agian negarrez eman du egun osoa josturako txokoan... “Bizitzen jarraitzeak hari zalantza hau ekiditeko balio izango balit bederen”, pentsatzen du Emilik. Matilde gogoratzea hain da mingarria, gizonak ukabilak itxi eta bortizki kolpatzen du koltxoia. Bakarrik dago bere hondorapenean eta are bakarrago egon nahiko luke. *Blockeko* kideen harrabotsak, armairuen lerroaren atzean mahaietan afaltzen ari direnen berriketaldiak, sartu-irten dabiltzanen pausoak eta kolpeak, bere arima disolbatu nahiko lukeen baitaratzearen profanazio dira, dena azalduko lukeen absolutuaren bila eta oraindik aurkitzerik izan ez duen esanahi bitalaren xerkan. “Gorrotatzea baneuka?”, pentsatzen du. Ez gorroto zerebrala, borondatearen inposizio bat, ondo geratzeko, baizik sentimendu erreala, beroa, erraietakoa. Gorrotoena da aroa. “Ez noa bide berean”, dio bere artean. Gorrotatzen dutenak dira gaurko indartsuak. Soilik maitatzea ahal ote dut nik? Hori ere ez. Gauza bat bestearekin estekatuta doa. Nire maitasuna ere antigoalekoa da. Maitasunaren oroitzapena maite dut. Jainkoarren, zergatik lehorte hau nire ariman?

Francescen ahotsa labankada bat bezain zorrotza da.

—Ordu hauetan lo? Altxa hadi, alferrontzi hori.

Oinetik hartu eta ohetik kanpo atera du, premiatsu.

—Utz nazak, ez izorratu.

—Zer da hau?

—Lasai uzteko!
—Gaixorik al hago?
—Ez.
—Gaixorik ez bahago, atera ohetik. Oraindik ez dira zortziak?
Ostera tiraka.
—Etzanda egoteko gogoaz zaukaat. Utz nazak bakean!
Erregutzailea da Emiliren ahotsa. Francescek burlaizezko irribarrea dauka.
—A, tira. Triste hago gaur.
Emilik uko egin dio amets egiteari. Altxatu egin da.
—Pentsatzen nabilek.
—Euria.
—Jakin ahal daiteke zer arazoirengatik hatarren?
—Ez duk gustuko?
—Pozik hagoela zirudik.
—Pertsonaia bat ezagutu berri diat.
—Printze poloniar bat?
—Ez, txo, ez. Komunisten burmuina.
Emiliri ez hotzik ez berorik albiste horrek.
—Eta nor da? —amore emanez-edo.
—Rubio, SSen ileapaintzailea.
—Ez pentsa edozein denik. Fina duk, oso fina.

Rubioren komunismoa bere merkatari-senaren aplikazioa baino ez da. Ofizioz ileapaintzailea, gaztetatik baztertu zituen labanak lurringintzara dedikatzen. Lehengo kolonia-ur etxekoa: gero, industria bat hazkundera. Denbora libreaz zeukanez, hurrenez hurren zezenetara, futbolera eta politikara dedikatu zen. Errepublikara garaiko esanahi humanitarista lausoki kutsatuta, batik batik ekintza-gizona, irakasle sozialisten moderazioa baztertu eta komunismo jaioberria afiliatu zen. Metodikoa, nekaezina, zurruna, bere izaera ondo egokitu zen partiduaren espiritu funtzionaristara, eta bi jardun itxuraz kontraesankorrak tartekatu zituen. Bezeroak egiten zituen bezala egiten zituen proselitarioak, eta alderantziz. Neurritsua zenez, ez oso harroputza, politika sakrifizioa eta inurri-lana zen berarentzat. Orain eremuan, Rubiok Madrilen bezala jokatzeko du: bezeroak bilatu eta mantentzen saiatzen da.

Arratsalde batez, afaldu ondoren, sukaldeko atean agertu da. “Pataten” *kommandoaren* irteera-ordua da. Ernest igarotzean, Rubio hurbildu egin zaio:

—Esan didate *kommandoko* interprete egin hautela. Zorionak. On asko egin ahal izango die hire kideei.

Zigarro-pakete bat atera du Ernestek.

—Badakik ez dudala erretzen —uko eginez, ileapaintzaileak, baina ondoren birpentsatuz—. Ekarri, gorde egingo diat.

Gerra zibilean Ernesten anaia nagusia ezagutu zuen, geroago hilko zena, eta mutiko honetaz arduratzea promes egin zion, garai hartan oso gaztea zelarik. Eremuan sartzerakoan elkarrekin ibili ohi ziren.

Ernestek badaki Rubio ez zaiola soilik zoriontzeko hurbildu. Ohituegia dago bere “tutorearen” oharkizunetara. Ileapaintzailea bere babestuak ikasketarako daukan gaitasuna gorai patuz hasi da, horrek adierazten duen ahalegina haztatu du eta, bakoitzak bere tokitik, gainerakoek zortearen alde lan egiteko premiaz mintzatzen amaitu du. Hizkera patxadatsua berea, zeinarekin mintzakidea dantzariaren beloz biltzen duen.

—Behar haugu —borobildu du.

—Bai, bazakiat —Ernestek, zezelka, baina ez pentsa sukaldearen jabea naizenik.

—Oso ongi, oso ongi... Aztertu lehenago balia ahal dituan baliabideak. Eta denbora izango diagu honetaz guztiaz mintzatzeko. Balio duena da niri laguntzeko prest egotea. Ezagutzen ditiat pertsonak eta alde aurretik bazakiat hirekin kontatu ahal dudala. Ez zieat kasu handirik egiten alemanei.

—Zer esan nahi duk?

—Ez, ezer ez, ez aztoratu. Ni ez nabilek alferreko jokoan. Diotena diotelarik, ulertzen diat ondo egin duala *kapoaren* adiskidetasuna landuz.

Hitz egiterakoan beti izan duen ez-titasunarekin jarraitu du Rubiok bere diskurtsoa. Aktiboa, konstantea eta sakrifiziorako espirituaren jabe izan behar du gazte komunistak —esaten dio—, eta gomendagarria ere bada *diplomazia* xederen bat lortu nahi denean, baina horiek lortuz gero moral estriktoaren zurruntasunera itzuli behar da.

—Eredugarri izan beharra zagok —gehitu du— eta ulertuko diak, suposatzen dudanez. *Kapoaren* konfiantzak daukan lekua balio izan dik. Orain, poliki-poliki, alde egin haren ondotik. Ez du interesik jendeak horretaz mintzatzek.

—*Kapoa* lagun ona da eta ez diat harengandik urrundu beharrik.

—Haren adiskidetasunak kalte egiten dik eta... kalte egiten ziguk.

—Jendearen zurrumurruei kasu egiten badiek...

Gogortu egin da Rubioren ahotsa, aurpegiaren imintzio onbera mantenduz, ordea.

—Aski ongi zakiat ez direla zurrumurruek. *Kapoa* kartzelazuloko arratoia da eta oso ondo zakik zer nahi duen hitaz.

—Ez diat onartuko niri horrela hitz egitea.

—Konpromisoa zaukaat hire anaia hilarekin —esaten du Rubiok eztiki. Hi komunista haiz...

—Preso bat nauk, gainerakoak bezala.

—Eta komunista bat ere bai, eta nire ahotik partiduak hitz egiten dik...

—Joan hadi pikutara partiduarekin.

—Ezin diagu onartu hik gu lotsarazterik. Badakik arinkeriak ezin direla barkatu.

—Ez zaukaat zertan kanbiatu.

Eten txiki bat egin du Rubiok.

—Oso ondo. Hire azken hitza al da?

Ernestek ez du erantzun. Erre berri den zigarroari sasi ardurarekin begiratu eta, errefusa-keinuarekin lurrera jaurti du.

—Elkar ikusiko diagu ostera —esaten du ileapaintzaileak, agur modura—. Hausnartu eta iritzia aldatuko dualakoan nagok. Gurekin kontatu nahi baduk...

—Bazakiat zer dagokidan egitea.

Gaurkoz amore eman du Rubiok, beste egunen batean ostera saiatzeko asmoz. "Patatetan" interprete izateak balio estrategiko erabatekoa dauka haren xedeetan. Minutu batzuk beranduago, pribilegiatuen *Blockaren* atetik pasatzean, kide bat ikusi du galtzarbean plater metalikoa daramalarik.

—Norbaiten zain? —galdetzen dio.

—Batzuetan zoparen soberakinak banatzen ditiztek.

—Egunero al hator?

—Bai.

—Zenbat aldiz lortu duk?

—Bat, orain hiruzpalau egun.

—Lotara baho, hobeto hiretzat.

Alde egiteko keinua egin du Rubiok, baina hobeto pentsatu du.

—Erretzen al duk?

Buruaren eragin batekin erantzun dio interpelatuak.

—To, zigarro bat.

Eta pixka bat lehenago poltsikoan gorde duena luzatu dio.

VIII

Goizalde austriarrak beti freskoak dira, baita ekainekoak ere, eta are gehiago goizeko seietan larrugorritan kalera irten behar baldin bada. Nazientzat, garrantzirik gabeko xehetasun bat da. Agindua emanda dago: "Hurrengo igandean, goizeko seietan, mundu guztia prest egongo da eremuko desinfekzio orokorrerako. Presoek *Blockean* utziko dituzte zera pertsonal guztiak salbuespenik gabe, eta garajeko plazan batuko dira operazioa amaitu arte. Ateak, leihoak eta *Blockeko* irekidurak hermetikoki estaliko dira eremuko bulegoak ekarriko dituen itsasteko paper-tirekin. *Blockältesterrak* jendearen diziplinaz eta agindu hau betetzeaz arduratuko da".

Garajeko plazak zerbait kartzelarioa izatekotan lau aldeetatik inguratzen dituen hormak eta sarrera nagusiarekin konektatzen duen harrizko eskailera dira. Goiz honetan zentinelek tiro-lerroak gurutatzen dituzte fusil-metrailadoreekin goiko aldean dagoen galeriako angelu bakoitzetik. Kontzentratu den jendearentzat haina tamaina soberan egon gabe, goiz honetan lekua dago oraindik beste hainbeste sartzeko. Ikuskizuna ez da batere arrunta. Jende-multzoa hormen kontra bermatu da, eta orduak ukatzen duen epeltasuna bilatzen du metaketan. Oiloipurdia egiten da eta hortz-karraska espasmodikoek astintzen dituzte norbaitek ahoskatzera ausartutako hitz eskasak.

—Oraindik ez al du eguzkiak atera behar? —berriketazaleenak, galdezka.

Milaka gorputz biluziak! Animoa analisirako prestuegi eduki ez arren, jabetu da ezen bere disgustua, parte hartzen duen ikuskizunagatik daukan ondoeza, ez datorrela soilik jendarte ia eskeletikoaren biluztasun osoaren ikuskera konstante eta obsesibotik, ez higie-ne-faltagatik, ez eta bata bestearen arteko igurtziengatik, baizik kausa pertsonalago eta intimoago batetik. Biluzik ibiltzearen sentsazioa da, babes korporal minimoenaz gabetuta egoteagatik umiliazioa, karranpa eta dardarizoa gaingintzearen norberaren azalaren taktu higuin garria ukitzean.

—Kontu egik zer jaisten den orain —esan du Francescek.

Esan ahalko duzue zirku erromatarreko martiriak supliziorantz jaitsen ari direla. Umore txarra gorabehera, Emilik ezin izan du irribarre bat erreprimitu. Maindire zuritan bilduta, karikaturistek fantasmak marrazten duten erara jaisten ari dira eskailerak erizaindegiko eriak. Oinazeek behartutako mantsotasunak badu zerbait majestate solemnetik. Ibiltzerik ez daukaten kideak anden gainean daramatzate indartsuenek. Batzuk besteen gainean bermatzen dira; bat baino gehiago eskaileratan behera erori da.

—Ordu batzuk lehenagotik jarri zietek sudarioa —adierazi du Francescek.

Ssek badakite zer egiten duten; errematatzeke lana kenduko die hotzak.

—Parasitoak dira. Gaurko garbiketa erabatekoa izango da.

Posizioak irabazten doa eguzkia, eta plazaren mendebaldeko erdia horitzen du. Laster amaituko da hotzaren tortura, beroarena abiatzeko. Gizon-multzoak desegiten ari dira, mugimenduak atseinagoak dira eta gogortuak ez dauden eskuekin egun osoko bazka izango den ogia eta margarina ahokatzen dute.

Bi adiskideek itzuli bat eman eta pixka bat erreakzionatzea erabaki dute.

—Ez al hintzen hi pasa den astean biluztasunaren apologia egiten zuena? —galdetu du Emilik burlaizez.

Barre egin du Francescek.

—Hau ez da nudismoa —protestaka—; hau gaitzen erakusketa bat da.

Plazaren txokoetako batean, txoko opakoenean alegia, bidoi hustu eta egurrezko asto baten gainean jasotako kamioi matxuratuaren ondoan, etorri berri diren judu holandarrak daude bilduta. Gutxienez oraindik bizirik daudenak. Ez daude erabat argal, baina galduta dauzkate euren kolore naturalak. Ubeldurek, zarakarek, sendatu gabeko

zauriek eta zikinkeriak tonalitate iluna osatzen dute, haien arrazaren ezaugarriak nabarmenduz. Hozkirria eta lurraren hezetsuna gorabehera, gutxi dira zutik daudenak. Begirada bat eman eta burua mugitu du Emilik:

—Ez diat ulertzen zer dela-eta bizitzen tematzen diren. Zein posibilitate geratzen zaiek?
—Guri beste.

—Haien heriotza ziurra da, gurea baino areago. Gutxienez, azkarragoa.

—Behar bada bai, baina haientzat zein guretzat aldeko faktorea da denbora. Gerraren amaiera bat-batekoa...

Terrenoaren hartxintxetara ohitzen ari dira bi adiskideen oinak. Emilik, isiltasuna hautsiz:

—Nolako beldurra ematen digun heriotzak guztioi! Gehiegi. Gure indiferentzia koldarkeria da. Gure lagunak, gure familiakoak, hiltzen ditiztek; bazakiagu laster ala berant guri ere zorte berbera egokituko zaigula, eta aldiz, ez gaituk gai giza keinu bat egiteko.

—Zentzu praktikoaren aroa, gurea.

—Norbanakoaren balioa daukan keinuaz ari nauk.

—Beste garai batzuetako erromantizismoak.

—Sumingarria da bizirauten badiagu martiri gisara hartuko gaituztela pentsatzea, heroiak bagina bezala. Zuhurrak izango ginatekek, besterik ez.

—Suizidio bat ez da konponketa. Aldeko beste egoera baterako gorde behar diagu bakoitzak adierazten duen indarra.

—Zenbaterainoko ahalegina egiten diagun tente mantentzeko.

—Lehen inpotentea nauk, aitortzen diat, baina hemendik ateratzen banauk, beti geratuko zaidak kementsuago ez izatearen arrangura.

Bere biolentzia osoarekin doa eguzkia, une bat lehenagoko hotza bat-batean konpentsatu nahiko balu bezala. Giharrak erlaxatzen dira eta zanpadura mingarriak nagusitzen du bitalitaterik gabeko jendetza. Lehortu da lurra eta azal izerditsuan likatzen da hautsa. Harresien gainean dagoen barandilan ahokatuta argazkiak ateratzen ari dira SS batzuk. Erakusgarriak izan daitezke nazional-sozialismoaren loriak goraiatu beharko direnean. Haien aldamenean, Partiduaren uniformeak daukaten neskak batzuk.

Puntu beltz bat nabarmentzen da jende-mordoaren lurrezko kolorean. Bartzelonako beltz bat da, Afrika espainiarrean jaioa. Begiratokitik markatu duen ofizialak abisu eman dio bertara etor dadin. Harritu egin ditu alemaniarrek haren gorputz mardul eta gihartsuak (esparruko beltz bakarria izateak *kommando* on bat ekarri dio). Haien arrazismoarekin bat, gorputz-adarrak argal, sabel puztua eta kanibal baten espresioa izan behar dute beltzek; eta mutiko hura segaila ez ezik kultua da. Hainbat hizkuntza dakizki eta alemanez ulertzen zaio. Begiratokian, "tente" posizioan egon behar izan du tarte batean, SS taldeak, gero eta ugariagoa berau, bere kuriositatea ase arte. Zalantzan daude aurreiritzi arrazistak. Soldadu haietako batek, gaztea, linfatikoa, doakabe-aurpegikoa berau, ezin izan dio eutsi amarrukeriarik ez dagoela konprobatzeko premiari; eskuin eskuaren hatz erakuslea listuz busti eta indarrez igurtzi du beltzaren azala. Haren azpegiak etsipen- eta miresmen-nahasketa adierazten du: margoak ez du tindatzen.

Tatuaiak dira beste atrakzio bat. Preso alemaniarren artean, gehienak jendaila, eta are gehiago eslaviarren artean, zeinentzat mania bat dela dirudien, alde guztietatik ageri dira pertsonaia "ilustratuak". Sugeak, lehoiak, palmondoak, emakumezkoak, anagramak, tortxak eta era guztietako sinboloak dira euren biluztasuna tatuaiak batekin gainbalioztatu nahi dutenen gai kuttunenak. "Etxeko" pintura bizidun guztien erakusketa-eguna da gaurkoa. Inor ez da harritzen ikustean nola "amateur" batek tatuatu baten besoa leunki altxatzen duen galtzarbe azpian marrazki baten bukaera

bilatzeko. Erakutsien zorionerako, eremuko komandantearen emazteak ez ditu petakak, karterak edo ondo tatuatutako azal-pantailak kolekzionatzen, Buchenwaldeko eremuan gertatzen den bezala.

Astiro eta arian-arian astunago aletzen doaz egunak. Orain, errukirik gabe erretzen ditu eguzkiak gorputz biluziak. Giza inurritegian hautsa harrotu eta biluztuen azalean itsasten da. Sarraskiak egiten ditu egarriak eta plazako txorrota bakarrak (garajeko iturriak barneko aldean daude) ez du aski ematen egarrituen ilada amaigaberako. Ogia eta margarinazko anoa erabat jan dutenentzat, desesperatua da egarria.

Emilik ezin izan du deus jan. Giza haragizko talde haren munstrotasuna, lurrean eserita izerdiz eta hautsez beteriko eskuekin ogia apurtzen dutenak ikustea; bere gorputza biluzik ikustea, gizonak jaten osatutako taldeen artean pasa eta beren haragiekin jesarritakoen buruak igurzten dutenen begirune eskasa, batzuen zauri zornetuak, norberaren beharrak egiteko dauden estoldetako tapa irekitik datorren sunda, izerdia, hautsa, egarria eta tratu basati haren aurka barne-barnetik mamitzen ari den matxinada arrazoi aski sakonak dira gosea kentzeko. Francescek, ordea, lasaiagoa berau, behar bada gogortuagoa, sosegu handiagoz hartzen ditu gauzak, bazkaren urritasunarekin bat eginez.

Arratsalde erdian Emili, egin duen bisitatik komunara itzuli denean, Francesc jabetu da bere lagunak ezin duela gehiago. Nazka-imintzio batek uzkuratzen du haren aurpegia.

—Zer gertatzen zaik? —txeraz galdezka.

—Kaka! —eztanda eginez ahots guturalez. Ito egiten naik hainbeste kakak!

Oinetara begira dago, makurtu behar izan duen estoldatik gainezka dauden urengatik, oso belztuak berak.

Hala, desinfekzio-operazioan dabilen preso alemaniar batek, jantzirik, korrika jaitsi ditu eskailerak. Behera iritsita, zerbait galdetzera hurbildu zaizkio ezagunak, ziur aski ea noiz amaitzen den tamainako tortura. Baina hitz laburrez erantzuten die presoak eta, gero, bozkario-adierazpen apalak sortzen dituen beste gauza batzuz mintzo da. Ez da asko entretentzen mintzakideekin; batzuekin amaitu eta gainerakoak bila joaten da. Bere paperarekin harro dago gizona. Haren hitzak adamiten taldeetatik irristatzen dira, nola urak toki harriztatu bateko junturetatik. Iruzkin-uhinez betetzen da asanblada bitxi hura. Jendea batu eta beroa, egarria eta nazka ahaztaratzen dituen fenomenoaz jabetu da.

—Zerbait bada —iruzkindu du.

Haren aldera dator orain alemaniarra.

—Zer gertatzen da, Rudy? —galdetzen dio alemanez.

Aipatutako Rudyk gogotsu erantzuten dio, gainerakoak beste pozik ipini da Emili, baina Francescek ez daki.

—Ongi, zer esan dik?

Besoetatik indarrez oratu dio Emilik.

—Oraingoan benetan doa —dio—. Trumoi lodiak egin dik eztanda! Une erabakiorrean gaudek...

—Bota ezak behingoz!

Barre egin du Emilik eta haren begiek bere esperantzaren adorea erakutsi dute.

—Alemaniak Sobiet Batasunari egin zioz eraso. Gaur bertan.

IX

*Kommando*en sarreran, arratsaldeko zenbaketa-deia baino pittin bat lehenago, harrituta daude presoak formazio-plaza erdi-erdian urkamendi bat ikusi dutelako: bi astotzarrek eusten diote hiru txirrika dauzkan langa bati, zeinetik, korapilatuta, soka batzuk zintzilikatuta dauden.

—Arratsalde on, “antzerkia” edukiko dugu —diote, jabetuta—. Erraustegitik alde egindakoak esekiko dituzte.

—Mundu guztiaren aurrean?

—Dirudienez bai.

Zenbaketa amaituta, presoek “tente” posizioa utzi gabe, nabari da SSen etorrera handia, dibertsio gogorren gogotsu. Hans Gupper dago ekitaldiaren buru bere zakurrekin, eta *King-kongek*, *Blockältester* arduratsuenekin batera, azken xehetasunen kontua darama, gora eta beheara dabil korrika eta garrasika azaltzen du bere grina. Paradako koadro konpaktoek jendetzaren emozio eutsiarekin betetzen dute arratsaldeko aire nahasia, isiltasuna den emozioa eta gosea, nekea eta gorrotoa den isiltasuna.

Martxa arin baten notak iristen dira sarrerako atetik. Denbora librean musika jotzeko zaletasuna daukaten presoak, batu eta festa girotzera behartuak izan dira. Atea parez pare ireki eta dorre txinatarretan kokatutako soldaudak barre-algaraka lehertu dira. Plataforma bat, gurpil gainean, sartu da eremuan, bi presok arrastatuta eta banderolez zein koloretako paperez hornituta. Hiru gizon, bi iheslariak eta abandonatutako euren konplizea, doaz gurdian. Aurrean, orkestra, eta *King-kong*, makila bat eskuan, aurretik martxaren konpasa markatuz. Barandila modura, gurdiak pankarta batzuk daramatza: “Hemen kanpoan baino hobeto egoten delako itzuli gara”, “Ez dugu osterantzean sekula alde egingo”. Formazioaren koadroek tartean uzten duten pasabidetik pare bat itzuli eman ditu prozesioak. Orkestrak etengabe aire arina jotzen jarraitzen du, eta *King-kongek*, ahaleginak kongestionatuta, keinu mekanizatuarekin zuzentzen du, oinak gehiegi altxatuz. SS asko doaz segizioaren atzean eta bozkarioz txalotzen dute broma, nola herrietan umeek hartzairen ijitoari segika.

Hiru kondenatuek, zurbil hilotz balira bezala, gorputzak erditik gora biluzik, okotza bularrean gordeta daramate. Ildo sakona ireki die sufrimenduak hazpegietan, hiru asteko bizarrak are nabarmenduago. Exekuzioaren solemnitatea urritzeko irain guztiak: kabaret erako musikatxoak, paper koloreztatuek izugarrikeria nabarmendu baino ez dute egiten. Zintzilikatuko dituzten gaizkile arrunt hauek martiriaren kategoria harrapatzen dute jendetzaren begietan. Horregatik ixten ditu jendeak ukabilak, eta arratsaldeko airea gero eta astunago bihurtzen ari da.

Gurdia urkamendiaren behean bertan geratu eta hiru kondenatuak jaitsi egin dira. Isildu da musikatxo barregarria. Erabatekoa da isiltasuna. Oharkabean dingilizka daude sokak. Ahost lehorra dauka Hans Gupperrek, vienatar baten baino prusiar baten antz handiagokoa berau.

—Zonaldeko komandantea —esan du— ez dago prest ihesaldi gehiago gerta daitezen, eta ihesaldi-saioaren errudinei dagokien —orain zuen aurrean esekiko direnena, alegia—zorte berbera egokituko zaio abentura berbera saiatzan duen edozeini, berdin zein nazionalitatekoa den. Ez sinistu arrakastan: hartuta daude neurri guztiak eta heriotza izango da ezinezko zoria probatu nahi duten guztien amaiera ekidinezina.

Bere diskurtsoarekin jarraitzen du Hans Gupperrek, bere oratoriarekin gozo. Diziplinaz eta hura ziurtatzeko hartuko dituen neurriez mintzo da:

—Inork ez dezala pentsa gure ejerzitoen porrotarekin, gauza pentsaezina berau, zuen zortea hobetuko litzatekeela. Holako kasu batean ere, ezinezkoa bestalde, ez diozue

itzuri egingo Reich alemaniarrari erakutsitako aurkamenduak merezi duen zigorrari. Zuetako inork ez du biziraungo alemaniarron porrot hipotetikoa gertatuz gero. Otoitz egiozue Jainkoari gure herrialdearen martxak bere helburu garailerantz jarrai dezan. Mitin erako elokuentziak tonu paganoa ipini nahi izan dio erakustaldi makabroari. Gerrako jainkoari eskainiak izan dira biktimak, tropa aukeratuen alde haren faborea erdiesteko, eta bertaratuek, hots, geroko biktimek, jainko horrek laguntzaren truke sakrifizio gehiago exijitzen dituenean, isiltasun hutsean behatzen dute inmolazioa. Bat bestearen atzean, beste behin pasa dira hiru kondenatuak “hogeita bosten” egurrezko astotik. Mina aditzera ez emateko xede kementsuak, berdin torturatu guztien kasuan, pikutara doaz kolpeen kontua handitzen doan neurrian. Zigorraren konpasean hogeita bost zenbakiak zenbatzeko betebeharrak oinazearen hedatzea errazten du. Indartsuenek ere oihu egiten dute, hamargarren kolpean zigorrak haragia zartatzen duela sentitzean.

Abian da ikuskizunaren bigarren zatia. Kondenatuek berek ipini behar izan dute eskailera metaliko moduko bat, zeinaren gainean malguki baten eraginez hondoratzen den plataforma bat dagoen, korapilatutako soka baten azpian. Plataformara igo da lehenengoz hil behar duena. Bigarrena du lagun, kidearen lepoaren inguruan lakioa doitzera behartuta. Klik metalikoa eta urkamendiaren karraska entzun da. Astindu eta kulunka egiten du gorputzak, soka elastikoa balitz bezala. Segundo batzuen buruan soka bukatzen ari zaien erloju baten penduluaren gisara mugitzen da. Hirugarren kondenatuak bigarrenari doitu dio soka, eta *King-kongek* hirugarrenari.

Funtzioaren hirugarren ekitaldia jendea zintzilikatuen azpitik pasatzea da. Ilaran banaka pasatu eta hilotzei begiratu behar zaie. SS batek, zigorra eskuan, jagoten du agindua betetzen ote den eta, norbaitek burua makurtzen badu, altxatu orde, atzeko aldera itzultzera behartua izango da, zigorkadaz. Aho apartsuen, azal biluziaren zurbiltasun berdats eta esekitako oinen ikuskizunetik, diziplina handiagoa itxaroten du eremuko komandanteak.

Ilarak deseginda eta bakoitza bere *Blockean*, arratsalde guztia mendean izan duen isiltasunean jan da ilunabarreko ogia. Gauak estaltzen ditu urkamendia eta eremua.

—Alemaniarrak izan dira, gaizkileak —dio batek Emiliren auzoko ohean—, baina gizonak, presoak gu bezala. SSak olgatu badira, zeinek ziurtatzen digu ez dutela errepikatuko iheslari, ez alemaniar, ez gaizkile ez direnekin?

Esparruko preso pribilegiatuak SSentzako kirol-terrenoa eraikitzeke mobilizatuak izan diren igande batean ezagutu du Emilik Rubio. Lantoki berean bagonetak kargatzen, asperdura kitatzeko hasitako berriketak biak arduratzen dituen gaira egin du bide. Alemaniarraren arrakastak lurrade errusiarrean gauzen ikuskera pesimistak batzen ditu.

—Inoiz pentsatu izan diat zerbait egin beharko genukeela jendearen egoera hobetzeko.

—Egitekoa ez da erraza —Rubio—. Ni-neu saiatu izan nauk, arrakastarik gabe.

Marrazkilariak ez du aditzera eman nahi bazekiela.

—Maiz hitz egiten diagu lagunartean. Zergatik ez diagu denok elkar ikusten?

Ados dago Rubio, eta hurrengo igandea finkatu dute elkar ikusteko.

Esparruaren itxura jaiegunetan, batik bat eguraldi ona egiten badu, lanegunetakoaren erabat ezberdina da. Kaleak jendez mukurru daude, zenbaketarako plazan futbol-partidak egiten dira, *Blocketako* ateetan ileapaindegiak antolatzen dira. Behin denboraldi bat pasata esparruan, egokitzen gertatzen denean errenuntziaz errenuntzia eta adimenaren baldartzeaz, tortura- eta heriotz-tokiak herri baten itxura hartzen du presoaren begietara, kanpoaldekoen irudi deformatuaren gisara. Herri okaztagarria, benetakoaren parodia bat, baina haien ezaugarri esentzialekin. Horrela, beren karikatura aurkitzen dute kolektibitate baten bizitza eragiten duten anbizo guztiek. Dirua, ogia eta zigarroak dira; “karrera egiteko” anbizioa, edozein kargu patatetan, biltegietan edo garbigailuetan; ostentazioa, kapela biseradun bat edo jostun

batek doitutako galtzak janzteak; banitatea, goseti batzuen lausengua; atsegina, edozein motatako baselinarekin igurtzita eguzkitan etzatea; emakumeak... Imajinazioz eta oroitzapen batzuk ezabatuta, presoek existentziaren suzedaneoa osatzen dute, non grina guztiak sartzen diren. Ondo berezitutako klase sozialez osatutako mundua da, beste mundukoak baino are injustuagoak, determinatzen dituzten motiboak ez baitira inoiz portaera edo meritu pertsonalak, ez adimena, lanerako gogoia edo ausardia, baizik zortea, kuttunkeria eta, maiz asko, aitorezinezko joerak. Oinarritzko injustizia hau ez da aieruzkoa, baizik zigor-sistemaren parte osagarria. Norbaitek gorputza salbatu nahi izanez gero, espiritua desitxuratuta aterako da eremutik. Ondo planteatuta daukate alemaniarrek.

Adostutako igandean Rubio, Francesc eta Emili batu dira. Hirurak azkenaren ohean jesarrita, ikuspuntu desberdinak batzen saiatzen dira. Emilik uste du akats bat dela partidu politikoez hitz egitea; Rubiok, komunista on bat izanik, bere errotara darama ura, eta proposatzen du partiduak laguntzarako antolatu duen erakundea baliatzea zeregin berriaren ardatz modura: Francesc, sektore sindikalistan aurkitutako gogo eskasa gorabehera, ez dago ados Rubioren proposamenarekin, "ez duelako inoren jostailu bihurtu nahi", eta proposatzen du komite koordinatzaile bat osatzea. Printzipioz ados dago Rubio, nahiz eta bere lagunen oniritza behar duen. Gaitzik ttikientzat onartu du Emilik.

Egikaritu nahi duten zereginaren helburuez mintzatzen ari direlarik azaldu da August:

—Konspiratzen? —burlaizez.

Harridura disimulatu nahi du. Denaren zentroa izaten ohituta, salduta sentitzen da berekin kontatzen ez duten bakoitzean.

—Ezin egokiago zatoz —dio Emilik. Suposatzen dut ezagun duzula Rubio.

—Bai, elkar ezagutzen dugu —erantzun du ileapaintzaileak.

Rubiok gogoan dauzka ileapaintzailearen jardun antikomunistak Nazioarteko Brigadetan.

—Erabakiak hartu ditugu —azaldu du marrazkilariak.

—Imajinatzen ditut —Augustek, moztuz-. Denbora galtzeko gogoia. Nik bai dauzkadala albisteak.

Losintxa behar du Augustek, entzuna izatea. Haren mitomaniak sarritan berebiziko finezia-maila lortzen du. Berdin harrotzen da bere odolaren ustezko jatorri aristokratarekin eta fortuna pertsonalarekin, edo irautzaile arriskutsutzat azaldu nahi du. Harentzat berdin da dantzaria izatea ala poeta edo antzerki-idazlea. Egun batean medizina ikasi duela esango du eta hurrengoan ingeniaria izango da, edo aitaren industriako gerentea. Eta entzuleria izutu nahi duenean, aitaren aldeko arreba batekin sexualki batu izana goraipatzen du.

—Goitik ez datorren edozerk ez du deus balio. Hans Gupperrek badaki espainiarrekin kontu dezakeela. Hori da garrantzitsua.

—Eta albistea, zer? —galdetu du Emilik, jakin minez.

—Oraindik bost minutu ez dira Hans Gupperrekin mintzatu naizela, eta arrazoia eman dit berak.

Hainbesterako erretizentziak urduri jartzen du Emili.

—Ea! Utzi isilgordeka ibiltzeari.

Sortuko duen efektuarekin ziur, August azaltzen hasi da:

—Berrogeita hamar espainiarrekin eremu honen sukurtsal bat eraikitzaera aterako naiz. Interprete eta *Lagerältaster* izango naiz. Espainiarrak baino ez dira egongo eta litekeena da aurrerago bostehun edo mila izatera iristea.

Haren programa azaldu du: administrazio ona, elkarbitza, humanitarismoko eremu eredugarria egingo luke. SSen konfiantza irabazi eta ekintzez erakutsiko luke ondo

tratatutako preso batek gaizki tratatuak baino emaitza hobek ematen dituela. Bukatzeko:

—Ehunka espainiar batzuk salbatuko dira. Mundura itzuliko ditut nik.

—Odoluste errusiarra! —dio Rubiok, garaile—. Alemaniarrak min hartzen hasiak dira. Eskulana gerrako materiala da.

Francescek interpretearengana zuzenduz:

—Oso ongi. Bostehun edo mila espainiar salbatuko dituzu, baina hori ez da zure ideia. Gainerakoak hemen geratuko dira gutxika hiltzen.

Augustek, enigmatikoki irribarre eginez:

—Beste *kommando* batzuk aterako dira, esan dit Hans Gupperrek.

—Zuk zuzenduko dituzu horiek ere.

—Zuk utzi egiten; maniobratzen jakitean dago kokka.

Zalaparta handia dator plazatik. Espainiarrak talde austriarraren aurka jokutzen ari dira arratsaldeon. Lau lagunak *Blocketik* atera dira. Alemaniar pare bat xakean jolasten utzi dituzte, alemana ikasten dabilen poloniar bat eta askaria egiten dauden bizpahiru espainiar. Francescek, parien barraka batean bizi delarik, preso batzuek eta besteek bizi duten tratua alderatzen du. Bere *Blokean Popeyek* gizonen sarrera debekatu eta arratsalde osoan kalean geratzera behartu ditu. Bitartean, administratzaile alemaniarrak *bizitza soziala* egiten dute, *kuttunen* bisitak jaso, *schnaps* klandestino edo kolonia-ura azukreduna edan eta afaltzeko otordua prestatzen dute estufan, lapurreta ttikien emaitzekin. Administratu gaixoek zoruko harri irregularretan arrastatzen dituzte oinak, edozein txokotan etzan, zigarrokinak bildu edo plazara iristen dira, ez partida ikustera, baizik ogi-koskor bat, zoparen hondakin batzuk edo zigarrokin bat eman ahal dien adiskide edo ezagunaren atzetik ibiltzera. Igande arratsaldeetan, ikusgarriago egiten dira diferentzia sozialak. Hiru adiskideekin kalera atera delarik, Francescek pentsatzen du igandea asteko egunik tristeena dela.

—Sentituko dut zuei lagundu ezin izana —dio Augustek ironia pixka batekin.

Konbentzituta dago bere esperientziaren traszendentziatz. Bere ametsa egikaritu zorian dago. “Kasualitate bat da —pentsakor— edo nortasuna duen gizon batentzat nahikoa da gauza bat nahi izatea eskuratu ahal izateko? Soilik enkarguaren mugak iluntzen du bere satisfakzioa. Eremu zentralean, hedapen handiagoa izango luke esperimenduak. “Txikian, bai —bere burua kontsolatzeko—edo; froga apartekoa izango da: kontzentrazio-esparru nazi bat bizitza posible den toki bihurtzea”.

—Noiz aterako zara?

—Bihar arratsaldean, seguru asko. Trenbide-konpainiak dioenaren arabera.

Agur esanaz abiatu da August *King-kongekin* mintzatzeraz.

—Oso azkarra eta aktiboa —aitortzen du Rubiok—, eta poztuko nauk lortzen baduk. Bostehun gizon salbatzen badituk, beste garai batzuetako hainbat istorio ahaztu ahal izango dira.

—Irribarre egin du Francescek. “Nonbait ez dik nire istorioa ezagutzen”, pentsatu du.

Jarraitzen du partidak plazan, suharki daude ikusleak eta nagi gosetiak olgeta amai dadin. Haien babesleak, armairuan ogi-mutur bat edo zopa-platera gordetzen dutenek, asteko jaia urdail ase batek ematen duen lasaitasunarekin ospatzeko eskubidea daukate.

Alpealdean egun hodeitsuak beti dira negutiarrak, abuztuan gertatu arren. Udako edozein ekaitz, hain laburra gure artean, bizpahiru egun luzatzen da Alpeetan, eta hotza gogortasun susmaezinarekin sentiarazten da.

Halako baldintzetan, kanpoko lana tortura ikaragarria da presoentzat. Askotan hamaika ordu etengabe izan ohi dira euria jasaten, bizkarra haztatu eta euria alkandoraraino, gero azaleraino eta beranduago hezurretaraino nola iristen den ikusten. *Kapoak*,

kapusaiak jantzita, zelatatzen inor ez dadin babestokiren batean estali. *Kapoaren* baimenik gabe lortzen saiatzen dena ekidinezinezko zigorraren ondoren harrobiko zigor-konpainiara bidaltzen dute, non lana soilik indartsuenek jasan ahal duten.

Goizeon ez du euririk egiten, baina aurreko gaueko denboraleak iparreko haizeak errukigabe bihurtzen duen hezetasun eta izotzezko arrastoa utzi du. Laster gogortzen dira eskuak, sudurrak tantakatzen eta belarrietan egun zakarretako min ezaguna sentitzen da.

Babestoki bikaina dauka Francescek lanabesen txabolan. Oparien poderioz, Emilik pribilegio ttiki bat lortu du bere lagunarentzat, eta hauexek dira emaitzak: sabai bat, estufatxo bat, hainbat lanabes edozein lanetarako eta, batik batik, bere nagusiarentzako otorduaren prestaketa. Bere izateko moduagatik, Francescek sufritzen jarraiten du bere kideengan pentsatuz, zeinak kanpoko giroan dauden, pala, pikatxoi, mailu pneumatiko, bagoneta, sarde, mazoei atxikita edo lohiz bustitako harriak gorantz garraiatzen. Seguru gaua iritsi baino lehen ostera euria egiten duela, eta kalte egingo lioke norbaitek bizkarrean eskua ezarrita esateak:

—Antzeman duzu entxufatuta zaudela!

Pertz bat hartu eta ponparaino atera da. Pendize bat jaitsi behar du, karril bat zeharkatu, barraka-tailerrak inguratu eta, zubi baten gainean, zeinaren azpian erreka bat doan, harrobiko errepide nagusira iritsi. Beste aldean, zain abandonatu bateko ebaki bertikalaren azpian, putzua dago.

Mendeetako lanaren luzean sortutako sasibailaratik bideratuta doa haizea. Francescek ez du desatsegin hotz hezea, aldiz modu bitxian kitzikatzen du bere bitalitatea. Urrutitik sumatzen diren haize-boladak baliatu eta, aurpegia altxatuz, begiak eta ahoa itxi eta sudurrak irrikaz zabalduz hartzen ditu; lur batzuk haragoko lurrinak askatasunaren lurrinak dira. Jantziaren zirrikituetatik, atsegin sanoaren orratzak josten ditu freskura bigunak bere azalean. Hainbeste denboran errepirimitutako bizkortasunak gorputzaren poro guztiak gaitzen ditu, baina Francescek ez du sufritzen. Ez du bizitzaren ordezkapen, ezin sasimundu, ezin normaltasunaren parodia behar, eremuan beste hainbatek bezala. Bere indarra aski da bere hartan, eta Francescek gaurkoari eta etorkizunari erreperatzen die, orain haize-bafadak itxaroten dituen bezala. Bere energiak erabateko asepsiapean gordetzen daki, denak batera erabili ahal izateko ziurtasunarekin. Francesc mendekuarentzat bizi da, puru.

Behin pertza beteta, haizearen jokoarekin entretenitu da pixka batean. Min ematen dio barrakoi ilun eta estura itzuli beharrak, eta bideari berrekitean, ezin izan du irribarre tristea sahiestu bere zorteari inbidia dioten kideekin gogoratuz.

Esparrutik harriak jasotzen ari diren juduen zutabeak mozten du errepidearen pasabidea, erreka baten inguruan. Pertza lurrean utzi eta taldea pasatu arte itxaron du Francescek. Baina *kommandoak* buru duen SSak ez du nonbait presa handirik; zorigaitzoko haietako batek, hustuta, hilotz biziduna berau, ezin dio bere kideen martxari jarraitu; eta hori, antza denez, olgatzeko motiboa da goardiarentzat. Aurpegia eta jantzia odolez eta lokatzez blai, juduak ezin du zutik iraun. Mozkor baten antzera, errepidearen alde batetik bestera dabil, bere oinekin estropezu eginez eta behin eta berriro zerraldo jausiz, alde egitearekin tematuta, lurrean hondoratu nahiko balu bezala. Boten iltzeekin eta eskuetan daraman kirten zorrotzarekin zulatzen du SSk.

Francescek ezin izan dio odolaren eta torturaren liluramenduari eutsi. Begiak finko, giharrak tentsioan, matrailezurak esturirik, atrakzio hipnotiko bat balitz bezala bereganatzen du ikuskizunak.

Zutabeko *kapoak* "geldi" agindu du eta SSk, paroxismoraino kitzikatuta, takoia ezarri du biktimaren aurpegi odoleztatu eta lohizatutaren gainean; eta hark, bidean inerte makurtuta, hiltzaren zurrunga inartikulatua jaurti du.

Francesc jabetu denean han zutik eta geldi egoteak aditzera ematen duen ausarkeriaz, beranduegi izan da.

—*Espanyòler!* —SSk oihuka, hatz erakuslearekin hurbiltzeko keinu eginez—. Etorri hona, etorri.

Alferrik da kasurik ez egitea.

—Etortzeko esaten dizut!

Hara joan da Francesc. Ez ditu alemaniarraren hitzak ulertzen, baina bai haien adiera.

—Ez dut ulertzen —erantzun dio azken ihesaldi modura—.

Juduaren aurpegitik taloia kendu gabe, alderantziz, mugitu edo zurrunga egiten duen uneoro gorputzaren zama guztia ezarriz, SSk aginduak errepikatu ditu, keinu adierazgarriak gehituz. Ezinezkoa da edozein ihesaldi; eta idiotaren plantak egiteari higuigarri irizten diolarik, Francescek aurre egin dio:

—Ezin dut hori egin —esaten dio katalanez—. Ezin dut hori egin!

Zalantzarik ez dago haren ahotsean. Lehen uneetako zalantza gaindituta eta hain modu ezohikoan desobedituta ikustean, SSk garrasika eta imintzioka hasi da eroaren pare. Judua, ia-ia hilotz, ez da jadanik haren intereseko; dibertigarriagoa da eszenan sartu den espainiar honen ausardia. Eskuak atzean jarri eta tipo haiek sumindu nahi dutenean egiten duten gisara gorputz osoa kurbatuz, agindua errepikatu du, silabak markatuz hortzak ia itxita. Haren begiak, Francesceneetan iltzaturik, dizdiz daude.

Francesc zutik eta mutu dago. Bere burua osinzulora salto egitearen seantsazioarekin, ez du abandonatzen bizitzako une garrantzitsuen lasaitasunak. Hartuta dago erabakia eta, kosta ahala kosta, ez du atzera egingo.

—Uretara ez baduzu jaurtitzen, zu joango zara, ulertzen al duzu?

Beste SS batzuk eta zenbait *kapo* urreratu dira. Behatzaile paperak, beraz, garrantzi berezia hartzen du hainbat ikusleren aurrean. Francescek ez du zirkinik egin lehen belarrondokoa jasotzean. Zalantzan ikusi du SSk bere eutsiezinezko jotzailearen prestigioa. Bertan daudenetako batzuk barrezka ari dira. Ukabila itxita eman dio bigarren kolpea eta, behatzean efektu egin diola bere biktima berriari, jotzeko makina martxan jarri duela dirudi. Besoekin estali da Francesc eta, nahiz eta kolpeak ez zaizkion bereziki gogorak iruditzen, ulertu du zigorra berebizikoa izango dela ez badu goardiaren banitate pugilistikoa aseko lukeen bailiaberaren bat erabiltzen, kalte handirik gabe. Erorikoa irudikatzeko amarruak ondorio onak ekarri ohi ditu batzuetan, baina Francesc beldur da goardiak ez ote duen kirten zorrotza erabiliko lurretik altxatzeko. Erabaki bat hartu du: besoekin estaltzen jarraituz itzulia eman eta ipurdiz errekaostari begira ipini da. Soldadua, kolpeak alferrik ematen nekatuta, alibiatuta sentitu da bere biktimaren mugimenduekin. Eten egin ditu kolpeak bat-batean. Presoaren gorputz makurtuaren gaintetik, ezpondaren ondo-ondoan kokatuta, uharraren ur arrea ikusi du. Atzera eragin eta hanka altxatu du. Txoke basatia sentitu du Francescek bere ezkerreko saihetsean eta lurra bere oinazpietatik ihes egiten diola nabaritu du, oso urrutitik alfonbra bati tira egin baliote bezala. Mendoitzaren lurak amore eman du bere atzamar gakotuen pean eta urak bere baitan hartu du, leun eta izoztua. Behin zutituta hondoko harrien artean, lohiaren eraginez irristakorrak berak, nondik jausi den begiratu du. Goitik barrezka dago SSa, ergel asko.

Francescek ezin izan du itzuli lanabesen txabolara. Zigor-konpainiara eraman du *kapo* batek eta SSk egindako *gomendioa* bideratu du. Luzea izan da eguna, goizeko haize aldekoa arratsaldeko haize aurkakoa bihurtu da, eta arratsalde osoan mailuarekin etengabe lanean jardun duen arren, menderatu egin du hezetasunak. Azkenean eremura iritsi denean ezin izan dio gorputz osoa zeharkatu eta hortzak kraskarazten dizkion dardarizo konbultsiboari eutsi. Arropa lehorra ekarri dio Emilik, gorputza ukenduarekin igurtzi eta “kafe” beroa edanarazi dio, aspirina batekin. Alferrik. Behin burusien azpian, Francesc jabetu da gero eta erretura handiagoak hartzen dituela bere masailak eta pultsuak, eta ikuskizun bitxiak nahasten diotela pentsamendua.

—Hogeita hemeretziatik gora edukiko diat —hausnarrean.

Lo egiteko gogoak begiak itxiarazten dizkio. Orduak, egunak, urte osoak lo. Bere baitan, egun osoan, inkubatzen egon den geldiezinezko gorrotoa loak baretuko balu bezala.

X

Barruko arroparen aldaketa dago 13. *Blockean*, eta Vicent, erabat biluzik, arropa zikina eskuetan, jantzi berriak eskuratzeko banatzailearengana iristeko ilaran dago. Hiruzpalau ordu iraun ohi du operazioak; beste tormentu bat astean zehar jasan behar izaten direnen artean.

—Ikusi al duk, “Valenciarrak”? —dio atzean doakion kideak—. Oinak hanpatuta zauzkak.

—Bazakiat. Egunak dira eguzkia sartzen dela eta ez da irteten.

—Eguzkiarekin kexu? Hori ura da, ez eguzkia.

—Euria bezala da. Eguzkiak egiten dik euria. Eguzkirik gabe, ez zegokek sekula euririk.

Auzoak ez du erantzunik aurkitu, baina epaituz “Valenciarraren” hitzak ezjakinaren fantasiak direla, barrezka hasi da. Vicentek besaburuak altxatu ditu. Zer irabaziko luke mintzatuz? Ongi asko daki zer gertatzen zaion. Jabetuta dago eguzkiarekin hanpatzen zaizkiola orkatilak. Eguzkiak azal lehortua gurutzatu eta, ezpal fin-finak balira bezala, gorputz-giltzadurak txikitzen dizkio. Egun euritsuetan, ordea, ez zaio hainbeste kostatzen jateko orduan esertzen den harrietatik altxatzea, bizkorrago ibili ohi da eta lasaiago joaten da lotara.

Gizon-ilara behatu du bere aurrean. Ez dauka motiborik etsitzeko; gehienak bera bezalatsu daude, edo okerrago. Azala uzkurtu egiten zaio ohiz toki mamitsuetan, ipurmasailak desagertu egiten dira azal zimurtuko orban beltzari toki eginez, erdian diafragma batekin, are beltzagoa.

—“Buztana ateratzen ari zaigu, tximuei bezala” —pentsatzen du jabetzean, kide guztiek nabarmen dauzkatela mehaka-hezurak. Baina pentsamendu honek ez dio barrerik eragiten garai batean gauza hauek eragingo lioketen bezala. Alkondara eta galtzontziloak jasotzeko presa dauka bere koltxoi erdian etzatera joateko. Eta operazioa luzatzen doa etengabeko liskar eta kolpe-banaketa ugarien artean.

Azkenean bere txanda iritsita, bi pieza garbiak beso azpian ipini eta, aztertu ere egin gabe, logelara joan da astunki. Bere gorputz eskeletikoa aurrerantz makurtuta doa, nola kainabera hautsia. Buruak, handiegia lepo mehegiaren gainean, gorputz osoa arrastazen duela dirudi, balantzaka. Hedatua dauden lasto-zakuen tgainean eseri eta laster sartu ditu galtzontziloen zango-zuloak. Oinak aurretik ateratzen ikusi ditu eta bere hanpadura areagotuta iruditu zaio. Azal liso eta tentsoak, barruko likidoaren presioagatik, segundo batzutan, zapaltzean, behatzen urratsa mantentzen dute, azpierzpiebean-edo. Fenomeno bitxia behatzen entretenu da “Valenciarrak” pixka batean. Ez daki hanpadurak sortzen dion nekea edo nekeak hanpadura; soilik daki urak, oinak betetzen hasi, belaunetaraino iritsi eta, handik aurrera, begietako burtsetara jauzi egin eta maiz buru osoa sorgortzen diola. Une honetara iritsita, kide asko erizaindegira joan eta ez dira osterantzean itzultzen. Burua isilik mugitu, orkatilak bi eskuekin igurtzi eta ahopeka esaten du:

—Izorratuta natxiok, txo. Oin bat erraustegian zaukaat.

Luzatu eta burusi batekin estali da. Ongi egiten dio posizioak; nekea alibiatuta sentitzen da. Preso asko gora eta behera doaz beren barruko arrokekin lanpetuta. Koltxoiko auzoak ez dira oraindik iritsi. Begiak itxi ditu baina ez dirudi loa etortzeko prest dagoenik. Ez du nekea sentitzen, baina beste molestia batek iratzarri du: urdail hutsaren uzkurdurak, beti bezala protestaka. Listua irentsi eta, desesperaturik, burusiarekin estali du burua. Hautsa ekiditeko begiak indarrez ixtean, bitzta oso barrutik ihes egiten diola antzeman du. Instant bat besterik ez da izan. Agudo asko burua altxatu duenean, seguru dago Eugenia, Periko, Vicentet ikusi dituela... Aspalditik ez ditu bere emaztea eta seme-alabak gogora ekarri. Orain, bat-batean, han dago emaztea, amantala zuria mutur batean tolestuta, beso indartsuak bilduta, irribarrez bere hortz sendo eta zuriak agerian; mutiko zaharrena txakurra xaxatzen dabil, ttikiena,

berriz, amaren gona artean biltzen. Haluzinazioa burutu gabe, Vicent jabetu da zehatzezinezko bihozkada batek betetzen duela. Zerbait ba ote dakite haiek bere begi hanpatuez, bere goseaz, bere unaduraz, laster edo berandu ezagutuko duen erraustegiaz?

Argi piztuan eta barruko arrokekin okupatuta dauden gizonengan finkatu ditu begiak. Lasto txarreko zakuak deseroso askoak dira bere koskorrentzat. Eskuin alderantz biratu eta, mugimenduarekin, zorrotzagoa eta mingarriagoa egin da nekea.

—Ezin diat gehiago —marmarrean—. Ezin diat gehiago, txo! Arranopola...

Oheburuko daukan arropa-mordoa burua hondoratu eta, haluzinazio olfatiboa balitz bezala, ogiaren usaina sentitu du, afaltzeko orduan eman dioten eta berez azkar asko irentsi duen ogi beltz eta bigunarena. Baina ez, ez da eldarnioa izan! Usaina, erreala eta hurbila, oraindik bertan ez dagoen auzoak bere ohantzearen oheburuan utzitako arropa-multzoaren azpilduretatik dator. Hantxe dago ogia, zinez, bere usainarekin, bere ukituarekin, azala gogor, mamia bigun.

“Kide bati lapurreta egitea litzateke”, pentsatzen du. Ez da aurreko aldian bezala izan: *Popeyeren* ogi haiek denenak ziren eta beraz bereak ere bai, pixka bat. “Krimen bat” —Augustek aspaldi esan zuenez. Ez, ez dio lapurtuko ogi hori. Soilik kraska egiten duen azal latza laztantzen dio, eta pentsatu du haren barruan mami harrotu eta pixka bat hezea egongo dela. Hortxe dago bere urdaila, nekez irensten duen listuak salatuta. Ogia baino ez dago; oroitzapenek ez dute balio, ez nekeak, ez ogia ezkutatu eta une batean edo bestean bertaratuko den zarpailen jabeak. Sekretuaren jabe, lurrin haren eta ukitu haren atsegin guztiak dauzka eskura. Nahikoa du. Inork ez dauka inguruko mundutik banantzen duen estasiaren berririk.

Norbait hurbildu eta barruko arropa garbia bota du koltxoiaren gainean. Aire desplazatua aurpegia igurzten sentitu du. Orduan konturatu da ogia bere besoen artean estuki babestuta daukala. Begiak irekita, espresiorik gabe, gorputza gelditu, ez du deus esaten, ezertan ez du pentsatzen. Ogi bigunaren usainak burusiaren sundea menderatzen du eta eskusibitate narritagarriarekin iristen da bere usaimenera. Ez du ulertu etorri berriak esan diona, konturatu ere ez da egin arropa, burusiak eta koltxoa nahasten ari dela. Ogia gutizia handiagorekin estutu eta masa leunki apurtzen dela sentitu du.

—Ikusi al duk nire ogia? Seguru nago hemen utzi dudala.

Begi ergelekin begiratu dio Vicentek, erantzunik gabe.

—Ikusi al duk nire ogia, bai ala ez? Erantzun!

—Ogia? Zein ogi? —ahopeka, mugimendu azkar batez burusi azpian gordez.

Jarrera harekin harrituta, besteak ez du zer pentsatu jakin. Soilik behatzean “Valenciarrak” burusi azpian mugitzen ari dela, susmoa piztu zaio. Kolpe batez desestali du. Ahoa beterik, begiak orbitetatik kanpo, eskuak ogia irrikaz apurtuz, Vicent ez da ezertaz konturatu.

—Nire ogia! —espoliatuak, oihuka—. Nire ogia lapurtu duk!

Indarka, bere anoatik geratzen den papurtza errekuaperatzen saiatu da. Desesperatuki borrokatzen da “Valenciarrak”.

—Lapurra! Nire ogia! Lapurra!

Eskandalua entzutean, beren koltxoietatik altxatu dira presoak, eta eszena gogor bat kontenplaztera prestatzen dira, pixka bat dibertigarria berau. *Popeye* etorri eta berehala jabetu da gertatzen ari denaz. Vicentek ahoa beterik dauka oraindik eta, burusien gainetik nabarmen daude papurrak. Errudun aitortzeko kemena izan du. *Blockeko* interprete berriak, gaztelania modu pintoreskoan hitz egiten duen alemaniar bat berau, valenciarraren aitzakiak itzuli orde, bere ardura erakutsi nahi izan du *Popeyeren* aurrean.

—August! —Vicentek, zotinka, ahaztuz bere herkiea jadanik ez dagoela esparruan -. Etor dadila August!

Interpretearen garrasiekin kitzikatuta, builaka hasi da bera ere. Vicentek, zutik, nola epaimahai baten aurrean, ez die deus ulertzen, entzun ere ez die egiten. Hain larria da bere egoera, hain argia delituaren larritasunaren kontzientzia, ez dirudi etor daitekeen ezer inporta zaionik. Ez du harritu klaska metalikoak bere ezkerreko belarri gainean. Gogorra da *Popeyeren* eskua. Koltxoia bizkarrarekin ukitu ahala burukada bat eman du trenkadan. Ostikoei intzirika erantzuten die, baina *Popeye* ez da biguntzen. Alkandoraren lepotik oratu eta, lastozko ohantzen alfonbra desberdinean zehar jantokirantz arrastatu ondoren, komunetako zementuaren gainean utzi du, fardela balitz bezala. *Blockeko* beste alemaniarrek prest daukate torturako tresneria.

—Biluz zaitez! —*Popeyek*, aginduz.

Vicentek ez du agindua ulertu. Komunen ilara eta hormaren kontra baztertuta, uzkuratzen doa murruan zehar iragaziko balitz bezala, eta bere torturatuzaileen aurpegi ankertuetatik paseatzen ditu begiak.

—Biluz zaitez! Ergela zara-edo?

Keinu basatiarekin adierazi dio borroeroetako batek.

Ogiaren orga —listoi gurutzatuzko kutxa bat, aski handia, gizon baten gorputza, uzkurtuta, sartzeko— alderantzikatu egin dute barruan biktima kaiolatuta daukala. Erabateko presioz altxatuta orgaren zirrikituetatik sartzen da ura eta izotzezko barra bihurtzen dira torturatuaren bizkarra zigortzeko. Komunetako txorrotetan pertzak betetzen dabilta alemaniarrek, eta kaiolaren saihetsetatik hustutzen dute edukia. Mingarria eta zorrotza ur hura: baina Vicentek ezin du esan hotza edo beroa den. Itotzen ari da, besterik ez, likidoak, dentsoa, astuna eta zanpatzailea berau, estaliko balu bezala, ume zelarik herriko zingiran itota hiltzeko zorian egon zeneko sentsazio berbera —ondo gogoratzen du orain.

Falta zaion airea hartzeko ahoa zabaldurik, zotin iraunkorra atera zaio eta txistu luze eta zorrotz askoa bihurtu da, une batez uraren zurrumurrua eta borroeroen algarak estaliz. Gero, arnasa berriturik, dardar geldiezina etorri zaio. Kaixa barruan ahaleginean dabilkio gorputza, eta kaixa, ahulegia, errazki mugitzen da dutxaren bertikaletik. Ulu egiten du aldika, gero eta gupidagabeago. *Popeyren* laguntzaileek makilekin zurkaizten dute orga, eta haien muturrak listoiaren artean sartu eta azala zulatzen diote, jadanik izotzak sentikortasunik gabetua. Hotz bitxia da, gorputzaren barrutik ateratzen dela ematen duen hotza, bere ahotsa haurtxo baten negar-muxina izateraino ahultzen dion hotza. Orga nasaiegi dago, hain baitago uzkurtuta barruko gorputza. Listoiaren zehar, soilik masa formabako eta iluna antzeman daiteke, hasita dagoen agoniako espasmoek aldiaren behin astinduta.

“Valenciarrek” ez du batere beldurrik sentitzen, jadanik besarkatuta daukan eta pixkanaka estutzen dion heriotzagatik. Arina da estura, ia-ia losintxaria; urrun dago edozein biolentzia, eta minak, luzaroan metatuta, dilatatu eta azalaren poroetatik ihes egiten duela ematen du. Oinaze errukiorra da, denborarekin eta bizitzarekin badoana. Denaren kontzientzia galduta, pentsamendua zeharkatzen dioten bertigo-irudiak gozotasun haren beraren parte dira.

—Eugenia... —murmurikatu du ur-parrastaren zaratan.

Popeyek txorrotara ixteko agindu eta bi borroeroen artean orga kendu dutenean, zakartasunik gabe eskuinerantz erori da gorputza. Arnasa dauka oraingorik, baina negarrik ez. Zoru bustiaren gainean, isilik, ilunpean, gorputza, gutxika desegin eta hilotzaren zurruntasuna hartzen doa.

Ordu asko dira hamaika ordu biltegiko txoko hartan. Hauts eta arropa zikineko emanazioen eta mahai gaineko marrazki obszenoen giroan, kanpoan lanean ari diren kideekiko inbidia izatera iritsi da Emili. Zorakeria litzateke aldatzea, baina aldika behar duela uste du. Marrazkia bera ere, bere pasioa, tortura da une honetan.

Arratsaldeon, liburu bat irekita dauka erdi egindako lamina pornografikoaren gainean: baina Werner etorri denean zaratarik gabe, bere begiek ez dute irakurtzen. Haren begirada aspaldi galduta dago parterreen soropiletan edo behar bada aurreko barrakaren berde-grisean.

—Distrhaituta hago, e?

Irribarre egin dio Emilik. Kide zintzoa da Werner, gizon jatorra berau. Haren desgermanizatzeko ahaleginak alemaniarra den edozeren aurkako marrazkilariaren arrankura losinxatzen du.

—Ba al dakik? Liburuaren maleta lapurtu zidatek...

—Hemen ba al dago norbait letretan aditua?

—Ergel hauen beste broma bat!

Kommandoko beste alemaniarrek gorroto diote Wernerri haren espirtuaren gorentasunagatik, haren erantzunen garratzasunagatik. Maleta liburuz betea edukitzeak, haiek hildako juduen arroparik onenak dauzkaten bitartean, adimenaren afektazio erridulutzat daukate.

—Bilatzen lagunduko diat.

Maleta hark beretzat daukan balioaz mintzatu da Werner, gogoan dauzka tituluak eta autoreak, eta amaitu du esaten liburu haiek “oso bereak direla, besterik ez bada jadanik barruan daramatzalako”.

—Erdi lo aurkitzen haut —esaten du bat-batean—. Zerbait gertatzen zaik ala...?

—Niri ez. Francescek pulmonia zaukak. Gogoratzen al duk?

—Ikusi al dik konfiantzazko medikuren batek?

—Lagun espainiar batek. Uste diat eutsiko diola; nik ez.

—Hi ez haiz medikua.

Bere lagunaren abenturako xehetasun batzuk azaldu dizkio marrazkilariak. Isilik entzuten dio besteak.

—Gehien sumintzen nauena inzidentearen ergelkeria da. Harri batek jo izan balu edo tifusa harrapatu...

—Krimena kontsigna patriotikoa den toki batean bizi gaituk.

—Soilik nazka handia sentitzen diat, erabateko nazka.

—Eutsi beharra zagok.

—Ezin diat gehiago, ordea —Emilik, lehertuta. Ezin diat gehiago, ulertzen? Kokoteraino nago zikinkeriak margotu eta besteak erremediorik gabe pasiboki kontenplatzeaz.

Erdi egindako lamina atzamarrez hartu eta txiki-txiki egin du, sumindurik.

—Nire buruaz lotsaturik nagok. Zergatik nauk hain koldarra eta ez zioat ofizialari esaten zikinkeria hauek berak marraz ditzala?

—Zer irabaziko hukek?

—Ez, Werner. Egia da ongi nagoela.

—Ixo. Ez esan beste ergelkeriarik. Jada ez al dituk gogoan aurreko eguneko xedeak, ez zakiat zer antolatzeakoak?

—Ez diagu ezer egingo! Francescek bakarrik guk guztiok batera baino gehiago egingo likek.

—Egin ahal duana, gutxi ala asko, hire eskrupuluak baino garrantzitsuagoa da. Hire laguna sendatzen denean, barre egingo duk hire eskrupuluen kontura.

—Jendea apatikoa eta berekoa da. Inork ez dik uste ezer saiatzerik merezi duenik.

—Kanpoko baldintzak aldatu ahal dituk.

—Hemen gauden gehienak lehenago eroriko gaituk.

Wernerrek onartzen du gerra-fronteetako zorte-aldaketa ilusio hutsa dela. Kasurik onenean, SESBk kolpearri eutsiko lioke, baina denbora asko pasatuko litzateke aliatuak kontraerasoa jotzeko gai izan arte. Urteak iraun lezake gerrak, baina presoek asteak baino ezin dute iraun, eta ez gehiegi. Alemaniarrek kementsu azaldu nahi du.

—Ez diat uste arrazoia daukaanik hire pesimismorako —lasai eta begitxoak dir-dir. Baina hire aberkide gehienak jausten badituk, ez dadila izan besoak gurutzatu dituzuelako. Ahal dena salbatu behar da eta hori lortzeko bide bakarra da norbera saiatzea gelditzen direnetakoa izateko. Berekoikeria da eremuko legea, gure existentziaren pozoia eta, beraz, antidoto bakarra. Biziraun beharra zaukaagu egunen batean justizia oihukatzeke. Emilik sentitu du bere adiskide Francescen isla dagoela alemaniarren ahotsean. Hark ere tonu horretan hitz egingo luke. Egunen batean justizia oihukatzea.

Hitzak emozioz azpimarratuta, Wernerrek gehitzen du:

—Alemaniarra nauk eta honek denak zuei baino eragin handiagoa sortzen zidak. Begira...

Keinu azkar batekin alkandoraren aurreko alde jaso eta urdailaren parean daukan koskor bat erakutsi du, ukabila bezain handia.

—Aurreko gerran —azaldu du—, hamazazpi urte nituela, metraila-zati bat ni hiltzeko zorian egon huen. Oroitzapen hau utzi zidaan. Eremu honetan sartu nintzenean, jotzen nindutelarik, aditzera eman nian gerrako mutilatu bat nintzela. Nire aurpegira barre egin eta erdi hilik utzi nindutean. Nik ere bertan egon nahi diat justizia egiteko orduan! Sufritu dudalako ez ezik, lotsatuta nagoelako. Depresioaren orduan justizian pentsatzen diat. Pentsa ezak hik ere. Aholku ona dela uste diat.

1go *Blockeko* ezker aldean, administrazioko bulegoen alde batean, harri-zulataileentzako eskola bat dago, zeinak, irekita daramatzen urteak gorabehera, oraindik ez du ikasle bat ezagutu. Behin igeltsero-*kommando* bat iritsi eta zalaparta abiatu zen. Erdiko plantxak atera, oholak altxatu eta zementua, harriak eta hondarra metatu zuten. Kontua, arraroa izatetik misteriozkoa izatera pasa zen. Batzuk ziur zeuden erizaindegirako dependentzia bat egingo zutela, beste batzuek uste zuten bakartze-ziega batzuk izango zirela etorri berrientzat, beste batzuek mantentzen zuten, egoeragatik, goardia-talde bat ipini beharra zegoela motinen aurka. SSekin harreman ona zeukan preso batek eman zuen bertsio harrigarria:

—Putetxe bat izango da!

Inork ez zuen sinistu.

—Oraindik ez duk opera-antzerkia aipatu.

Azkar asko zabaldu zen broma, mundu guztiak ezagutzen zuen eta mundu guztiak errepikarazten zuen zirto olgagarriaren aire atseginarekin. Baina gutxika xehetasun batzuk ageri ziren bertsio hura sinesgarri bihurtzen zutenak. Goiz batean hamar konketa eta hamar bidet deskargatu zituzten, eta suposaezinezkoa zenez SSe horrelako tresneria beharko zutenik, inork ez zuen bertsioaren sinesgarritasuna ukatu.

Gosetiei bost berrikuntza hark. Sukalderako galdarak izan balira, tira! Pribilegiatuentzat, ordea, albisteak bazuen bere garrantzia. Gogoberotzeak eta ukapenak egon ziren, halako eremu batean sexu-gaitasunari buruzkoak, gustu guztientzako komentarioak, eta ergelen batek esan zuen “alemaniarrek humanizatu egiten zituztela kartzela-prozedurak”.

Tximistargien lustrea Emilik bere umore txarra itotzen duen oheraino iristen da arratsalde honetan. Teilatuaren alde mundrunduna jotzen dute euri-jasek, bere burutik gertu, eta uraren marmarrak armairuen ilararen beste aldera mahairatutakoen berriretekin nahasten dira. Aurreko arratsaldean izandako burdelaren inaugurazioaz mintzo dira. Ernestek dauka hitza. Ez da bertara joan espainiarrak debekatuta daukatelako joatea, baina pataten “kapoa”, bere laguna, bertan egoten lehenetarikoa izan da eta xehetasun guztiakin kontatu dio.

Haren arabera, seinalatutako ordua baino lehen, bizarra egin, bainatu, lurrindu eta arropa garbiarekin jantzi da “kapoa”, eta esparruan zehar hedatutako oihua entzutean, “harremanak eskatu dituztenak, formatzera”, gizona, neskalagunaren bila doan ikaslea bezain dotore jantzita, barraka bereziaren ataurrean azaldu da. Berrogei bat preso

topatu ditu, ia denak alemaniarrek, eta haiek denak, ilara zintzoki gordez, beren txandaren zain daude.

Ernestek azaltzen du bezero bakoitzak txartel "pertsonal eta aldaezinaren" jabe izan behar duela, SS arduradunaren sinadurarekin, eta hamarretik pasatzen ez den zenbaki batekin. Zozketa bat balitz bezalaxe. Etxeko hamar emakumeetatik bakoitza, Alemaniako beste edozein bizidunek bezalaxe, animaliak barne (hegaztiak hanketan lotuta daramate), zenbaki propioa izateko pribilegio naziaren jabe dira. Kasu honetan, bat datoz emakumearen zenbakia eta "laneko" ganbera. Antzeko abenturekin gertatu ohi denaren kontrara, bezeroek ezin dute aukeratu; SS antolatzaileak ausaz banatzen ditu zenbakiak, emakume bakoitzaren lana egoki banatuz. Hamabost gizon emakume bakoitzeko egunean, eta hamabost minutu gizon bakoitzeko. Lau orduko "lanaldia" egunero, bi markoko irabazia eta erabateko bermea maiatasunezko pasio handien aurka. "Harremanak" eskatzeko, apropos, berrogeita hamar penikeen truke sinatu behar da kantinak kontu korrentearen orrian. Kantinak maitasuna saltzen du, bi erreal pieza bakoitzeko, eta dirurik ez daukanak...

Bakoitzarentzat zorteak prestatutako gelan sartzean, itxarongela batetik pasatu beharra dago, lakrikunkeria pixka batekin hornitua berau, non erizain batek bertaratutako osasunaren egoera neurtzen duen; baina tokia oso estua denez, kabitzen ez direnek kalean itxaron behar dute. Negua iristean sistema ez da oso afrodisiakoa izango.

—Zein zenbaki egokitu zaik?

—Zazpia.

—Ijito gaztea. Haragi gehiegi nire gusturako. Esango didak nola joan zaián.

—Eta hiri?

—Bia, poloniar ilehoria. Ederra da eta jatorra zirudik. Leihotik ikusi diat.

—Hobeto! Ilusioak mirariak egiten ditik.

Pasabide baten muturrean ate bat ireki eta justu zerbitzatutako judua atera ohi da. Ezkerreko aldean gela zenbakituak daude, lerrokatuta. Adineko emakume batek zenbakia oihukatu ohi du:

—Zazpia... Zazpia esan dut!

Zazpia daraman ilarako lehenak zenbaki berberetako ateraino hurbildu da. Behatxulo bat da begiek topo egiten duten lehenengo gauza, eta pasabidetik, ganberan gertatzen dena ikustea ahalbideratzen du. Gogoberogarria!

—Joan kontuz —esan du emakumeak tupustean—. Fantasiak debekatuta daude; zigorkonpainiarekin ordaintzen dira.

Hainbeste probaren ondoren, imajinazioak aski indar baldin badauka giro aproposa sortzeko, asko eskatzea dena, magia guztia kolpez desegiten da, norbaitek atea jo eta dioenean:

—Amaitu dira hamabost minutuak.

Edo are okerrago, kasu batzuetan SS zelataria sartzen denean, ohar-koaderno eta arkatz batekin, amorru puritanoarekin esanez:

—Emaidazu zenbakia, zerri hori. Bihar harkaitzak jasoko dituzu harrobian.

Ernestek xehetasun haiek guztiak azaltzen ditu tertulian parte hartu dutenen barre-argaren artean. Giroa astuna da batik bat, kanpoko ekaitzak azentu morbosoa ipiniko balu bezala gizon haien sasipozean. Emili, bere ohean, batzuen eta besteen txantxeekin aspertuta, lo egiten saiatzen da, baina eskandalua loa baino indartsuagoa da.

—Bitxia da patatetako "kapoa"! emakumeak bisitatzen joaten ausartu izana —dio tertuliakide batek—. Ulertuta zaukaat ez direla bere gutizia.

—Ernestek argituko ziguk hori.

Erabatekoa izan da buila. Mutila defendatzen saiatu da baina besteen algarek eta txorakeriek ez diote hitz egiten uzten.

—Eta hi, Ernest, joango al haiz guri ere sartzen uzten digutenean?

—Joan hadi popatik hartzera!

—Ez joan, gizona, ez joan!

Algarak isiltasuna eskatzera behartu du “*Blockältesterra*”. Elkarrizketa pixka bat baretu da orduz geroztik. Norbaitek galdetu duenean neska haien jatorriari buruz, beste batek azaldu du emakumezko kontzentrazio-esparru bateko barneratuak direla, laneko *kommando* batean antolatuta etorrira.

—Dirudenez askatasuna agindu zietek holako lanean urtebete eman ondoren.

—Askatasuna! Sei hilabete pasata esango zietek mintzatuko direla urte erdi bat aurrerago.

—Boluntarioak dira. Eurek bilatuko zitean.

—Boluntarioak? Holako eremu batean erraz da boluntarioak topatzea infernura joateko bada ere. Erantzuki egitea? Ni ez nauk ausartzen hori egitera, ez eta hemen, jatearren, mutiko batzuk...

Zarata handiz protestazen dute batzuek. Oraindik hitz egin gabeko ahots batek esan du:

—Homosexualitatearekin amaitzeko ekarri ditiztek alemaniarrek. Kasu batzuetan oso iraultzaileak dituk alemaniar hauek. Beste ezein herrialdetan ezinezkoa litzateke, esan nahi diat ezen herrialde kapitalistetan... Aurrejuzku erlijiosoak...

Emilik ezin izan du gehiago eutsi. Goiko ohera igo eta, tertuliatik banantzen duten armairuen gainetik azalduz, jaurti du:

—Utziko al dituzue ergelkeriak? Zerriak lokatzetan bezala dibertitzen zarete. Jasan behar izan ditugun lotsa guztietatik hau da txarrena, umiliagarriena. Eta alemaniarrek iraultzaileak omen! Gizon duinak milaka erail ondoren, bikain iruditzen zaizue geratzen garenon espiritua aberetzea. Utzi berriketa hauen alemaniar gaizkileentzat eta isil zaitezte behingoz.

Begiratokitik desagertu eta ostera luzatu da ohean. Harridura-unea izan da bertaratuen artean, baina laster ekin diote ostera berriketa berberari, ahost baxuagoan ordea. Emili, berriz, pixka bat erridikulu sentitzen da bere alferreko keinuagatik.

XI

Arratsaldean Emili erizaindegira sartu denean, bere buruari galdetzen dio nondik ote datorkion gaixoaren aldamenean esperimendatzen duen kikiltzea. Nabarmen da ezen, lehengo Francescen galera fisiko eta moralarekin, lotzen dituen adiskidetasun-mota ere aldatu egin dela. Beti bere lagunaren indar fisiko pertsonalean zurkaizten ohituta, arraro sentitzen da orain hark daukanean bere premia. Zereginen inbertsio honetatik sortzen da terreno faltsua zapaltzen duen inpresioa, berriketarako gaia aurkitzeko zailtasuna eta batere ez dagokion ziurtasunaren planta egiteko ahalegina.

Ilunabarrean prestatuta dauka berriketarako gaia eta elkarrizketa lau eta atseginaren perspektibak erizaindegiraino korrika joatera eraman du, baina barruko aire itxiak aurreko egunetan ezagututako ezinegona berraurkitzeko sentsazioak jo du. Gaixo batzuek, soilik alkandora batekin jantzita, euren gorputz eskeletikoa eta azal kadaberikoa arrastatzen dituzte *Blockeko* jantokian zehar. Buru zurituek, gorputzekiko proportziorik gabeek, haurren marrazki eskematikoak dakartzate gogora. Zaurien eta desinfektatzaileen sunda uhinka dator logelatik. Jantokian berandutzen diren gaixoak bultzatu eta ohera itzultzera behartzen dituzte erizain alemaniarrek. Bidera atera eta eskua luzatu dio mediku espainiarrak. Gaztea da, aditua ematen du eta gaixoen oinazeak arintzen saiatua den ospea dauka. Eskertuta dago Emili Francesci egindako arretagatik.

—Zer egiten du gaixoak?

—Berdin, sukar pixka batekin. Ez du jaten.

Eta Emiliren isiltasunaren aurrean, gehitu du:

—Itxura txarra dauka. Pulmonia batek ondorio txarrak dakartza hemen

—Esan nahi duzu...

Zalantza egin du medikuak pixka batean erantzun baino lehen.

Begiekin galde egin dio Emilik. Bata zuriaren pektoralari defentsa-keinu batekin indarrez heldu dio, batik bat aurreikusten duen kolpea gelditzeko. Idatzita dago sententzia; beharrezkoa al da medikuak aditzera ematea?

—Ezkerreko birika –esan du medikuak–; lesioa garrantzizkoa da.

Errudun bat topatzeko premia dauka marrazkilariak, hari alferreko kargua hartzeko.

—Ezer ez dela izango ziurtatu zenidan. Zuk bazenekien...

—Zerbaitetarako balio izango al zuen zuri esan izanak? Orain egia esaten dizut diagnostikoa ofiziala delako. Esan nahi dut –azpimarratuz– arriskua handiagoa dela. Ulertzen al didazu?

—Oraindik ekidin al daiteke?

—Luzera ez dago zer eginik, badakizu. Azkena atzeratzen saiatuko naiz. –Eta instant baten buruan: ikusi nahi al duzu?

Buruarekin keinu negatiboa egin du Emilik. Aterantz itzuli da, durduzaturik. Barruan zerbaitek eztarria estutu eta hankak mozten dizkio.

—Ahal dudana egingo dut –medikuak, errepikakor.

—Eskutiz hau hire interesekoa izango da.

—Norena da? –Emilik, galdezka.

—Augustekin atera den nire lagun batena.

Rubiok luzatutako eskutitza hartu eta irakurtzen hasi da:

“Denok ulertu dugu, senex-edo, obeditzeko premia eta erretenituta gauzkaten gustura lan egin eta bizitzea, eta ez dut uste, August oraingoz zailtasun handian egongo denik. Bere autoritatea inposatzeko unea da *kapo* karratuen errutinaren aurka. Lortzen badu, posible da dena berez joatea. Bere kolaboratzaileen artean nauka Augustek –auskalo

zergatik– eta *Blockältesterra* naiz, nahiz eta hemen kargurik daukan edonork gainerakoek bezala lan egiten dugun obran. Jatekoa ez da zuen esparruan bezain eskasa eta berdintasun zorrotzean banatzen da. Soberan badago, argalen daudenentzat da. Zerbitzuetan ere justizia dago, txanda zorrotzean egiten dira eta soilik gaixoak eta kargu finkorik daukatenak daude salbuetsita. Presoen arteko komertzioa ezabatu da, eta ileapaintzaile, jostun, zapatari eta abarrek desinteresatuki egiten dute euren zerbitzua eta ez jatekoaren edo zigarroen truke. Adiskidetasuna dago, ez da politikaz hitz egiten, aldez aurretik ikusten dira desbideraketak; gure bizitzaren austeritateak eta gauza batean edo bestean okupatuta egoteak oso beharrezkoa egiten dute atsedena, jendeak denbora txorakeriatan galtzeko. Denok ulertu dugu gure eremuan gizon askoren bizitza salba dezakeen esperimientua egiten ari dela. Alemaniarrak –dio Augustek– emaitzekin konbentzitu behar dira. Biolentziara ohituak, ezin dute ulertu tratu gizatiarragoarekin etekin handiagoa aterako diotela gure ahaleginari. Ulertezintasun hori gainditzeko zigor-errepresentazioak antolatu behar ditu oraindik zigor-plazan Augustek. Orduan oihu asko egiten du, are gehiago imintzioka dabil, belarrondokoren bat banatzen du eta huskeriagatik ordu pare batean kokatzen zaitu arantzazko hesiari begira. Horrela jokatu ez balu, Ssek ahulegitzat joko lukete haren autoritatea, eta seguru haren ordeztorriko den preso alemaniarrak ez lukeela antzerkirik egingo. Jendeak umore pixka batekin ulertu eta onartzen ditu ikuskizun hauek. Nik, hainbat gauzatan harekin desados nagoelarik, onartu beharra daukat...”

—Orain zetorrenak ez zaukak interes orokorrik –dio Rubiok.

Eskutitza itzuli dio Emilik. Eta irribarrez galdetzen dio:

—Oso laguna al daukazu idazten dian hau?

—Bai, zergatik?

—Hire lagunak ez dik karrerarik egingo. Fiskalak ezin dituk sentiberak izan.

—Zer esan nahi duzu?

—Ez, ezer ez. Lagun sintzeroa, gehiegi.

Eta azalpen gehiago ez ematearren, dio.

—Dirudienez Augustek guk baino bide luzeagoa egin dik. Erakusten ari da bazekiela nora zihoan...

—Haren esperimientua ona da, baina oraindik oso apala. Hortik talde espainiar osoa kontrolatzera...

—Lehen urrats bat da.

—Ez fidatu; alemaniarrek ez zigutek bidea zabalik utziko. Ezagutzen al duk Metzinger?

—Bai. Maiz etorri ohi da biltegira. Eskean, jakina.

—Gerra deklaratu zidak. Hura erortzen ez den bitartean, ez diagu deus egingo.

—Eta nork erorraziko du?

—Gauzak beste logika batekin doaz eremuan –Rubiok irribarre gaiztoarekin—. Nik ere baditiat nire planak.

Honela amaitzen da erantzuteko eskutitza:

“Zure hurrengo eskutitzaren tonua jaso dudanaren antzekoa baldin bada eta soilik gure etsaiei erakutsi ahal badiet –idazten didazunaren arabera– erakutsi ahal izateko daukagun inozotasun aingerutarra, zure zerbitzuak ez zaizkidala komeni pentsatuko dut”.

Gogorregia iruditu zaio. Orria puskatu eta idatzi du:

“Espero dut zure hurrengo eskutitza atseginagoa izango dela guretzat, izan ere erantzuten ari naizena soilik balio izan du gure aurkariei erakusteko badakigula besteen gauza onak balioesten. Agurrak... Behin irakurrita, erre orri hauek”.

Ohetik altxatu eta poltsikoan sartu ditu paperak Rubiok. “Bat nabarmendu behar izatea ere holako gauzak idatziz!”, pentsatzen du. Laburki irribarre egin eta freskura hartzera atera da, baina kalera iritsi bezain pronto gogoratu da, oraindik ez duela arratsalde hartarako proposatutako zeregina bukatu. Bat aski gogaikarria geratzen zaio. Segun eta

nola, elkarrizketa bat Ernestekin zaila izango da, behar bada biolentzia ere bai. Mutilari burura igo zaio eta eremuko amoraltasunak mintegia aurkitu du haren eskrupulu-faltan. Onartu beharra dauka Ernestekin huts egin duela taktikan. Kasu arrunta: gizontasun gutti, gabeziak jasateko jarrera eskasa eta behar besteko lotsagabetasuna. Horrekin eta hizkuntzak ikasteko joera nabarmenarekin, dena erraza zatekeen. Irribarre batzuk alemaniar pribilegiatuei eta, lehenengo nazkak gaindituta, laster etorriko da saria. "Arreta gutxi" pentsatu du, eta bere babestua –alderdikide praktikan galduek erreperatzeko lana fintzen hasi da.

Sukaldeko atalasea iritsita, preso batzuen, *kommandoko* gazteen eta Ernesten gustuen arabera aukeratuen, mugimendak behartu ditu pixka batean eguerdiko termoak latsagia handi batzuen inguruan hedatzen. Lehen inpresioa gogaikarria izan da ileapaintzailearentzat. Buila hura guztia oso ekibokoa da bere gustuetarako. Interpretatzaileak ikusteko galdezka joan da haietako batengana. Minutu batzuetako itxaronaldia. Lurrazpitik igo da Ernest, eta disgustuzko imintzio bat erreperimitu behar izan du.

—Barkatu bulegoan hartu ez izana —dio enfasiarekin, eskua luzatuz—, izan ere soilik minutu batzuk baitauzkat. Zain daukat *kapoa*, erlazio bat egiteko. —Eta erantsi du, aldabera—: abizen espainiarrei japoniar irizten die.

—Pozten nauk hik bulegoa eta izen espainiarrak izateagatik erlazionatzeko —Rubiok ironia pixka batekin—. Ez haut gogaituko.

Eta eraso abiaturik da, "suposatzen diat ez hintzela aurreko egunean gogaitu..." ezagunarekin. Gero adiskidetasunaren apologia termino eskuzabalenetan egin du, bi egun lehenago gaixorik iritsi den kamarada zahar batentzat laguntza eskatuz.

—Tira, tira —Ernestek murmurikatuz—. Laster konponduta daukazue zuek. Ez da nahikoa gauzak egiteko borondatea edukitzea. Konpromiso asko zauzkat. Ez zakiat nola atera. Orain, berriak asumitzea? Ezin diat, sinestu iezadak, ezin diat!

Indarrik gabeko erresistentzia da, eta Rubiok uste du gauzak planteatzeko une egokia aukeratu duela. Insistitu beharra dago, limurtu.

—Beste ahalegin bat falta da —esaten du ahots limurkorrez—. Kasuak merezi dik; antigoaileko militante bat, onenetakoa. Urte asko dituk ezagutzen dudala. Hire anaiak ere ezagutzen zian...

—Hala izango zuan —Ernestek—, baina hainbeste abusatzen diat, arriskua zauzkat egunen batean niri buila atera eta orduan dena amaitzea.

—Jakin bazakiagu hire zeregina merituzkoa dela —Rubiok irribarre limurkorrez—. Eremuan asko hitz egiten da hitaz, eta zurrumurruak entzun ditiat, ez zakiat errealitateari dagozkion ala...

—Zurrumurruak? Beste behin ipuinekin hiregana?

—Ez, ez. Aldeko handia daukan zurrumurru bat...

Eta ia-ia belarri-ertzean:

—Ziotek "Augustena bezalako" *kommando* bat emango dizutela. Hik jakingo duk zer daukan egiatik.

Odola zerebroan sentitu du interpreteak, eta hankak moztuta.

—Ez zakiat ezer —ahots eskasez aitortuz— eta ez nitek nahi... Erantzukizun handiegia.

Rubiok erantzun egin dio erasoari:

—Hi bezalako gizonak behar ditiagu. Adiskidetasuna alde batera utzita, uste diat aukera zuzena izango dela.

Gutxitan bezala pozik sentitzen da ileapaintzailea. Agian emango dituen emaitzak alboratuz, esandako gezurrak groteskoraino darama egoera. "Ernest gaixoa", pentsatu du.

—Agian nik jakingo diat inor baino lehenago —aire konplizez—. Badakik ez zaizkidala komunikabideak falta; eta Gupper ere badago, haren konfiantza handikoa bainauk... Kontatu gabe guk baditiagula baliabide batzuk, eta horiek batzuetan... Tira, ulertzen didak.

Termoak garbitzen dituzten mutikoek inoiz baino buila handiagoa ateratzen dute. Patata hartzituen usaina dator sototik. Amantala zuriko sukaldariak joan-etorrian okupatuta dabilta ixteko prestakuntzak direla-eta. Hitzak leunki jausten utzi ditu Rubiok.

—Lehenago aipatu diadan kamarada bidaliko diat. *Blockera*, ez da? Fuentes deritza.

Eta Ernestek aitzakia gehiago ipini baino lehen, alde egin du:

—Sobera entretenitu haut. Ez diat ahantziko mintzagai erabilitako gaia. Ikusi arte.

Azken agurra egin du Ernestek.

—Hemen oso lasai bainagok...

Atean da Rubio eta irribarre egitera mugatu da. Giza banitatea kalitate goreneko arma dela uste du eta, oro har, oso ondo aprobetxatu duela arratsa.

Arratsaldeko formazioan agertu da Hans Gupper eta, ilarak desegin baino lehen, errusiera ezagutzen duten presoak aurkezteko eskatu du. Aurkeztu diren hainbat alemaniar eta poloniarren artean, aurpegi patibularioenak dauzkatenak aukeratu dituzte. Bigarren deia zigor-konpainiara egin izan da, eta irizpide berbera nagusitu da beste aukeraketa batean. Aukeratuak alde batean ipinita, tresneria itxuraz heteroklitoz kargatutako SS batzuen zain geratu dira. Gaizkile aukeratuak bat instant batean biluzi eta SSk ekarritako piezekin jantzi da. Jaka urdin iluna eta praka gorriak jantzi ditu, denak mendel eta entortxatu horiz hornituak, burua beste gerra bateko kaskoaz estali, zuriz esmaltatu eta mutur bismarkiarrez burututa berau, eta neurri handiegiko sable bat hartu du eskuan, zalditeriakoa. Zarata handiz barre egin dute SSek. Behar bada ukitu batzuk falta dira, adibidez oinetakoak, gerrikoa, arroparen doitzea, baina denbora egongo da arazoak sortu ahala konpontzeko. Hans Gupper pozik dago janzkera-arloan dituen ezagumenez. Topatu al daiteke zerbait egokiago barneko poliziari dagokionez? lugoslaviako goardia errealekoa da arropa, eta segur aski laster etorriko diren errusiarrek, zeinentzat den formakuntzan dagoen polizia, ederra aurkituko dute hain zelatari koloretsuen kontenplazioa.

Egia da eremua ez dela gerra-presoenentzako baizik preso politikoentzako, eta nazioarteko legeek... Borondate onarekin, ordea, beti daude konponketa egokiak. Barraka-ilara bat arantzazko hesiekin banandu eta haietako baten fatxadan "Gerrako Presoenentzako Lan Eremua" errotulua ipinita, dena ordena zorrotzean geratuko da. Baliabideak dituen pertsona da Hans Gupper.

Aurreko egunean goiz haizetsua egin du. Lehen orduz geroztik eremuko historian egon den harrera-ekitaldirik garrantzitsuena antolatzen hasi da: bi mila errusiar datoz. Goizeko hamarrak arte etorriko ez diren arren, alde aurretik hartuak daude arreta ezohikoenak. Kanpoaldeko goardiaren sendotzea, kontaketen plazatik pasatzeko debekua, *Blockältesterren* mobilizazioa... Bi mila errusiar ala bi mila piztia?

Minutu gutxi batzuk paseak dira markatutako ordutik, esparruko atetik orban ilun, gorritza errepidean gora datorrela nabarmendu denean. Unetxo bat geroago kondukzioko goardia sartu da, metrailetaz eta eskuko granadez hornituta. "Polizia bereziko husareek" operetako agerketa egin dute, eta behar den bezala presoen zutabea txukuntzen hasi dira. "Munstroak" sarrera txinatarretik sartzan ari dira; bakar batek ere ez du berrogeita hamar kilo baino pisu handiagorik. Gose-aurpegiarekin, zikin, erdi biluzik, gehienak oinutsik, dardar batean datoz, nola ostorriak haizea barraken artean sartzan den bakoitzean. SSak pozik daude, ase, desastre haren aurrean. —Hau ejerzito bat al da? —dio Hans Gupper sarkasmoz—. Ez da arraroa hain azkar aurrera egitea!

Errusiarrek ikusten dituen lehen aldia da.

Euren ia erabateko biluztasuna gorabehera, arropa kentzeko operazioa aski izan da zorigaitzoko haietako batzuk hotzak gogortuta erortzeko. Taldeka biluzten dira, dena multzo handi batean utzi, ur irakineko dutxara jaitsi eta, xukatu gabe eta oraindik

biluzik, ostera kalera ateratzen dira, nondik eremu bereziko barraketara eramanak diren. Eta hiruzpalau egun egon dira biluzik, ekarri duten arropa berbera banatzeko esperoan –sakabanatuta, noski–, garbi eta desinfektatua, gerra-presoa baitira eta ezin dute uniforme marraduna eraman. Nazioarteko legeak... Lau egun biluzik, denbora gehiena kalean formazioan! Batzuek ezin izan dira aurrerantzean sekula jantzi.

Barneko poliziako gaizkileek aukera izan dute uniforme eta ezaugarri daukaten basatikeria erakusteko. Hondarrez betetako goma batek ordezkatu du sable anakronikoa: sinbolo bat. Bost barraketako itxitura hartan gosea, hotza, terrorea eta heriotza izan dira nagusi negu osoan.

Errusiarren etorrerak bidea erraztu die Europako ekialdeko eta hegoekialdeko herrialdeetako deportatu zenbakituezinei: errusiar gehiago, jatorri guztietako iugoslaviar eta txekiar eta juduen taldeak. Emilik, bere karguagatik, harrera haietako ilara amaiezinak behatu behar izan ditu. Gogoan dauka, adibidez, txekiarren lehen etorrera.

Arantzazko hesitik kanpo bizi zirentzat udazkeneko ilunabar, astiro eta gozo batean sartu ziren ehun bat kondentatu, euren artean hogeit bat judu. Arroparen aldaketa egiteko baliatzen zen plazatxoa barneko itxitura ixten zuen hormako mutur batean zegoen, ate txinatarretik oso gertu. Erreflektoreek, hormaren luzeran erregulariki banatuta, zoru garbian islatzen zuten euren argia eszenari aire haluzinagarria eskainiz. Buruen gainetik, gauaren arku infinitoa, eta lurrean, harlauzen dizdira labainkorra. Pertsonaiak, batzuk marradunak, beste batzuk berde-grisak, etorri berriak kolore indefinitukoak, modu bitxian iluminatuak, nola bateria baten aurrean, kausa nabarmenik gabe dabilta gora eta behera, eta ematen du ahotsek beldur diotela isiltasunari, aldi berean oihartzuna deitoratuz. Iltaran zeuden txekiarrak zekarten guztia utzi eta lehen filiazioa egingo zuten mahaien aurretik pasatzeko puntuan zeuden. Juduak, azkenak doaz.

—Biluz zaitezte! —agindu zuen ofizialak.

Eta presatzearen, ilarara hurbildu eta ukabilkada zein ostikoak ematen jardun zuen.

Bere *estatu nagusiak* jarraituta iritsi zen Hans Gupper. Taldekideak animatuta zetorren, aurpegiak kongestionaturik eta urraskera zalantzakor, garaipen alemaniarren bat goraiatzeko egin afariaren ondoren. SSen arriskua areagotu zuen mozkorrak. Behin Wernerrek esan zuen, ezen, kontuan harturik Reichek zeukan erraztasuna ordezkoko aurkitzeko, SSK ardoa odol eta odola ardo bilakatzeko gaitasuna zeukatela.

Eremuko hierarkien lehen bisita juduentzat izan zen. Kapritxozko galdeketen prozedurak, beti belarrondokoak banatzeko motiboak ematen zuena, orduko hartan, orgiaren tamaina izan zuen, afariko lurrinak medio.

Hans Gupper mahaira hurbildu zen, non ilarako lehenak, biluzik eta hortzak karraskan, galderei erantzuten zien...

—Zer zara zu?

—Txekiarra.

—Esan *Obersturmführer*, entzuten al duzu? Judua al zara?

—Ez, jauna.

—Ez al didazu ulertu, zerri hori?

—Bai, *Obersturmführer*.

—Zergatik atxilotu zaituzte?

—Ez dakit, *Oberturmführer*.

—Ez dakizula, doilor hori? Argituko dizut nik memoria.

Okotsean belarrondokoa joz, bizkarrez hormara joan zen txekiarra. Zorabiatu eta begiak zabal-zabalik jaiki zen. Eskuaren ifrentzuarekin toki mindua igurzten zuen.

—Komunista! —eremuko komandanteak, oihuka—. Zakur komunista zara zu. Gure soldaduak bizkarrez erailtzen dituztenetakoak. Komunista, kriminala, saboteatzailea!

Presoari oldartu zitzaion; itsuki jotzen zuen, mozkor zegoelarik balantzaka, amorruren paroxismoan.

Ahal zuen moduan babesten zen txekiarra, eta komunista zela ukatzen. Zorigaitzokoaren sudurretik isuritako odola ikusirik, gero eta suminago ageri zen Hans Gupper. Pauso bat faltsuan eman eta bere gorputzarra lurrera erori zen, bere biktimaren gorputz biluziaren gainean.

—Ukuiluko komunista! —biraoka, ahal zuen modura lurretik altxatuz. Nik erakutsiko dizut boltxebike izaten! Altxa zaitez, entzuten al duzu?

Bota iltzedunak sartu zizkion saihetsetan.

—Emaidazue zigor bat —agindu zuen.

Gainerako SSek nagusiaren adibideari jarraikiz biktima bana hartu zuten. Oinazeko uluak, irainak, kolpeen zartadak hormen artean entzuten ziren. Argi gordinak gorputzen eta objektuen deformazio ikaragarria nabarmentzen zuen. Horroregatik zur eta lur, amets bat balitz bezala behatzen zuen Emilik ikuskizuna. Lurretik zetorren argiak gaueko arku handian proiektatzen zuen fenomenoak.

Meneko batek zigorra eman zionean Hans Gupperri, hormaren txokoan zokoratuta zegoen txekiarra, mataza bat eginda eta zotinka.

Plazatxoaren desordenan, gorputz biluziak, hilak eta hil hurrenak, arropa eta maleta txikituen artean sakabanatuta zeuden. Odol koagulatuko putzuak, zorua lohitzen. Euren mozkoraldian, SSak biktima bat birrindu eta beste batekin hasten ziren, eta seguru aski etorritako ehun gizon haiek esterminatuko zituzten, Hans Guperrek berak, jadanik leher eginda, gelditzeko esan izan ez bazuen. Txekiar haien aurka esparruan internatzeko agindua baino ez zeukan eta ez zuen bere nagusien erriatarik jaso nahi. Berriro hasi zen arroparen aldaketa. SSak ez ziren berehalakoan gelditu. Mahaietatik dutxako eskailetarako tartean kokatu ziren, bi ilarak osatuz, zigorrak eskuan, eta tartetik pasatzera behartu zituzten etorri berriak. Zorigaitzokoak eskaileraren ahora iritsita, SS batek oin azpiarekin bultzatu eta mailatan behera botatzen zituen. Beste SS batzuek dutxako gelan itxaroten zieten, ur irakineko mangerak presio osoarekin. Kanpoko orgiatik ihes egindako parte bat bertan hiltzen zen ahoa irekitzera behartzen zituztenean.

Goizean goiz, ohean sartuta, Emilik ezin zuen lorik egin. Espektroen mundu oso bat zabaltzen zen bere begi itxien azpian, une bat lehenagoko terrore-uluak baino isiltasun hertsagarriagoaren erdian. Aurpegi, begi, hanka eta besoen mugimendu haiek, kide lokartuen arnas-hartze lasaia baino entzuten ez zen unean, gero eta absurduago orduan eta faszinazio estugarriagoa erakusten zuten; keinuak hitzik gabe are laztasun ulertezinagoa zeukan, eta erridikulu bihurtzen zuen bere barne-barneko protesta. Bere inguruan mundu guztia lo zegoen; bakarrik zegoen haren guztiaren astuntasuna haztatzen. Soilik berak sentitzen zuen putzu irristakorren usain garratza, soilik berak ipini ahal zien sakrifikatuen keinuei zegokien oihua. Makina erregistratzaile batek inpresio bisual eta auditibo guztiak hartu izan balitu bezala, bere zerebroa denak batzen saiatzen zen, ezinezko ordena baten arabera. Bere bizitzako errebelaziorik lotsagarriena egin zitzaion: odol beroaren zigorra sentitu berri zuen, instant bateko kontua zen, tximistarena bezain; giza basatikeriaren eszitazioa, espirituak jausi eta lohizko putzu batean hondoratzen denean eztanda egiteko prest... Ez zuen aurrerantzean lorik egingo! Ezin zen askatu gorputz biluzi, epel eta odoleztatuen irudiei atxikita mantentzen zuten lotura irristakorretatik. Bera ere naufragio hartako hondakina zen. Ez zen ezeren errudun sentitzen, baina lotsatuta bai.

Gau hartatik, eta eromen berberak burututa etorriko ziren beste batzuetatik ez zuen norabide zehatzik aterako arik eta bere presidiario-jantzi marraduna zikintzen zuen odola lehortu arte. Orduan pentsatuko zuen justizia egiteko orduan.

“Zorri-azterketa”, barruko arroparen josturetan eta gorputzen alderdi iletsuetan zehar egindako parasitoen bilaketa da. Astean pare bat aldiz, *Blockältesterrak* logelako sarreran aulkitxo bat ipini eta biluzik eta alkondara zein galtzontziloak eskuetan, haren gainera igotzen behartzen ditu bere administratuak. Laguntzaile batek arropa aztertzen duen bitartean, alemaniarrek berak, argi indartsu eta espatula batekin, ardura maximoarekin miatzen ditu zokorik ezkutuenak. Animalia edo arrautzen errunaldiaren bila, presoak depilazio osoa, dutxa eta igurtzi bat desinfektatzailearekin jasan eta barruko arropa garbia jasotzen du. Biharamunean, *Blockältesterrak* idazkaritzan ematen du inspektzioaren emaitza.

Leihoak itxita, jantokiaren airea gorputz biluzien sundarekin nahasten da. Arroparen biltegian daukan karguari esker, errebista pasatzeko betebeharretik libratuak, denbora da Emilik bere ohetik behatzen duela eszena. Ikuskizunak Wernerren hitz batzuk dakartzio gogora, giza nortasunaren bi oinarriko elementuak, gorputza eta espiritua, plano desberdinean kontsideratzeaz dakarren desorekari buruz.

—Guk, alemaniarrok, —esan zion *kommandoko* kideak—, ideal bihurtzen dugu desoreka hau. Natura, gorputza, osasuna, indar fisikoa giza perfektzioaren mugarri bihurtzen ditugu, eta argi dago, materialista guztiek bezala, inozoaren akatsa daukagu. Ez gara jabetzen mundua, eta gu aurretik, Erdi Arorantz doala, baina kontrako erakora. Espiritua oztopo bat da, gaur egun, eta mediebalistek arimari esleitzen zioten kultu eskusibo eta arriskutsu berbera esleitzen diogu gorputzari. Arrazaz mintzo gara, eutanasia praktikatzan dugu, kirol ergeltzailea, zigor korporalak ezartzen ditugu, profilaxi sozial gisara, zaharrak mespretxatzen ditugu, kaserna familiaren gainetik ipintzen dugu. Hots, kolektibitatearen izenean norbanakoa zapaltzen dugu eta are iruditzen zait nudismoa dela mendeko aurkikuntza zientifiko nagusia. Ergela, oro har. Adan eta Ebak aurkitu zuten biluzik ibiltzea inozokeria hutsa zela.

“Zorri-azterketako” eszenak dira hitz haien ilustraziorik onena. Une hartan mutil gazte bat igo da aulkira eta haren biluztasuna alde guztietatik miatua izaten ari da. Lanpara piztuarekin ukitu dio *Blockältesterrak* azal maskulinoaren punturik sentikorrena

—Oso gizen zaude —txantxetan ahots limurtzailearekin. Asko *errekisatuko* zenuen.

Esku librearekin bularra eta saiheitsak ukitzen dizkio, bertan dauden alemaniarren barre ekibokoen artean. “Laster izango ditu proposamenak”, pentsatu du Emilik nazkazko keinu batekin.

Hemen amaitzen da gorputz eta indar fisikoarekiko kultua. Barnetegi antikristautik gazteria paganoen eremura, gero kasernara eta, geroago, gerrara: hara nola banatzen den gazte alemaniar ertain baten bizitza. Beti gizonen artean, emakumea aberrirako haurrak egiteko makina besterik ez dela kontsideratzen, ariketa eta biluztasuna hasiera ez ezik mugarri dela, indartsuena da onena eta edertasun fisikoa Ideala. Giro aproposa aberrazio guztietarako. Sentikortasuna, pudorea, errukia herri indartsu batetik kanporatu behar diren bertute negatiboak dira.

Biluztasuna, ordea, norbanakoa desegiteko inmoralitateen garraioa baino zerbait gehiago da esparruko agintarientzat. Bere kideek, kontrolatzaileen inspektziorako jartzean, erakusten duten erresistentzia behatzean, Emilik pentsatzen du noraino den nor desarmatu bat, bere burua nagusien kuriositatera (are gehiago osasungaitza baldin bada) biluzik eskaini behar duenean. Gure lehen gurasoen mitoa errepikatzen da. Bere burua biluzik ikusten duen gizona umiliatu egiten da, apaldu, jantziak itzuli ahal dizkionaren mesedera makurtzen da. Gizon biluzien bilkura batena, bat ez dagoenean gorputzaren kultuan hezia, miseriak eta lotsak klaudikazio guztien hasiera eta amaia den berdintasuna sortzen dute. Argitasun kritikoa, norberarekiko estimua, errebeldia, gizona piztiaren gainetik ipintzen duen guztia, ezinezko bihurtzen dira; gertatuko balira, berehala hilko lieke biluztasunetik sortzen den erridikulu-sentimendua.

Airea hain da lodia, bero dagoela dirudi. Bere behatokitik eszena behatzen jarraitzen du Emilik. Oro har, aulkira igotzen den jendeak aurpegi inespresiboa dauka eta korrika

jaisten da behin miaketa burututa. Batzuek, ordea, aire sumiso eta menekoa hartzen dute, iribarre egiten dute alemaniarrek zerbait esaten badiete, nahiz eta ez dagoen zertan iribarre egin, eta norberaren burua eskaintzeko keinua puzten dute. Zaharrek baino ardura gehiagorekin behatuta, gazte gehienek alemaniarren bromak errefuxatzen dituzte, baina badira asko txeratsu onartzen dituztenak, pentsatuz seguru aski hortik etorriko zaiela problema pertsonalen konponketa. “Kuttunek”, *javak*, eremuko espainiar gaizkile-hizkeran esan ohi denez, ez dute goserik pasatzen, “entxufe” onak aurkitzen dituzte, ondo jantzita doaz eta maiz “pribilegiatuen” mailara igotzen dira.

Marrazkilariak uste du gaitza bere aurrerabidea egiten ari dela, “ernestoak” proportzio deigarrian gehitzen direla. Klaudikatu gabe hiltzen diren askok eta askok beren sakrifizioarekin ez dute doilortutakoan aurpegia estaltzen, eta Emilik bere buruari galdetzen dio nola gerarazi *esparruko espirituaren* aurrerapen gailena, nola altxatu defentsarako borondate kolektiboa, nola gaingitu apatia orokorra.

Ohetik altxatu eta kalera atera da, hotza jantokiko itxitura baino gozoagoa izango delakoan. Hain zuzen ere, kontrasteak, bere pentsamenduan, hutsune eroso bat utziz, zerbait ezabatu den sententzia eman dio. Arnasa bere ahotik irtetea nabarmendu eta presarik gabe desegiten da. Zerura begiratu du; esparruko argiek hodei-sabaia zikindu dutela dirudi. Hoztutako bat atera da bere atzetik, eskuak poltsikoetan eta burua besaburuetan hondoratuta.

—Elurra egingo dik gauean —esan du—. Bihar zuri altxatzen bagaituk, luze askoa izango da negua.

Purrustada batekin erantzun du Emilik. Haserre sentitzen da, une batzuk atzeragoko ikuskizunagatik ez ezik, gainerakoan erredentore izan nahi izateagatik. Sentitzen du bere eskuzabaltasunak ez daukala giza berorik, bere betebeharraren sentimenduen agindua baino ez dela. Zergatik ez ezkutatu bere baitan, eta bertan kanpoak ukatzen dion egonkortasuna bilatu? Egun gehiegi irauten du bere ezinegonak, urkoarekiko nazkak, anulazio eta ahanzturarako gutziak. Rubiok xede partidistak dauzka, sindikalismoak ere bai. Berak ez. Burututako betebeharrak! Erridikulua. Ez, berak ez dauka apostolu-bokaziorik. “Gainerakoak bezain ahula naiz —pentsatu du—, nire egoismoa inpotentzia da, koldarren serbilismoa eta maritxuen aberrazioa diren bezainbeste”. Berekoikeria da *esparruko espirituak* baliatzen duen beste armetako bat. Goizean, ordu batzuk atzerago, gazte espainiar bat atera da eremutik, adin txikikoa izateagatik; zorte hura edukiko duen bakarria milakaren artean. SSetako agintariek exigitu dion zina gorabehera, Matilderaren helbidea eramanez eta hura ikusteko promesa egin du mutilak. Emilik badaki mutikoak promesa kosta ahala kosta beteko duela: ez al dago gizon asko keinu berbera egiteko gai? Zentsuratu al daiteke bizitzari desesperatuki atxikitzen zaion gizona? Eta logikak abiaburura darama: ulertu, errukitu, lagundu beharra dago. Betebeharraren esanguragatik edo sentimendu sintzeroagatik izan, kontua berbera da. Ahal den bezala borrokatu, dena sakrifikatu, *esparruaren spirituak* xurgatua ez izan. Bestenaz nazismoarekin kolaboratzen da.

Isolierungen, gelatxo ziztrin bat infektatuentzat arauz prestatutakoan alegia, soilik kasu desesperatuak sartu ohi dira. Bi pisutako literez mukuru, gaizki aireztatua, soilik bide bakarria dago atetik irtenda: erraustegikoa. Hemorragiak oso ohikoak ez balira, sukarra oso altua, oso muturrekoa ahulezia, Francesc esperoan daukan zortiaz seguru ez balego, gelatxoaren sarrera ziurtatzen duen sententziak ez dauka apelaziorik.

Erizaindegiko gela orokorretik irtenda lekualdaketa egin aurretik, eragotzi ahal dezakeen influentzia baten bila jo du Emilik desesperatuki: SS medikuaren agindu pertsonala izan da. Francescentzat, soilik gelako erregimena adiskide ospetsuak ez dituztenentzat baino onberagoa izateko balio izan du marrazkilariaren interesak. Arauzko debekuak gorabehera, jakiak eta injekzioak jasotzen jarraitzen du Francescek; biltegitik daukan arropa, dirua edo tabakoarekin erosten ditu.

—Ez hadi tematu gutuziak ekartzen —esaten dio gaixoak—. Badakik ez ditudala jaten. Baliagarriagoak izango zaizkiok beste norbaiti.

Sosegu etsigarria Francescena. Gehiegikeriarik gabeko kemena dauka, defentsa lasaia espirituaren porrotaren aurka, fakultateen integritate gorena heriotzaren aurrean; bere lagun kondenatuaren aurrean, ttikituta sentitzen da marrazkilaria, pobretuta, ia miserable.

—Nolabait esateko, heriotza konpentsazio bat da —esan zion egun batean Francescek—. Gu hiltzean arrazoia ematen ziguk jendaila honek; gure urtetako borroka justifikatzen du.

—Ez hitz egin horrela. Hire kasua ez da hik pentsatu bezain larria.

—Alferrik da hitz egiten jardutea. Ez diat egingo. Baina, nire sekretuan, espero diat egunen batean hi harro sentitzea nire adiskidea izateagatik. Nitaz gogoratu eta esango duk: “Gizon duina huan, amore emango ez duena”.

—Ixo —esan du Emilik.

Behin *Isolierungen*, Francesc laster ahuldu da. Gaixoen sunda nazkagarria, metatutako zikinkeria, aire ustela, bere oheko auzoen aspektu kadaberikoa, egun berriari itxoin ahal izan ez dutenak ateratzen dituztenen eguneroko ikuskizuna zama jasanezina da bere espiritu ahulduarentzat. Bere burua menderatzen duen arren, tristura sakonak betetzen du maiz; heriotzaren konpainia konstantea pisutsua eta maskalgarria egiten zaio. Lagun modura onartu badu, haren presentzia ez beharrezkoa ez ezik, asaldagarria da. Gela hartan, Herioa heriotza zehatza besterik ez daiteke izan eta, beti bere kontzientziaren aginduetara jokatu izanaren konbikzioa izan arren, zulo handia somatzen du. Egund batean Emiliren bisitek daukaten balioaz jabetzean eduki du intuizio hori. Beti bakarti, beste afekturik ez du ezagutu eta, ziur aski hura aurkitzeko giza senagatik-edo, fede sozialera bideratu izan da, zeinak gazteriako urteak metatzeaz gain, geratzen zaion guztia exigitzen duen orain. Asko eskatutako maitasuna eta “burututako betebeharraren” sentsazio tristea baino itzultzen ez duena. Eta orain arte, *Isolierungen*, ez da jabetu Emilirekiko adiskidetasunaren balio zehatzaz. Ikusten du bizitzatik dena enoratu duela; eta, atzerako martxa egiteko beranduegi, bere adiskidearen bisita haiei atxikitzen zaie, hark erizaindegiko arautegi gogorrari iskin egin ahal duen bakoitzean. Holakoetan, bere sakrifizioaren ulermen erreal eta sentikor bakarra bihurtzen da marrazkilaria presentzia. Bere ahotsa hainbeste ahuldu den arren eta hitzak asmak beti irekita mantentzen duen ahotik zailtasunez eta astinduka ateratzen zaizkiolarik, bakartasun-egunetako isiltasuna kitatzen du.

—Ez hitz egin, nekatu egiten haiz-eta —esaten dio Emilik.

Batik bat elkarrizketa maiz eteten duen ez tul zakarraren astinaldiek pentsakor uzten dute marrazkilaria, ongi egiten ote duen hitz egiten uzten. Gaixoaren euforia transitorioa da eta ondotik datorren depresioa gero eta sakonagoa dela dirudi, baina Emilik uste du alferreko indar-aurrezte bat baino hobea dela espantsio haien poza.

—Aski kostatu zaiek... ni harrapatzea... Orain prest nagok... oso prest... Hau erre ondoren, kixkal nazatela... osorik, prest nengokek... oraindik irtetea... aldi behin... haiek zirikatzea... kontuak eskatzea...

Txorakeriak esaten jarraitzea debekatu dio Emilik.

—Ez dituk txorakeriak... Ez, ez... Bat baino gehiago poztuko duk... han behean, herrian... Sinistu iezadak... sentitzen diat haiei gustu hau ematea!

—Medikuak uste dik hobetuko haizela...

—Medikuak ez zakik deus.

Eta etenaldi baten ondoren, goiko ohearen listoiei begira, ahots lausoarekin adierazi du:

—Gogora ezak... hau dena... gerra bukatzen denean. Gogoratu hadi nitaz! Hain da tristea memoriarik ez uztea, arrastorik ez...

Eskua estutu dio Emilik, erantzun modura. Gaixoen sundak gaixotu egiten du. Francescen ohetik harago, beste gaixo bat polonieraz ari da beste bisitari batekin. Goiko ohean zotinka ari da norbait. Alde egitea erabaki du; ez da ziurregi sentitzen bere nortasunaren indarraz.

—Ezin diat abusatu —esan du erabakia azaltzeko—. Medikuak gomendatu zidak nik hi ez estutzea. Har ezak atsedean.

Halako batean, bisita hauetako batetik irten et mediku laguna agurtzera joanda, marrazkilariak ez du astirik izan *Blockeko* beste hegalaria iristeko, non bertan dagoen kontsultorio ttikia.

—Atera agudo —esan dio erizain batek—. Irten berria da mediku SSa, eta hemen ikusten bahau... Joan, joan hadi azkar!

Esandakoa egin du Emilik. Beti bezala bakartuen gelan eraso egin dion baldartasunak irmo eusten die barraken ilera artetik igotzen diren haize-bafadei. Zerbait astun dauka bere bular gainean. Zerbait larri gertatzera dihoan zantzuak dauzka, egoera hura ezin zitekeela iraunkorra izan. Ordua, halabeharrez iristen ari da. Biharamunean, egun batzuk barru, hilabete batzuk barru, izango al da? Zer inporta dio? Ez du batere zalantzarik bere zantzuari buruzko esanahi zehatzaz; baina ezin du Francesc hilda irudikatu. Hura gabe, ulertezin bihurtzen dira eremuko bizitzaren jarraipena, alemaniarren porrota eta gerraren bukaera bera ere. Tximista baten iragankortasunarekin marrazkilariak susmatu du fatalitatearen aurreko etsipen hori maila goragoko batean bizirauteko ziurtasuna besterik ez dela, agian beste mundu batean, non indar ikusgarri hark aplikatzeko eremu hobea topatuko duen. Kasu honetan, bizitzaren sublimazioa da heriotza fisikoa, konsagratio desiragarria. Lausoki, hainbat gauza ulertzen hasi da Emili.

Erizaindegiko ohiturak hobeto ezagututa jakin izan balu SS medikua fitxak aukeratu behar diren aratsaldeetan baizik ez dela igotzen; jakin izan balu aukeratutako kartoiak tinta gorritz indartutako gurutze batekin seinalatzen direla, hau da, une hartako gaixoen kopuruak ofizialki onartutakoa dexente gaintitzen duela...

Biharamunean ez da eguzkia aterako. Egunsentiko lainoa gutxika lehortuko da, baina sabai trinko eta etsaikorrak estaliko du goiza. Litekeena da, beranduago, elur ttiki eta lehorra botatzea, tenperaturaren bat-bateko jaitsierak probokatuta.

Ondo lo egin du Francescek arik eta hotz-sentsazioa sentitu duen arte. Oinak izoztuta sentitu eta dardar handiak hartu du bere gorputz osoa. Suspertzeko esperantzarekin burua burusiarekin estali du, baina ez du asko iraun; aire-falta izan du eta ostera desestali behar izan du. Harritu da beste egun batzuetako hotza ez izateaz. Dardar hark zerbait badu urduritasunetik eta eskuak heze dauzka. Adoregabetzen saiatu da orduan. Alferrik. Kirats hura! Kirats insistentea, maltzurra, bere hotzaren parte dela dirudiena. Auzoko ohetakoren bat izango da kirats egiten duena. Eta nolako kiratsa! Egia esan, esajeratzen ari da...

Ostera estali du burua, usteltze kadaberikoaren sunda hura ez usaintzeko. Baina berdin usaintzen du, behar bada intentsoago eta guzti. Gela osoa ustelkeria hark hartuta egongo da. Oraindik burua atera eta alde banatan dauzkan oheak begiratu ditu. Lasto txikituek, orban lohiz zikindutako zaku-oihalek, burusi hautzestatu eta izerdituek, inguruan daukan guztiak ankerkeria- eta tristura-historia luzea daukate. Zenbat atxiloaldiko kide pasatu ote dira bera edo auzoak baino lehen? Konpainiarik ez, samurtasunik ez batere! Soilik nazka eta beldurra. Ulertu egin du Francescek: heriotzaren sunda da, auzokoen, norberaren ohe eta gorputzetik kirasturik datorrena. "Figurazioak, dekadentzia", pentsatu du: "gaixoen xinplekeriak". Erreakzionatzea proposatutakoan, ordea, konturatu da ez dela soilik heriotzak bere kemena proban jartzen duen beste aukera bat. Gauza imajinaezin bat dago giroan. Gela, ohiz enplegatuek abandonatuta, beteegia dago oraingo honetan. Egunean hildakoak eraman ez ezik, erizainen *kapoa* sartu-irten dabil, zerrenda bat eskuan.

Denbora gehiegi darama Francescek erizaindegian erantzun haren itxurazko arduragabekeria konpartitzeko. “Hil hurrenak ez dituzte janzen”, pentsatu du. Trasladoari buruz, berriz, egiazkoa izango da. Ez daki ezer gurutze gorriko fitxez, baina ez du uste hurrengo aukeraketatik ihes egingo duenik. Gauza arraroa, angustia desagertu egin da. Halako biolentzia batera makurtu behar izan du goiz hura bere azkena izan daitekeela jabetzeko. Mila modu posibletan imajinatu izan du, baina sekula ez du uste une hartan sentitzen duen lasaitasunarekin iritsiko zenik. Behar bada ordu batzuk beranduago pilatuta eta biluzik egongo da erraustegiko biltegian, hilotz bat ehunka hilotzen artean, baina, halarik ere, ez dauka ezeren beldurrik. Bizitzak erregularri jotzen du eta, ahalik eta esfortzurik handiena egin arren, ez daki inon ezelango amildegiren hurbiltasuna asmatzen. Alderantziz, pendize arin bat besterik ez du bere aurrean ikusten, akaberarik gabea, non zentzumenek ezelango molestiarik ez duten ematen. Sufrimenduak, injustiziak, esker txarrak, ahanztura, gorrotoak, krimenak, betiko autoexijentzia mingarria... dena lausotzen da gozotsun bitxi bati bide egiteko. Ezerezarenari? Aldian behin harrapatzen duen arrangurak ere ez dauka batere zentzurik, SSen erasoari keinu indartsu batekin bere zorigaitzoei amaiera azkarra ez jartzeagatikoa. Gauzen gainean argi berri bat pausatu da, eta mendekua, grina bezala, orain, tentsio metagarri eta nekagarri baten aspektu gogaikarriaren pean agertzen da. Gauza hauen oso gainetik sentitzen da! Bere izatearen arrazoi eta esentzia baiesten duen unetik ziur jakiteak sakrifizioa ez dela halakorik, heriotza nahitaezko kolofoi gisara hartzeri behartzen du, zeinarik gabe bere borrokako urteek esanahirik ez luketen. Zergatik gehiago desiratu, bake infinitua eskura baldin badauka? “Ez gehiago ezerezik, bake infinitua baizik...”

—*Qu’est qu’il y a?* —galdetu du oheko auzo batek, egin duen mugimenduak asaldatuta. Hamazazpi urteko judu holandarra da, tifusak jota.

—*Arrive que nous avons eu le gros lot, voilà!* —erantzun du Francescek enigmatikoki.

—*Je ne comprends pas ce que tu veux dire.*

—*Ce soir... j’aurai le temps de t’expliquer ça... Maintenant j’ai sommeil.*

Erizainen *kapoa* sartu da, meneko birekin, eta zuzen doa poloniarraren oheraino.

—Bisita pasatu behar duzu —esaten dio—. Ibiltzen lagunduko dizute hauek. 27-65a zara, ez da?

Seinale bat egin du zerrendan. Erizainek gaixoa kargatu dute, aulkiarena eginez. Bat-batean txistu kirrinkaria eginez lehertu da zorigaitzokoa. Begiak zabal-zabalik eta berea ez dirudien ahots batekin, oihu egiten du:

—Hiltzera naramazue... Ez, ez dut hil nahi!

Ekaitza abiatuko duen seinalea izan da. Batzuk zotin handiz negarrez hasten diren bitartean, beste batzuek ondo daudela diote, hura krimen bat dela. Batzuk biraoka eta irainka hasi dira, beste batzuek ozenki otoitz egiten dute edo bere etxeakoak deitzen. Gelan dauden gaixo haina mintzaira erabiltzen dira. Francescek eskuak buruan ezarri ditu alde guztietatik inguratzen duen desesperazio hartaz babesteko. Begiak ixtean, zentzumen guztiak itxi nahi ditu; ez du heriotza ikusi nahi bere borondateak jadanik onartu dituenak, onbera eta ia desiragarri egiten dutenak, baizik beste aspektu batzuetan.

Behin poloniarra kanporatua, isiltasun zanpatzailea egin da, ezinezko mirari bat gertatuko balitz bezala. Denbora neurtzen dutela diruditen zotin ito batzuk besterik ez dira entzuten. Ez da inolako prodigiorik gertatu: minutu batzuren buruan, zerrenda eskuan itzuli da *kapoa*.

Judu holandarra izan da serieko hirugarrena. Eskua hartu dio Francescek.

—*Rappelle-toi... ce soir... j’ai à te parler... Courage, mon cher!* —esan dio irribarre apalez. *Nous causerons longement ce soir.*

Adoretsua da gaztea. Aurreko berriketan izan ezik ez du ahorik zabaldu, eta orain Francesci begira dago espresio larriz, bere isiltasunetik irten gabe.

Ohe-multzo eder bat hustuta dago *kapoa* sartu eta Francesci deitu dionean. Hark burusia erretiratu du. Bere ohetik laguntzarik gabe altxatu nahiko zukeen eta "likidazioen gelan" bere oinez aurkeztu: ezin izan du. Bi erizainek eutsita, logela guztia barnehartu du begiradarekin. "Ohe hauek, sabai hau, ate hau, pasabide hau ikusten ditudan azken aldia da –pentsatu du–. Ezer gutxi geratzen zaio.

Blockeko jantokia bezain handia da sartu den gela. Mahaitxo baten atzean eserita, SS mediku bat dago paperak begizatzen. Erdian, pantaila zabal baten pean, zaintzetako mahaia, artikulatua eta hule granatez estalita eta, aldamenean bertan, beirazko mahaitxo gurpildun bat anpoila eta lanabes nikelatuz beteta. Bata urdina darama erizain batek: ezaguna berau. Beste mediku batzuk –presoak– daude mahaiaren bueltan: beste ezagun batzuk berauk. Mahaian luze eta biluzik dago Francesc. Denbora lasterka dihoan inpresioa eduki du eta jende haren mugimenduak makina batenak bezain zakarrak direla. Pantailak, bere barruko ispilu konkaboz, bere atentzioa materialki erakartzen duela dirudi. Hotza sentitzen du eta oiloipurdia egin zaiola jabetzen da. Zer da hau guztiau? Behartu behar izan du, pentsamendua kokatu eta hiltzera doala gogoratzeko. Minutu gutxi, behar bada segundoak...

"Idiota naiz –pentsatu du–. Ametsetan nago. Ez medikurik, ez mahairik, ez pantailarik, ez ni-neu". Xurgatu eta anihilatzen duen ispilu konkabo hori da erreal bakarra, kontzientziatik denboraren arrastoak eta espazioaren dimentsioak ezabatzen dituena. Heriotza ispilu bat da! Hotza, dizdiratsua, birtuala, irudi ilusorioa, mundu absurduaren ispilu alderantzikatua, beste gizon bat etzanda dagoen mahai baten inguruan astindu mekanikoz mugitzen duten gizon batzuen. Francescek pentsatu du une iheskor, inkontsistente, irreal hura dela heriotza osoaren gainean, obsesiboki, kargatzen dena. Aurkitu du lehenaldiak baduela zerbait groteskotik. Urtetako eta urtetako saioak, une huraxe ekiditeko hain juxtu, atzeratzeko, desproporzionatuak eta erridukuluak begitantzen zaizkio orain. Beldurra, zerena? Errebelazio baten eztaudaz iluminatzen duen argi honena? Ispilu deformagarria. Herioa da, eta bere begien gainean dauka, magikotik daukanagatik liluragarria, otzanetik daukanagatik izugarria. Eskua luzatuz gero, ikutu egingo luke...

Denbora asko joana izango da han etzanda dagoenetik, izan ere izterreko azala ukitzean izozturik somatu baitu. Hoztu! Ez dauka garrantziarik. Ahaleginik gabe atera zaizkio hitzak, ahoskatzeko asmorik gabe.

—Tira... Zer itxarotzen duzue?

Ez du ikusi mediku espainiarra ahopeka hizketan ari dela ofizialarekin. Ez da konturatu bere adiskidea salbatzen saiatzen ari dela, arik eta SS medikuak zainketarako mahaia hurbildu duen arte. Aurpegi hermetiko bat ahokatu da bere gainean. Bizarra oso ondo eginda eta gerrako *cold cream* usaina duela konturatu da. Begirada azkar baten ondoren, bere paperetara itzuli da medikua. Francesc ez da konturatu bata urdineko erizainari egin dion konplizitate-keinuaz. Segundo batzuen buruan, lanabesen tintina mahi gainean hauteman du. Burua biratu gabe ederki asko ikusi du tipo hark xiringa handi bat daukala hatzetan, oso orratz luzeaz burututako xiringa bat.

—Min egingo al didazu? –galdetu du interes fiktizioz. Egia esan, jadanik berdin zaio.

Alemaniarra da erizaina eta ez dio ulertu, baina mediku espainiarrak erantzun du:

—Tratamendu honekin hobetu egingo zara. Ez izan beldurrik.

—Badakit –Francescek, irribarretsu—. Asko behar al du efektua egiteko?

—Ez asko –medikuak ahots ilunez.

Eta eskua jarri dio besoan.

Pantailaren erakarmena eutsiezina egin da. Norbait mahaia goititzen ari da astiro-astiro, ispilu konkaborantz, zeinak jadanik ez dituen argiak jasotzen, baizik gizon guztien, gauza guztien irudi inbertituak. Francescek ziztada sentitu du bihotzean. Hotza da arma eta gelditu gabe hedatzen da bere bular barruan. Min bizia, baina ez jasanezina. Dena desagertzen doa poliki-poliki eta soilik ispiluak gordetzen ditu gau ia

maternalaren itzal lausoak. Buru barrutik datorkion zarata handi batek entzungor bihurtzen du, zerebroak eztanda egitera balihoa bezala; txistu luze bihurtu den zarata, fina eta zulatzailea. Bitartean, mahaia goititzen ari da mantsoki...

—Ez zait iritsiko gasolina —esan du bata zuriko erizainak.

—Eman dosi ttikiagoak —erantzun dio SS medikuak—. Gutxiagorekin ere hiltzen dira.

—Gehiago tardatu eta asko sufritzen dute.

—Ez du axolarik. Murriztu dosia.

XII

Ergela eta hankamotza, Maxek uste du Jenny, burdeleko putzil bat, bere buru karratuarekin maiteminduta dagoela. Maitasun horren truke, gizonak juduenak izandako galtzerdi eta jantziak ekartzen dizkio, eremua lo zegoenean eta, erraustegiko sotoan, irudikaezinezko odol-orgietan, eraildako judu-andre haienak.

Hans Gupper Jennyri galde egin dionean nork eman dion bere koltxoi azpian aurkitutako urrezko erlojua, neskak hortzak estutu eta “Hilda inbidiatsua” madarikatu du. Hura izango da salatzailea! Gehiegi estutu gabe aitortu du.

—Maxek.

—Zein Maxek?

—*Effektenkammerren* lan egiten duen batek.

Irribarre egin du Hans Gupperrek. Bada denbora arropa zibileko biltegian miaketa egin nahi duela. Aldeko aukera honako hau: hamabost eguneko baimena dauka ofizial arduradunak. Ez dago aurreikusita konpetentzia-arazorik.

Laguntzaile bat hartuta, dependentzia instalatuta dagoen barrakan sartu da. Maxi buruz galdetu eta tiradera eta artxibo guztietako giltzak eskuratzeko agindu dio. Interesgarri iritzi zaion dokumentazio guztia aukeratuta, bere bulegorantz eraman du.

Ekaitzaren lehen tximista izan da pertsonalarentzat Hans Gupperren itxarongabeko bisita. Mobilizazio orokorra: enplegatuek bereganatzen dituzten zakuen etiketa zurigarri guztiak erretiratuak izan dira, erregistro-orriak estufan erreta, armairuak hustuta. Bi hilabetetan baino lan gehiago egin da ordu erdi batean. Emili ez zen ezertaz jabetuko, bere txokoan ezkutatuta zegoelarik, Werner abisatzen arduratu izan balitz.

—Iritsi da ordua. Ez entretenitu. Tira, azkar.

Emilik azalpenak eskatu ditu.

—Arrastorik ez uztea komeni da. Erre dena!

—Harritzen nauen bakarra da —esan du marazkilariak— hainbeste denbora behar izatea aurkitzeko.

Egunero sartu ohi diren ehunka kondenatuekin, ezinbestez errauts eta ke bihurturik, arropa zibila, dirua eta bitxiak parte hartu izan duten guztientzat probetxugarria den komertzioa izan da. Iritsi da ereduzko eskarmentua egiteko ordua. Zozketa gaiztoa egokitu zaie biltegiko enplegatuei.

Max ofizialaren konfiantzazko gizonak diru eta balorezko objektu pila handiak manejatzen ditu. Tokiko morala kontuan harturik, ergelkeria izango zen hartaz ez baliatzea. Munduko gauzarik naturalentzat onartzen du mundu guztiak. Barkaezina dena da puta batengatik konprometitu izana. Makilazoka azaltzen ari zaio Hans Gupper. Max koldar hutsak torturatzailleek eskatutako guztia eta are gehiago aitortzen du.

Hiru ordu baino gehiago dira Emili, zapatiletan eta mahuka hutsik lankide guztiak bezala, bata besteengandik bananduta elkarren artean hitz egin dezaten eragozteko, “tente” daudela zenbaketen plazan, bulegoen aurre-aurrean. Hozkirri hotz batek eremuan zehar zabaltzen du erraustegiko kea gar berdoztuaren kiratsarekin.

Beranduago jakin izan denez, Maxek Werner egin du ofizialak egindako abusuen estaltzaile nagusi izatearen errudun, berak eramaten baitu kontabilitatea. Werner izan da deklaraztera deitutako lehena. Ordu luze batez iraun dute torturek. Ia berrogeita hamar urte dauzka, gerrako mutilatua da eta haren osasun eskasak ez dio benetako zigorraldiari gaina hartzea utziko. Azkenean bulegotik atera denean, arropa zarpailduta, balantzaka, bihotza uzkurto zaio Emiliri. Miragarria da bere kideak burua tente mantentzen duen era.

Eta banaka-banaka, “hogeita bosteko” probatik pasatu dira denak, eta hain era txarrean ateratzen dira denak, torturari ihes egiteko hasierako esperantzak galduta dauzka

marrazkilariak. Denetan azkena, SSk deitu duenean, ezer ez esateko erabaki irmoa hartu du, hiltzen badute ere ez. Ez du inolako interesik inor ez konprometitzeko. Baizik bere buruari erakusteko kapaz dela proba hura gainditzeko.

Bulego-barruak lurrikararen biharamuna dirudi. Altzari irauliak, paper edonon sakabanatuak, arropa utzia, odol-orbanak. Mahaiko angelu batean eserita dago Hans Gupper, paparra agerian, ileak aurpegi gainean, zigor bat eskuan eta hankak zintzilik. Txekiarren gauean Emilik ikusitako aurpegi berbera. Takoi-kolpe zaratatsu batekin koadratu da marrazkilaria.

—*Espanyóler?* —alemaniarrak, galdezka, luze kontenplatu ondoren.

—*Jawohl* —Emilik.

—Zuk ez dakizu ezer, jakina. Zuek ez dakizue inoiz ezer. —Eta tarterik gabe, oihuka—. Kanpora!

Gau hartan bertan *Arrestera* trasladatuak izan dira inkulpatu guztiak. Emilik, ordea, lasai paseiatu ahal izan du esparrutik biharamun goizera arte. Ordenantza batek jaso du afalondoren eta goardiako sailera eramán du. Pixka bat beranduago, beste SS batek eramán du goizaz geroztik gainerakoak dauden toki berberera.

Arrestek eta *erraustegiak* eraikinaren gorputz bakarra osatzen dute, obran eraikitako bakarra esparruan. Errausteko labea beheko plantan dago, eta *Arrest* delakoa goikoan, goardia-sail batek banandutako bi hegaletan zatituta. Hegal bakoitza korridore bat da, garbia, ditziratsua, aireztatua, alde banatan banakako ziega-ilarekin.

Alemaniar ezezagun batek okupatzen duen ziega batera eramán dute Emili. Behin pisuko argitzalera ohituta “triangelu arrosa” aurkitu du: homosexual bat.

—Heinrich da nire izena. Espainiarra haiz, ez da?

Oso frantzes zuzena erabiltzen du. “Susmagarria”, pentsatu du marrazkilariak. “Ohiko *gantxoa*”. Deskonfiantzaz entzun ditu ematen zaizkion azalpenak. Lanabes-biltegi bateko arduraduna harrobian, zortzi egun daramatza zigortuta populazio zibilarekin trafiko klandestinoko afera batengatik. Emilik ere bere kasua kontatu du, baina ezinbesteko hitzak erabiliz.

Zortzi bat metro karratu dauzka ziegak eta hauexek dira altzari guztiak: egurrezko banku bat lo egiteko, zuzen eta zokoratua egunez, erradiadore itzali bat eta terreina bat premiazkoak egiteko.

—Debekatuta lurrean jesartzea, paseatzea, erretzea, hitz egitea edo abestea —abisatu dio homosexualak burlaizez—. Hemen ondoan zutik egon behar duk, leiho irekiaren azpian doi, eta ezin haiz horman bermatu. Delizia bat! Ez baduk sinisten, ateko behatxulotik ikusiko hau ziegazainak eta... herorrek. Burusirik ez lo egiteko, nahiz eta hotzik ez duzun pasako, gauean kalefakzioa baibaitabil. Gerrikoa hartu diate, ez da? Eta pulloverra, noski. Jateko, ogi-zati bat egunean eta litro laurden ur beltz. Astean bi aldiz litro bat zopa bero emango diate. Ikusiko duk zer den gosea izan eta inori ezin esatea.

—Ez al haiz sekula ateratzen?

—Soilik goiz-goizean komunera joateko garbitzera eta terreina hustutzera. Denak batera irteten gaituk eta dantzari-talde bat bezala mugitzen gaituk xirularen musikarekin. Kolpeka ikasten dira mugimenduak. Oso dibertigarria.

Emilik ez du ulertzen nola eramana izan den *Arrestera* hogeita lau ordu pasata. Jakingo zuten pornografia marrazten duela? Galdeketa, tortura? Salbatuta kontsideratu ondoren... Bestalde, bere egoera groteskoa da: aferaren ezjakintasuna, marrazki zikinak eta, koadroa osatzeko, egokitu berri zaion konpainia bitxia. “Ez dirudi”, pentsatzen du. Eta ordura arte ez du batere galdera arriskutsurik egin.

—Hire kideetako bat “suizidatu” ditek gauean.

—Werner izenekoa?

—Ez zakiat haren izenik. Ordenantzak esan zidak denetan zaharrena zuala.

—Adiskide ona zuan. Haien artean benetan onradua zuan bakarra.

Mugimendu axolagabea egin du besaburuekin.

—Horrelako kasuetan —dio— SSak berak dira lehen interesatuak betiko mututzeko. Ondraduek kezka sortzen ditek.

—Ziur nagok ez duela hitz egin.

—Lehenago edo geroago, balienteenak ere hitz egiten ditek. Metodoek ez ditiztek inoiz hutsik egiten. Eta ziurtatzeko hobeto iruditu zaiek erradiadorearen giltzatic zintzilikatzea.

Horrorez behatu du Emilik ziegako instalazioa: erradiadorearen giltza lurretik metro batera dago.

—Ez da posible —oihuka— gizon baten gorputza...

—SSentzat dena da posible. Gero eta gauza konplikatukoak, orduan eta atsegin handiagoa topatzen ditek.

Min fisikoa sentitu du Emilik eta bi eskuekin estali du aurpegia.

—Zergatik holako ankerkeria?

—*Je regrette.*

—“Triangelu arrosak” ez zuen uste izango kide baten heriotzak hainbestearainoko efektua egin zezakeenik esparru batean non ehunka diren egunero jausten direnak.

—*Je regrette* —errepikatu du. Oso lagunak al zineten?

Aurpegia erakutsi du marrazkilariak, mintzakideari zuzen begiratu eta ukabilak itxi ditu.

—Amorruz egiten dut negar, ulertzen al didak?

Eremuan egin ohi den miniaturoko Internazional Komunistako bileretako batean, Frantisek izeneko bat ezagutu du Rubiok, Medikuntzako ikasle bat, nazionalitatez txekiarra, erizaindegian enplegatua. Abiapuntuko kointzidentzia eta txekiarrak espainieraz egitea harreman luzeko oinarriak izango dira.

Erraustegia garbitzea izan ohi da txekiarraren betebeharrerako bat.

—Ez al haiz sekula egon? —galdetu du halako batean ileapaintzaileak.

—Ez.

Goiz batez erizaindegitik alde egin du, forunkulu bat atera zaion aitzakiaz eta, minutu batzuk geroago, desinfektatzaile-botila handi batekin kargatuta, erdi lur azpian dagoen pasabide batetik dependentziako eskailera metalikorantz sartu da txekiarrarekin batera.

—Sekretu asko zaudek etxe honetan.

Eraikineko beste fatxadara eramaten duen ate batetik sartu ohi dira gorpuak. Biluzik eramaten dituzte, presoaren zenbakia letoizko txapa batean lepotik zintzilik, eta errauste-txandaren zain, ganbera frigorifikoko handi batean metatzen dituzte. Labea handiegia ez denez eta hogeita lau orduro ehun bat gorputz eskas erre ahal direlarik, esparruko moralitateak maiz gauditutako batzbestea, ez da batere arraroa hilotz batzuek asteak eta asteak eramatea biltegi.

Rubio jabetu da, ezen ikuskizun makabro haren aurrean, errukia baino nazka sentitzen duela batik bat. Bere gailu fumigatzailearekin bustitzen ditu Frantisekek hain modu arduratsuan metatutako bi gorpu-piramideak. Batzuen buruak, beste batzuen oinak nabarmentzen dira. Lurraren arraseko leiho batetik sartzen den argi ahula gehiegizko bolumena ematen die bi piramideei. Exhalazio mefitikoak desinfektatzailearen mikaztasunarekin nahasten dira. “Erori diren iraultzako gizonak dira”, pentzitzen du Rubiok; baina konturatu da batere graziarik gabeko esapidea dela hura. Soilik sufrikarioa hartu behar al da kontuan? Hainbeste dago metatuta gorputz eskeletiko haietan, handitu eta zauriz ubelduta! Oinaze-kopuru hark bere irudimen diziplinatuegia gauditzen du: “Ordena berri batek ezinezko bilakatuko ditu munstrokeria hauek”. Argi dago “ordena berria” ezartzeko... Behin, baino besterik ez. Esterminatzaileen esterminioa, eta munduan betiko justizia nagusituko da.

—Ez da oso alaia, ez da? —galdetu dio “onoreak” egiten dizkion enplegatu alemaniar batek—. Etorri nirekin gure kirolfanoa erakustea nahi baduk.

Pisuaren erdian labea dago. Alde banatan, ikatz-meta handiak. Gorpuak sartzen diren burdinazko ate borobilaren irekidurapean bertan, sutegia dago. Ikatzen gar distiratsuak imintzioak egiten dizkiete hil eta bizidunei.

—Hemen ez duk hotzik izango —Rubioren iruzkina bere ahotsa lasaitzen ote den ikusteko.

—Neguan *kommandorik* onena da.

—Hiretzat oparia.

—Begiratu hemendik —gonbidatzen du alemaniarrek ate zirkularrean behatxulo bat erakutsiz.

Barne zilindrikoan materia gori pila bat ikusi du Rubiok, non lausoki tibia batzuen formak nabarmentzen diren. Bere curiositatearekin zerbait sakratu profanatzeko duen inpresioarekin egin du atzera Rubiok.

Beti sinistu izan du errausketa prozedura progresiboa, higienikoa eta praktikoa dela. Orain, hain argi ikusten ez duelarik, bere zalantzak azaldu dizkio Frantiseki. Eta hark esan:

—Antzinakoan artean, handitasuna zeukan zerimonia zen errausketa. Hemen, eraikitaren arrastoak desagerrarazteko erretzen dituzte hildakoak.

Txoko batean dagoen mahai bat behatu du Rubiok, beste mutur batean.

—“Operazioak” egiten dituzten tokia da —azaldu du txantxa modura-edo.

Begiratu azkarra eman dio ileapaintzaileak: hilotz zatikatu baten puskak daude metatuta.

—Labean sartu aurretik horrela zatitu beharra zagok —gehitu du enplegatuak lasai asko—. Gorputzak ezin dituk osorik sartu.

Beste mahai batean letoizko pote-multzo bat dago, nola kontserbakoak. Gogoratzen du nola batzuek dioten giza haragiarekin konstereak egiten dituztela alemaniarrek.

—Errausketa gordetzeko dituk. Labekada bakoitzaren hondakinak —labekadak seikoak dira— honelako seiko potetan banatzen dituk.

Erretako baten izena eta zenbakia daramatza bakoitzak. Familiak erreklamatzeko eskubidea dauka...

—Hau iruzurra da: errausketa nahastuta...

—Jakina, baina ez zukak garrantziarik ezagutzen ez denean.

Bere lana amaitu berria dauka txekiarrak eta alemaniarrek satora jaistera gonbidatu dituenean, dio:

—Ez dik pena merezi. Kolunbario bat baino drogero baten botikaostea zirudik. Filosofatzeko ere ez zukak erakarmenik...

Kalera irtetea, pixka bat isilik ibili da Rubio.

—Egin barre hik inkisidoreen kontura —abiaturik da Frantisek. Bildotsak, alemaniarren aldean.

—Ez zakiat zergatik ezkutatu behar dituzten euren krimenak hainbeste ardurarekin. Egunen batean edo bestean dena jakingo da: hobe lukete gaurtik premia politiko bat bezala justifikatzea. Naziak erabakimenez onartuko dute. Aldiz, oraingo jokabidearekin, naziak izango dira lehen lotsatuak...

—Egunen batean hau dena aurkitzen bada nazismoa hilda egongo da eta ondorioek ez ditek garrantziarik izango.

Isiltasun gogoetatsua egin du Rubiok.

—Lan nazkagarri askoa —egin du iruzkin.

—Probetxu handiak ematen dituk karguak.

—Zer esan nahi duk?

—Giza haragia zatikatzen ikusi duan jende hau eremuko konbinazio lukratiboeneko taldea osatzen dik. Aipatu dizkiat sekretuak. Ez duk urre-trafikoa ezagutzen.

—Hortzeriak? Entzuna zuka oso bijilatuta dagoela. Erizaindegiko eta erraustegiko SSak pertsonalki erantzuleak dituk, ez da?

—Prezio-kontua baino ez da.

Erizaindegiko atera iritsi dira. Xehetasun gehiago jakin nahi ditu Rubiok.

—Utzi lanabesak barruan eta irten berriro. Nire *Blockean* sartu eta lasai hitz egingo diagu.

Une batzuen buruan, barrakako jantoki bakartian eserita, konbinazioa azaldu dio Frantisek. Haren arabera, *blockältesterrak* arakatzen hasten dira bere gizonetako zeintzuek daramaten urrea ahoan. Abilezia handiz, eta segun eta norbera zein den, aukeratutako biktimen dekadentzia eta heriotza azeleratzen saiatzen dira. Erizaindegian, gutxi irauten du ahoan urrean daukan gaixo batek eta, esan gabe doa, zigorgabetasuna erabatekoa da. Erraustegian ateratzen zaizkie metaleko piezak.

—Erraustegiko SSak berak egiten dik banaketa. Lehoiaren zatia gordetzen dik, jakina.

—Eta Hans Gupper? Hain mesfidatia bera...

—Denentzako zagok urrea.

—Eta nola jakin duk hik hori?

Irribarre egin du Frantisek, handiustez:

—Barraketako egurrezko plantxak oso finak dituk, batik bat eterrarekin mozkortzen diren zuhurtziagabeak daudenean.

—Informatu al duk?

—Bai. Hurrengo bilera batean hitz egin behar da horretaz.

Xehetasun gehiago ezagutu nahi ditu Rubiok.

—Antolakundeak barneko zerebro bat zaukak —Frantisek, jarraituz—. Eremuan negoziatorako baldintza aldekoenak sortzeko posizio aparta daukan tipo bat da. Berak banatzen ditik biktimak *kommando* arriskutsuenetan, lan-istripuak antolatzen ditik, azkar eta sekretupean antolatzen ditik heriotza-aktak, torturak egiten dituk eta informazio zehatzak zauzkak alarma noiz jo behar den.

—Amaitu —Rubiok pozez—, imajinatzen baitut nor den. Metzinger al da?

—Ez didak ukatuko eduki dezakegun zuzendaririk onena dela.

Rubiok azaltzen du nola izan den Matzinger Emili konplizitateaz salatu duena biltegiko aferan. Esparruko barne-idazkariaren bere kargutik, bere Hans Guperrekiko eraginkortasuna baliatzen du espainiarrak desakreditatu eta hauek postu onetara iristeko lehia gelditzeko. Emiliren jardun asko edo gutxi espainiarren arteko elkartasun-antolaketan esparru barruan ez zaio komeni eta, hura lapurtzat salatzean, oinak gelditu dizkiola uste izan du.

—Gizon hau holako konbinazioetan parte ez hartzeko aski ondradua edo aski zuhurra izango zen beldurra zeukan. Lasai nago orain; jausiko da egun batean edo bestean.

Txekiarra agurtzerakoan, egunen batean gertakarien ibilbidea bultzatzeko pentsamenduan gozatzen du ilepantzaileak.

Bagonetaren ondoan eta pala eskuan, *Arresten* bizi izandako hamar egunak aztertzen ari da Emili. Figurazio hipnotikoen mundu bat bezala izan da, eta orain, aire zabalean, zail dirudi inoiz gertatu izana. Eta, aldiz, oso mundu bizia da bere oroitzapenean: bere belarrietan joka dago oraindik ziegazainaren boten zarata gora eta behera pasabidean. Aurrean daukan lur xehetuari begiratzen dio orain. Nekosoa egiten zaio palarekin aritzea. “Gehiegi jan dut eguerdian”, — dio bere kautan. Hamar egun gose izan dira. *Kommandoko* kideek berrogei egin beharko dituzte. Eta gero urte bete —urte bete!— zigor-konpainian. Holako kasuetan, onorezko kontseilua. Beste SS batzuek, bera bezain lapurrak baina harrapatugabeak, epaitu eta kontzentrazio-eremu batera bidaliko dute “gaizkile” dioen triangelu berdearekin. Emiliri iruditu zaio barrezka ikusten duela, nola ikasle bat lamina pornografikoen aurrean. Behin apaiz poloniar bati kurriekin sudurra ateratzen ikusi zuen gizon berbera da. Besteak bezalako doilor bat, baina... Eta Werner hilda. Aurrena, Francisc: gero, Werner...

Pala utzi du. Begi gaiztoz begiratzen diote kideek, erritmo biziagian lan egiten baitu.

Hamar egun zutik leiho azpian. Gauak atsedean izan ziren, erradiadoreen giltzetan hiltzen ziren Wernerrak gorabehera, boten zaratak gora eta beheara. Hamar egun! Haietako zazpi erabateko bakardadean. "Laguntza handia eman zidan Heinrichek", esan du. Haren mesfidantza izan zuen. Erdi bana erre zuten ordenantza batek eman zien zigarroa, kontu handiz zigarroaren kea hormako karean gera zedin. Eta desagertu egin zen errezeloa. Konortea galdu zuen Emilik. "Sekula ez dut halako atseginez erreko". Atearen marko gainean errotulotxo bat zegoen, justu terreinaren ondoan. "Hamar egunetan irakurri hitz bakarrak; ehunka, milaka aldiz irakurri nituen". Nondik datorkigu irakurtzeko premia hau? Letrek drogatuta". Heinrichek ohartarazi zuen arriskuaz: "Gehiegi begiratzen badituzu, tinbrea jotzeko tentazioa etorriko zaizu". Abisatu, abisatu zer? Gero eta handiagoa izan zen errotuluaren lilura. Botoia sakatu eta goardiaren urratsak hurbildu egingo ziren, giltzarrapoak kirrinka egin eta gizon bat azalduko zen, ahotsa, begiak, eskuak dauzkana... "Hiltzen ari bazara ere, ez jo txirrina. Akabatu egingo zaituzte".

Azkar egiten du lan Emilik. Eskuak urratuta dauzka, mina du giltzurrunetan. "Ez dut sekula marraztuko esku hauekin", pentsatu du. Bagoneta gainezka bete behar da. Bazkalorduan ere platera prestatzen du. "Kirol-balentria egin izan banu bezala zoriontzen nau jendeak". Heroi bat. Badaki bagonetak betetzen egun asko eginda, azkar ahituko direla indarrak. *Kapoak* begira daukala konturatu da. "Eskuak marrazteko behar ditudala esango banio, errotzat hartuko ninduke". Adimen urriko tipoak besterik ez dira *kapoak*. "Azkarrak balira, ulertuko zuketean, eta ulermenak errukia adierazten du". Bederatzigarren egunean txirrin madarikatua jotzeko puntuan egon zen. Marroiz inprimatutako letra batzuk kafesne koloreko marko batean: *Rufen*. Lurrera makurtu zen, loguraz-edo; "tentazioak mendean hartuko ninduke". Are okerrago izango zen lurrean topatuz gero. "Zergatik ez ninduten galdekatu". Rubioren bertsioa da Metzingerrek abaildu egin nahi zuela. Ez zioten ez erre ez so esan hamar egunetan. Gustuagatik, erre egingo nuke orain". Biltegian gogoaren arabera erretzen du. "Tabakoa bukatzen zaidanean betiko utziko diot erretzeari". Irribarre egin du. Gainezka dago bagoneta. Gainerakoak hutsago daude eta prestotzat eman dituzte. Kideek gaizki begiratzen dutela jabetu da Emili. "Lan kolektibora ohitu beharra daukat, ez nazatela lan-izorrazaitzat hartu".

Bagonetak batzeko agindua eman du *kapoak* eta, "Diesel" makinaren zain, haiek eramateko, beste gehiago betetzeko alorrera joan beharra dago. Toki berria ez da hain lasaia. Eta jende izutuaren nahasketa baten erdian gertatu da Emili. Jada ez da posible gogoratzea, ez eta pentsatze soila ere. *Kapoak* jo ta su dabilta kolpeka.

—Begietan gogorak aterako zaizkik —esan dio kide batek—; ikusmena da lan egiten duena.

Erortzekotan erremdiarik gabe azpian harrapatuko duen lur izoztuko zati handi bat zulatzerara behartuta dago berrogeita hamar bat urteko poloniar bat. Harago, arantzazko hesirantz bultzaka darama judu bat, non zentinela batek "ihesaldi-saioagatik" akabatuko duen. Elur-meta handi batean lurperatua izan da iugoslaviar bat eta, aldi behin, aurpegia desestaltzen diote jada hilik dagoen ikusteko.

Arratsaldeko formazioaren ondoren, barrakara iritsita, marrazkilariak ezin du mugitu ere egin, hain dago leher eginda. Lekualdatzearen berri eman dio barrakako idazkariak. *Popeyeren* terrenora joan behar du, banakako literak utzi, koltxoi hautseztatu eta izerdituak berraurkitzeko. Ostera gizon goseti, lehertu, desesperatuen metaketa. Ostera *Popeyeren* zoroaldiak. Bere katreko lasto artean gordetzen dituen liburuak hartu, saboi-zati bat, goilara bat eta idazkariak, aurkezpen-kredentzialtzat, eman dion fitxa. Txeratsu hartu du *Popeyek*. "Gaizkiletza-aferra batengatik zigortua —pentsatuko du piztia hark—. Nireetako bat.

Beranduago, deitu egin dio.

—Niretzat marraztu nahi baduzu, ez zaizu ezer faltako. Egun asko egingo dituzu lanera joan gabe.

Popeyek ere ezagutzen du Emilik “sekretua” dela uste duena. Iheska erantzun dio. Hartuta dauka erabakia: osterantzean ez du sekula zerrikeriarik margotuko.

Eta lagunen ilara hasi da. Eskaintzak, promesak, hitz polittak. Arratsaldeko lana baino nekosoagoa. Ezaguna du prozesua: lehen egunetako eskuzabaltasunak gutxika-gutxika hozten joan ohi dira eta, jantziak zarpaildu eta zikin daudenean, azala zimur eta beltz bihurtzen denean, iskin egiten dizute zakur ezkabiatsua bazina bezala.

Beranduago azaldu da Rubio. Ez zaio gustatu haren aire babeslea: hitzen eztitasunean xede ezkutua susmatu du. Metzingerri buruzko albisteei interesgarri iritzi die, ordea.

Effektenkammer-kommandoan ez dago espainiarrik; Metzengerrek lortu du berea.

Gero, biharamunean afaltzera gonbidatu du. Gabon-bezpera da.

—Patata frijitu batzuk, zer irizten diozu?

Irtetean, *Popeyerekin* egin du topo ileapaintzaileak.

—Nire adiskidea da. Ea ondo tratatzen duzun.

—Ni beti naiz kamarada zintzoa —erantzun du *Popeyek* algara ergelarekin.

Jantokiko koltxoietan egin du lo Emilik. Pribilegio bat da. Badira egun batzuk txontxongilo bat bezala sentitzen dela, haizeen gurari. Orain, jada ez. Berrabiatu egin behar da froga, eta bere indar moral guztiak beharko ditu. Laster desagertuko diren adiskidetasun zaharrak baino, nahiago bakardade berria. Pentsatzeko denbora izango du eta hori paotxa da. Ez da Rubioren afarira joango. Eguberriak, patata frijituak eta Rubioren lagunak. Umore negatiboak barre egitera bultzatu du Emili. Pentsatu du: “Begira non bukatzen den materialismo historikoa”. Koltxoi gainean bira eman eta begiak itxi ditu.

XIII

Eta denborak bere bidea egin du. Negua, udaberria, uda, udazkena, negua... Bizitza asko galdu dira bitartean, erloju sorgor eta geldiezinaren erritmoan. Egutegiak egunero orri-kopuru handia daukala ematen du. Borroka utzi eta dena ezabatzen duen ilunpean babesa aurkitzeko murrizten den gizon bat da orri bakoitza. Lerroak, denboraren astinaldiek soilduta, egun batean eta bestean sartzen diren multzoekin betetzen dira etengabe. Eta egun bakoitza aurrekoaren kalkoa da: keinu berberak, hitz berberak, oinaze berberak, horrore berbera. Eta hurrengo egunek ez dute funtsezko berrikuntzarik ekarriko, eta agian eraldaketarik egotekotan, hain motela eta oharkabea izango da, gertaera ttikiei eta berehalako oinaze handiei ohitutako begiradak ez du antzemango. Eremuaren legeak urkoekiko ezjakina inposatzen dio norbanako bakoitzari. Denboraren aurkako arma eraginkor bakarra egoismoa da; egutegiko orriak eskuetan gordetzeko pribilegioa daukate egoistek. Berekoiek eta denborak, modu kapritxosoan, bere korazarekin bilduak izateko zortea daukatenez. Batzuek eta besteek elur lehor eta nasaiak jausten ikusten dituzte, hotzaren astinaldiak egozten dituzte, nekearen eta gosearen zamari eusten diote, tratu txarren bulkadari iskin egiten diote, eta, azken finean, bizi egiten dira. Denboraren mailukadak bere auzoak botatzen ditu, baina eurak gorde egiten ditu, predestinatuak. Zergatik eurak, hain juxtu? Ez dira behar bada onenak, behar bada ez dira fisikoki indartsuenak. Zeinek ahalbidetu die egunen batean gainerakoen heriotzaren lekuko izateko ahalmena? Zergatik jasaten dute negua eta liluratzen dira udaberriarekin, itotzen dira beroarekin eta, udazkenara iritsita, batere minik egingo ez dien negu berri batekin beldurtzen dira? Inork ez dauka jakiterik. Kapritxoaren indarrean mantentzen da unibertsoa, antza denez haren sekretua baita.

Geldoa dirudi denboraren martxa hilgarria, baina lehentasunari begiratuta konturatzen da ezen bere higaduraren emaitzak meta ikaragarrietan multzokatzen direla. Inork sekula esaten ez dituen zenbakiak dira, jadanik inork gogoratzen ez dituen izenak, haizearen erratzapean galdutako kea, beren isiltasunak soto bateko apaletan batzen diren errautsak, erraustegiko konbustio haiek guztiek airea idortu baino ez dute egiten, eta errebotez, geratzen diren bihotzak. Garrantzi gutxikoa da hori denbora pasa baldin bada, elurrak ilunak baldin badira zoko opakoetan, udaberriak bere berde guztiak ezartzen baditu lurraren gainean, naturak, berriztatzean, denbora hobeen esperantza ez dela hutsala aldarrikatzen baldin badu. Eguzkia urtero bezala gailentzen da, eta haren irribarre argitsua kontenplatu ahal dutenek esperantzaren mezu beti bizia sentitzen dute beren baitan.

Hotza eta beroa jasan du Emilik; lanaldi astunak bere eskuak deformatzen dizkio eta goseak bere atzapar zorrotzak sentiarazten dizkio beti. Bere mami gehiena harrobian utzi ditu denbora joan ahala. Baina beti muzin egin dio errealismo animalaren ahotsari, kontserbazio-senetik gertu daukan horri, marrazki lizunetara itzultzeko gomendatzen diolarik. Jadanik ezin du egin. Francescen eta Wernerren oroitzapena dago tartean. Frogarik gogorrenak jasangarriak iruditzen zaizkio, goiz ala berant bere destinoaren arkanoak deszifratzera daramatzate.

Soilik Rubiok dauka gogoan, eta hori konpromiso larrienez uzten diotenean. Bere prezioa ere baduen oroitzapena. Ileapantzailea trebea da intsinuatzen, eta Emilik, ogi-koskor bat hartzen duen bakoitzean, hain argi dauka emailearen asmo proselitista, sostengatua sentitzeko kontsolamendua bera ezkututzen da.

Eta hilabeteak egunak baino azkarrago doaz eta, denboraren balioaren subertsio paradoxal honetatik sortzen da, behar bada, Emili kulunkatzen den indiferentzia negatiboa, kausak eta emaitzak analizatu gabe. Hainbeste eromenen artean, zein joera

hobea ero agertzea baino? Berea, espirituaren bakea bilatzeko eromena da, gorputza gabetasunen diziplinarekin murriztearen truke izan arren.

Bake horretatik harago ezerk ez dauka interesik berarentzat. Egia da inguruan daukan jendearen aberetzea hazi baino ez dela egiten.

Etsigarria da, adibidez, berrogei gerrilari iugoslaviar fusilatzen dituzten bitartean, euren artean bost emakumezko, zenbaketen plazan bildutako jendeak operazioaren geldotasunak afalordua atzeratzen duela besterik ez gogoratzea; etsigarria da kide batzuek orduak eta orduak ematea txekiarrek eta juduek plazaren erdian jasandako tortura kolektiboak jantokiko leihoetatik kontenplatzen, edo erraustegiko sarreran SSen mugimenduak zelatatzen, “garraio bereziak” haizkorekin oldartzeko zain; etsigarria da, lanean eroritako errusiarren gorpuz beteriko gurdien eguneroko ikuskizuna nolako indiferentziarekin hartzen duen jendeak; etsigarriak dira, huskeriagatiko iskanbilak kideen artean; etsigarria da jende gaztearen artean olio-orban baten gisara zabaltzen den bizioa... Denetaz jabetzen da Emili, eta deitoratzen du tokia jungla bihurtzen joatea, baina gogoratzen du zein modu biribilean Destinoak erakutsi dion bera ez dela hura dena ekiditeko zerbait egitera deitua. Alde batera geratu da gerrako gorabeherez ere. Alemaniarrak Kaukason eta lurralde egipzian daude, eta, dena ondo joatekotan, bizpahiru urte geratzen dira aliatuen garaipenerako. Baina bere buruari galdetzen ez dion bezala gelditzen diren espainiarrek bukaera hau espero ote duten, ardurarik ez dauka bere buruaz ere jakiteak. Gerra eta haren ondorio guztiak krisalidagoera bat da, zeinetik irtengo den, irtetea baldin bada bere patua, “Historiako indar nagusiek” nahi duten eran. Errealitate gordinari aurre egitea da kemena; orain baduela uste izanik, azkeneraino iritsi nahi du.

Halako batean biluzik somatu du bere burua. Bera baino lehen beste askok bezala, bere argaltasunaren aurkikuntza egin du. Ipurmasailak desagertu egin dira, oinak hazten ari zaizkio.

—Entzun, Emili —esan dio Rubiok egun batzuk beranduago—. Pasa hadi arratsaldero nire *Blocketik*. Eguerdiko plater bat zopa gordeko diat.

Marraskilariak ulertu du eskaintza haren esanahia. “Herioa inguruka dabilkidala aurkitu du”, pentsatu du. Biharamunaz geroztik joan da. Biltegian lanean aritu denean neurtu du keinu burgoi batekin amaiera probokatzearen komenientzia. Ezer ez ergelagorik bere buruaz beste egitea ekintzaz edo omisioz baino! Denboraren sekretua behartzea? Ez: bere ibilbideak amaiera-puntua eduki behar du zalantzarik gabe. Orduan jakingo du esperoan argia ala ilunpea daukan.

Emilik letargian bizi izandako hilabeteotan terroreak ez dio bere ereduari jarraitu. Eutanasiako prozedurek eta ihes-legeak aski ematen ez duenez Reichek etsaiak aurkitzen jarraitzen duen garaiotan, prozedura azkarrago eta ez hain garestia aurkitu da. Ez da balarik ez gasolarik behar.

Harrobiko eskaileraren goi partetik eremuraino daraman bideak ez dauka arantzazko hesirik, ez zentinelarik, ezkerreko aldetik izan ezik, izan ere eskuin aldetik babestuago baitago ustiakuntzako erroitzetik, plomuan ebakia eta berrogeita hamar bat metrokoa berau. Judu edo gainerako zigortuen zutabeak eskaileratik bideraino eskalatzea lortu duenean, harri izugarri handiz zamatuta, bidean zehar atzean geratu direnak edo, zigorkadak jaso arren, karga eskailera erdian abandonatu behar izan dutenak, amildegitik behera salto egitera “txeratsu” gonbidatuak izan ohi dira. Alferrikakoa da edozein erresistentzia, eta era mingarrian luzatu baino ez du egiten “argudio limurtzaile ororen” garaia. “Suizidioen” batezbestekoa egunean seikoa da, bidaia bakoitzean...

Harrobiko behe partean lan egiten duten presoek horrez kontenplatzen dituzte kriminelalitateko eszena haiek, eta ohitzera iristen diren arren, haietako edozein hunkituko da gogoratuz oso gorputz handiko abokatu eslovakiar baten kasua, zeinak, egin zuen bere bigarren bidaiari, zein izango zen azkenean haren zortea, bere lau

kideekin besoetatik oratu eta denak batera, inork behartu gabe amildegiaren ahora hurbildu ziren. Baina abokatuak hitz egin zuen salto egin baino lehen; ahost sakon eta ozenarekin mintzatu zen eta putzu erraldoi hartan iragarpen apokaliptiko modura entzun zen. Harri hauek gorritzen duten odol eta lotsak, esan zuen alemanez, Europa osoa gorritzen duten odol eta lotsak, ito egingo zaituzte egunen batean, kriminalak! Zuen basakeriak zuen aurka altxatzen du mundua, eta zuen krimenak besteko zigorra mereziko duzue. Gu hilko gara, baina duin; zuek hilko zarete, baina doilorkerian.

Zutabea gidatzen zuten SSak hura isiltzen saiatu ziren, baina harengana gehiegi hurbiltzen saiatu gabe, erorketan haiek ere arrastatuak izateko beldurrez, hainbat harri jaurti zizkioten. Bere errequisitoria amaituta, laburra bezain zorrotza, putzuan lan egiten zuten presoek isiltasun hunkituan, eskuak elkarri emanda salto egin zuten bost kideek. Txoke lehorra entzun zen harrobiaren hormetan.

Maiz, jaurtikitako batzuek ez zuten bat-batean hiltzeko zortea eta SSek ez zituzten errematatzen buruan tiro batekin, gizatiarra izango litzatekeen moduan. Infernuko ikuskizun haietako lekuko askok gogoratuko dute baita ere hankak eta bizkarrezurra hautsi arren hil ez zen judu baten kasua. Ofizial bat hurbildu zitzaion, asko sufritzen ote zuen galdezka.

—Ez, erantzun zuen juduak. Erretzeko gogoia besterik ez daukat. Zergatik ez didazu zigarro bat ematen?

Holako kasuetan, andatan eramaten zituzten hil hurrenak erizaindegira, imajinaezinezko oinazeak jasanda hain bide luze hartan zehar. Behin batean, bidaia bakar batean eta anda bakar batean, sokekin lotuta eta gorputz-atal odoleztatu eta hautsien multzo formabako bat osatuz, haietako zazpi zorigaiztoko igo zituzten esparruraino. Multzo dantesko hartatik ezten modura sortzen ziren oihuekin arbolak dardarka zeudela ematen zuen, eta bideko harriek odolaren arrastoak gorde zituzten euriak ezabatu nahi izan zituen arte. Erizaindegira iritsita injektatuak izan ohi ziren, baina batzuetan orduak eta orduak itxaron behar izaten zen borreroa iritsi arte.

Txekiarrek ere hainbat erasoaldi jasan behar izan zituzten zortzi hilabete haietan, batik batik Reinhar Heydrichen atentatuaren ondoren. Negu hartako gau asko pasa zituzten, elurretan ariketa bortitzak egiten, korrika, kukubilko salto egiten edo izotzean lorrinka, koadrila bat leher eginda erori arte.

Baina, sarraskiak antolatzean, gerra-atxilotu modura sartu ziren bi mila errusiar haiek eliminatzen gailendu ziren alemaniarrek. Bostehun bat hil ziren neguan, eta udaberria iristean, hamabost eguneko tartean esterminatu zituzten gainerako guztiak.

Irakindako arbi batzuk besterik jan gabe utzi eta eremu errusiarrean lan intentsiboan aritzera behartu zituzten. Eguerdiro eta arratsaldero, jadanik denak formazioan zeudelarik, bata bestean zurkaiztuz sartu ohi ziren eremuan, balantzaka eta segizio gero eta murrizagoaren artean estropezu egiten, armada frantziarrarenak izandako erregimentuko gurdi batzuen gainean, hilotzez eta hil hurrenez gainezka, denak nahasian, edozein modutara ipinita eta erraustegiko atean deskargatzen ziren.

Seguru aski biharamunean garraiatuak izango ziren errusiarrak berberak, kargatu, bultzatu eta deskargatzera behartuak izaten ziren. Burutik hartzen zuen batek hilotza, oinetatik heltzen zion beste batek, eta gurdiaren eskudelaren gainetik gainerakoek metara jaurtia izan ohi zen. Preso errusiar-multzo handiak espero ziren, eta ez zegoen lekurik esparruan. Zergatik, orduan, gorde, hain argal izaki, lanerako balio ez zuten mila eta bostehun gizon haiek?

Kasuaren alderik tragikoena da, eta aldi berean egitate normal eta gizatiarra, plazako alde banatan ilaran kokatutako presoek kontenplazten zuten indiferentzia. Gutxi izango ziren oinaze propioa ahaztuko zutenak gainerakoenean pixka bat pentsatzeko!

—Zer dago gaur ogiari laguntzeko? —galdetzen dio batek bere kideari Herioak eguneko lanaldia aurretik pasatzen dion bitartean.

—Sartzen arinago ibil zitezkeen! —pazientzia galtzen ari den beste batek, marmarka. Gero eta luzeagoak dira zenbaketak haien erruz...

Esparruak, atxilo hartzen zituen gizonetik bere garaipenaz ziur, bere botere saihetsezinez konbentziturik, galduta zeuzkan galgak sarraskien lasterketa eroan...

Kanpoko *kommando* baterako aukeraketa batean, Emili izan da aukeratuetakoa bat, eta ostera jantzita eta berrogeita hamar bat kideen artean formatuta, herriko geltokirantz irteteko prest dagoelarik, Rubio hurbildu zaio, agur esateko asmoz.

—Zorionak —esan dio—. Augusten *kommandora* hoala entzun diat.

—Alegia? Hemen ere esan ohi ditek, baina ez naiz fio.

—Ziurra da, eta jakin ezak benetan pozten naizela. Augusten alboan animatuko zara pixka bat —eta etenaldi labur batez, gehituz—: lagun on bat zagok han behean. Castro dik izena eta hartaz fidatzerik badaukak behar duanerako. Haren bidez hiri buruzko albisteak helarazi ahal dizkidak. Atseginez hartuko ditiat.

Azken boladan Rubioren laguntasuna aski eraginkorra izan den arren, Emili behartuta egon delako, bien arteko adiskidetasuna pixka bat sasikoa da. Agur haren hoztasuna deitoratu du marrazkilariak.

—Eskerrik asko denagatik. Egun batean edo bestean elkar ikusiko diagu eta behar bada orduan ez gaituk preso miserable batzuk izango. Behin aske, balio handiagoa izango ditek berriketak.

Esparrutik atera da segizioa. Bi urte badira marrazkilaria kanpoko itxitura haren atetik sartu dela eta gaur arte ez du gurutzatu. Beherantz pausua markatuz, hartutako noranzkoaren ezjakintasunean, pentsatzen du ezen, eskatu izan baliote bere iritzia, leku ezagunetik ez mugitzea nahiko zukeela, ez egiatan ondo egokitu delako, baizik arrazoi intimoagoak tarteko. Protesta-sentimendu lausoak betetzen du orain. Lekualdatze hau beste proba berri bat baldin bada, destino izango duen *kommandoa* azkeneranzko azkartze bat baldin bada, heriotza ziurra eta azkarra, zergatik ukatzen zaio urkamendia aukeratzeko azken eskubidea? Zergatik, bere errauts-potean, ez zaio baimentzen errauts adiskideen auzotasuna?

Bere pentsamenduekin kontrastean, espedizioko kideak zalapartan daude. Haurrak eta emazteak bereziki, iruzkin zaratatsuekin hartuak dira.

—Ixo! —agindu du zaindariatako batek—. Juduak dirudizue.

Jendeak obeditu egin du, eta harlauzen gainean egurrez zolatutako zapaten urrats erritmatua baino ez da entzuten. Herriko jendea leihotara ateratzen da, begira dago eta, batere sentimendurik erakutsi gabe, ostera desagertzen da. Haurrek segizioari jarraitu eta errespetuz eta inbidiaz kontenplatu dituzte soldaduak. Geltokian bi bagoi daude zain: *8 chevaux - 40hommes*, eta Hans Gupper bera. Behin bagoietara igota, atea irekita joateko baimena eman zaie. Ofizial bat daukate bidaide eta, bidean zehar, bereziki txeratsu agertu da. Berehala baietsi die Augusteren *kommandora* doazela.

—Eta pentsatzea gestioak egin ditudala ez etortzeko! —adierazi du garraituetako batek, Emiliren alboan eserita.

Emilik, jakin gabe adierazpena berari zuzenduta dagoenez, irribarre egin du badaezpada ere. Gainerako kideak bezala pozik egon behar du. Berriketan aritu, barre egin, abestu beharra dago...

—Ez al hago pozik hi?

Desleketuta dago. Holako kasuetan Francescen berezkotasun bitala gogoratzen du. “Hemen balego, errieta egingo lidake”, pentsatzen du. Eta bera atoniaren kausa zein da, bada, adiskide haren heriotza baizik? Francescen erorketa sistema optimistaren porrota da. Mundua mugitzen duen irakinaldiaren erdian norbanakoa ezer ez den une hauetan, etsipena eta garratzasuna besterik ez da optimismoa, nahaitez. Isiltzea, sufritzea eta azken buru hiltzea da bizitzea. Orduan ulertu du leku-aldaketak konponketa pertsonalaren ahalegina eskatuko diola. Berarentzat eta beste batzuentzat

lekualdatze hark adierazten duen indultua onartu beharreko prezio bat dauka. Ahalik eta lasterren saiatzera erabaki du, pozik dagoela aitortuz.

Trena, Danubioren ordokia azkar utzi eta hegoalderantz igo da, bere erreka-adarretako baten haran ez hain zabalean zehar. Herri ttiki industrialek harro erakusten dute erabateko armamentua eterratzen den eraikuntza ikaragarri handiak. Tanke, kanoi, kamioi eta hegazkinen motorrez kargatutako plataformez beteak daude geltokiak. Zeruaren urdin motela zikindurik ematen du zenbatezinezko tximinien kearen eraginez.

—Hurrengoan —esan du Hans Gupperrek.

Eta laster agertuko da kanpandorrearen mutur lausoki bizantinoa eta, haren inguruan, teilatuen diedro zorrotzak, batzuk teila gorrikoak, beste batzuk arbelezkoak. Herritxo sakabanatu eta itxia gero eta haran estuago eta malkarragoaren barruan. Geltokiaren eta herriaren artean, ibaia doa. Airean hain da garbia, zuriago ematen dute gailurrak estaltzen dituzten txapelak. Bake handia da nagusi zoko hartan: ez da gerra-fabrikarik ikusten.

—Hemen ez dugu bonbardaketarik izango —dio batek.

—Batek daki? Agian lurrazpiko fabrikak daude.

Ordu erdi bat ibili ondoren, segizioa zabalune batera iritsi da, non lau barraka desmargotu dauden, eta beste bat, nabarmenagoa, tximiniak kontuan harturik sukaldea izango dena. Ortuariak landatuz erabilgarri bihurtu dituzte espazio libreak. Korrante elektrikorik gabeko hesi arantzadunek banakuntza laberintikoak osatzen dituzte.

Atean zain daukate August bi SS ofizialek lagunduta. Bisaia-espresio desberdina, jabetu da Emili. Berehala konturatu da hazpegi-aldaketa adats luzei dagokiela, bekokitik garandoraino dihoakion hiru zentimetroko marrarekin. Eremuen zuzendaritza berlindarrak ezarritako moda bat da, giza hilea feltroak egiten baliatu ahal izateko. Buruak zuritu orde, hilea luze uztera behartzen dituzte presoak. Ile beltzak, trinkoak eta tenteak, marra zabal eta sakonarekin, burua zatitua-edo daukaten zomorro haiekiko antzekotasun urruna ematen dio Augusti.

Arauzko formalitateen ondoren, besarkaden unea iritsi da. Augustek besotik oratu dio Emiliri.

—Oso pozik nago zu etortzeaz. Hau paradisu bat da. Harekin alderatuta, jakina! Pixka bat higituta zatoz, baina berregingo zara; ziur nago.

Hitza hartu eta ez du uzten. “Etxe handiko” gauzez baieztapena baino ez du nahi; propioei buruz suhartsu mintzo da eta ahalik eta xehetasun handienarekin.

—Txarra izan da uda. Jakiek gosea estimulatzeko baino ez da izan. Gizonak itota erori zaizkit. Belazeetako belarrak gordinik jan dituzte. Lanaren erritmoa mantentzea nahi zuten, nire alde neukan arma bakarra. Une batean uste izan dut porrot egin nuela, baina nire zenbakiek eta egindako lanarekiko daukadan kontrolak balio izan didate gure ekoizpena gerra-atxilotuena, eta are zibilena, baino handiagoa dela demostratzeko. Behin antzerki-lan bat egin nuen. Zenbaketen plaza erdian gizon guztiak biluztea agindu eta komandanteari errebista pasatzea eskatu nion. Eskeletoak ziren. “Zuei interesatzen al zaizue gure lana? —galdetu nion—. Beraz, bistan daukazu gizon hauek ez badute gehiago jaten, laster amaituko direla”. Hilabete bat da aza eta patatez puzten dituztela. Elkarrekin afaldu dute. Emilik gogoz jan ditu mirariak egiten dituzten azak. Augusten banitateak gogait egiten du bere sentikortasuna, baina nabarmena da esparruan nagusi den lasaitasunak, ordenak eta elkarbizitzak haren antolatzailearen inmodestia baino pisu handiagoa daukatela.

—Hemen denak dira berdinak —Augusten azalpena—, baina arbitroa ni naiz. Ulerkor edo gogor, unearen arabera. Eta beti ongi informatuta. Jendeak egiten duen, esaten duen eta penstatzen duen guztia dakit. Badago deabruaren haragitzea naizela uste duenik. Sistema patriarkala nirea...

Rubiok irakurtzen utzi dion eskutitza gogoratu du marrazkilariak. Irribarre egin du bere kautan. Augusten dohain handia da inguratzen duen guztiekiko sugestio-gaitasuna, eta

Rubioren agentea –Castro– haren biktima izan da. Kuriositatez behatu du aurpegi hura: haren itxura aldatzen duena ez da ileko marra, baizik aire afektatu moduko bat, betetasun aplomatua, gustukoa duela esaterik ez dagoen arren, gauza asko azaltzen dituena.

Pixka bat beranduago, ohean sartu denean, aspaldian lo daude gelako kide guztiak. Isiltasun konfiatua dago, “etxe handiko” isiltasunen zamarik gabea. Zigarro bat piztu du; ezin du zigor bat itxaron holako libertate ttiki honengatik. Xake-joko bat eta liburu-pare bat daude erdiko mahai gainean. Posible ote da eremu hau beste haren sukurtsala izatea? Bere baitan zerbait aldatu dela somatzen du. Ohean erretzen duen Emilik ezin du errekonozitu, ordu batzuk lehenago abandonu eta errenuntzia-sentimenduekin eremu nagusitik atera den beste Emili hura.

—Zure laguntzarekin kontaktzen dut —esan berri dio Augustek.

Bat-batean piztu zaio hainbat hilabetetan ahaztutako *esparruko espirituaren* aurkako gizonen defentsaren obra. Oraingoan zeregin subalternoa eman zaio, *botere gorenek* berarekin beste froga bat egin nahi balute bezala.

—*Sursum corda* —esan du bere kautan, pozik.

XIV

Alemaniarrek Volga eta Ipar Afrikan inizatiba berrartzen ari diren bitartean, okupazio alemaniarraren aurka erreazionatzen hasi dira Mendebaldeko herriak. Kontzentrazio eremuan erresistente belgiar eta frantziarren sarrera okupazio hitleriarraren aurkako bi herrialde horien ahalegin progresiboaren barometro erregistratzailea izan ohi da.

Pierre, langile metalurgikoa, Gestapok Frantziako Iparraldean atxilotu du saboteatzailetzat hartuta. Presondegi askotatik igaro ostean, fisikoki deseginda iritsi de eremura; lehen egunean, berak bezala hainbeste hilabete argitara atera gabe pasatakoen arteko insolazio ohikoa jasan du. Ez behar horrek beste batzuei ireki die atea; aste gutxi batzuren buruan, gosearen edemaren pean dago. Holako kasuetan, erizaindegian egun batzuk preskribatzen zaizkie, nondik ateratzen den hanpadura lanera joateko adina jaisten denean... Hirugarrena, amaiera izan ohi da.

Zientzia alemaniarrek konponketa masiboak aurkitu dizkio eutanasia arazoari. Bentzinako injekzioa, dutxa hotza edo zigorraldiak oso operazio geldoak dira; probetxugarriagoa izan ohi da Dachauko "sanatorio" eremura eramatea adibidez, laborategi kimiko eta bakterologikoetan edo Bibisekzioko Institutuetan akuri izateko.

Auto fantasmak ere emaitza praktiko nabarmenak ematen ditu. Hogeitabat plazako bus bat da, zeinaren leiharrak plantxa metalikoek ordezkatzeko dituzten. Aldian behin, gaixoz kargatuta etorri ohi da esparrura eta, martxa apalagotu gabe, gidariek gas hilkorra eragiten dute isolatutako kabinatik. Hasieran gorputzak Steryko erraustegi erraldoiataran eraman ohi ziren; aurrerago, lehengaiak eskasten joan zirenean, xaboia egiteko gantz bihurtuko ziren.

Ez dago, ordea, esparruko erraustegiko sotoan instalatutako gas-ganbera baino prozedura espeditiboagorik. Itxuraz dutxa-gela inofentsiboa besterik ez da: mosaikozko sabaia, baldosa lehiartuko hormak eta bonbila zuri oso indartsuak sabaitik zintzilik. Hodi-sare batetik dutxaburuak irteten dira tarte erregularretan. Atea trinkoa da, eta presioaz ixten da kautxuzko marko batean. Lehiozka batetik begiratuta, kanpotik ikus daiteke barruan gertatzen dena.

Gasera kondenatuak esparruko misterioak ezagutzen ez dituzten etorri berriak baldin badira, esekitokiz betetako gelaurre batean biluzarazten dituzte eta, ganberan sartzerakoan, saboi-zatiak eta toailak ematen dizkiete. Espedizio hauek, esparruko komandatearen ez baizik zuzenean Gestaporen esku daudenak berauk, familia osoak osatzen dituzte, gizonak, andrazkoak eta haurrak, hainbat herrialdeetatik erakarriak. Behin ganberako atea itxita, zorigaitzoko hauek, biluzik eta erabateko nahasmenean, uraren etorrera itxaroten dute. Uraren ordeztu gasa ateratzen da dutxaburuetatik, eta laister betetzen da airea. Agonia izugarria izan ohi da, desesperazioak erotuta batzuek hormaren kontra lehertzen dituzte euren buruak; beste batzuk beren kideen aurka oldartzen dira eta azazkala eta hortzekin mendeku absurdua kobratzen dute; batzuek eztarriaren sakoneraino sartu ohi dituzte atzamarrak, existitzen ez den aire garbia irentsi ahal izateko... Poliki-poliki erortzen dira, batzuk beste batzuen gainean, denen artean hilotz ubeldu-meta bakarra osatu arte.

Bitartean, begiak distiratsu eta hortzak estu, gasetan adituek, SSko ofizialek eta Gestapoko agenteek beste aldetik kontenplatu dute ikuskizuna, lehiatileko beiran zehar.

Eremuko gaixoak esterminatu behar direnean, ez dira beharrezkoak izaten saboiaren eta toallaren fineziak. Aukeratuak erabat biluzik atera ohi dira erizaindegitik eta akerrak hiltegiara eraman ohi diren bezala bideratzen dituzte, makilazoka.

Pierre, franziarra, erizaindegian hiru egun eman ondoren kondenatu dute gasera. Gaixoek aukeraketa hauek direla-eta ikusten duten terroreak astindu egin ohi du,

indartuz, haien izaera ahuldua, ia erabat akitua. Beste kondenatuen artean biluzik eta ilaran, bat-batean ulertu du bere zortearen munstrokeria. Aurreko eguneko etsimenduak, bere gaitzek zalantzarik gabe edukiko duten amaieraz pentsatzen jardun duenean, desegin eta matxinada desesperatuari egin dio bide. Ez dauka eskubiderik untxi bat bezala bere burua hiltzen uzteko! Gaztea da, ez dauka ezein gaixotasunik, gosea besterik, eta zain dauzkan emaztea eta bi seme utzi ditu etxean. Bizitzeko eta kosta ahala kosta salbatzeko betebeharra dauka.

Esparruko bide zabarki harriztatueta zehar abiatu da taldea. Pierre jabetu da bere pausoa nolabait ziurra dela, gainerakoek ez bezala ez daukala kideengan bermatu beharrik. Zergatik hil behar dute? Zer esanahi dauka bere heriotzak?

—E, zu! —oihukatu du bere alboan dihoan espainiar batek, segizioa kontenplatzera gelditu den ezagun bati zuzenduz—. Ikusten duzu! Salbatzen bazara, kontatu etxean.

Erraustegi alboko atletik sartzean, atzeratzen saiatu da Pierre. Nora joan? Ez daki, ez dago jakin beharrik. Printzipioz, plantak egin, lasterka hasi, artaldetik atera. Behin ate haren atalasa gaindituta... Atzerantz jauzi egiten saiatu da, baina basaki bultzatu du alemaniar batek. Jendearen zurrunbiloak irensten du, eta alferrikakoa da handik askatzeko edozein ahalegin. Zalapartak, zotinek, interjekzioek hizkuntza guztietan, sotoko horma sendoek terrorez betetzen dituzte. Itxuraz, ez dago ihesbiderik. Baina gas-ganberako atean bertan, malguki batek bultzatuta-edo, indarrak atera ditu ahuleziatik. Bere atzetik datorkion alemaniarri bultzada eman dio. Hutsean harrapatuta, goardiak balantza egin du une batez, nahikoa frantziarrak kanpoaldeko aterantz alde egiteko.

Jendea ez da oraindik lanetik itzuli eta *Blockeak* ia hutsik daude ordu honetan. Plaza ziztu bizian gurutzatu eta barraken artean galdu da. Irekita harrapatu duen lehen leihotik sartu da.

Alarma emanda, esparruko administrazioko pertsonal guztia iheslariaren bila mobilizatua izan da. *Block* guztiak eta barruko dependentzia guztiak goitik behera arakatuak izan dira, aztarrenik aurkitu gabe; eta presoak eremuan sartu direnean, ordu luze bat iraun du formazioaren zenbaketa. *Blocketako* bat lauzpabost aldiz miatu ondoren, gorputz batek erortzean egiten duen hots apala sentitu du mobilizatutako alemaniar batek. Gizon biluzi baten gorpua ikusi du literetako goiko aldearen gainean. Uzurtuta, belauinak okotsa ukituz, begiak erabat irekita, eskuak zurrun, ahalegin supremoan harrapatu bide du Herioak. Alemaniarrek ez du ulertzen zer dela-eta dagoen han gorpu hura arik eta, gogoratuz erorketa baten zarata izan dela atentzioa eman diona, barrakako sabaira begiratu duen. Han, gorpuaren perpendikularrean, kutxa erako argi-zulo bat dago, hormak saretazkoak. Soilik eskuetako eta hanketako hatz eta eskuz listoietakoa ertzei oratuta, besoak eta hankak gizagaindiko tentsioan, eutsi ahal da ordu bete eskas. Hiru ordu luzez iraun du frantziarrak!

Hotzez eta abailduraz hilda dago puska batetik, baina hil ondoren ere ez du amore eman bere gorputza borraroen botereari ebasteke borondatean. Giharrak iharturik, gorputza kutxaren estutasunagatik uzurtuta, edozein unetan jausi da, nola fruta heldua.

Erraustegian bildu da bere kideekin.

Augusten *kommandoan* elkarrekiko berdin-berdinak dira egunak. Mugimenduen identitate eta ordutegien zorrotasunak ahaleginen zuhurtzia ongarria ahalbidetzen die gizonei. Jateko anoa hain da zuzena, kontserbazio fisikoaren sekretu guztia ahaleginen aurrezte zorrotzean datza. Zertarako makurtu pala bat jasotzeko, hanka xaflaren gainean jarrita, malguki egin eta kirtena automatikoki altxatzen bada? Zergatik bidaia bat egin pixatokira eta beste bat komunera, bakar batekin bi tokietatik igaro badaiteke? Eta batek plater zikina esku batean eta oinetako lohituak beste batean badaramatza, bi bidaia aurrezten dira. Existentiaren monotonia erabatekoa da: eguna argitu baino ordu

erdi lehenago altxatu; pixa egitera eta garbitzera atera; gero jantzi, ohea ardura handiz egin, zopa hartu, edan, zerbitzuko txandak erratza pasatzen duen bitartean kalera atera, dagoenean zigarro erdia erre, aurreko egunetan metatutako nekea ahaztu eta hastera doazen hamaika orduko amesgaiztoari itxaron. Gero, formazioa, zenbaketa eta lan-taldeen irteera.

Azken boladan, "etxe handian", errenuntzia eta pasibitate fatalistaz osatuta –hura izan baita bere joera– bizi izan duen baretasun espiritualaren erreplika, positiboan, eguneroko errutinan topatu duenez geroztik egokitu da Emili. Aldea, ordea, erabakiorra da. Ezerezte fisiko eta moral mailakatu hark goi-fakultateen berrartze indarreztatuari egin dio bide. Gogorra da lana, eguraldia errukigabea, pertzaka elikadura, baina gizatasun-giroa da nagusi, errukia eta laguntza dago gainbeheratuentzat eta heriotzari terreno guztietan egiten zaio aurre. Augusten bitartez parte-hartzen dute Ssek eremuan, eta haien jokaerak bere pozoin guztia galdu du. Kontzentrazio-esparruetako erregimena hain apaldua iristen da Augusten *kommandora*, jadanik ez da erregimen maximokoa. Eriondoan dagoena osasun-baldintza ahaztuetara berregokitzen den pazientziarekin jasaten du Emilik. Jabetu gabe, atxilotuen estermínio moralerako naziek baliatzen duten tresna den gizonaren mespretxu-girotik aske sentitzen da. Augusten esparruan, zenbaki bat ez ezik gizon bat ere bada.

—Oraingoz lanera atera beharko duzu, inork ezin baitu esparruan gelditu ofizialki esleitutako lanik gabe. Iluntzean, afalondoren, bulegora etorriko zara niri laguntzera.

Bulego hura alemaniarrak lilurarazteko "bluff" bat da, kasu honetan itxurei erreltateari baino emanagoak berauk. Paper asko, erregistro ugari, *kapo* eta *Blockältasteen* bilera anitz, pertsonalari buruzko fitxa-bildumak, fitxak alde gutietatik, produktibitate-ehunekoak, estatistikak, grafikoak efektua ez ezik beti erantzuna prest edukitzeko balio dioten armak dira Augustentzat. Beste departamendu batean traza-lanak egiten dituzten presoak daude: altzariak, bibelotak, eraztunak, dominak, erlojuen erreparazioa, Augustek harremanak eduki behar dituen guztiak limurtzera bideratua dena: obretako ingeniariak, ofizialak, partiduko hierarkiak, goardia edo kapataz arruntak. Emili, marrazkilaria denez, arlo berezi honetara pasatzen da.

—Pultsuak ez dit obeditzen; jadanik ezin dut marraztu.

—Berdin dio –Augustek–. Doilor hauetako inor ez da konturatuko.

Bere trebetasuna aitortua izan denean, kanpoan hotzez eta umeltasun-egun asko aurrezten ditu. Komandanteak, adibidez, bere emazte eta semeen argazkiak erreproduzitzea eskatu dio, bukatu artean eremuan gelditzeko agindupean.

Eta hola doaz egunak hunkipen handirik gabe, itxurazko aztarnarik gabe. Lo egiteko gauaren zain pasatzen dute eguna; eguneko errealtate tristetik ihes egiteko amets ugari ekarriko dien esperoan gauak. Emili beste behin gutxika berregiten ari den barne-munduan babestu ezean ziur aski jasanezina gertatuko zaion orduen eta egunen jarraipen aspergarria.

Arratsalde batean esparruan sartzean, lan-jardunaren ondoren, gehiegizko zalaparta somatu du:

—Eskutitzak iritsi dira –esan du norbaitek ilarak desegiterakoan.

Bulegorantz joan da Emili lasterka.

—Zure emaztearen eskutitza daukazu.

Hilabetea da espainiarrek baimena daukatela postal bat idazteko, testu diktatu batekin, denentzat berbera dena berau, eta lehen erantzunak iritsi dira. Esparruko helbideak, abilki nahastuta, ulertzera ematen du gerra-atxilotuei dagokiela, ez preso politikoei. Jarraitzen du bahitu-egoerak; mugetatik harago inork ez dauka ezagutzerik ezelango jarduera antialemaniarra egotzi ez zaien gizon batzuei ematen zaien trataera arbitrario eta ez humanoaren egia.

Atzamarretan gorde du Emilik eskutitza, irekitzera ausartu gabe. Bi urte haien zama, egunez egun, orduz ordu, minutuz minutu zenbatuak, karga da orain, bat-batean haiek

osatzen duten mendipean bailegoen. Jadanik itxarotera ausartzen ez zen eskutitz hark, bere eta kanpoko munduaren artean tartekatzen den espazioa eta denbora balioesten du. Eta, hala ere, mundu hura badabil eta bere bidean doa; zain daukan emakume bat dago. Ulertu du ezen, kartazala apurtzeko keinua geldi mantentzen duena, hain mundu urrunean atzerritar sentitzeko beldur ezformulatua dela. Eskutitzeko lau lerroek ba al daukate betetzerik bi urte haiek utzitako hutsunea?

—Zer egiten duzu geldi? — Augustek, irribarretsu.

Kartazala hautsi du Emilik. Lerroak gutxi batzuk dira, hain zuzen, eta Emilik hiru aldiz irakurri ditu begiak jaso baino lehen. “Zure postala atzamarretan, ero baten pare egin dut lasterka etxebizitzan, auzoen artean, bidean... Mundu guztiari erakutsi diot, mundu guztiari esan diot zein pozik nagoen...”. Bakarrik sentitzeko gogoarekin, bere ganberarantz joan eta bere ohean errefuxiatu da. Matilderen irudiak zehaztasun sineskaitza hartzen du bere oroitzapenetan. Gertakaria bere barruan dago.

Biharamunean ez da lanera atera. Bulegoan marrazten dago August sartu denean, komandantearen bulegotik datorrelarik.

—Irratia entzun berri dut —esan du, eskuak igurtziz.

—Eta zer? —galdetu du Emilik lana utzi gabe.

—Bikain! Alemaniarrek VI. Armada galdu dute Stalingradon. Dolu nazionala egongo da Alemania osoan!

Jauziz altxatu da Emili. Aulkia zarataz jausi da.

—Eskerrak Jainkoari —egin du oihu—. Seigarrena eta zazpigarrena, denak jausiko dira. Azkar joango da, orain. Ikusiko duzu nola berehala amaituko den gerra.

Augustek harrituta begiratu dio beti erdi lokartutako gizon baten suhar ezohikoari. Emili pixka bat lotsatu da bere berekotasun zaratatsuegatik. “Eskutitza da —pentsatu du, Augustek urruneko batailari buruz iruzkinak egiten dituen bitartean—. Eskutitzak zoratu egin nau.

—Sartu bulegoan, nahi duzu? —gonbit egin dio Augustek aire larriz.

Sartu da marrazkilaria eta, behin atea itxita, eseri egin da besteak eskaini dion aulkian.

—Esango dizudana konfidentziala da —hasi da bestea—. Interesatzen bazaizu, onartu; bestela, ez erabiltzeko erregutzen dizut.

Buruz baietsi du Emilik.

—Badakizu informazio-zerbitzua daukadala jendearen artean. Beraz, ondo, baietsita ikusi dut aspaldidanik susmatzen nuena. Gainerakoak doazenean, ni bueltan nator.

Atzeko horman Augusten buruak proiektatzen duen itzala behatzen du Emilik. Mahairen argiak ez dauka pantailarik.

—*Kommandoaren* hasieratik —Augustek, jarraika—, komunistek “etxe handitik” jasotzen dituzte kontsignak...

Rubiok egun batean erakutsi zion Castroren eskutitza dauka gogoan.

—Nik ez diot ezein garrantziarik ematen harreman horri, izan ere Castro, bere agentea, jostailu bat izan delako nire eskuetan, niri atxikia egon da.

Nahi gabe, mugimendu baiezarria egin du bururarekin.

—Oraingo kontsignak ez dira hierarkikoak. Itxarotekoak izan dira. Ez dute astirik galtzen.

Norbaitek deitu eta atea ireki da.

—Ez eragotzi orain —Augustek, oihuka—. Itxi!

Kisketa ixteko altxatu da. Ganberatik paseatuz, gehitu du:

—Haiek apurtu dute politika ez egiteko taktikoki erabakitako menia. Ez nago prest hori onartzeko, ulertzen didazu? Ez da aurre egiten diedan lehen aldia izango. Bilatzen banaute aurkituko naute.

Emiliren ahots lasaia ez dator bat eszitazio harekin.

—Eta zer da zuretzat politika egitea?

Harrituta begiratu dio Augustek.

—Zer uste duzu? Hainbat kostatu zaidan obra nire muturrean desegitea da. Ezkutuan batzartu eta jendea nire aurka altxatzea, zelulak, troiak eta beste *kamandulak* ahuldu eta denon lepotik proselitoak egitea, gutxi iruditzen al zaizu?

—Konspiratzaile-ikasleak.

—Ulertzen dut jendea, ulertzen dut denontzat den janariarekin.

Eta marrazkilariaren txandari itxaron gabe, azaldu du:

—Esparru honen gaitza da nik ez daukadala sukaldearen kontrola. *Kapo* alemaniarra komandante ergelaren menpe dago zuzenean, eta horretaz aprobeztatzen dira.

—Komunistak al dira sukaldeko guztiak?

—Bat izanda, nahikoa.

—Egin al duzu zerbait?

—*Kapoarekin* mintzatu naiz. Esan dit ametsetan nabilela. Komandantearekin ere mintzatu naiz eta ikusarazi diot ezen sukaldean aginterik gabe laster etorriko direla beste istilu batzuk. Esan dit bera dagoela hemen arazoak konpontzeko. Alemaniarren ideiak! Ergel-saldoa...

Ostera ahotsa altxatu eta urrats gotorrak ematen hasi da ganberan zehar.

—Baina ez dezatela pentsa partida hau erraz irabaziko dutenik! Garaipen asko dauzkat eskuan oraindik, eta hortzekin defendatuko dut sortu dudan bake hau. Ez dut nahi axolagabe batzuek dena txikitzea. Legearen aurrean berdintasuna da nire ordena. Eta legea ni naiz, besteek bezala jaten baitut. Uste duzu, politikagatik, onartuko dudala batek gainerakoek baino gehiago jatea?

—Nola ekidingo duzu?

—Nola edo hala! Oraingoz informazioa behar dut, informazio asko. Horrexegatik deitu dizut. Hori egiten lagundu behar didazu. Zerbitzuan dauzkadan pertsonak ez didate balio.

—Nik ez dakit ezer gauza hauetaz. Gustukoa ez dudan lana da.

—Barne-harmonia hau defendatu behar duzu, zuk inork baino hobeto ikusteko aukera izan duzuna.

Alusioa barneratu du Emilik, gogaituta. “Faktura da”, pentsatu du.

—Kanpaina defentsiboa izango da —jarraitu du Augustek—. Legitimoa da nik nire burua defendatzea, salbatzeko hitz eman dudan gizonak defendatzea. Jakin beharra daukat zertan dabiltzan bazter-nahastaile hauek.

—Eta zergatik ez duzu Castrokekin hitz egin eta ikusarazten diozu...?

—Inozoa! Baietza eman eta berea egiten jarraituko dute. Hemen zer egiten dugun jakiteko ardurarik izan ez duenaren aginduak betetzen dituzte.

—Ziur nago badakitela.

—Politika egiten dute eta bost axola jendea lehertzea. Hamaika kasu azalduko nikkizuke.

Eta August zenbatzen hasten den bitartean, Emili pentsatzen hasi da ezen eskaini dioten postua, agian, kolpeak gutxitu eta batzuen eta besteen aurkako borroka antzua ekiditeko balia dezakeela.

—Onartzen dut —erabakimenez—. Orientatuko nauzu nire zeregin berrian. Eta arratsean bertan, elkarrizketa egin eta gutxira, eskutitz bat idatzi dio Rubiori, non saiatzen den Augusten obraren aurkako jarrerak dauzkan arriskuak ikusarazten.

Hiru aste beranduago, Castro Emilirengana hurbildu eta, misterio askorekin, eskutitz bat eman dio. Ileapaintzailearen erantzuna:

“Elkar trukatzeko zailtasunek nire isiltasun luzea zurituko dute, eta espero dut bidaltzen dizkizudan peperek zerbait konpentsatuko dutela. Ikusiko duzu, gutxienez, ez dela nagiatatik izan.

“Gauzak asko aldatu dira utzi gaituzunetik. Hamar hilabetetan, gertakari asko bizi izan ditugu eta, horrek ekartzen dituen burukominen ondoren, ezin gaitzke gure zortez kexatu. Imajinatuko duzu gure gaitzen iturria Metzinger dela. Nik, haren aurka zin eginda egon naizelarik, onartu beharra daukat ezen, gaur lasai egoterik baldin badugu, gure aurkamenduaren merituengatik baino haren zuhurtzia ezagatik dela. Esparruko Otto, bigarren idazkaria, delako batekin izandako diferentzia batzuen ondoren pentsatu du aukera bat egon daitekeela. Gogoan al daukazu? Elementu hark edonon aldarrikatu ohi du Metzinger kamarada gaiztoa dela eta berak haren gertakari asko ezagutzen dituela urkara bidaltzeko. Laguntza eskaini diot harenaren truke. Ez dugu deus egin ahal izaterik Otto uzkurto egin delako Metzingerrek kontrolatzen dituen alemaniarren klanaren aurrean. Zuzenean Hans Gupperengana joateko aukera egon da, baina arriskutsua izan da prozedura, zeren guri Hans Gupperrek erabakimenez lagundu gabe, alemaniarren eta espainiarren arteko gerra sor daiteke, non galtzekoak garen. Nahiz eta Metzingerrek gero eta suminago egin duen gure aurka, pazientzia edukitzea besterik ez da egon.

“Behin txekiar batek, harrobian, sudurzapitzat baliatzen zuen trapu bat atera eta urrezko haginaren zubi bat erori zitzaion. *Kapok* ikusi eta eskuratzen saiatu zen. Zorigaiztokoak garrasi egin eta iguruan zegoen SS batek parte hartu zuen. Bide batez esana gera bedi, ezen SSak ordezkatuak izan direla neurri handi batean. Nazionalitate balkanikoetako goardiak ekarri dituzte, familia-aurrekari gutxi-asko alemaniarrekoak, lehen geneuzkan eta frontera eraman dituzten hitleriar garbien oso bestelakoak. Hauek politikoki indiferente izan nahi dute eta oso kezkatuta daude konprometitu dituzten “behartutako boluntariorzagatik”. Haginen kasuan parte hartu zuen goardia ezpaloa zen. Txekiarrari ahoa irekitzeko agindu eta konprobatu zuen arrazoia zeukala. Fede onez galdetu zion zergatik ez zen saiatu esparruko dentistak konpon zezan eta, galdekatuaren erantzun iheskorren aurrean beste galdera batzuekin estutzen zuen. Txekiarrak aitortu zion ez zuela erailda amaitu nahi. Esparrura iritsita, SSK agintarien aurrean salatu zuen kasua. Inkesta bat zabaldu zen, baina Metzinger nahastua izan baino lehen, “arropa lapurtzeagatik” akabatu zuen *Blockältester*” batek txekiarra. Alemaniarrek badakite antolatzen. Suposatu daitekeenez, ez zen ezer gertatu. Lasai asko jarraitu zuen Metzingerrek.

“Aste batzuk beranduago niri egokitu zitzaidan Metzingerren aurka pertsonalki parte hartzeko txanda. Espainiar bat aukeratua izan zen eremuko zapatategian lanera sartzeko, baina Metzinger ados jarri zen kide hura bizi zen *Blockeko* idazkariarekin, eta ados jarri ziren hari deialdiaren orduaren berri ez emateko. Aldiz gaixotasun-agiri bat bidali zuten eta lehiaketan bigarren geratu zen alemaniar bat hartu zuen kargua. Protesta egin nuen Metzingerren aurrean eta elkarrizketatik aurpegia kolpez beteta ateratzea baino ez nuen erdietsi.

“Gauzak bururaino iritsi ziren Hans Gupper esparrua mugarik gabe utzi zuenean. Hogei mila gizonentzako *kommando* berri bat antolatzera irten zen, eta ematen zuen ez zela itzuliko. Metzingerrek zirkunstantzia baliatu zuen Hans Gupperren ordezkorearen bidez espainiar-multzo handi bat kargugabetzeko. Ni izan nintzen haietako bat. Eta esaten harro nago nigatik jausi zela Metzinger. Bere tokira itzuli zen Hans Gupper, “bere ileapaintzailea” hartu zuen faltan. Erabat sumindurik itzuli zen idazkaritzara. Metzingerren azalpenek ez zuten lortu haren haserrea baretzea, eta berehalakoa izan zen idazkari-aldaketa. Bere aurrekoari buruzko irregularitate asko azalduz hartu zuen mendeku Ottok, nahiz eta hortzerien afera sekretupean gorde zen, tartean zeuden konplikazio asko eta gorenak zirela-eta. Egun batzuk eman zituen Metzingerrek diziplina-konpainian, bere aurreko kideek eliminatzea erabaki zuten arte. Aukera izan nuen behatzeko nola behartzen zuten makilazoka hesi arantzadunetara atxikitzea.

“Eta dena aldatu zen. Terreno galdua errekuperatu zuten espainiarrek eta berriren bat ere irabazi zuten. Metzingerren tokian txekiar bat dago orain, oso elementu ona.

Francesc galduaren kide batek, Manuel izeneko batek, idazkaritzan lan egiten du; *kommando* on guztietan daude espainiarrak, eta Ernest bera ere kargu hobearen jabe da, pataten *kapo* egin baitute. Hainbat pribilegioren bitartez gure hasierako ametsa betetzeko puntuan gaude, ezein espainairrek ez dezala goserik pasa. Kanpoko *kommandoekiko* loturen departamendura joango gara orain, edozein jazoera dela-eta prestaturik egoteko. Esan Augusti denon batasuna behar dela datozen orduetarako, ez ditzala fantasmak ikusi. Kontatzen didazuna absurdua da. Nire adiskide zintzoa da Castro, besterik ez.”

Postdata irakurri zuen Emilik:

“Eskutitz hau irakurtzean jabetu naiz behar bada azkartasunak eraginda aritu naizela, eta agian gure egoeraren ideia ez zehatza jasoko duzu. Espainiarrentzat ona da egoera; baina gainerakoentzat lehen bezala edo okerragoa da esparrua. Berrogeialdiko esparruak lepo daude eta jendea ehunka hiltzen da egunean. Gelditu gabe lanean dabil gas-ganbera eta auto fantasma joan-etorrian...”

Interesgarria izan da eskutitza, baina Emilik inpresioa eduki du Rubio iheska dabilela. Marrazkilariak zuhurtziarako egin dion deia, maila orokorreko hainbat informazioekin erantzuten da eta, esentzialari dagokionez, lau hitzekin lasaitzen saiatu da.

Ohiz baino azkarrago altxatu da siestatik. Sotora iristean, bero heze bihurtu da kanpoko izerdia. Alkandora izerdiz bustita, dependentzietatik itzuli bat ematera atera da bulegotik.

Ernest zeruan bizi da pataten *kapo* egin dutenez geroztik, eta bere alemaniarrezko puntu goren honetan, karguari atxikita diruditen jokabide-arauekin, *parvenuren* irrikarentzat ere gehiegizkoak berauk, fideltasunez bizi da mutila. Ez da harritzekoa, haren agindupean, sukaldeko sotoa ustelkeria- eta aginte-abusuen habia bihurtu izana. Diziplina zurruna da adineko gizonentzat; gazteek, irribarre egin eta adeitsuak izanda, nahi dutena egiten dute. Txandako kuttunak aukeratzen ditu Ernestek eta jadanik ez du eragozpenik jartzen haien dorpeziak moztzeko.

Esparruko espainiarrak, talde kolektibo bezala ondo geratzen lagunduko dien zuzentasun moralean gero eta interesatuago, garbi gaitzesten dute Ernesten portaera. Askok, hura ikustean, nabarmen beste alde batera itzultzen dute burua. *Kapo* berriak ez du kasurik egiten; gaizkile alemaniarren erara, kartzelako zakur zaharrak, mundu berezia osatu du, gizarte eta moral bereziarekin, eta badaki gainerakoak alboratzen.

Nagiki, itzuli bat eman du zuritzaileen artean. Batzuek azak eta arbiak aukeratzen dituzte, beste batzuek troparako patatak prestatzen dituzte arduraz, batzuek espinaka-pila handiak aukeratzen dituzte eta, txoko batean, presoak biharamunean jango dituzten patatak lau zatitan ebakitzen dituzte, zuritu gabe. Bero patsak eragina du lanean, eta lozorroaren isiltasuna da nagusi gela handian. Alboko biltegi batean sartu da Ernest eta, atalasa gainditzeko unean, latsagien sailera ematen duen ate batetik norbaitek korrika alde egiten duela jabetu da. Iheslariaren loturarengana korrika joan eta zailtasunik gabe harrapatu du. Berrogeita hamar bat urteko espainiar bat da, pataten *kommandoan* biltegi-tako batean seme bat daukalako eta Ernesten laguna delako mantendu dena. Lata bat darama gizonak patata-kilo batzuekin.

—Nora hoa horrekin?

—*Blockera* daramatzat.

—Ez didak esango hiretzat direla.

—Ez... alegia...

Jakaren lepotik hartu eta astindu egin du *kapoak*.

—Esaidazu norentzat diren, entzuten al didak? Nork eskatu dik eramateko?

Ernestek, bere harrotasunean zaurituta, gizon haren semearekin lotzen duen adiskidetasuna ahaztu eta azkeneraino eraman izan du galdeketa.

—Harako mutil hura izan da, zeinak...

—Gezurra! Hire semeak ez zaukak premiari. Beste norbaitek kontura lapurtzen duk hik. Eta nor den esango didak! Nire aurpegira ez duk barrerik egingo, dauzkaan urteak dauzkaala.

Potea kolpe batez hartu eta zokora bota du.

—Etorri, ofizialaren aurrean hitz egingo duk.

—Ez, hori ez. Jo iezadak, irizten badiok, baina ez esan ofizialari. Ezin diat esan norentzat diren, ulertzen al didak? Ezin diat esan; ez behartu esatera.

—Oso ongi!

Gizona besotik oratu eta eskailerarantz arrastatzen saiatzen ari da. Elkarren arteko espainiartasun-izaerari erregutzen dio desesperatuki gatibuak.

—Ez, mesedez –otoizka–. Utzi eta azalduko diat.

—Esaidak izena. Egia esaten al didaan jakin nahi diat.

—Bakarka kontatuko diat dena.

Zuritzailleen gelara pasa dute ikusmin orokorraren tartean. Mundu guztiak daki zer esan nahi duen zaharra izan eta patatak lapurtzea. Solik gazteek lapurtu ahal dute, Ernesten babesa daukatenean, trukerako lapurtzen dutenek. Gaixo bati laguntzeko lapurtzea ordaintzen den delituetako bat da. Ernestek onartutako kodearen arabera, babes-eskubidea daukate gainerako gazteek, kuttunen kuttunek, SS zuzendaritzaren onespenearekin esparru osoan zehar hedatzen den ustelkeria-katearen katebegiek. Lan egin ahal duten gazteek bizi behar dute, eta orain haiek usteldu behar dira, behin irtenda, gizon izaten jarrai ez dezaten.

Puska luze baten ondoren atera da zaharra Ernesten bulegotik. Kurisoitatez beteriko kideen artean pasatu da isilik eta bere lanpostuan jesarri da.

—Jo al hau? –galde egin dio bankuko auzoak.

—Bai, –erantzun dio zaharrak, hortzak estutuz.

Pataten azalerako tresna berezien arraska entzuten da, patata zurituaren zarata urpertzara erortzean.

—Esan al diok egia? –auzoak.

—Beldurtu egin naik. Ofizialarengana eraman nahi ninduan. Gauzak ez konplikatzearren...

—Eta berak?

—Esan dik badakiela, ergel hutsak garela jokoan sartzeagatik. Komunisten betebeharrak dela azaldu nahi izan zioat eta barrezka hasi da niri bultzadak emanez. “Ergel horiek –zioen–. Hori da berak sinetsarazi nahi dizuenak. Ez al duzue ikusten merituak egiten ari dela zuen bizkarrean. “Miserable bat da”.

—Eta nola amaitu da?

—Ziok bihar zigor-konpainiara joango naizela.

—Ez da ausartuko.

—Nik uste diat oso kapaza dela...

—Ergel pinpirina! Egunen batean muturra txikituko ziotek eta orduan negar egingo dik, neskatala bat baita.

Arratsaldean eremuan sartzean, sukaldarantz abiatu da Rubio.

—Burua galdu du ala? –galdetu dio Ernesti–. Ba al dakik zertan ari haizen?

—Nik bai. Zuek bai ez dakizuela.

Begiak bulegoko mahaietan josita, aspirazio sakona egin eta ileapaintzaileak galdetu du:

—Gaur egin duana laido pertsonala da. Niretzat. Garbi asko esan diat gizonak ni eskatu dizkiodala patatak. Eta ukatu ez ezik, mehatxatu egin duk. Azal iezadak zergatik, mesedez.

—Zergatik ez dizkidak zuzenean eskatu?

—Aspaldi da ez diadala ezer esaten, Ernest. Ba al dakik zergatik? Kamarada batentzat babesa eskatu nian azken aldian, hiru egun iraun zian.

—Beste egoera batean geundean.

—Orduan ere nahi huena egiten huen. Begira, Ernest; albo batera laido pertsonala, baina maite haudanaren izenean, arratsalde honetako kasua ez salatzeke eskatzen diat. Zahar bat da eta zigor-konpainia heriotza izango da harentzat. *Kapo* alemaniarrek egingo zukean, bazakiat, baina hi ezberdina haiz. Hi ez haiz preso arrunt bat...

Biharamunean Rubiok jakin zuenean mehatxua bete egin zela eta zaharrak harriak jasotzen ari zela zigor-konpainian, burua erruki-pixka batekin mugitu zuen.

—Buruarina! —besterik ez zuen esan.

Bere jazarriaren semea baino indartsuagoa zen fisikoki eta ez zitzaion menderatzea batere kostatu mutila ukabilkadaka oldartu zitzaionean. Bertan zeudenak banandu eta inzidenteak beste ondorio batzuk edukiztea ekidin zuen.

—Egun batean ala bestean topatuko haut —erasotzaileak, mehatxuka, libratzen saiatuz—. Koldarra! Maritxua!

Leihoaren pean eserita, bere galtzerdi-pare bakarra saretzen ari da Emili. Era guztietako kolorez konponduta daude baina oraindik aldi baterako daukate; gerra bukatu arte balio beharko dute.

Mahai hurbilenean xakean ari dira bi kide eta hirugarren bat liburu bat aurrean irekita, partida behatuz distraitzen da. Burua bero du: uste du Normandiako bataila ez dela oraindik erabaki. Azken bataila, argi dago, baina... Bada hilabate irauten duela. Esparruan, urtebeteko liskar politikoaren ondoren, bake-tarte bat izan da. European aliatuen erasoaldia dela-eta hunkitu egin da August. Denak batera, militarki antolatuta, dio, alemaniarren aurkako matxinada armatuaren ardatza izan gaitzke. “Batasun Nazionaleko Gobernua”, “Armada” eta “Goi Estatu”. Duela hilabateko borroka politikoa bezain erridukulua. Aldarte aldatu nahi du Augustek: egunero ardua berriak. Gerra-prestakuntzak daude modan orain. Bukatu arte. Behar bada gaur bertan amaituko da. Bilera dago seietan. Emilik astia izango du bere galtzerdiak saretzeko. Hari-sare bat egitea, operazio delikatua. Pentsatzen du agian medikuarena ere egin dezakeela. Eremuko medikuaren lagunak dira orain. Zirujauarena egiteko maniak hartu du August; gaixoen zorionerako gutxi iraun dio. Eremuko bizimodua jada bideratua, tentagarria da alferkeria. Historain ganberako konspirazioak daude; Augustek sukaldeko konspirazioak aurkitzen ditu. Estatu-gizona, masa-gidatzailea! Emilik aitortzen du ideia txarra izan duela Augusten polizia sekretua antolatzeke enkargua onartzean. Egunero eskatzen zaizkio txandako konspirazioaren frogak.

Amaitu dute partida xake-jokalariek, eta oihuka eztabaidatzen dute. Bero egiten du. Baretasuna dago. Patioa gurutzatzen duen hori pixa egiten dagoela dirudi. Etxean ez da hori gertatzen. Pasabide-zati bat eta kitto. Etxean ere ez dira galtzerdiak saretzen! Zer nahi ote du Augustek! Berak hitz egin eta gainerakoek onartu egingo dute. Komunistek esango dute euren ordezkari pertsonala dela, partidu antolatuarena fantasia eta katuari hiru hanka bilatu-nahia besterik ez dela. Castro ezer gutxi da; ez du karrerarik egingo. Politika txarra, “etxe handiko” komunistena. “Jarraitzaileak egiteko” zalaparta politikoarekin lagundu egiten diote Augusti bere jokoan. Medikua ez da Castro baino abilagoa izan. Gustatu egin zaio Augustek publikoki komunisten burutzat hartu izana. Harrokeriak. Mururka ibiltzearen mururka ibiltzeko gogo. Benetako etsaiak, naziak, lortezinak dira. *Ersatz* topatu beharra dago... Orain gobernua, armada eta goi-estatu... Etsaia benetakoa da orain. Zerbait da. Zer nahi ote du Augustek? Gauzak gehiago konplikatu?

Xakean ari direnak “frantsesez” mintzo dira. Benetako gizona! Guraso espainiarren semea, Frantzia jaioa, ofiziala Nazioarteko Brigadetan. Aldian behin paketeak hartzen ditu. Espainiarrek ezin dituzte hartu eta nabarmenak dira inbidiak. Augustek ezin du ikusi. Gerra zibil espainiarretik datorren errealitate bat. Hartu duen lehen paketetik “frantziarrak” zati bat eskaini dionean, Augustek esan dio erizaindegiko gaixoek berak

baino premia handiagoa daukatela. Ondo erantzunda, egia esan; baina paketetako bat konfiskatu dionean, nahastu egin da. *Tiraniaren martiri* bihurtu dute komunistek. Borroka politikoa pozoitu egin da eta medikuari egindako erasoak haren frogak. Jendeak eragotzi izan ez balu, Camps deritzan ero honek labana sartuko zion. Arratsaldean pozik dago August. Masa-manipulatuak dio borroka politikoa jendearen kontzientzia indibiduala suspertuko duela, ez baititu legenardunak eraman nahi askatasunera, baizik gizonak. “Monotoniak zapaldu egiten ditu eta kezka pertsonaletatik atera behar dira”. “Elkarren artean labankadaka elkar hil dezaten?” Aski poliziarena egitea! Orain “informaziorik ez Goi Estatutik”. Are kargu *distiratsuagoa*. Gero eta dibertigarriagoa da komedia.

Xake-jokalariek “turkoa” aipatzen dute, bolada batean “frantziarra” deitua, orduan bigarren eskuko ahaldua eta orain, paketeak ez iristean, zaraman aza-enborren bila dabilena. Emilik uste du “turkoa” bezalako jendea gobernatzea oso zaila dela. Eta hainbeste daude esparruan! Augustek gizon bihurtu nahi ditu borroka politikoa eskainiz. Humorismoa! Eta kontrola eskuetatik joan eta jokoak bera arrastatzen duela ikusirik, atzera egiten du. Saiakera politikoa ondo, *batasun nazionaleko* gobernuak. Berandu hasi da gaurko batzarra. Zer nahiko du orain? Seguru asko nekatu da gobernuarekin eta armadarekin eta gaia aldatu nahiko du. Gerra ez bada amaitzen... Normandiako operazio honek gehiegi irauten du.

Galtzerdiak, jostorratza eta haria utzi ditu Emilik; saretzea perfektua da. Bere emazteari sekula ez kontatzea erabaki du. Xakelariak beste partida bati ekin diote. Ganberako jendea esnatzen hasi da, eta batzuek mokadu bat egiten duten bitartean, beste batzuek aurpegia garbitzera ateratzen dira. Talde batek, txokoan, eta arreta guztiarekin, egunkari petaindar bat irakurtzen du, kontrabandoan iritsia. Kanpoan, eguzkiak indarra galdu du, eta jendearen mugimendua hasi da. Pixka bat beranduago, futbol-partida hasi da. Marraskilariak irten eta Augusten bulegora doa. “Goi Estatuan” tokia daukaten kide batzuk, generalburuak ganbera atzera sartzeko agindu zain daude. Hamar minutuko itxaronaldia eta Augustek pasarazi egin ditu.

—Frantzia Iparraldeko operazioak uste baino gehiago irauten ari dira. Alemaniarrek eutsi egiten diote eta ez dut uste porrota etorriko denik arik eta...

Emilik pentsatzen du kasuko topiko guztiak jasan beharko dituela. Luze egiten ari den preambulua. “Ez da sinestekoa gu deitzea dakiguna azaltzeko”.

—“Batasun Nazionaleko Gobernuak” oker orientatu du bere misioa. Gure konkordiarik borroka armaturako ezinbestekoa den indar morala emango digun Gobernuak behar dut nik. Horren ordez, soilik nire jokabide administratiboa fiskalizatzen arduratzen da. Suposatuko duzue nik ezin dudala taktika aldatu. SSk ezin du deus susmatu. Jakingo balu “Batasun Nazionaleko Gobernuak” antolatuta eta bere erorketa noiz etorriko zain gaudela, gu erorraziko gaitu lehenago. “Gobernuaren” misioa ez da lan-taldeak eta eguerdiko zopa banatzea. Azken unea iritsi bitartean “Gobernuaren” eragina sinbolikoa da. Azaltzen saiatu naiz, baina inork ez dit ulertu. Eta gehien interesatzen zaidana esparruko milizia denez eta hori erdiesteko uste dudanez kaltegarriak direla ordezkariak batzuen intromisio politikoa, hemendik aurrera Goi Estatuak asunituko ditu gobernu-funtzioak. Agindua gehiago batu...

—Eta zer egingo dugu “Gobernuarekin”? —galdetu du operazioburuak.

—Desegin!

—Hau estatu-kolpe militarra da!

—“Emozio berria”, pentstzen du Emilik. “*Pronuntziamendua* da falta dena”.

Komunistek protesta egiten dute. Augustek dio “Gobernuak” ez bada ordezkariak berak dioen erara disolbatu egingo dituela Gobernuak, Armada eta Goi Estatua, dena batera!

—Hasi beharrik ez zegoen!

—Kokoteraino nago fartsa honekin.

Zerbitziburua altxatu eta joan egin da. Bertan behera gelditu da batzarra. Aulkien zarata itotzen dute protestek eta mundu guztiak, Emilik izan ezik, bakarrik uzten dute diktadore berria.

—Beharrezkoa zen —dio Augustek beranduago, bakarrik marrazkilariarekin. Eremua lozorroan dago eta esnatuko duen zigorkada bat behar du.

—Honen ondoren, soilik enperadore izendatzea geratuko zaizu.

Barre-algaraka hasi da August.

—Uste dut garau handiegia egiten ari zarela —gehitzen du marrazkilariak— eta hobe dela gauzak puntu honetan uztea.

—Niri dagokidanez, jokatzeko unea iristen denean, hobeto irizten diodana egingo dut. Gura dudana!

Luze mintzatu zaio August bere jokabidea azaltzeko. Apenas entzuten dio Emilik. Presa dauka *Blockeko* lasaitasunera itzultzeko. Azkenean lortu du alde egitea. “Ez dago zer eginik —pentsatzen du atetik irtetea—. August: Enperadorearen eta *clownaren* izena. Zein kaltegarri zaizun zure izena, August!

Rubiok, Emiliri egindako eskutitzean, eremu nagusiari buruz egin dion deskripzioa optimistegia da. Komunista batek profano bati egindako eskutitza da eta, naturala denez, ez dator bat errealitatearekin, salbu berari politikoki interesatzen zaion hartan. Batik bat zehazgabea da bi talde espainiar handien arteko harremanaz. Lortutako ongizate erlatiboa gorabehera, inoiz baino amorratuago borrokatzen dira euren artean. Emilik pentsatzen du ezen gizakion arteko berdintasuna lortuta eta bizi-maila bere punturik gorenera helduta, borroka ez direla sekula amaituko mundu honetan, eta jendea, orain bezala, borrokatu egingo dela edozein huskeriagatik. Gizakion liskartasunak une jakin batzuetan ezagutzen du tregua, non modu miragarrian interes komunaren kontzientzia sortzen den.

Holako zerbait gertatu da “etxe handian”. Espainiarren artean ugaritasun erlatiboa dagoenean komunisten eta antikomunisten arteko jardura politikoak ezohiko intentsitatea hartzen du. Hainbat urteko itxialdiak errealitatea beira kurbatu bat bezala deformatzen du. Jabetu dira ez daukatenezik eskuzabaltasunak meritu politiko izan daitekeela egunen batean. Jakiak eskura ditzakeen sukaldariak edo banatzeko arropa daukan biltegi-kudeatzaileak uste dute euren karguak ministerioak direla eta pratiduek zein erakundeek proselitismo-premiak eraginda funtzionatzen dutelarik, sukaldari edo biltegi-kudeatzaile haiek dira zuzenean buruzagiak, letragabeak izan arren. Buruzagi zein jarraitzaileak proselitoen bila grinatzen dira, aberriaren eta mundu osoaren etorkizuna eremuko talde espainiarren hegemoniaren esku balego bezala. Epelak, neutroak edo arribistak aurkarietaz baliatzen dira eta, nahi izatera, bat zein bestea sal dezakete.

Beren printzipioaren arabera abiatu dute komunistek kaptazio-taktika hau, hots atxikipena dela kontatzen duena eta konbentzimendua gero etorriko dela. Sindikalistek, aukerak galtzearekin beldurtuta, bide berbera hartu dute. *Botere ekonomikoa* adieraz lezakeen tokira iristeko konpetentzia errukigabea eta gupidagabea izatera iristen da. Proselitoak, eraginak eta are SS goardiak erosteko balio duten *dibisak* lapurtu egiten dira. Mundu guztiak lapurtzen du eta edonon lapurtzen da. Meritu zibikoa da ebaste gaitasuna eta lapurrenak heroizat hartuak izan ohi dira harrapatzen dituztenean. Agintarietaz badakite zer gertatzen den, baina ekiditeko neurriak eragin gabe bilakatzen dira, zalantza-malantzagatik. Zitalte honetatik sortutako ohituren erlaxamendua amaierako mendekua erabiltzeko baliatzen du nazismoak. Oztoporik gabe hedatzen doa pozoina. Miserableak eta pribilegiatuak, gosetia eta aseak, norberekoiak eta eskuzabalak, denak dira biktima, bakoitza bere zirkunstantzian. Gizakia gaindituta eta lepotik estututa dauka *esparruko espirituak* eta, miraririk ezean, aukera gutxi daude egoera zuzentzeko.

Espainiarren artean, oro har beste kolektibo batzuk baino jasankorragoak, austeroagoak berak, politikakeria absurdura desbideratu da “esparruko gaitza”. Oso gaixotasun latino! Amarruak, liskarrak, gorrotoak, gaitz konponezin bihurtzen dira. Rubio eta Manuel, bakoitza bere sektorearen buru, konkordia mantentzeko euren ahalegina egin arren, grinaren uharra arrastatuak izan dira. Huskeria bat izan da talkaren arrazoia: Manuelen ustezko nagikeria bat, idazkaritzako funtzionario eta talde espainiarren korrespondentzia-zerbitzuen arduraduna den aldetik. Intentzio txarrari egotzi dio Rubiok nagi ttikia; eztabaidatu eta muturtuta atera dira. Egindako hanka sartzeaz berehala jabetu arren, nagusi den liskar-giroan itota geratu dira adiskidetzeko aukerak. Motibo gorena, borroka xeblebreki antzuko hilabeteen ondoren *interes komunak* inposatu behar duen menia zuhurra, Erresistentziari atxikitako jokabideengatik Frantzia atxilotutako dozena batzuen etorrera. “Makien” kanpamenduetako aire freskoa dakarte, borroka klandestinoko eroapenean eta heroismoan mamituta datoz, Atlantikoko hesia eraisten duen uhin askatzailearen aitzindariak dira. Etsai komunaren aurkako batasuna da dakarten aginduzko hitza. Suhartasun-bulkada dago esparruan. Ahoz aho doaz etorri berrien egitandiak, eta iruzkinduak eta inbidiatuak dira. Lehengo liskarrak direla-eta lotsatuta dago mundu guztia, etorri berriek metrailetak, zubien oinarrian ipinitako “plastikoa”, ofizial alemaniarrekiko kolaboratzaileen aurka egindako atentatuak, atxilotetak eta Gestaporen kalabozaetako torturak, salatzeari uko egindakoen sakrifizioa aipatzen dutenean... Aire freskoaren, bizimodu heroikoaren, borroka aktiboaren boladak dira!

Gutxika-gutxika ahanzen joan dira garai bateko borrokatokiak eta unea iritsi da non ezinezkoa ematen duen haiek inoiz gertatu izana. “Anaiarteko konkordia” eta antzeko hitzak lehen barne-borrokarako gonbita bezainbeste grinarekin hartzen dira. Suertatu da miraria, eta espainiarrek behin betiko garaituko dute “esparruko gaitza”. Bizitza salbatu eta, gainera, anaitasunaren, altruismoaren eta txukuntasunaren ispilu bilakatuko dira. Harrokeria berri bat jarriko da modan: puritanismoa.

Erizaindegiko mediku espainiarrak, borroka absurdu hartatik bazter mantenduta, Rubio eta Manuelen arteko adiskidetasuna konpondu nahi du. Afaltzera gonbidatu eta, Rubio *Blockeko* erizaindegira iritsi denean, Manuel bere aulkitik altxa eta besarkatu egin du etsai ohia.

—Ez al zaik iruditzen zakar ibili garela?

—Aspaldi bada galdetu nahi niana.

—Bergarako besarkada bat! —sartu da medikua, irribarrez.

—Baina karlista ez nauk ni —Manuel protestaka.

“Errusiarren” *kommandora* joateko liskarrak egon ohi dira. Txanda zorrotzak antolatzeke behartuta sentitu da August, mundu guztia asetzeko. Emiliri ere iritsi zaio bere txanda, eta konprobatu ahal izan du xeblebrekeriak merezi duela.

Base iparramerikarrak oso gertu daude eta lurralde italiarretik egindako inkurtsio masiboak eskualde danubiar hartako industria-zentro guztietara iristen dira. Beste hainbeste gerra-fabrika artean garrantzi handiko bat, “boladun errodamentuak egitekoa”, desegin da. Txikiziotik libre geratu diren makinak Augusten eremutik juxtu bost kilometrora dagoen alor batean utzi dituzte, eta barraka-tailerra eraikitzeke gerra-presoa, deportatuak eta preso espainiarrak erabili dira. Sekulako presarekin burutu da lana eta laster egon da dena prest. Makinak kokatuta, espainiarren taldeak beste denboraldi bat geratu dira bertan pistak eraiki eta, ondoz ondo, premiazkoak diren zabalketak egin ahal izateko.

Emakumezkoak dira makinetan lan egiten dutenak: alemaniar mobilizatuak, frantziar “boluntarioak”, baina batik bat gazte ukrainiar asko, senargabeak, beren herritik bortizki atera eta esklabutza lotsagarrian menderatuak. Neska haiek, batik bat oso gazteak, lau zarpail baino ez daukate beren arrazari dagokion haragi-oparotasuna

estaltzeko: arropa heteroklitoz jantzita, kolore guztietako zatiz, zapata egurrezko zoladunekin, presoak bezala, zikin eta artalde-sundarekin, jasaten duten miseria guztia islatzen dute. Hizkuntza alemaniarra ezagutu gabe, sail bakoitzeko kapatazek haiei buila egiten eta bultzaka ematen dute lanegun osoa. Ikuskizun okaztagarri haren aurrean, espainiarrek beren egoera ahazten dute errukia sentitzeko eta, errusiarren bat barraketatik atera eta haiek lan egiten duten tokitik pasatzen denean, beti jasotzen dute begirada, sinpatiazko hitz edo keinuren bat. *Kapo* espainiarrak ere, interprete-zereginetan *kapo*arenetan baino, bere menekoe baino mugimendu-askatasun gehiagoren jabe, tailerrera sartzen dira edozein aitzakia dela medio. Errusiarrak laster erantzun dute sinpatia-keinu haien aurrean beren irudia ahalik eta gehien hobetuz. Beste behin garaile “eterno femeninoa”.

Goardia onberagoa dirudien egunak lotsak gainditzeko erabiltzen dira; papertxoak diskretuki mugitzen dira eta, modu irekian ala sekretuan, espainiar bakoitzak bere Natatxa aukeratu du. Gutxi izan dira, alde batean zein bestean, sentimentalki lotu ez direnak. Interprete bakoitzaren alemaniera goxoan eta kasuari dagokion hitz suhartsuz idazten dira eskutitzak, agian ulertezinak alemaniar batentzat, baina argi eta adirezgarriak Europako bi muturretako atzerritar haientzat. Lanik gabeko igandetan (garai hartan hamabostean behin), ahalik eta ondoen jantzita etorri ohi dira neskak esparru espainiarraren inguruetara eta, hesi arantzadunen artetik, zentinelan begi loguratuen pean, berriketaldi adierazezinak edukitzen dituzte presoekin ezagutzen dituzten alemanierazko lau hitz eta keinu- zein mugimendu-parrasta handiarekin. Barraketako lehioetara ateratako espainiarrak, bultzaka eta liskarka saiatzen dira bisitariei korrespondentziazko hitz bat edo irribarre bat helarazteko. Eta neskak azken trenarekin joaten direnean, espainiarrak ez dira deprimituta sentitzen; orduan hasten dira eztabaida beroak neska bakoitzaren ezaugarriei buruz, axolagabeen txiste, zuhurren sermoi eta tenorioen oilarkerien artean.

Istorio hain bakana kontzentrazio-eremu alemaniar batean soilik uler daiteke SSKo buruek espainiarrarekin duten mahuka zabalagatik. Espainiarrek ez dute ihes egiten, Hans Gupper beraren oniritzia daukate eta, porrot-egun haietan, zelo alemaniarra asko murriztu da holako zerbaitekin ez tematzeko. Modu ofiziosan zuhurtzia gomendatzera mugatzen dira, konprometituak ez izatearren.

Presoek “errusiarren” *Kommandora* joateko egunero hartzen duten trenera igota, epidemia erotikoa hark noraino egiten duen sarraskia behatu du Emilik. Gizon haiek ez dira aurreko hilabeteetakoak; euren zalaparta basora askaria egitera doazen ikasleena da. Gazteek zein helduek asteen bi aldiz egiten dute bizarra, arropa garbitzen dute aldi behin eta sekula ez dira ateratzen oinetakoei koipea eman gabe. Begirada trenak zeharkatzen duen paisaia galduta, lehen adinerantzko errebertsio hura ulertzen saiatzen da marrazkilaria. Gizon haiek, Augusten *Kommandoko* gainbehera fisiko eta morala gaituta, seguru asko gerraren amaierara iristea ahalbidetuko dien plangintza minimoan egonkortuta, ostera existentzia normalean sartzeko ezinegona da azken itxaronaldi hartan nagusi den seinalea. Bitartean, normalitate haren pozaldi, irrika, kezka eta ilusioen ordezkioak bilatzen dituzte, parodia bat osatzen dute ezagututako patroien arabera, gabezia-urteak soilik oporraldi mingarriak baino izan ez balira bezala. Politikari sentitzen dira, adibidez, gerra zibilaren aurretik euren herriko kafean sentitu ziren bezala; “gubernuak” eta “armadak” antolatzen dituzte, haren zabarkeriaz jabetu gabe, edozein gauzarekin apasionatzen dira, egin, desegin eta ostera egiten dute soilik hesi arantzadun haietatik ihes egin eta hain preso et hain ezdeus ez sentitzearren. Haur-joko bat, gizon helduek egina!

Behin lanera iritsita, *kapoak* esan dio:

—Ipini hemen eta ondo ikusiko duzu.

Ikuskizunak balio du. Gizon haien artean balio duen bakarra errusiarrekiko hurbiltasuna ala urruntasuna da. Joerak, berriketak, lana bera, pixka bat harago, barraken barruan,

lanean diharduten neskek egiten duten araberakoak dira. Batzuek begi ameslariak ipintzen dituzte “hark” begiratuta sentitzen direnean; beste batzuek oinetakoen lohia garbitzen dute “hura” pasatzeko puntuak dagoenean; ausartenek lanabes bat ipintzen dute lepoan eta, punta zorrozteko aroztegira joateko aitzakiarekin, *rendez-vous* ezkutura iristen dira, non musu isilak eta hitz beroak trukutzen dituzten maitalearekin.

—Tira, mutilak; ea lan pixka bat egiten duzuen —*kapoa*, aldika erregutuz—. Ordubeta bada geldo zaudetela.

Jendea nagiki mugitzen da pixka bat, ideia nagusiak pizteko beste aitzakia bat eduki arte.

—Orain hirea zatorrek —kide batek bestea ohartarazten. Ez al duk ikusten? Zapia burutik kendu dik gaur. Horiek dira masailak horiek, labeko ogiaren gisakoak!

Dagokionak bihotzean zerbait sentitzen du estutzen, baina ezaxola simulatzen du. Pasatzen da neska eta, komeni bada, papertxo zimurtua uzten du lurtean begiekin ulerkera-seinaleak eginez. Papera lur-zatietan geratzen da une bat, eta gero hartuko da, inolako konpromisorik ez dagoenean.

—Potoloegia da —dio batek zanga baten hondotik—. Laster fardela emango dik.

—Hori da behar dena —sartzen da beste bat—. Hola bazagok non oratu.

—Tira, ekin pixka bat lanari —*kapoak*, erregutuz—. Errieta egingo didate eta orduan...

Alarma aereoak jo dute sirenek. Lan-kanpamendutik bostehun bat metrora joan behar du mundu guztiak, zuhaitzez beteriko muino batera. Egun honetako goardia ona da; ezein SSk ez dauka gogor- edo marmarti-osperik. Zentinelek inguratutako espainiarrek okupatzen duten toki hurbila aukeratu dute errusiarrek. Hasieran, hegazkinak artean urrun daudelarik eta hurbileko hirian ateratzen duten laino artifiziala gutxika-gutxika altxatzen ikusiz, maitaleen arteko berriketak, agian konfiantza-seinale harekin atseginez, goardia ezaxolatu lerro artean egiten dira, baina aparatuen lehen taldea zeruan agertu denean eta, errekaen ildoari jarraiki ezkutatu bertikaletik pasatzen direnean, ausart batzuk goardien distrakzioaz baliatzen dira lerroa gurutzatu eta lotsagabeki beren kuttunen alboan jesartzeko. Goardiek ezikusiarrena egiten dutelarik, etsaien hegazkinez aztoratuago gazte-jende haren berotasunagatik baino, laster segitzen dute gainerakoek ausartenen adibidea. Zuhaitz azpian eta hegazkinen burrunba mehatxugarriaren pean, bikote batzuek musuka jarduten dute postal idilikoaren antzo, beste batzuek argazkiak eta helbideak trukutzen dituzte, haragokoek arretaz begiraten diote elkarri hitzen gabekia ordezkatzeko duen keinuren baten zain. Gizonak, bizarra eginda eta garbi; neskek, arduraz orraztuta (oso gutxi mantentzen dute buruko zapia) eta batu ahal izan dituzten zarpailik onenekin jantzita. Batzuek, maitalearekin, eurei ematen dieten gosari urriaren erdia partekarazten saiatzen dira, eta nahiz eta batek baino gehiagok gogoz jango luketen, denak sentitzen dira zaldun eta uko egiten diote konplimendu-erakustaldi handiekin.

Alarma pasatuta, bakoitza bere lanera itzultzen da eta maitale haietako inork ez ditu orduetako luze iritzi, ez berorik sentitu, ez zeregina, astun. Denek espero dute biharamunean ere goardia ona izatea eta hegazkin anglo-amerikarrek muzin ez egitea hitzordura bere bonbekin etortzeari.

Maitasun-birusa giro hartan sartuta dauden guztiengan kutsatu da. Nazien gazteria femininoko alemaniarrek berek, hasiera batean urrun eta gutxiesgarri “arraza eskasagoko” espiniarren aurrean, zaletu eta ukrainiarrei konpetentzia egiten amaitu dute. Ordea, *kapoentzat* erreserbatzen dira hauek, txukunago eta biserako kapela baitaramate. August bera haietako batek harrapatua izan da, babariar bat berau, eta lanak ikuskatzerako joateko aitzakiarekin, maiz ateratzen da “maitasunaren *kommandoarekin*”, sail bereziko jendeak egindako bertsoak eta opariak eramateko. Eremuan ondorioak izan ditu maitasun honek, zeren gero eta enamoratuago sentitu, orduan eta xelebrikeria gehiago egiten ditu, alde inofentsiobetan ez ezik, adibidez jantzeko moduan, barne-politikan ere bai. Gizonek, pixka bat mesfidati eta beti

maliziotsu, "Pompadour" izena egotzi diote babariarrari. Tonuan goraka doa barregarritasuna. Apaisonatuek Augusten, Castroren edo medikuaren aurkako gorrotoarekin tartekatzen dituzte maitasun-estasiak, kolore politikoaren arabera, eta askatasun egunean *garbitu* behar diren gaizkile arruntzat aipatzen dituzte: "Kabroi hau, neronek garbituko dut...". Edo Ukrainiaz mintzo dira, herrialde ideala, nora, behin gerra amaituta, "harekin" bizitzera joan daitekeen; edo ziurtatzen dute Cordoba probintziara edo Lavapiés auzora eramango dutela Natatxa. Gaztelaniaz ulertuak izateko lanak dauzkaten andaluziar batzuek ahalegin desesperatuak egiten dituzte errusiera ikasteko. Eremuko "Batasun Nazionalako Gobernuaren" eta "Goi Estatuaren" prestakuntza militarrek imajinatzen dituzte erromantikoek, nola epopeia fantastiko bat non eurek izango duten jokabide heroikoena, zapaldu guztiak askatuko dituen egitandi bat eta, zineman bezala, maitalearen tokapeta eta zorionaren musu amaiezinarekin bukatu den, "Amaiera" azaldu baino lehen.

Faktore azalgarri batzuen ondorioa da gizon haien lokatzea. Luzea itxialdia, hurbil amaiera, errealitate bihurtzeko zorian dago askatasunaren miraria. Sentsazio-, aldaketa- eta kezka-eromenaldia da. Gaur berria dirudiena, bihar lokarrarazi eta etzi grinaz betetzen du. Aireak elektrizatuta, ekaitz-mehatxua berdin amai dezake trumoikada batean zein benetako kataklismoan.

Iraileko egun batean egin du eztanda krisiak. "*Azen pronuntziamendua*" bataiatua izan den apoteosi baten erdian.

Aza samurrez betetako kamioi bat sartu da arratsaldean. Beste garaitako goserik ez dagoen arren, beti dago norbait deskargara joan eta aza-kaxaren bat lapurtzen duena, dela ostorik zurienak jateko, lapurtutako beste patata batzuekin igandean egosteko, edo dela atzapar-arintasuna ez galtzarren. Esparruko dependentzien zerrenda pasa berria du komandanteak arratsaldean eta komunak aza-ostoz mukururu aurkitu ditu. Zenbaketarako formatuta dagoen jendeari galdetu dio Augustek –komandanteak presioantuta– nor izan den ekintzaren egilea. Inork ez du erantzun.

—Autorea edo autoreak atera bitartean, ez da formazioa desegingo.

Gauza gero eta larriago jarri, orduan eta irmoago errudunen aitortzeko atzeratasuna. Inork ordura arte ikusi gabeko buru-estimuko bulkada izan du Augustek. Neurri errepresiboen artean, ilarak soildu eta aukeratutako ipur-masailak kolpatu ditu. Barne-ordenako poliziak ere "hogeita bosteko" astotik pasa dira, hobeto ez zelatatzearatik; eta seguru aski esparru osoa pasaraziko luke, hainbat diskurtsu, mehatxu eta zigorren ostean, eta batik bat presaka datorren gauaren ondoren, komandanteak berak ez balu pertsonalki parte hartzea erabaki. Lerroak desegin eta funtzioa beste egun baterako utziz erantzun die komandanteak gizonen diziplina ezari buruzko Augusten kexei. Ordu hartan *Gasthofera* atera ohi da egunero, non bere lagunak zain dauzkan.

Emili bulegora sartu denean lan bat bukatzeko, Augusten biraoak entzun ditu:

—Hau bukatu da —oihuka, sumindurik—. Makila astinduko dut berriro. Ze uste duzue? August da nire izena eta, errusiarrek iritsi bitartean, denbora daukat erakusteko noraino irits naitekeen erabakia hartzen badut. Gaur nire bizitzan lehen aldiz jo dut benetan, baina zin dagizuet ez dela azkena izango. Eta, momentuz, ez gobernurik, ez armadarik! Hemen nik agintzen dut, komunistek nahi dutena esan edo egin arren.

Irribarre egin du Emilik sudur azpitik. Aurreko egunetan egindako iragarpena, alegia Augustek enperadore izendatzen amaituko duela, betetzen hasi da.

Eta, kanpoan, lehen bezala jarraitzen du eguraldiak, baina norberaren kontzientzian zuhur jokatzeko da. Oraindik geratzen zaizkion interesik gabeko lagun eskasak galdu ditu Augustek. Gorroto dute komunistek eta, sindikalistekin kontaktu gutxi-asko amultsuak egiteko ere alboratzea erabaki dute. Azkar gertatzen ari dira gertakari militarrek, Rineraino iritsi dira angloamerikarrak eta errusiarrek Varsovia eta Budapestera sartu dira. Baina zuhurtziaren uhinak maitasunak piztutako sutea kaltetu du eta, betiko

sentimentalak izan ezik, gainerako maitale guztiek laster ahaztu dituzte errusiarrak. Aldian behin jasotzen du Augustek "Pompadourren" bisita, komandanteak emandako salbuespeneko pribilegioa, eta bakarrik eta pentsakor pasatzen da bere pijama zuri eta urdinarekin, botereak eta maitasunak sortzen dituen arazo ugaritan filosofatuz segur aski.

Urriko egun batean gerrakoak direnak izan ezik lan guztiak bertan behera uzteko agindua iritsi da eta, uraren presa axaleko obratzat hartuz, "etxe handira" itzuli behar izan du Augusten *kommando* osoak.

Tarte handia, *kommandoko* askorentzat beren atxiloaldiaren astirik handiena izan dena, amaierara iristen ari da. Lau espainiarretatik hiru hiltzen ziren garaian eremutik aterata, munduko txoko batera iritsi dira, non, salbuespen batzuk kenduta, mundu guztiak eutsi ahal izan dion. Zorte honen ondoren, abiapuntura itzultzeko perspektiba ezin da inoren gustukoa izan. Mundu guztiak ulertzen du gerra-amaiera eremu ttiki batean, hesi arantzadunik gabe eta zaintza eskasarekin, ez dela "etxe handian" bezain ankerra izango, hango harrizko hesiekin eta hango goarnizio ugarirekin. "Makisera" joan eta tropa askatzaileen etorrera matxinatuta itxarotea aipatu du norbaitek; baina erro sakonak bota ditu zuhurtziak gizon haiengan ekimen burugabe hark arrakasta izateko.

Trena hartzeko egunean eguzki gozoa egiten du. Paradisu ttiki bat galtzeko sentimenduarekin gurutzatu dute herria, geltokirantz, laurehun bat gizonek. Azken etapa ote?

Emilik berak, nahiz eta jakin eremu nagusian lehen baino askoz hobeto bizi direla espainiarrak, partekatzen du sentimendu hura. Herriko etxeek, ibaiak, geltokiak, badute halako familia-kutsu bat. Ez dira urte alaiak izan, baina haiek bizi bitartean askatasunaren itxaropena berreskuratu du. Fisikoki eta moralki deseginda iritsi zen, eta bizitzeko gustua berreskuratuta doa. Bestalde, ederra da herrialdea eta onartu beharra dauka polita izango zela herrixka geldo eta garbi hura beste zirkunstantzia batzuetan ezagutzea. Destinoak ez du nahi izan eta auskalo beste zein probatara daraman. "Etxe handian" amaitzeak ere badu bere erakargarritasuna, egia da, eta marrazkilariak gogoan dauka nola ordu garratzetan bertan egon nahi izan duen justizia-orduan. Erraustegiko sotoan jarraitzen dute bere lagunak errautsek –zehazki sailkatuta eta ordenatuta, dagozkien kontserba-poteetan, beste milakaren artean–, eta jarrera bindikatzaila espero dute beragandik. Baina Augusten *kommandoko* bizitza errutinazkoa eta erlatiboki lasaiak gorroto handi guztiak geldiarazi ditu. Milaka, dozenaka mila gizon erailek mendekua ohiukatzen dute; baina...

Haiek ikustera atera da herriko jendea. Ez dute deus esaten, baina aurpegietan sinpatia islatzen da. Hain aspalditik ezagutzen dituzte, lantokietara formazioan pasatzen ikusi dituzte! Naturala da, afektuzko isiltasunez bilduta, Emilik ezin entzutea justizia-inperatiborik. Nola pentsa errebantxatan, beste odol-isurketan, altxamendu iraultzaileetan, arratsalde hartako eguzkia hain gozoa izanik, eta jendea agurtzera aterata?

XV

Lau urte lehenago Emili eta gainerakoak ostikoka eta kulata-kolpez hartuak izan ziren geltoki berberera iritsi da trena. Zeruak, orain erreflektore antiaereoek alde guztietara zeharkatuta, tonalitate metaliakoak dauzka. Arreta aski alferrikakoa hura, hegazkin etsaiek nahiago baitute eguzkiaren argia beren sarraldiak egiteko... Lurraren parean gaua iluntzea da argizatze haren efektu bakarra. Iritsi diren lauhun espainiarrek, bidea aldapan gora hartuta, harri guztietan egiten dute estropezu, batak bestea zapaltzen du eta maiz errepideko arboletan besarkatuta aurkitzen dira. Are zailagoa daukate ilara inguratzen duten zentinelek; aldian behin fusilen eta kartutxo-uhalen hotsa eta bide-bazterrera jausten direnen biraoak entzuten dira.

—Aukera ona alde egiteko —dio norbaitek—. Goardiei lepoa egin ahal diegu, ai esan dezaten baino lehenago.

—Nora joango ginateke? —sartzen da Emili.

Danubioa izan ezik, satinak ilunpean bezala distiratsu, ez dago beste erreferentzia identifikagarriarik. Aurreko batean bide hura egiterakoan, dena zen zuri; orain, ordea, dena da beltz. Eta, hala ere, aieruak ez datoz bat kolorazio harekin. Jadanik ez dago garai bateko beldurra ezezagunaren aurrean eta, esparru nagusira itzultzeko ideia eginda, erakargarria egiten da gerra-amaiera non arriskua emozio handien palanka izango den. Ez da odolaren edo katastrofearen atsegina, baizik bizitza normalean sartzeko premia, taupakari eta nabarmen bihurtuko duen emozio-leherketen erdian. Oinazetik gabeko bigarren jaiotza ez litzateke jaiotza izango.

Bat-batean eszenografiako gaztelu baten modura agertu da esparrua. Begiak iluntasunera ohituta, liluragarria eta magikoa ageri da ikuskizuna. Harresi burgoiak eta zabalune mailakatuetan eginak zaintzako erreflektoreek argizatuta ageri dira, nola monumentuak festa nagusiko egunetan. Bide azpian eta ezkerreko aldean, “esparru errusiarreko” barrakak piztia lokartuak bezala daude, hesi arantzadunen argi-mendelak inguratuta. Ordezko esparru hura, orain hilabete gutxi batzuk amaituta eta, printzipioz, “preso hartuko diren errusiar ugarientzat” egina, egin ez direnak ordea, esparru-ospitale handi bat da orain. Milaka eta milaka gaixo, batere tratamendu medikorik gabe, janaririk gabe, lau gizon bakoitzeko hirurogeita hamar zentimetroko ohe bakarra dagoelarik, heriotzaren orduaren zain daude, pazienteki. Ez dago denborarik errematatzeko. Zentinelek, puntu mugikor bezala hesi arantzadunen kanpoaldean, masa kondentatuaren isiltasuna zaintzen dute.

Gorago, dependentzien kanpoko esparruak isla irrealia egiten du lauhun gizonen pasaeran. Efektu bitxia entzuzmenerako eta ikusmenerako, gaueko ordu hartan eremua berdina ez balitz bezala, baizik erreproduktio bat kartoi-harran. Errepideko argiek argizatzen dute lehen plano, eta urrunagokoak ilunpean desagertzen dira, jadanik interesatuko ez balira bezala.

Beste behin ireki da txinatar erako atetzarra. Zenbaketen plazaren perspektiba guztia, erreflektoreen argiak gogorki argizatuta berau, babesgarri ageri da datozenentzat. Zenbat irudi dakartzan bakardade desolatu hark, argi bortitzeko foko haiek!

Goardiako SS batzuk eta preso batzuk ageri dira segizioari harrera egitera. Lagunak errekonozitzen saiatu da Emili, baina ez du jakiterik izan aurpegi ezezagunak diren edo janzkera zibilak desitxuratuta dauden; kontua da ez duela inor ezagutu. Haietako batek hitz egin dio:

—Agian ez nauk gogoratuko; Rubio mintzatu zaik nitaz. Manuel naiz.

—Gogoan zauzkaat —erantzun du Emilik lausoki.

—*Popeyeren* barrakan zerbitzatzen egon nauk. Nire lagun handia Francesc izan da.

—Denbora asko igaro da...

—Zuen zain egon da Rubio tarte handi batean, baina ez da oso ondo sentitu eta lotara joana da. Bihar ikusiko hau.

Gauzak nola doazen galdetu du marrazkilariak.

—Oso animatuta gaudek. Gerra amaitzen ari da eta hau asko aldatu da. Espainiarrak ondo tratatuak gaituk orain.

—Eta gainerakoak...

—Gainerakoak inoiz baino okerrago...

August, bitartean, gora eta behera doa batailarako indarra prestatzen ari den general bat bezala.

—Jendea lozorroan dago —dio ozenki—. Saiatu zaratarik ez ateratzen eremua gurutzatzerakoan.

—Zer moduz August? —galdetu du Manuelek—. Gizon inpartzial baten ahotik entzun nahi ditut gauzak. Hemen oso eztabaidatua da.

Destinatu zaion barrakarantz abiatu da taldea. Erraustegi elektriko baten tximiniak bere suzko mihia ateratzen du eta ke ilunak, gar errearen sundarekin, lurreraino iritsi eta Emilik jada ahaztuta daukan erredura sortzen du eztarrian.

Txarra izan da gaua. Ehun gizon sar daitekeen toki batean laurehun instalatu dituzte. Batzuek alertu gabe marmarrean eman dute gau osoa eta, dianak jo duenean, ez da denbora asko igaro Emilik loa hartu duenetik. Esmatzean beste esmatze bat gogoratu du, lau urte lehenagokoa. Hezurretako gaitz berbera, izerdi berbera, soilik orain *Blockältesterrak* lasai jantztea uzten duela, eta begirunea eta txera adierazten die etorri berriei. Funtsezkoa da aldea, eta Emilik prezioa neurtu du: bost mila lagunek beren bizitzarekin ordaindu dute.

“Kafea” hartuta, lehen bisitariak iritsi dira. Orduan jakin du Emilik *2 zenbakiduneko esparruan* bizi direla eta barraka-itxiturak laurogei eguneko bakartzea esan nahi duela. Zibilez jantzita dabilta bisitariak, bizkarraren erdian eta galtzen alde banatan kolore gorriko pintzelada zabalekin. Kalitate onekoak dira arropak, eta egokiak ere bai. Uniforme marradunak ahituta, hildako presoek jantzi zibilekin ordezkatu dituzte. Oinetan ere zapata zibilak dauzkate, normalean ondo lustratuak. Galtzarbean ogi batekin etorri ohi dira edo margarina-zein azukre-paketeekin, egun osoan iraun du ilara hark eta ez dira elkartu urrengoetan. Talde espainiarrak bere baliabideak mobilizatu ditu “kanpotarrei” ongietorri ona egitearren.

Emilik ere bisitak eta opariak izan ditu, ez beti alaitasun berberarekin. Naiz eta aitortu esparru zaharreko kideek (orain 1 zenbakiduneko esparrua) ondo egiten dutela urte txarretatik kitatzen, izugarri lazgarria iruditen zaio gutxi batzuk biziraun ahal izateko asko hiltzera behartzen duen legea. Beste nazionalitate batzuetako eskeleto haiek, arropa zikin eta zirpilduekin zarpail, oinutsik, abrigorik gabe, kapela barregarriekin estalita, denbora ona egin arren hotzez uzurtuta, berrogeialdiko esparrua betetzen duten zorigaiztoko haiek, Lublin eta Auschwitzeko esparruetatik etorri eta gose-begiekin espainiarren taldeen inguruan dabilzanek, azken orduetako horrore guztia dakarte aldean, non ez duen balio gizatiarra den edozer. Batik bat, 12 eta 14 urteko juduek obsesionatzen dute marrazkilaria, gizakien ankerkeriaren esperientzia izugarriaren jabe direnak.

Dena asaldatuta sentitzen da Rubio iritsi denean.

—Ez diat zuen indiferentzia ulertzen ikuskizun honen aurrean —bota dio besarkatu ondoren—. Hainbesteraino aberetu al zarete?

—Harrituta, ez da? Beharbada zuek paradisuatik zatozte!

—Zuen ugaritasuna probokazio bat da.

—Ez dago bi aldiz afaltzen duen espainiarrik. Mantendu egiten gaituk eta kitto. Biltegietatik lapurtzen dugunak ez zioz kalterik egiten eremuko anoari. Lapurtuko ez bagenian, inork ez zukeen deus irabaziko. Sukaldean oraingo lapikokada berbera egingo

lukete. Etortzeari uzten ez dion jendetza da arazoa. Jende txirotua, arrastaka doazen hilotzak. Zer nahi duk guk egitea?

Bere eskrupuluak lekuz kanpo daudela ulertu du marrazkilariak eta ez du insistitu.

—Bere gosearen erantzule bahintz bezala begiratzen diaten hauek —ostera Rubiok— kontzentrazio-eremura sartu berriak dituk eta ez zakitek ezer gure portaeraz. Ziurtatu zezakeat beheko eremuan ez dagoela inor espainiarren aurka ezer esan dezakeenik. Kosta egin da honaino iristea; baina...

Espainiarren arteko elkar-ulermenari buruz mintzatu da gero.

—Honek ez zukak garrantziarik —ukatu du Emilik, oraindik bere umore txarraren menpe—. Sabela beteta beste era batera ikusten dituk gauzak.

—Presondegi-giroa gainditzea da gure meritua. Gaizkileen artean pasatu ditiagu lau urte, berekoikeria amorratuaren giroan, heriotzaren mehatxupear beti, eta gizon bihurtzen jakin diagu.

—Baliteke —onartu du marrazkilariak—. Onartzen diat gauza asko ahaztu ditudala.

—August? —ebaki du ileapaintzaileak, berriketaldia astundu aurretik—. Gogo handia zaukaat harekin mintzatzeko.

—Borrokatu egingo zarete.

—Berdin zio. Ikusi eta bere jarreraz pentsatzen dudana esan nahi zioat. Harago iritsi nauk. Jakina —ostera—, kontatzen direnak egiazkoak baldin badituk... Ideia zehatza osatzen lagunduko didaala espero diat.

Bere ikuspuntua azaldu du Emilik: Augustek egindako arbitrariotasunak defendatu gabe, haren lanean egondako on guztia nabarmenu du.

—Ez diat ulertzen zergatik azken unean...

—Nik ere ez. Alferrik nekatu diat burua azken aldion. Txaloekin ordituta, bere oreken gazteluari gero eta tresna gehiago gehitzen dizkion zirkuko artista da, arik eta dena burrunban jausten den arte. Esperimentu baligarriak egiten hasi eta absurduak egiten amaitu dik.

—Harekin hitz egiteko gogoia zaukaat, ikusarazteko...

—Alferrik izango da. Denbora galduko duk; gehiegi ezagutzen diat...

Rubiok alde egin duenean, barrakatik itzuli bat eman du Emilik. Espainiarren talde askotan mintzatzen da Augusti buruz, eta behartu ahal izan du ezen, haren aurrean zuriketarietak izan direnak orain gogorren mintzo direnak direla. Nazka-sentsazioarekin itzuli da bere *Blockera*. Sarrerako atean, errusiar bat amorratuki kolpatzen ari da *Blockältesterra*, espainiar bati ogi bat ebasteagatik.

Ordu batzuk baino ez dira Emili esparruan sartu dela ahal izatera gerra amaitu arte bertan egoteko intentzioarekin, baina osteria itzultzeko gogo eutsiezinak sentitzen ditu. Augusten *kommandoa* ez du arropa zibilik jantzi, ogi askorik ere ez, margarinarik ere ez, baina lasai bizi izan da. Egiazki, esparru nagusia asko hobetu da espainiarrentzat, baina Herioak inoiz baino uzta ugariaga egiten du, espainiarrak izan ez arren, gizon izaten jarraitzen dutenen artean. Hilabeteak iraun ditzake oraindik gerrak; begiak itxi al ditzake, sorbaldak jaso, amaiera itxaroten?

Hamabost egun baino gehiago dira espainiarrak 2 zenbakidun esparruan daudela, eta oraindik ez da ezer erabaki haien kokapen definitiboaz. Ez dituzte ezertara behartzen. Euri-bolada igarota, esparrua basatza igaroezin bihurtuta, egunak barraka ziztrinean pasa beharra dago, hain ttikia lauhun gizonentat, maiz ez dago txokorik lurrean jesartzeko. Estutasunak, inaktibitateak eta, batik bat, inguruko miseriaren espektakulu maskalak laster eragin desmoralizatzailea ekarri die aire librean lan egiteko ohitura duten gizon haiei. Gogaitzeak umore txarra, minberatzea, joko basatiak, edo ekibokoak, gaizkiesateak eta lehiak dakartza.

Hastapenean alemaniarrek, behin-behineko konponketa bezala, espainiarren taldekak banatu dituzte berrogeialdi-itxiturako beste barraken artean; baina errusiarren

aitzinamenduaren aurrean ebakutzen dituzten kontzentrazio-esparruetatik eratorritako beste nazionalitate batzuetako espedizioen etorrerak ehun pertsonentzat kalkulaturako barraka batean lauhun gizon pilatzea ekarri du. Gizonak banaka, zutik eta ilaran ipini behar dira; bi ilaraka, seinalea emanda, atzekoz aurrera etzaten dira, denak alde batera deskantsatuz. Gorputzak lehertuta geratzen dira eta ziur aski, norbait oinez pasatu izan balitz giza alfonbra haren gainean, ez luke hutsunerik aurkituko bere oinpean. Pixa egiteko altxatzeak tokirik ez aurkitzeko arriskua dauka. Sistema hau erlatiboki eroso da beste barraka batzuetan, non *Blockältesterrak* zigorra beti eskuan doazen eta gizonak giltzurrunetan ostikoz betetzen dituzten; baina espainiarrak orain arreata bereziarekin tratatuak izan behar dira, Hans Gupperren aginduz. Tortura luzeak dira gauak.

Goiz batean, "kafearen" ostean, barrakatik irten da Emili. Lainoa izotzezkoa da, baina aire zabala behar du. Auzoko *Blocketako* populazioak, diana joz geroztik kalera jaurtikiak erretiro-ordura arte ostera ez itzultzeko, hotzari aurre egiteko ahalegina egiten dute. Ezinezkoa dirudi txorimaloen janzkera haien pean gorputz bizidunen taupadak egotea. Alferrik bilatzen dute babestokia brisa zorrotzaren aurka, makurturik, eskuak poltsikoetan hondoratuta, oinak kolpatuz eta dardarka asaldaturik. Haietako asko, elkarri beroa emateko batzen dira, erleek zuloa uzten dutenean bezala. Multzoa handiegia egiten denean, multzoa astiro-astiro balantzaka hasten da, gelatinazko ogi bat balitz bezala, gorputzen igurtziak epeltasuna areagotuko duen esperantzarekin. Batik bat eslabiarrak dira mahats-mordoa balitz bezala batzeko modua daukatenak, laster hasten dira beren arrazaren malenkoniaz kulunkatzen eta, kulunka haren erritmora, koral infinituki tristeak abesten dituzte. Abesti ikaragarri nostalgikoek, patriotikoek, erlijiosoek edo herrikoiek betetzen dute airea, murrak eta arantzazko hesiak harrapatuta.

Emilik ordu hotzak pasatzeko modu hura aurkitu duen goizaz geroztik, nazka handiagoa sentitzen du bere nagitasuna eta gehiegizko bitalitatea daukaten bere kideekiko. Adibidez, ezin du ulertu, eslabiar-multzo haren kontra, dibertitzeagatik, arietez oldartzen diren haien basakeria, bare-algara ergelean deseginez.

Emili lotsatuta sentitzen da espaniar askok desbabestuen masarekiko kontaktuetan erakusten duten destain instintiboagatik. Neurri batean normala irizten dio *Blockeko* zuzendaritza daramaten gaizkile arrunt alemaniarrek, behe hondoetatik aterata, *Herrenvolk* teoria arrazistak pozoinduta, besaniaz gidatzen uzteari; baina espainiarrei dagokienez, kasua bestelakoa da. Ez espainiarrak direlako, "gizon ideiadunak" direlako baizik. Gerra zibila egin berria dute eta orain atxiloaldian daude kausa batengatik. Seguru era horretako doilorkeriak egiten dituztenek ez dutela inolaz ere onartuko tamaina honetako destain inkontziente horren errealitatea. Baina egitateak ez dira gezurtiak. Beti higuigarria da miseria; ulertzeko, egoera hartan exijitza zaila den izaerazko osotasuna behar da.

Mutil frantziar batek, xede nahasiengatik *Blockältesterrak* erasotua berau, defendatua izan den exaltazio kolektibo berberak baietsi berri ditu. Sentiberatasun-bolada kixotear hark, alde aurretik antzutasunera kondenatua berau, batik bat erreparazio-premiari erantzuten dio. Mugimendu kolektibo espainiar askotan behatutako fenomeno da, alegia inzidente xume batek katastrofe urrun batek baino garrantzia handiagoa hartzea. Honela gertatu da auzia:

Blockältester alemaniarrek beren administratuetariko gazteenak aukeratzen dituzte barrakako garbiketa-zerbitzurako. Babesteko modu bat da, izan ere aukeratuek janari-anoa bikoitza baitaukate; baina maiz babes iraingarria. *Blockältasteak hareneko* kuttunena aukeratzen du, eta alferrik da edozein erresistentzia.

Espainiarrak bizi diren barrakako zerbitzuko mutikoen artean hamazazpi urteko frantziar bat dago, "makikoa" izateagatik detenitua, moduetan delikatua, triste samarra eta beldurtia eta otzantasun kanino ia desatsegina duena. Mutikoak bere betebeharra

egiten du doi, eta zuhurki egiten die iskin bere babeslearen hurbilketei. Arratsalde batean, bere mahaian eserrarazi eta arratsaldeko on bat eman dio. Alemaniarrak esandakoan zer espero duen harengandik, mutikoak alde egin du mahaitik eta, dardarti eta mainaka, espainiarren artean babestu da laguntza eske.

Hurrengo eguneko eguerdian, *Blockältesterrak* beirak nork garbitu dituen galdetzeko komedia egin duenean, oso ondo dakiena, noski, eta frantziarrak bere burua aurkeztu duenean, mundu guztiak susmatu du gertatuko dena. Hain zuzen, eroaren pare builaka hasi da alemaniarra beirak pixkatxo bat zikin daudelako, ez duela alferrik nahi bere zerbitzuan, jateko lan egin beharra dagoela... Hitzetatik kolpeetara pasatu da eta mutikoa aurpegia hanpatuta atera da. Arratsalde erdia txoko batean uzurtuta eman du, arik eta *Blockälteesterrak* ostera berarekin arratsaldekoa egitera gonbidatu duen, "ziur dagoelako orduz geroztik arrazonagarriagoa izango dela". Frantziarra negar-zotinka hasi da eta espainiarrei odola irakiten jarri zaie. *Blockältesterra*, iraindua eta mehatxatua, bere esferan egindako sartzeaz protestaka hasi da, paroxismoraino sumindu da eta amaitu du esaten ez duela inolako begirunerik izango espainiarrekiko eta besteen parean tratatuko dituela. Frantziarraren babesleek uste izan dute kitzikagarria dela intzidentea eta eskandaluak tamaina izugarriak hartu ditu. Parte-hartzea erabaki du Augustek, baina bere aberkideen alde garbi asko jartzean, agian egiten ari zaion kanpainari kontrapisua jartzearen, gauzak konplikatu baino ez ditu egin.

Gaua iritsita, jendea lotarako antolatzean, alemaniarrak bere mehatxua bete du: zigorra eskuetan agertu da. Ez du altxatzeko denborarik izan, luze-zabal erori da, okotsean ukabilkada hartuz. Oso indiziplina-kasu larria. King-kongen aurrean aurkeztu eta dimisioa eman du. *King-kongek* ez du bideratu, Hans Gupperrek, espainiarrekin hain ondo konpontzen delarik, gaizkile alemaniar arruntak bere zuzendaritza-karguetan ordezkatzeko aukeratuko ote duen beldur. Nahiago izan du berrogeialdiko esparruan goizean goiz azaldu, espainiarrak batu eta haiei diskurtsu diplomatikoa egitea.

—Esparrua den bezalakoa da —esan du besteren artean—. Noblea da zuen erreformatzeko desioa, baina alferrikakoa. 1 zenbakidun eremuko zuen kideek, duela urte bete hemen bizi direnak berauk, ondo dakite eta ez dute denborarik galtzen emaitza onik ekartzerik ez daukaten jokabideetan, eta bai buruhauste ugari denontzat. Ahaztu intzidentea; utzi *Blockältesterrak* gauzak bere erara antolatu eta bakoitzak bere arazoak konpontzen. Denok nahi dugu etxera itzuli, non bizimodua ez den hemen bezain ankerra, baina pazientzia eduki behar dugu, hau ez baita luzatuko. Eta azken uneotan ez konplikatu bizi.

Espainiarrek ulertu dute *King-kongek* aldarrikatutako indiferentzia, ezer konpontzen ez duen arren, arazoa bukatzeko modurik onena dela. Hainbeste arazo berdin edo askoz okerragoak daude esparruan. Erredentore izaten jarrita, urte askotako zeregina dago. Augustek eskatu du ezen, errepresaliak ekiditeko, frantziarra 1 zenbakidun eremura eramana izan dadila. Onartu egin du *King-kongek*, eta arazoa konponduta geratu da.

Emilik uste izan du ezen itxura guztiak gorabehera, *esparruko espirituak* bere obra deseuztatzailea egiten diharduela. Zigor-erregimen alemaniarren basakeriak "argudio zuhurak" aurkitzera iristen da gaizkiaren aurrean berekoikeria eta indiferentzia zurrizteko. Aberetxea trufaria da, baina gupidagabea.

Biharamunean inork ez du frantziarra gogoratzen. Beste berriketa-gaia sortu da: kanibalismoa. Eslabiar bat, muturreko gosearekin, goizean erraustegira eramateko zain hildakoak uzten diren komunetara sartu da, eta zerra-zati batez egindako labana inprobisatu batekin, haietako baten sabela ireki du. Ez da lehen kasua izan eta ez da azkena izango. Antropofagoa harrapatua izan da, hurrengo goizean oraindik aho ingurua odol lehorrarekin bustita daukalako. Ordu batzuk beranduago, jipoiez erdi hilda, barrakako langa batetik zintzilikatu dute.

Sekretu zorrotzak ez du eragozten 20. *Blockaren* barruan, oso harresi altuz inguratutako zulo bat berau, gertatzen den xehetasun izugarriak ezagutzea. Diote ezen barraka hartan internatutakoak zuzenean Gestaporen mende daudela eta eremuko bulegoek ez dutela inolako kontrolik eramaten. Hala ere, SSak dira hesiaren txokoetan altxatzen diren bi dorre armatuen gainetik zelatan daudenak.

Heriotzara kondenatuentzat, traizio handiagatik zigortuentzat, erregimen naziaren aurkako jardun garrantzitsuen errudun direnentzat erreserbatuta dago 20. *Blocka*. Gauean sartuak izan ohi dira, udako uniformeaz jantzita, barruko arroparik eta oinetakorik gabe, eta bi hegaletako barraka baten kabida normala berrehun lagunekoa izan arren, espazio berberean mila eta bostehun lagun baino gehiago sartzen dira. Ez surik, ez burusirik, ez oherik, ez koltxoirik, ez inolako altzaririk, behin eta berriro berritutako jendetzak gose, hotz, gaixotasun eta terrorezko agonia motela arrastatzen du. Maiz "sua egin behar delakoan", multzoka eramaten dituzte, edo SSko agenteek gas-ganberara, haizkorakadaz edo tiroka hiltzen dituzte Gestapoko edo SSko agenteetako emozio bortitzen zaleek. Pilatua izateak ez du ahalbidetzen etzanda edo eserita egoterik; ero bihurtu eta bata bestea itotzeraino borrokatzen direnen builak, txirotzerik muturrenekora iritsitako giza masaren indiferentziazko isiltasuna apurtzen du aldika.

Blockaren barruan goardia egiten duten bi SSek soilik pistola eskuetan hartuta mantentzeko beren autoritatea. Gutxirako balioko lieke, jakina, atxilotuen suntsitze fisikorik gabe. Hala ere, goardiako txanda batek garesti ordainduko du pistola bat den arma ttikiaren konfiantza.

Erruz ari du elurra abendu beteko igande goizean, eta hogeitau austriar sartu dira "heriotzaren barrakara". Euren artean berrogei bat urteko gizon bat doa, altua, eite dotorekoa, beren kideen artean autoritatea duela dirudiena. Garai bateko armada austriarreko, orain alemaniako, ofiziala ote den esaten da, goi mailako traizioz akusatua. Hogeitau austriarrak kolpeka eta bultzaka barrakara iritsi direnean inor ez dago lotan: etorri berriak dira SS batzuk, eman dizkieten metrailadore berriak armarik gabeko jendetzan funtzionatzen ote duten frogatu ondoren. Une hartan eta goardiako bi SSen agindupean, hilotzak arrastatu eta odol-orbanak uzten dituzte zonaldean. Zauritu batzuk jendetza erotuaren artean ezkututzen dira, hilotzekin arrastatuak ez izateko, eta beren negarrak gorroto eta terrorezko garrasi orokorretan disimulatzen dituzte. Etorri berriek apenas uler dezakete egoera berria, txotxolotuta baitaude. Bitartean, SSek zigorkadaka ezartzen dute isiltasuna. Ilunpean, giza talde hura har-pila bat bezala saiatzen dira atsedean ezinezkoa aurkitzen. Marmar gotorrek, sinestunen otoitzek, besteen biraoek, zotinek, kexek, hala eta guztiz ere lo daudenen arnaskera errimatuak, desesperazioaren ahots bakarra osatzen dutela dirudi. Aldian behin, erotu berri den norbaiten txistuak apurtzen du erdi isiltasun hura.

Gau osoan ez du lorik egin ofizial austriarrak eta, biharamun goizean, mamitu duen plana betetzea proposatu die bere kideei. Zereginak banatuta, konplize gehiago bilatu eta aukeraren zain geratu dira denak. Juxtu eguerdiko ur zikina edan eta esandakoa egiten hasi dira konjuratuak. SS baten berahalako etorrera baliatua izan da. Atea ostiko batekin ireki eta atalasean mantendu da goardia, zigorra eskuan. Haren "ixo" oihuak ez du istilua menderatu. Zigorra altxatu eta, amorruez, masarengana oldartu da. Orduan, tigreak azkartasunarekin, konfabulatutako batek lepora egin dio salto, eta beste batek zorutik ateratako egur batekin pistola daraman eskuan kolpatu du. Harriduraz-edo, isiltasun sepulkrala egin da. Garbi asko entzuten da *Blockaren* beste hegaleko zarata, non bigarren SSak tranpa berbera jasan duen. Pistola jaso du ofizial austriarrak, zigorra bildu beste batek eta, lasaitasuna eskatu ondoren, barrakaren beste hegalerara sartu dira. Matxinatuek ez dute halako suertetik izan. Logelako atean mantendu eta tiro egiteko mehatxatzen du SSak, jendea ez bada isiltzen. Baina jantokiko atea ireki denean haren atzean eta, itzultzean, ikusi duenean preso batzuk bereganatuz armaturik,

bizkarra eman dienek baliatu dute haren zalantza-unea. Inpotentzia gorrian geratu da. Tiro egin diote bere pistolarekin. Haren gorputza zulatu ondoren, zoruan sartu da bala. Hiltzeko denborarik ez du izan eta presoetako batek haren uniformea jantzi du. Galtzen gerrikoan sartu du pistola ofizial austriarrak; bere ondoko batek gauza bera egin du beste armarekin, gainerako presoak goardien hilotzekin amorratzen dira.

Ofizialak alemanez eman ditu instrukzioak, errusiar batek egin du itzulpena eta, soilik oso une larrietan gertatzen den berezko diziplinarekin, mundu guztiak isilik obeditu du. Oraindik abentura izugarri hura egiteko indarra daukatenez adostutako oihua entzuteko prestatu dira. Gaixoak, akituak, altxatzen eta kideei jarraitzen saiatu dira, baina askok etsi egin behar izan dute.

Indartsuenen artean dozena bat gizon aukeratuta, barrakako biltegiko palak banatu eta ofiziala kalera atera da haiekin, sasi SSa atean geratzen den bitartean; soilik jantzen duen uniformea ikusten du dorreko zentinelak. *Kapoa* balitz bezala banatzen ditu ordenak ofizialak, erlastu arte oihukatzen du eta, aldian behin, zigorkadak banatzen ditu uhalarekin. Dena da hain normala, zentinelak ez da mesfidatzen.

—Tira, tira —oihuka austriarrak—. Hamar minututan, dena garbi. Dena garbi, ulertzen al didazue? Elur guztia, zokora. Zokora, esan dut! Zu, ez al didazu entzuten? Azkar, tira!

Aterrunerik gabe mugitzen dira palak. Kaleko elurra, oso ugaria azken elurteen ondoren, palaz pala doa multzo bakarra osatu arte, dorre armatuetako bat altxatzen den hormaren angelu bereberetan. Pixkanaka gora doa bilduma. Gizonetako batek bere palaren xafolarekin zapaltzen du. Sasi *kapoak* oihuka jarduten du eta *Blockeko* ateko sasi SSa ere oihuka eta zigorra astinduz ari da. Gizonak, bitartean, zain daude jantoki eta logeletan, eskuak ateetako eta leihoetako eskutokietan, adostutako seinalearen zain. Lana bukatzeko zorian dagoela *Blockera* sartu da ofiziala, elurak hormaren erlaitz berbererainoko erripa sortzen duenean.

—Ba al dakik su-itxalgailua erabiltzen? —galdetu dio pistola daraman kideari.

Jabeturik ez dela ulertua izan, inpazientziatzat errepikatu du:

—Bai, gizona. Suteetako itxalgailua, Minimax delakoa.

—Noski —erantzun du besteak—. Zergatik?

—Zentinelei eraso egiteko. Ez al duk ulertzen? Ez diagu azazkalekin egingo!

—Eta pistolak? Seguruagoak dituk.

—Ez uste.

—Baina...

—Hik hartu su-itxalgailu bat eta nik bestea. Hire xedea erripako goardia da. Atzeko leihoetik aterako haiz, hormatik hurbilen dagoenetik. Aldi berean, hi —sasi SSari zuzenduta— asaltorako oihua egingo duk. Azkartasuna eta erabakimena. Zalantzarik ez! Errainua begietara bideratu behar da!

Bi Minimaxak desesekiak, aztertzen ari da erabiltzailea.

—Hire zeregina dorreko fusil metrailadoreaz jabetzea da —esan dio ofizialak, beste su-itxalgailua desesekitzen duen bitartean—. Ez dezala denborarik izan metrailadoreari eragiteko. Gauza bera egingo diat nik zentinelarekin.

Elkarri bostekoa eman eta banandu egin dira xede bakoitzarekiko hurbilen dauden leihoetarantz. Jendeak kuriositatez eta emozioz begiratzen du maniobra, eta hain erabatekoa da isiltasuna, esango zenukete ehunka gizon haiek eutsi egiten diotela arnaskerari.

Soilik bizia- ala heriotza-egoeratan posible den mugimendu-zehaztasunarekin, erasoaren bi aitzindariak ia aldi berean leihoak ireki eta kanpora egin dute salto. Zentinelek, ezer somatu baino lehen, begietan daukate errainu kaustikoa. Sasi SSak txistu zorrotza egin eta ate zein leihoetatik atera dira gizonak. Minimaxa jaurti eta ofiziala hormaren bestaldeko angelura joan da, elurreko erriparantz. Ikusi du bere kidea dorreko eskaileratik jausten, metrailadorea lepoan. Ez da inondik ikusten zentinelak;

goitik behera jaurtia izango zen. Erlaitzaren gainean batu dira bi lagunak. Ondokoak beste aldeko dorreko zentinelari destatzen dio arma.

—Ea isiltzen haizen, ergel hori.

—Ez, ez egin tiro —ofizialak, ohiuka—. Gorde munizioak.

Jendea elur zapalduko erripatik presaka igotzen ari da, bigunegia hainbesteko zamari eusteko. Salto egiten lehenak izateko presarekin elkar nahaspilatuz doaz, eta igotzea lortzen duenak ez dauzka gogoan atzetik datozenak eta esku baten laguntza eskatzen du. Horman zangalatrau eseri dira bi buruzagiak eta, tarte luze batean, gizonak igo eta igo besterik ez dute egin. Heriotza ziur batetik iheska doaz denak ia hain segurua den besterantz joateko; baina elurraren gainean hilgo dira, zerupear, zuhaitz artean, ihes egiterik daukaten tokian, hiltegiko izugarritasunera ardiak bezala ez dutela etsitzen erakutsi ahal dutenean.

Zentinelak garrasika dago. Ezin du tiro egin, zeren begietan likidoaren erretura sentitzean, erori egin baitzaio metrailadorea; baina berdin lortu du esparrua alarmatzea bere oihuekin. Joka hasi da sirena eta badatoz SSen lehen indarrak dorrearen muturrerantz, nondik jendeak multzoka ihes egiten duen. Beste dorre guztietatik metrailadorearen tiro-sortak hasi dira sortzen: ofizialak eta bere kideak buru gainetik ziztuka sentitzen dituzte balak. Jadanik ez da posible erripatik igotzea, elurra erabat zapalduta baitago; plomuan igo behar da jendea.

—Goazen hemendik —dio ofizialak—. Hemen ezin da deus gehiago egin.

Ehunka beso laguntza eske, oihuak, negarrak eta biraoak marmar ilunean nahastuta daude. Basatasunez elkar borrokatzen dira hormaren oinaldean daudenak.

Burua biratu du ofizialak. Muinoaren jaitsieran, elurrez bustia, iheslarien multzo sakabanatuaren puntu beltz eta mugikorrek nabarmentzen dira, behingoz beste aldeko pinudiaren orban beltzarekin nahasten diren puntu beltzak. Gehiago itzarotea galtzea da. Bi gizonak salto egin dute hormatik, armak eskuan, tiro egiteko prest. SSak aldapan behera datoz, eta toki ezberdinetik sutan daude fusil metrailadoreak. Puntu beltz haietako batzuk bat-batean gelditzen dira alfonbra zuriaren gainean; beste batzuk azkar asko irristatzen dira basoaren babesaren bila. Ofiziala eta bere laguna ere korrika doaz zuhaitzen bila, alde guztietatik soldauden sua ugaritzen den bitartean. Bi gizonetako bat erori egin da; eremutik ez dago jakiterik nor den, baina ikusteak bestea atzerantz datorrela, zerbait hartu eta lasterketari berrekiten diola, suposarazten du ofizialak ez duela eroritako kideak zeraman arma automatikoaren laguntzari uko egin nahi.

Zazpiehun bat gizonak egin dute ihes. Bizpahiru ordu iraun du ehizak. Batzuk hotzez eta gosez hil dira; beste batzuk SSen tiroek harrapatuta erori dira. Hilotzez mukurru agertu dira auzoko basoak; baina herrialdean mobilizatu diren arren, ehizaldia amaitutzat jo denean, ez bizirik ez hilik aurkitu ez diren berrehun bat gizon falta dira.

Gero jakin da kementsu haietako bospaseik, etsaien atzealdeko gerrila-gerran espezializatutako militar errusiarrak berak, armada gorriko aurrekaldera iritsi eta salbazioa lortu dutela. Gaur egun SESBko heroiak dira. Baina gainerakoei buruz, deus ez. Populazio zibilak, beldurragatik ziur aski, ez die lagundu. Kasu batzuetan, alderantziz. Adibidez, kontatzen da haietako batek baserri bakartu bateko atean deitu duela. Gaua da. Baserritarra erruki-plantak egin eta bere mahaira eserrarazi du. Iheslariak, hotzez dardarka eta gosez erdi hilik, zerbitzatu dioten platerkada-zopa irensten duen bitartean, baserritarrak pala-kolpez txikitu dio burua.

Ziurtasun-neurri bereziak hartu dira esparruan. Jendea *Blocketako* barnealdetik astebete ez mugitzera behartuta, SS patruilek eremua inguratu eta barrakatik kanpo edo soilik lehioetik begira dagoen edozein presoren aurka tiro egiteko agindua daukate. Soilik sukaldariak eta janaria banatzen dutenek egiten dute lan, eta haiek beti metrailadoreaz hornitutako goardiak zainduta. Jakina, inor ez da mugitzen. Heriotzara kondenatuek ausarkeriak egin ditzakete; gainerakoek, ez.

Alde egiteko denborarik izan ez duten edo, ahulegiak, ausardiarik izan ez duten 20. *Blocleko* internatuak, tiroka akabatuak izan dira gau hartan bertan salbuespenik gabe. Eta aste baten buruan, bere erritmo erregularra berrartu du eremuak. Lanera ateratzen da jendea, bere bizimodu miserablea bizi du, ohiko heriotz geldoan hiltzen da; eta 20. zenbakidun barrakak betetzen, ustutzen eta ostera betetzen jarraitzen du sekula gelditu gabe. Su-itzaltzaile guztiak jaso eta toki seguruan gorde dira. Norbaitek umorez esan du, ezusteko haren ondoren, alemaniarrek beste arma sekretua aurkitu dutela.

XVI

Datorren udaberrirako iragartzen da gerraren amaiera, baina lehenago ere gerta daiteke, unerik pentsaezinenean. Horregatik, azken hilabeteok baretasun abailgarrian doaz. Galdera beti berbera, obsesibo bihurtzen da: zer egingo du SSk erremediorik gabe galduta sentitzen denean? Ez ote du porrotaren mendekua hartuko milaka preso defentsabakoen gainean? Poloniako eremu bat aipatzen da, non alemaniarrek beren erretiradan jakiak pozoitu dituzten; errusiarrek bertara iristean soilik hilotzak aurkitu dituzte sakabanatuta. Diotenez, beste kanpamendu batean, internoak gaseatuak izan dira alemaniarren azken menderakuntza-egunetan. Egiatzkoak zein ez, pil-pilean daude era honetako albisteak, eta sortzen duten beldur-giroa laino baten antzera hedatzen da esparruan zehar.

“Babes eta Erasoako Nazioarteko Komitea” sortu da, non Rubiok eta Manuelek espainarren ordezkariak daukaten. Mundu guztiaren aurrean egiten dira batzarrak, xaloki paseatzeko plantak eginez; edo, merezi duenean, desinfekzioko sotoetan. Aurreikusiak izan dira posibilitatate guztiak, aztertuak ekintza-planak xehetasunik ñimiñoetaraino. Ziurtatuta dago kanpoko komandoekiko lotura ere, zehatzak dira fronteari eta atzeragoardiari buruzko informazioak eta badago agintarien jarrerak gertutik zelatatzen dituzten hitzarturiko SS batzuen laguntza ere. Dena aurreikusita dago, baina ez hondoratze-eguna, ez eta doitzen dabilen makina konplikatua emango duen ondorio praktikoa ere. Milaka eta milaka gizon, egunean ehunka aldiz galdera berberak egiten: Nola? Noiz? 40.000 arimen zigor-populazioa (Alemania naziko hainbateko bat), esperantzaren fluxuak eta errefluxuak eramanda: “esparru errusiarreko” gaixoak, patata-azalak baino jaten ez dutenak eta egun osoak elur izoztuaren gainean ematen dituztenak; laurogeialdiko esparrukoak, miseria fisiologikoaren azken graduan; 1 zenbakidun esparrukoak, ez dakitenak euren jarduneko egoerak gehiegi iraungo ote duen. Eutsiko al dio gorputzak? Gaintitu beharko al ditugu froga berriak? Nazien irudimen izugarriak ez al du, azken unean, aurkituko esterminio orokor eta azkarraren teknika?

Betiko gelditu da Emili esparruan, eta Augusten *kommandoko* kide zaharrak gerralanera destinatua izan dira. Rubiok eta Manuelek insistitu dute esparruan gelditu behar duela. Dena prest dago argazkigintza-sailean sartzeko, non diotenez, misio delikatu bat emango dioten.

—Ez zakiat zertan naizen baliagarria zuentzat —asaldatu da marrazkilaria.

Egun gutxi barru, txukuntzaile bezala sartu da argazki-laboretean eta, behin lanean jabeturik, artxiboko argazki interesgarrien proba-bilduma lortzeko enkargatu dio Rubiok, SSk deusteatzea erabaki baino lehen. Benetan arriskutsua da egin beharra, irristatze batek heriotza ekar dezake; baina lan egin eta harrapatua ez izanez gero, erregimen naziaren aurkako salaketa berebizikoa aterako litzateke.

Esparruan gertatutako heriotza bortitz guztien klitxeak aurkitu ditu. Suizidio edo ustekabeko ezbehartzat hartzen dira denak; agintariak uste dute argazkiak aurkeztuz *zurituko* direla! Nazismoak iraun duen bitartean, behar bada bai, biktimen etxeko edo lagun bategiaren, eragin handikoak, modu bakartuan, informazioa eskatzerakoan; baina artxibo osoaren aurrean, milaka suizidio-kasuen aurrean, denak berdina, agerian geratzen da supertxeria guztia.

Argazki-artxiboa, alemaniarren gauza guztiak bezala, dotore antolatu eta sailkatuta dago. “Suizidioak hesi arantzadunetan” dosierrean, milaka klitxe; “Suizidioak prozedura desberdinen bidez” delakoan ere milaka, eta “Hildakoak, ihesaldi-saioan” delakoan, beste hainbat milaka. Dena ongi zenbakituta. Ez da oso azkarra izan behar gizon

eskeletiko haien ilaren esanahia, hesi arantzadun elektrikoan seriean ipinita, asmatzeko; edo desesperazioaren izugarritasuna gizon bat erradiadorearen giltzan edo komuneko txorrotetik esekitzera bultza dezakeena; edo bi urrats jarraian egin ezin dituen eskeleto bati ihesaladi-xedea esleitzeko.

Emilik, jadanik ohituta bere destinoaren kapritxoetara, erresistentziarik gabe onartzea erabaki du: ulertu du bere borrokatokia, besteez, antza denez paper nagusia interpretazera predestinatuek, seinalatzen ditona dela. Eremu nagusian geratu behar du, abiapuntu eta helmuga, bere abentuaren unitatea laburbiltzen duen zirkulu itxia eta, zergatik jakin gabe, seinale ona dela irizten dio. Eta lana ona da: nazismoaren aurkako azken errequisitorian, eremuko konspiratzaileen berriketa guztiak baino gehiago balioko du dokumentu grafikoaren bilduma batek.

Lehertutako kuxin baten lumak diruditen elur-malutak erortzen ari dira. Emili, bere laneko mahaira eserita, leihora begira, nagiki entretenitzen da SSko ofizial baten argazkia, pose napoleonikoan, txukuntzen. *Kommandoführerrek* bere presentziarekin ez dio uzten eskatutako sailean lan egiten. Arraroa da hain berandurarte gelditzea. Presarik ez izateko sentsazio gozoan kulunka, etorkizuna soilik hobea izan litekeen ziurtasunarekin denbora pasatzen uztekoan, garai batean arroparen biltokia izandako txoko hura gogoratzen du, *kommandoko* SSrentat marrazki pornografikoak marrazten zituenean. Orduan, parterre berdea eta aurreko barrakaren zurajea zeukan begi bistan; oraingoan, basoz inguraturiko mendi-zerra baten lautada-jarraia. Bere barnean edo bere inguruan zerbait ari da errepikazten. Agian SSen argazki bat, pose harroan, txukuntzea pornografia egitea bezalatsu da...

Kommandoführerra mintzatzen ari da. Emilik hitz batzuk harraputzen ditu, haien zentzua harrapatzeko adina.

—Bai, guri amaitzen ari zaigu lana —dio gizonak—. Artxiboa desegiteko agindua dago. Ez esan inori. Ulertu duzu, ez da? Artxiboa desegin!

Indiferentzia erakusten du Emilik. Ez da normala agindu sekretu hura berari jakinarazteko insistentzia.

—Nik ez daukat batere presarik —erantsi du goardiak—. Uste dut zuri ez dizula kalterik egingo, nire ustez jokatu dudana moteltasunak. Zerorrek egin behar duzularik deuseztapena, pentsa ezazu nola jokatu.

Txundituta begiratu dio marrazkilariak.

—Egia esango dizut. Ni SSkoa naiz artileroa edo paratxutista izan nintzakeen modura. Ez uste SSen uniformea daramagun guztiak naziak garenik! Luzea da historia, eta sinisten zailagoa. Protagonistak azaltzen duenez, kalte gehiago egin dio berak Hitlerren armadari aliatu guztiek batera baino. Emilik apenas entzuten dio. Logikoki, SS orain arte beldurgarriaren konplizitateak ase beharko luke, enpresaren bururaino errazago eta inpuneki iristea ahalbidetuko balio bezala. Gizonak aringarriak bilatzeak ere, azken unean garaileen gurdira igoz, ez dauka ezer berezitik. Emili izorratzen duena da bere paperaren desmuntatzea, bere buruaren aurrean erridukulua egitea, Destinoaren irain krudela bere pertsonaren eskastasun tristea erakutsiz: ez dago batere arriskurik bere misioan!

Harri eta zur kontenplätzen du marrazkilariak elur-maluten erorkera, eta iritzi dio ez direla benetan jausten, batere araurik gabe dabilzala gora eta behera. Bera ere beste maluta bat da, haizearen menera, ezdeusa, iheskorra, beste milaka eta milaka maluten artean galduta. Gerra zibileko urteak ditu gogoan..., arerio politiko hutsak etsai amorratu bihurtzen zirenekoak, bera ere, batere gogorik gabe, izaeraz gizon baketsua, armak eskuan bultzaka sentitu zenean sarraskian parte hartuz. Frantzian, gero, errefuxiatuen esparruko goseak eta zorriek "Lan Konpainia" batean inskribatzera bultzatu zutenean, hilabate batzuk geroago alemaniarren atxilo geratzeko frantziarren hondoratze militarren ondotik. Are beranduago, gerra-atxilotuen esparruan, ihes egiteko kemena falta izan zitzaion, beste kide batzuek egin zuten modura. Eta orain,

azkenik, kontzentrazio-eremu hitleriarrean, non milaka zorigaiztoko, gauzen ibilbidetik bera bezain urrun, modurik ankerrenetan hiltzen diren. Bere bizitzatik ezin da azalpen handirik atera. Zori kapritxosoa bera baino indartsuagoa da. Zergatik? Zer naiz?, galdetzen dio bere buruari. Zergatik bizi naiz? Askatasunera itzulita, gerra zibilak bederatzi urte lehenago ateratako mundu berberean egongo da, eta berdidn desarmatu eta biluzik. Testigu izan den horrore guztiak, bere azala ondu eta espiritua umotu duten sufrimenduak, ez dira ezertarako izan? Dena inkohherentzia hutsa al da?

Kommandoführerra altxatu eta ateratzen saiatu da.

—*Zerbait* prestatu behar baldin baduzu, nire aurrean egin ahal duzu. Ez galdu denbora. Nigatik ez beldurrik izan. Zureetakoa naiz.

Pixka bat beranduago lana utzita, esparruko sarreran bertan, hiru gizon aurkitu ditu hormaren kontra, bota eta bota dagoen elurraren pean burua desestaltita. Zenbaketen plazatik pasatzerakoan ausaz topo egindako Manuelek, atzerriko irratiak entzun dituen norbaitek aditutako azken albisteak azaldu dizkio. Emilik moztu egin dio, zergatik zigortuak izan diren hiru gizon haiek galdetzeko.

—Haietako bi, zakurren jatena ebasteagatik —bulegariak—. Bestea, ez dakit zergatik. Dirudenez, bere aberkideekin meza ezkutuan ematen duen apaiz poloniar bat da. Oro har, arranopola!

Beranduago horretaz pentsatzean, Emilik uste du ulertu duela han bi mundu daudela, nahastuta baina kontakturik gabe. Zakurren jantokia asaltatu duten bi gosetientzat, zentzu zehatz bat dauka askatasunak: gosea asetzea. Apaizak, ordea, meza emateko bere eskubidearen berreskuratzea aurkituko du askatasunean. Mundu materiala eta mundu espirituala. Berak ez du ez batena ez besteena izan nahi izan. Oreka bere kaskarkeriari ez dagokion bitalismoan aurkitzen saiatu da. “Elur-malutak ez dute ezer bilatzen”, pentsatu du; eta angustia sentitu du, gabetu bat dela jakitearen sentsazio mingarrira iristeko hain bide luze eta neketsua egiteagatik.

Hirurehun eta berrogeita hamar gizonekin beste *kommando* baterantz abiatu da August. Linz-Salzburg trenbidearen linea gainean kokatuta dagoen eremu bat da, orain pare bat urte eraikia eta non une hartan hainbat nazionalitateko bostehun bat preso dauden, gaizkile alemaniarrek gidatu eta “etxe handiaren” eredura antolatuak. Diote eremuaren populazioa bospasei aldiz erabat berriztatu izan dela. Talde berezia osatu arren, erabat autonomoa, espainiarrak ez dira aldaketarekin soraio izan. Gorputzak, ordura arte erlatiboki ondo kontserbatuak, azkar argaldu dira, goseak ostera sarraskiak egin ditu. Beteranoak izaki, ordea, ez dute abenturaren amaieran gosez hiltzera etsi. Laster hasi dira horniduren biltegien aurkako ekintzak, eta lapurretarako trebetasunak determinatzen du orduan klaseen banaketa. Alde batetik, lapurtu eta denetatik daukatenak; bestetik, timidoak edo zuhurrak, ezer ez daukatenak. “Etxe handiko” bizi-baldintzak ezagutu ondoren, desberdintasunak inbidia, umore txarra, iskanbilak, gorrotoa sortzen du orain, maiz borroka politikora bideratuak, non sarri amaitzen duten espainiarren arteko desberdintasunak. Talde bakoitza hegemonia erdiesten saiatzen da, gabezien erantzukizuna aurkako taldeari egotzita. Batzuentzat, komunistena da errua, interes orokorraren orde z proselitismoa lehenesten dutelako; besteentzat, erantzule bakarra August da, bere inhibizio eta kuttunkiengatik.

“Etxe handian” egin zaion kanpainari aurre egiteko, bertan egon den kontzilio-giroak itota, Augustek onartu beharra izan du Castrok eta medikuak, talde aurkariko buruzagiak, berarekin “triunbiratoa” osatzea, *kommando* berrian talde espainiarren zuzendaritza eraman dezaten. Egiatan, Augustek, zirkunstantziek onartu ahala, haiek baztertzearekin kontaktzen du, hots, *kommando* gidatzen duten preso alemaniarrei egingo dien oposizio amorratuarekin bere gizonen eta SSko agintarien borondatea berreskuratu ondoren. Baina beste aldi bat da eta gizonak ere bai. Maniobra hasterakoan ez du batere kolaboraziorik lortu, soilik aurkakotasuna eta indiferentzia.

Berak ere galdu du gauzen ardura, edo horren plantak egin ditu, behar bada suposatuz denbora pixka bat gehiagok eta nagusi den ondoezak ostera desiragarri egingo duela berak, hilabate batzuk lehenago, arrakasta nabarmenez inposaturiko esku gogorra.

“Triunbiratoko” beste kideak, etsitzen ikustean, erabat hondoratzen saiatu dira. Gabonetarako egun gutxi falta direlarik, espainiar guztiak mahai baten bueltan biltzeko bazkari bat antolatzea bururatu zaie. “Garaipenari aurea hartu, diferentzia guztiak ahaztu”, izan dira kontsignak. Augusten baimena eta kolaborazioa eskatu dute: baina hark, iruzurra antzemanen, esan du.

—Antola ezazue, nahi izanez gero, nik ez dut deus kontra egingo.

Zaila egiten zaio egoera. Festan parte hartzen badu, bere arerio komunisten ekimena sustatzeko erridikuluan jausiko da, bera, batuta inoren eskuetan sekula santan utzi ez duena; ez joatekotan, “aberkideen konkordia eta anaitasuna” ukatzen duen seinale.

Festa-eguna iritsita, barrakako pasabide zabala laurehun gizonentzako jantoki bihurtzeko miraria egin dute komunistek. Lan asko egiten dute, pixka bat gehiago eskatu dute; antolaketa bikaina izan da. Zigarroak eta barneko arropa lortu dute, zozketa egiteko, gitarra-pare bat, akordeoi bat eta klarinete batekin *orkestra* inprobistu dute, eta are esparruko hierarkiek pertsonifikatutako *ohorezko gonbidatuak* erakusti ahal izan dute: SSak eta gaizkile alemaniarrek.

Hasteko orduan, batzordea Augustengana aurkeztu eta presidentzian esertzea gonbidatu dutenean, “ez naiz ondo senetitzen” diplomatiko baten aitzakia atera du talde espainiarraren buruak. Berdin-berdin egin da afaria. “Patatak, bere azala eta guzti” eta ahi litro laurdena banatu zaio bakoitzari; bukaerarako sagar bana eta gailera bana egon da. Batzuek aurkitu duten bitartean, ondo begiratzuz gero beste egunetan baino gose gehiagorekin geratu direla, eta asko esatea da, espainiarren batasunaren aldeko diskurtso suharrak botatzen dira presidentziazatik. Alemaniarrek txaloka ari dira, zergatik jakin gabe. Musikoek pasodoble bat jo dute eta, festa amaituta, mundu guztiak onartu du “gauza primeran joan dela”. Antolaztaileak, batik bat, txundituta daude: Augusten abstentzioa taldearekiko irain barkaezina da eta haren prestigioa ahituta geratu da.

Antzerkia hurrengo egunean gertatu da, zenbaketa garaian, non Augustek, esparru guztia formazioan dagoelarik, SSko buruari aditzera eman dion, espainiarren buru izateari ukatzen diola.

—Erotu egin al zara? —galdetu dio, ofizialak txundituta.

—Espainiarrak ez daude pozik nirekin eta ez dituzte nire esanak betetzen. Arratsaldean, soilik formatzeko, ordu erdiko lana eta oihuak behar izan ditut. Ez daukat bitartekorik nire agintea inposatzeko.

SSk marmar pixka bat egin ondoren, Augustek, hitzak destilatuz-edo, erantsi du:

—Bada nire kargua nik baino egokiago bete dezakeena.

Eta Castro, espainiarraren buru egin dute. Ez du alemana ezagutzen eta ez dauka senik SSekin tratatzeko. Militar ona izaki, aginduak hartu eta eman egiten ditu. Augustek hainbeste arrakasta ekarri dizkioten malgutasuna eta sinpatia Castrok ez dauzkan dohainak dira. Alde batetik gizon indiziplateak, gosetiak, Hans Gupperen babesa dutela sinestun, eta bestetik tropa errusiarren hurbiltasunarekin kitzikatuta, buru berriaren ahalegin guztiak ustezko anaitasuna berrosatzeko, elkarren segidako porrotak izan dira. Pataten biltegiak asaltatzea eskandalu bihurtu dira eta SSa parte hartzera behartu eta oso zigor gogorak ezartzera behartua sentitu da.

Oso ondo atera zaio maniobra Augusti. Agintaritzako idazkari-kargu berritik, bestea baino garrantzi handiagokoa alegia, bere gustura egin eta desegiten du eta, batik bat, bere ondorengoaren kudeaketak dakartzan desastreen kontura barreari etenik eman gabe dago. Castroren aurkako azpikeriak egozten dizkiote komunistek, baina berak barre besterik ez du egiten.

Bitartean, espainarren presentziak ekarri duen lan larria burututa, pertsonalaren murrizketa-agindua etorri da; ehun bat gizonek *kommandotik* irten eta beste tokiren batera joan behar dute. Augustentzat une gorena iritsi da; egun batzuen buruan, esparruko komunista nabarmenenak kamioitan kargatu dituzte.

—Ordainduko diguzu jokaldi hau —egin du mehatxu Castrok, autoaren gainetik.

Augustek barre egin eta bizkarra mugitu du.

—Behar bada bromatan nenbilela uste izan dute —iruzkindu du geroago, lagun batzuk inguratuta. Hiru urtez ozpindu didate bizitza. Nahikoa izan da! Gero hil behar banaute, utz nazatela gutxienez azken egunetan lasai bizitzen. Ikusiko duzue hemendik aurrera nola amaitzen diren liskarrak hemen.

Kanpoko gertakariak asmatzen lagundu diote. Errusiarrek Viena asaltatu dute, angloamerikarrak aurrera doaz lurralde alemaniarraren barrena. Kolpe militarrek eragina dute *kommandoa* instalatuta dagoen orain arteko eskualde lasaian. Trenbide eta errepideak ebakuazio zibilaren betekada tragikoaren testigu dira. Aliatuen hegazkinek gelditu gabe bonbardatzen dituzte komunikabide-guneak. Kamioi, gurdi, bizikleta, eta era guztietako auto-ilarek —auto-seaskak ere bai—, altzariz eta paketez lepo, emakume, zahar, haur, gaixo eta gerra-zaurituek bultzatuta, egunak eta egunak behar dituzte kilometro gutxiko distantziak egiteko. “Ario” haiek gosea, nekea eta terrorea beren aurpegian gero eta nabarmenago erakutsi, orduan eta kitzikatuago presoan optimismoa. Bere amaieran dago atxiloaldia; ebakutuen ilaren atzetik dator askatasuna!

Alde materialean ere abantailak erdietsi dira. Trenak gurutzatutako Linz-Salzburg eskualde hartan batu dira aurrerakuntza errusiarrek mehatxatutako intendentzia-ilara guztiak: biltegiak, ukuiluak, espazio libre guztiak, kalitate oneneko generoz lepo geratu dira bat-batean. Inprobisatutako biltegi hauek atontzen okupatu dituzte presoak, eta suposatu daitekeenez, ahal duten guztia lapurtzen dute. Beste batzuk geltoki bonbardatuak berregitera bidaltzen dituzte, non bonbek txikitutako hornidura-trenek erraiak eskaintzen dizkiete gosetiei.

Hornidura-zaku osoak sartzen dira esparruan; ugaritasunaren adarra eskuzabalki irekitzen da bost urtetan urdailetik nahigabea kendu ezinik ibili diren gizon haien gainean, eta oraindik etorri daitezkeen beste gabezia batzuei begira erreserbak ezkutatzeko obsesioak eremu aproposa topatu du arropaz eta horniduraz betetako biltegi haien Jainkoaren ongia. Oheen lastozko zakuetatik gainezka daude *pâté de foie*, azukre-zorroak, urdail onduko zatiak eta soja-kukurutxoak. Mundu guztiak dauzka galtzerdiak, eskiatzeko oinetakoak eta artilezko elastikoak. Batzuek genero militarreko piezak gordetzen dituzte egunen batean hesi arantzadunak bortxatzeko premiarik balego-edo. Jendeak ez dauka buruan politikakeria; interesgarriagoa da sukaldean txanda on bat topatzea eta eremuan dagoen paella gutxi haletako bat lortzea. Soilik lixeriketa-garaian aipatzen dira armada aliatuen progresioak, Bartzelonako kafetegi bateko lagunartean egingo litzatekeen lasaitasun berberaz.

Iritsi da amaiera. Goiz batean, hiltzat eman da Hitler eta, arratsalde erdian, amaitu egin dira lanak, amerikarrak esparrutik hogeita hamar kilometrora daudelako. Ziurtasun-neurri bezala, lekualdatze orokorra agindu dute agintariek, atzeragoardiago dagoen beste *kommando* batera, nora garraio-faltagatik oinez iritsi beharko den.

Formatzera deitu da jendea. Bakoitzak ahal duena darama lepoan. Koltxoak elikadura-erreserbaz erdi beteta datoz batzuk. Lehen aukeran alde egitea da xede orokorra. Komandanteak diskurtso bat egin eta Augustek itzuli egiten du:

—Amaitutzat har daiteke gerra, baina ezin zarete hemen geratu. Nazioarteko Gurutze Gorriaren babesean egongo zareten toki batera eramateko aginduak dauzkat. Gerrak arriskuan jar ditzake hemen zuen bizitzak. Nire ohorezko hitza ematen dizuet —jendeak irribarre egin du—, errespetatuak izango zarete. Obeditu eta ez saiatu ihes egiten. Lastima handia litzateke azken orduan goardiek zuen aurka neurri gogorrek hartu behar

izatea. Ez nuke nahi esparru honetan egon zareten denboraz inpresio txarra atera dezazuen. Uste dut justua izan naizela, eta langile zareten heinean zuen merituak kontuan hartu ditudala. Pozik ez dagoen norbait balego, esan diezadala argi, kamarada bati bezala. Saiatuko naiz nire nahia izango zen erako portaera ez izateko motiboei buruz azalpenak ematen...

Algarak entzun dira...

Augustek "bere kasa" erantsi du bera bertan geratuko dela, "bere zeregina oraindik ez delako amaitu".

—Nahi duzuna da ebaporatzea, kabroi hori —ahots batek.

Hogeita hamar kilometrora baino gertuago dagoen askatasunetik urruntzen den presoan zutabearen gainean jausi da gaua. August ez da esparruan geratu. Bere kideak baino beranduago atera da, arrastorik utzi gabe. Bere etsaiek ez dute "kontuak eskatzeko" atseginik izan.

Lastima da udaberri haren etorreraz inor ez jabetzea. Munduaren esnatzearen magiaz inor pentsatzen ez duen apirila, xahututako apirila da eta, oro har, galdutako urte bat. Esparru nagusiko jendearentzat, ezinegonek eta esperantzek itota, apirilaren etorrera hark ezer gutxi esan nahi du. Beste erabatekoa da haien udaberria.

Arratsalde batez, behin afaria hartuta, iluntzeak pixka bat nahastutako zero amultsuaren pean, Emili eta Manuel zenbaketen plazan dabilta, pasieran. Haien ahots eta keinuek ordu haietako urduritasuna adierazten dute.

—Inguratzeko ordua da —dio Manuel—. Nazismoa garaituta dago, baina ez dik amorerik ematen; hiltzen hil nahi dik. Badakik aukera daukadala Ekialdetik ebakutatuta datozen presoekin hitz egiteko; beraz, horroreetara ohituta egon arren, oraindik larritzen naitek haiek kontatutako gauzek. Orain ez datoz trenez. Oinez datoz eta gutxi dituk agoantatzen dutenak. Denek dakarte aurpegiaren markatuta ikusi dutenaren izua.

—Ez nitek jakingo zer aukeratu —Emilik—. Entzun al duk "heriotzaren trena" aipatzen? Frantziar batek erakutsi zidak nolakoak diren eta, mintzatzen den bitartean, nerbio-erasoaldi bat eduki dik. Laurogeiko bagoi batean zanpatuta datozen ehun eta berrogeita hamar gizonetatik, soilik hogeitaz batek biziraun dik. Beste guztiak itota hil dira. Zorigaiztoko hark konorterik gabe pasa ditik azken berrogeita lau orduak, gainerakoen hilotzen artean sartuta.

Isiltasun laburra egin da. Emilik jarraitu du:

—Alemaniarrek ez zukatek azken orduko desesperazioaren aitzakia. Lehenago berdin egin ditek.

Ondorio batera iritsi izan balitz bezala mugitu du burua Manuelek:

—Alde txikia zagok treneko bagoi batean itota eta bidean oinezko martxa batean ahituta hiltzearen artean. Askok ebakuatutako datozak, askatasuna lau urratsera edukita, sobietarren kanoikadak entzunez.

—Gu ere ebakuatuko gaituztela uste al duk?

—Ez. Aurrera datozenak amerikarrak baldin badituk, alemaniarrek ez gaitiztek errusiarrengana bideratuko, eta azken hauek badira lehen iritsitakoak, ez diat uste beste aldetik atzeragoardarik dagoenik. Zorte handia da guretzat bi fronteen artean ekidistante egotea.

—Ezer berririk ez gaur?

—Guretzat —esan du Manuelek— albiste bakar bat egon daitekek; denok jakingo diagu inork azaldu gabe.

Ezagunak insistitu egin du.

—Munich erori omen da,

—Berdin zio! Ez bada erori, laster eroriko da.

Oro har, kideen arteko berriketaldi guztiak erantzunik ez daukaten galderak eta inolako galderari erantzuten ez dizkieten erantzunik dira. Garai hobeen gogorapena, eguneko anekdotak, etorkizunerako proiektuak, atxilotuen arteko berriketaldien ohiko gaiak alde

batera utzita daude orain, kolore gabe eta txepel. Gerrari buruzko albisteak bilatzen ditu jendeak intoxikatuak lasaituko duen droga bilatzen duen bezala eta, hark bezalatsu, bat ase gabe sentitzen da dosia nahikoa ez denean. Gainera, behin jakinda, bere balio guztia galtzen dute, berriagoak jakiteko presagatik.

Badira salbuespen batzuk: dekadentzia organikoaren azken mailan daudenak. Soilik presentean pentsatzen dute; aktualitaterik gabeko oraina, beren sufrikarioen materialtasunera atxikita. Gerra, beren gaitzen hasiera eta amaiera dena, gauza urruna iruditzen zaie; interesik gabekoa. Indiferentzia miserable eta aldi berean maiestatikoa da, haiek denek gerraren eta bakearen askoz ere garrantzia handiagoko sekretu esoterikoa ezagutuko balute bezala.

Azken zorigaiztoko hauen eta besteen urduritasunaren arteko kontrastea aipatu du Emilik.

—Heriotzaren hurbiltasunak mespretxu goragokoaz beteko balitu bezala.

—Beren defentsa da —dio Manuelek.

Gogoeta pixka bat egin du Emilik:

—Ni ere ausente sentitzen nauk batzuetan. Ez zakiat gertatzen zaian, baina inpresioa zaukaat sarri, gerrari buruz kontatzen duten guztiaz ez dagoela ezer egiazkorik. Azaltzen zaila da. Bazagok zerbait barnekorik esparruko egonkortasun administratibo hau baino ikusten uzten ez didana, interesatzen zaidan bakarra honek normal funtzionatzea balitz bezala, paperak bideratu eta artxibatzea, hornidurak, onak ala txarrak, hutsik gabe etor daitezen, lanak jarrai dezala, SSek jo eta erail dezatela ezer gertatuko ez balitz bezala.

—Arroba eta arroba paper konprometigarri desegiten dituk egunero —esan du pentsamendua jarraitzen ez dion besteak—. Batzuetan SSen ezinegona eta nahasmendua ere bazagok...

—Hain da garrantzitsua hurbiltzen ari dena, soilik ahaleginarekin ulertu ahal izango diagu. Alegia, ahalegin mentala egiterik ez daukatenak kondenatuta daude, hodeiak haize-egunetan bezala, herrestan eramanak izatera, haizeak nahi duen formak hartzera...

—Errutinak astotu egin hau —dio Manuelek, argi asko ez baitio jarraitzen—. Egun hartan saiatu beharra izango da... eta horixe da dena.

Tarte baten ondoren:

—Ez diat azaldu pasa den egunean Hans Gupperekin izan dudan berriketaldia? Bulegoan sartu zuan eta ordu bete pasa zian paperak arakatzen. Nekatu zenean, laneko mahaira eseri zuan nire aurrean. Zigarro bat piztu eta beste bat eskaini zidaan. Nik lan egiten nian plantak egiten nitian. “Bai, esan zuen. Ezagun duk hire asebetetzea ezkutatzeko egiten duan ahalegina. Badakik lan honek ez duela ezertarako balio. Niri ez begiratzearren lan egiten duk”. Protesta egin nahi izan nian. Hans Gupper besteak beste borrheroa da, behar bada inor baino gaiztoagoa, baina animatzeko gogoia etorri zitzaidan. Ergelkeria bat, nahi baduk; baina ez diat denborarik izan hura egiteko. Bera bakarrik animatzen zuan: “Ez, espainiarra ez —esan zuen poliki-poliki—. Orain ez daukak hire sentimenduak ezkutatu beharrik. Bazakiat eremu-urteek ez zaituztetela aldatu, eta lehen bezalakoak zaretela, are gogorragoak”. Askotan hitz egin zidaan lanarekiko gauzei buruz, beti bere tonu lehor eta zakarrean. Egun hartan, ez balizkit bere bizitza familiarreko gauzak kontatu, humanizatzen zutenak berauk, uste izango nian porrotak burua nahastu zioala. Une batean isilik egon zuan; gero zigarroa hautsontzian zanpatu eta keinu astunarekin altxatu zuan. “Ondo egiten duk pozik egoten —esan zuen ahots erlastuarekin—. Hirezat ostera hasi da bizitza”. Eta bere begiratzeko moduagatik, esaten ez zuena ulertu nian...

—Pixka bat groteskoa aurkitzen diat —esan du marrazkilariak—

—Aizkorakadaz akabatzen zituen emakumezko juduek ez zitean hunkitzen.

—Arrazoa daukak, baina Hans Gupper garrantzitsua da tipoa bezala. Munstroak ere humanitatearen zati dituk-eta...

—Ikusten diat ez naizela errutinak astotutako bakarra.

Edozein gertakari garrantzibakoak, esaldi batek edo SS baten jarrerak, gaizki ulertutako hitz batek, huskeria batek, eszitazio-une haietan, benetako izu-uhinak harrotu ditzake. Armiarma-hari batetik esekita mantentzen da oreka, eta alarma batek, funtsezkoa ala gabekoak, egoera katastrofikoetara eraman dezake eremua, altxamendu suizidara adibidez.

Hans Gupperren hitz batzuk izan dira goiz hartan, hanpatzean, astindua eragin dutenak.

Kontatzen dutenez, zenbaketen plazatik pasatzean, galdetu dio espainiar bati:

—Komunista al zara zu?

—Ez, jauna.

Ofizialak barre gin du burlaizez.

—Komunista ez bazara, komunisten aurka borrokatu nahiko duzu, ez da?

Ezulertuarena egin du espainiarrak.

—Uniforme alemaniarra jantzi nahi baduzu, bihar aske izango zara.

Hitz hauek sortutako alarma hazi egin da, ordu bete beranduago proposamena publiko egin denean. Hiru dira SSen konfiantza merezi duten nazionalitateak: alemaniarra, poloniarra eta espainiarra. Arratsaldean bulegoko atean aurkeztu behar dira boluntarioak. Bromatzat hartu dute batzuek gonbidapena, baina beste batzuk sumindu egin dira; baina talde politiko espainiarretako buruzagiek, besterik gabeko abstentzioari oso ziurra ez iritiziz, eta gauzak modu solidarioan egitera erabakituta, bilera batera deitu dituzte handikiak 13. *Blockeko* jantokian, afal ostean.

Kasuari dagokion arreta osoarekin, dozena bat gizon bildu dira *erabaki traszendentalk* hartzera. "Independente" gisara gonbidatua, bertan da Emili ere. Ez du galtzen utzi nahi seguru aski dibertigarria izango den ikuskizuna.

Konjuratuak baino ez daude jantokian. Marrazkilariak irribarre egin du denak elkarren artean hain berdinak direla behatzean. Argi dirdaitsua sartzen da leihoetatik. Hura, mahaiondoko tertulia baino ez da.

Manuelek esan du: "Batzarrak ezertara eraman ez arren, ondo etorriko da beti inpresio-trukaketa bat", "Ongi etorri" horrek esan nahi du, antza denez, diskurtsoak egiteko aukera izatea. Bera, mahaitik, batzarraren motiboak azaltzen ari da.

—Espainiarren batek bere burua eskaintzeko arriskua dago. Guk ezin dugu etsaiari laguntza ematera joan, ez eta kontzentrazio-esparrutik ateratzeko ere. Paria batzuk gara, ez daukagu ezer, baina sekula inork ebatsiko ez digun zerbait daukagu: gure duintasunaren harrotasuna!

"Tribunoen praktikak", pentsatzen du Emilik, dibertiturik.

—Imajina ezazue zer gertatuko litzatekeen Hans Gupperrek, gure abstentzioaren aurrean, banaka egingo baligu galdera.

"Biharamunean denok SS izango ginela", erantzuten du bere kautan marrazkilariak, are dibertituago.

—Zer esan, orduan? Zer erantzun? Badakigu galdera kanpoko bi *kommandoei* egin zaiela. Harritzekoa al da alemaniarrek koakziora jotzea? Haien pretentsioa absurdua dela esango didazue, guk ez dugula gure milaka kide asasinatu dituztenen alde borroka egingo...

"Hau konplikutzen da", pentsatu du Emilik. Orain ulertu dute SSak oraindik agintean daudela. Ez da ezer gertatuko!"

—Komunistak ez garela esateak esan nahi du uniforme alemaniarra jantzeko prest gaudela. Bagarela esateak, berehalako errepresalien aurrean jartzea...

Manuelek bere perorata bukatu duenean, Rubio altxatu egin da. Hizlari penagarria da: ahots gorrotagarria, baliabiderik gabeko hizkuntz egitura eta etxean erabiltzeko tonua. Dio ezen, bakarkako koakzioaren kasuan, onartu beharra dagoela SSen proposamena.

—Armak ematen badizkigute —dio ileapaintzaileak jarrera izotzezkoarekin—, beti erabili ahal ditiagu haien kontra.

Protesta-eztanda batekin hartu da proposamea.

—Hori sekula ez! —sindikalista batek, oihuka—. Ez dut zikindu nahi gure borroeroen berdearekin.

—Errusiarrak atxilotzen gaituztenean —beste batek—, azalduko diek hik zergatik daramagun uniforme hura.

Inor ez espainiarrak bezala gutxiren artean zarata handia ateratzeko. Manuelek ezin du ordena ezarri. Rubio, beti hain hotza eta neurrikoa, eztarria urratzen dabil bere objektoreen aurka. Haren ahotsa estridentea bilakatu da.

—Zuek, sindikalistak, ekintza zuzenaren aldekoak, bakarrik geratzko beldurra ahal daukazue? Laguntzaileak behar al dituzue zuen armekin tiro egiteko?

—Ez gaitezen liskartu berriketekin —Manuelek, oihuka, azkenean inposatuz—. Rubiok proposatutako soluzioa, beste edozein bezala, interesgarria da aztertzeko. Nik neuk ez dut uste egokia denik. Gutxienez konbenientzia taktikoagatik...

—Errealistak izan beharra daukagu —ileapaintzaileak, moztuz.

—Duinak izan behar dugu —Manuelek, zuzenketa sartuz—. Alternatibaren aurrean jarrita, nik, komunista ez naizelarik, den-denok baietz erantzutea proposatzen dut, bagarela, prest gaudela edozer gauza egiteko, esentzialaren aurrean amore ez ematearren.

—Suizidio ergela litzateke.

—Horixe nahi du SSk —gehitu du Rubiok bere kasa—. Haiei lana eginda ematea da.

—Hil nazatela alemaniarren uniforme ipini baino lehen —anarkista batek, protestaka—, baina ez dut sekula esango ere komunista naizenik. Lotsaz hilko nintzateke!

Bigarren aldiz lehertu da eskandalua. Korapilo handiko antzerki-pieza ematen du: hiltzera bai, baina komunistak direla esatea ez, eskaintzen diren sindikalistak, komunismoaren aurka azaltzeko prest dauden komunistak...

—Koldar bat bezala gas-ganberan edo fusila eskuetan hiltzearen artean, osatuta daukat erabakia —dio ileapaintzaileak—. Ez dut debalde amore eman nahi.

—Lasai, lasai! —Manuelek, oihuka.

—Noiz iritsiko zarete zaretena aitortzera —sindikalista batek, galdezka.

—Eta zergatik zuek erakutsi nahi duzue ez zaretena? —Rubiok, ihardetsiz—.

Zutik paratu da Emili, hitz egiteko. Areriotasunez begiratzen diote eztabaidatzaileek. Zer nahi ote du ez batekoa ez bestekoa ez denak? Eskaintzen zaion arretea-unea aprobetxatu du marrazkilariak.

—Soilik galdetu nahi diot jakin dezakeenari, kasu desesperatu batean, norberaren aldeko defentsa batek aurrera egingo lukeen. Ez dut SSen jantzirik hartu nahi, baina ez dut uste untxiak bezala hiltzea alternatiba bakarra denik. Ulertuta daukat “Nazioarteko Komiteak” ebentualitate asko aurreikusi dituela eta galde egiten dut ea hau aurreikusi ote duen. Hala bada, ez da beharrezkoa izango gure artean liskartzea.

—Horixe da nik argitu nahi nuena —Manuelek—, baina ez didazue utzi.

—Gure oraingo arazoak ez du zerikusirik gainerako nazionalitateekin —sartu da Rubio—. Inork ez die ezer esan erruisarrei, txekiarrei, frantziarrei. Ezin dugu eremu osoa jarrera desesperatura bultzatu. Oraindik ez da iritsi matxinadaren ordua. Fronteak urrunegi daude, eta antzua litzateke sakrifizioa.

—Nik ez dut sekula esango komunista naizela —egin du oihu anarkistak, egoskor—.

Horrek garrantzi gutxi daukala azaldu nahi izan dio Manuelek, komunisten eta anarkisten artean, hitleriaren arabera, ez dagoela batere alderik.

—Badira bost urte zure fitzak “rote spanier” dioela.

Hasieran baino lasaitasun handiagoarekin amaitu da batzarra. Ekintza bortitz baten posibilitateak aztertu eta erabaki da inor ez aurkeztea komandantearen deira. Armategiari eraso egitea xehetasun guztiekin aztertu eta erabakita geratu da, arratsaldeko inkonparezentiaren ondorio gisara, arazoa “Nazioarteko Komiteari” azalduko zaiola.

—Inguruan dabil Hans Gupper! —esan du atean zelatatzen dagoen batek.

Azkar asko alde egin dute konfabulatuek eta, pixka bat beranduago, betiko itxura gordetzen du jantokiak. Erratzek, bere txokotik aterata, irrist egiten dute sumisioz, zoruko egurretan, hauts-zapiekin mahaiak eta armairua laztantzen dituzte...

Boluntarioak aurkezteko unean, soilik zuzenbide komuneko gaizkile alemaniar batzuk agertu dira, litezkeen mendekuak ekiditeko, eta errusofobiaz jotako poloniar batzuk. Espainiarrik, bat ere ez.

Garaiak beste batzuk direla ulertu du Hans Gupperrek eta, une goren haietan, agian hobe dela indarrez behartutako boluntarioekin gehiegi ez fidatzea. Eta besterik ez da gertatu.

XVII

Esparruko bizitzan lehen aldiz, kanpaiak ez du bere orduan jo. Egun honetan, jadanik esnatuta daudenek egiten duten zaratak loa galarazten duenean esnatu dira gizonak. Inork ez du lana aipatzen, inor ez da gogoratzen aurreko egunetan gosaltzeko zerbitzatu izan duten zuku beltzaz. Hain berebizikoa da esaten den guztia!! Dena antzaldatzen du aldaketa horrek, zozketaren sari nagusia bezala, itxaron arren, berria balitz bezala baitator. Objektuen koloreak, goizeko argiak, adiskideen eta etsaien hazpegia, dena da berria. Eta izotz-zati bat bezala suaren alboan, diziplina desagertu egiten da. Gogoak aginduta sartu eta irteten dira, tabakoa daukatenek ohean edo *Blockältesterraren* muturretan erretzen dute, *kapoek* losintxa egiten diete soilik hogeita lau ordu lehenago egurra ematen zieten berberei, SSak ikusezin bihurtu dira. Emakumeen lurrin- eta desordena-arrastoa baino ez du gordetzen burdelak: ihes egin dute.

Eguna argitu baino lehen antikomunista alemaniar eta poloniar boluntarioak atera dira, *Volksturm* (herriko miliziak) bezala ekipatuta eta benetako soldaduak bezala armatuta. Azken orduko boluntarioetako bat da *King-kong*, sinesgarria ez den arren zilbor handiarekin oso urrun iritsiko dela.

Goardiaren errelebo-orduan, laguntzaile-zerbitzuko soldatu erregularrek ordezkatu dituzte SSak. Beren garita eta dorreetatik, zentinela berriak –adinagatik, zaharragoak berriagoak baino– hesi aratzadunen alboan berrikeretan kuxkuxean dauden presoekin mintzatzen dira.

—Laster iritsiko dira amerikarrak —diote, jator agertzearren—. Ordu-kontuak. Gurekin lasai egon zaitezke. Haiek iristen direnean armak jaurti eta... etxerantz. Zuek bezala. Haietako goardia batentzat preso baten adiskidetasunak ministro batena beste balio du. “Nazioarteko Komitea” gau osoan batzartuta egon da; Emilik ere beilan egon behar izan du, bere *Blockeko* gau-bijilantziaren ardura baitauka. Ordu erdi egiten du lokartu dela, eta Rubioren lagun batek begirunerik gabe esnatu du:

—Altxa —esan dio— eta iritsi 3. *Blockera*. Komunetan aurkituko duk Rubio. Berehala ikusi behar hau.

Une haietan espainiarren koartel nagusia da 3. *Blocka*. Ateko zelatariak abisua eman arte ez du sartzerik izan marrazkilariak. Ileapaintzailea eta Manuel hamabost bat espainiarrek inguratuta daude.

—Ia segurtasun osoa zaukatek —esan du Rubiok— gaur izango dela gure azken atxiloaldi-eguna. Hitlerren heriotzaren berri ofiziala eman dik irrati alemaniarrek. Iritsi da ordua, beraz, dagokionerako denak prest egoteko.

Bertaratuek, albisteak hunkituta, buruarekin ematen dute onespena.

—“Nazioarteko Komiteak” aurrekoak baino misio arriskutsuagoa emango dizue. Manuelek, bera baita informazioak jaso dituen, azalduko dizue zein den zuen eginbeharra. Nire lagunak izaten jarraitzen duzuenoi, atzera ez egiteko eskatzen dizuet. Orduan azaldu du Hans Gupperrek agindu duela goizeko hamarretan, ordu bete barru doi, esparru guztiak formazioan jarri dadila.

—Ez dakigu zeintzuk diren haren asmoak —erantsi du—, baina ez fidatu gehiegi armadako indarrek SSak ordezkatzearrekin, haiek ere berdin bere aginduetara baitaude eta Hans Gupperrek agindutakoa egingo baitute. Gainera, oraindik SSko ofizial asko dabilta kanpoko dependentzietan. Ebakuazio-arriskurik ez dago batere. Amerikarrak errusiarrak baino hurbilago daude eta absurdoa da pentsatzea ekialderantz ebakuatuko gaituztela. Zertarako batu jendea, orduan? Ez da zenbaketak egiteko ordua. Edozein moduz, erne egon beharra daukagu: jende hau edozein desesperazio-ekintzara makur daiteke.

Aurrea hartu behar diegu. Hara hemen oharrak: nazionalitate bakoitzak txoke-talde bat dauka zeregin berezi batekin. Zuek izango zarete gure taldea, eta zuen zeregina eremuko atea asaltatzea izango da. Zuetako bakoitzak konfiantza osoko bi gizon aukeratuko ditu eta denak batera 2. *Blockarekin* formatuko duzue, atetik hurbilen dagoena baita. Bi pistola dauzkagu. Hans Gupperren aurka tiro egin behar baldin bada, eta lehen tiroa entzuten denean, harrapatu atea ahalik eta lasterren, ireki ahal duzuen bezala, eta ondoren armategira joko duzue. Nik nire armarekin lagunduko dizuet. Ez da asko, badakit, baina azazkalak baino gehiago balio du pistola batek...

Ordubete beranduago formazioko kanpaiak jo duenean, elektrizitatez kargatuta dago esparruko giroa. Komitearen larritasunak eta motinerako prestakuntzak momentu heroikoen aurretik datorren sugarrez kutsatuta egon da. Mundu guztiak daki, presoak akabatzeko intentzio alemaniarraren aurrean, altxamendu orokorrerako deia egingo dela. Dorreen gainean prest dauden metrailadore etsaiak aipatzen dira, aginduen zain dagoen SSz osatutako konpainia bat, duela zenbait egun lehenago prestaturiko gas-ganbera, Komiteak dauzkan eskuko granadak...

Ohiko ordenarekin formatu du jendeak. *Block* bakoitzak bere *Blockältesterra* dauka, izan ere *Volksturmera* joandakoak ordezkoez ordezkatu baitituzte, denak gaizkile arrunt alemaniarrak berak, baina bat-batean Komitearen kolaboratzaile amorratuen bihurtuak. Txoke-taldeak seinalatuta dauzkaten tokietan lekututa eta mundu guztia dagokion zeregina betetzeko prest, oso arma baliagarria da diziplina, SSen eskuetatik presoenera igarota. Itxuraz ez da ezer gertatzen.

Kommandanturreko lau sarjentuk jarraituta sartu da Hans Gupper. *King-kongen* ordezkoak zenbaketa egin behar ote den galdetu dio. Ezezko zeinuarekin erantzun dio eta, ondoren, indarrak gabeko ahotsarekin eta hura mendean hartzeko ahalegin bistakoarekin, eremuak fronteetik daukan egoera delikatuaz eta etsaiaren aurrerakuntzaren aurka erresistentzia-nukleo bihurtzeko aukeraz mintzatu zaio jendetzari.

—Nire eginbeharra zuen seguritateaz arduratzea da —erantsi du—, eta bonbardeketen arriskutik libratzeko proposatzen dizuet, modu ordenatuan, harrobian dauden lur azpiko fabriketara eramanak izan zaitezten baimentzeko.

“Nazioarteko Komiteko” presidentek, Frantisek erizainak, 2. *Blockeko* lehen lerroan formatuta, aurreratu eta presoan izenean hitz egiteko baimena eskatu du. So egin dio begietara zuzenean, baimena eman aurretik. Haren espresioaren eta eskuen mugimenduen bitartez, ustez presoek duten zirkunstantzietako demokrazia hark sortzen dion higuina adierazten da.

—Hitz egin —esan dio lehor.

—Esan berri diguzuna agindu bat da ala proposamen bat? —galdetu du txekiarrak ahots motel baina ziurrarekin.

—Proposamen bat, eta zuen interesen alde egiten dut. Erabakitzeko aske zarete eta ez dut ezertara behartzeko asmorik. Denak ez bazarete iritzi berekoak, nahi dutenak babestokira bideraraziko ditut, bertan geratu nahi dutenak kenduta. Hitz egin dezakezu zure kideekin eta erabaki dezatela.

Jendetza artegatuarengana zuzendu da txekiarra. Hans Gupperren proposamena azaldu eta premiagabekotzat jo du.

—Tropa amerikarrak hurbil daudelarik —erantsi du—, ez da sinistekoa *Obersturmfürerrek* uste duen erresistentzia aurkituko dutenik, hogeita hamar egun baino gehiago baitira hegazkin amerikar bat ikusten ez dugula. “Nazioarteko Komiteak” (kuriositatez begiratu dio Hans Gupperrek) zainduko du internatuen seguritatea eta oraingoz behar ez dugun babes baten bila eremutik ateratzea desaholkatzen du.

—Babestokia minatuta dago —oihuka, norbaitek.

—Amarru bat da —beste batek.

—Amerikarrak gure lagunak dira! Ez gaituzte bonbardatuko.

Zarata gorantz doa eta Hans Gupperrek irri egin du displizentziaz eta bistako urduritasunaz. Nekez eta lanez ezarri du isiltasuna txekiarrak.

—Erantzun babestokira joan nahi duzuen ala ez.

Ahobateko *ezetza* lehertu da plazan.

Errusiarrez eta frantziarrez errepikatu du proposamena. Inork ez du eskua altxatu. Hans Gupperrek sorbaldak altxatu ditu eta, bere irribarre despektiboa utzi gabe, esan du ekintza militarren ergaiezin norbaiti zerbait desatsegina gertatuz gero, bera ez dela ezeren erantzule egingo. Lasaitasuna eskatzen duela erantsi du, eta, bere aldetik, ziurtasuna ematen duela ordena urratu ezean ez dela inolako neurri errepresiborik hartuko.

Ordenaren eta diziplinaren organismo erantzulea badagoela erantzun du txekiarrek, eta jendearen lasaitasuna bermatuko duela gizonen segurtasun pertsonalaren aurka ezer saiatzen ez den bitartean. Anoa gehitzea eskatu du, batik bat laurogeialdiko eremuetan, non egoera desesperatua den.

Horretarako ordenak eman dituela erantzun du alemaniarrek eta zuhurtzia gomendatu du hornidurak banatzerakoan, biltegiak ez daudelako erabat beteta eta tropa amerikarrak uste baino gehiago luzatu ahal direlako.

Eguerdi hartan Emilik ez du deus jan. Bigarren eguna da ez duela bazkaltzen eta gauean banatzen duten ogi beltzari esker bizi dela. Estraperlisten arteko komertzioa kolapsatuta dago gertakari erabakitzaileen hurbiltasunagatik, eta zerbait daukanak ordu zailagoak aurreikusiz gordetzen ditu. Emilik ez du beste janaririk, anoako zopa jenezina izan ezik. Baina ez dauka goserik ere. Kanpoko gertakariak, une hartako esperantza handiak, urdailaren karraskatzeak baino garrantzia handiagoa daukate.

Zopa jaso ondoren, *Blockeko* ateraino atera denean nahi duenari eman ahal izateko asmoz, karitate harengatik basatiki liskartzen den zorigaiztoko jendetza aurkitu du. Eskaini zaion lehen ontzian hustu du platera eta, barrakara itzultzerakoan, jabetu da noraino den xurgatzailea gosea. Patata ustelduzko zopa bat da, azal eta guzti, kontzentrazio-esparruaren inguruan bildutako asunekin irakinda. Plater bat gehiago lortzearren hain modu amorratuan liskartzea, egun haiek ezin itzarotea, askatasuna lortzeko geratzen diren ordu gutxi haiek behar bada, soilik goi fakultateen deformazioagatik da ulergarria. Ordu gutxi haiek, azkenak berak, aurreko urte guztiak baino gogorragoak dirudite. Sentsazio eta sentimenduen exazerbazio bat da; gosea bulimia bihurtu da; berehalako ordura ez iristeko beldurra, izua. Korrikalariaren azken ahalegina da, helmugatik metro gutxira, gainerako ahaleginak sari bihurtuko duen azken apustua. Askatu da kontserbazio-sena eta jende haren jarrera soilik basatia den aldetik da gizatiarra.

Eremutik itzuli bat eman du Emilik, *Blocketako* ate guztietan, eta batzuen barruan ere bai, sekula ikusi gabeko jendetza dabil. Laurogeialdiko eremuak irekita, ordura arte itxita egon den jendetza lehen pausoa ematen ari da askatasunerantz. Aske dira, gutxienez eskuetan aluminiozko plater batekin paseatzeko, belaunak dardar, begiak parez pare irekita goseagatik eta irrikagatik; 1 eremuko barraketako sarreretan piltzeko aske, non zopa kirastu haren hondakinak jasoko dituzten, beste batzuek nahi ez dituzten hondarrak.

Zenbaketen plazara iritsi da Emili. Espazio eta aire freskoaren xerka. Sukalde ondoko biltegiaren mailadian eseri da. Bakardadea nahi du; nekatuta eta bere inguruan gertatzen ari den guztiarekiko interesik gabe. Beste batzuk gora eta behera lasterka doaz janariaren bila, edo barraken itxuratik mugitu gabe, ordu haietako gaiak eztabaidatzen dituzte. Inor ez da bakarrik jesartzen mailadian. Soilik bera. Ulertzen saiatzen da. Bere kideak berotzen dituen estimulurik ez: ideia politikoez, mendekugoseak, ez dute adierazten askatasun-zentzu benetakorik. Bere talaiaren bakardadean, egunen batean, batek daki, orain behar duen ulermen-betetasuna usnatzen du. Ulertu! Baina, zer ulertu?

Hotza sentitu du eta altxatu egin da. Sakonki hartu du airea. Airearen gardentasunak, mamituagoak, zehatzagoak egiten ditu erraustegien tximiniak. Artile errearen usainak ez du giroa kutsatzen. Horixe da datorren askatsunaren mezu autentikoena.

Astiro-astiro gurutzatu du plaza; Komiteak klandestinitatekin irten denetik daukan bulegora iritsi da. Jende asko sartu-irtenean. Marrazkilariak galdetzen dio bere buruari zer bilatzen duen jende hark eremuko ziurtasuna definitiboa dirudien une hartan. Leiho bat ireki eta Manuelen ahotsa entzun du.

—Zergatik ez haiz sartzen?

—Oso okupatuta zaudete, bat gehiago nintzatekek molestetzen.

—Ez, ez. Bazaukaagu zeregina hiretzat.

Desenkusatzea luzeegia izango delakoan, bada zati bat marrazkilaria mihise zuri baten gainean honako inskripzioa ingelesez marrazten ari dela: “Ongietorria gure askatzaileei”. Beste zereginik ez daukaten askok inguratzen dute kuriositatez, beren berriketa hutsalekin betez. Ondoko gelatxoan batzar iraunkorra dauka Komiteak.

Emilik irribarre egiten du, pentsatuz zer demontre eztabaida dezaketen gizon hauek hainbeste orduz jarraian. Berriketan ari dira Komitekoak, esparruko mutur batetik bestera doaz lasterka, gau guztian mahai baten aurrean ematen dute; loari uko eginez uste dute une hartarako gai direla. Bada norbait gelaurretan dabilena soilik kuxkuxeatzeko; beste batzuek maila emango dien “misoa” bilatzen dute. Ez dira falta arribistak, handiputzak ere ez, ez eta zerbaitengatik barkamena merezi dutenak. Arriskuren bat gertatuz gero, seguru gehienak mirakuloski desagertuko direla. Ondo ezagutzen ditu Emilik: lanik ez egitearren beren kantinak “kapoei” oparitu izan dizkietenak, judu edo errusiarrekiko alemaniarren krudeltasunak irribarre gaiztoarekin onetsi izan dutenak, salatariak, gainerakoan janarekin komertziatu izan dutenak, arbi-platerkada baten truke beren anaia salduko luketenak. Orain beren burua eskaintzera doaz, ikusiak izatera, onberarena egiten, orain, horrek batere arriskurik ez dakarrenean. Ernest ere bertan da, bilkura haietako batean.

Frantisek dator orain. Presaka dator jendearen artean bide eginez; bere espresio hermetikoak albiste garrantzitsuren bat adierazten du. Isiltasun handia egin da minutu batzuren buruan, Komiteko beste kide bat ozen eta alemanez esateko atera denean:

—Beldurgarri izan den etsai bakarrak ezin digu orain ezer egin. Hans Gupperrek, bere emazte eta semeekin, bere buruaz beste egin du orain ordu batzuk.

Murmurioek ahotsa estali dute minutu batzutan; azkenean bukatu ahal izan du:

—Sen buruzagitza osoak alde egin du esparrutik eta agintaritzza Armadaren sarjentu baten eskuetan utzi du. Hedarazi albiste hauek eta eskatu lasaitasuna mundu guztiari. Gure segurtasuna definitibotzat jo daiteke. Indar iparramerikarrak iristea baino ez zaigu falta. Gora askatasuna!

Izei-adarrez eta aliatu guztien banderekin edertu dute sarrera txinatarra, Estatu Batuen izar eta marrak lehen mailan daudelarik. Zenbaketen plaza osoan armada garaileenganako ongiatorri-errotuluak eta gorak daude zintzilik. Emilik eta pintzelak erabiltzen dakiten guztiek esna igaro dute gaua, errotuluak eta errotuluak margotzen.

Lehen orduz geroztik, jendez beteta dago, abanguardia motorizatuen etorreraren zain. Diote askatzaileek ez dutela inongo erresistentziarik aurkitzen eta, segur aski, eguerdi aldera sartuko direla eremuan. Gau hartan sukaldariek ere gogotik lan egiten dutenez eta eguerdiko zopa ugaria eta lodia izan delarik, jendearen kitzikadura zaratatsua da. Laurogeialdiko esparruetako jendea, aspaldiko partez lehen aldiz urdaila beteta, hasia da ikuskizun hargatik interesatzen. Esparruaren itxura aski ezohikoa da aldaketaren ziurtasuna miseria fisiologikoak intsentsibilizatuenean kontzientziaraino ez sartzeko.

Baina goiz garden hartako orduak bata bestearen atzean aletzen doaz inor agertu gabe. Zopa lodiaren efektu ongilea desagertu egin da eta, gutxika-gutxika, bazkaria, aparta izango delako ustean, askorentzat amerikarren sarrera baino garrantzi handiagoa izaten

hasi da. Jendetza sakabanatu egin da poliki-poliki, bakoitza dagokion *Blockean* sartu da galdaren atezuan eta, posible da, norbaitek inpresioa edukitzea, askapenaren historiarekin atzipetuta izan dela. Gutxi batzuk baino ez dira geratu ate txinatarrean, hamabietan sukaldeko termoak atera direnean.

Gogoz jaten du Emilik, baina ez du platera amaitu, eta garrasiak entzun ditu eta eremuko aterantz korrika ikusi du jendea. Korrika atera da. Alde guztietatik ateratzen da jendetza bide berari jarraituz. Ematen du hizkuntza guztiak bat bakar eta unibertsalean berregin direla, hain errazki elkar ulertzen baitute denek.

—Hemen dira! Amerikarrak! Badatoz! Aske gara! Tankeak!

Ibiltzeko aski indarrrik ez daukatenak arrastaka doaz. Korrikaldietan batzuek egurrezko oinetakoak galtzen dituzte. Batzuek airera jaurtitzen dituzte kapela marradunak edo bularrean daramaten arroparen zenbakiak desjosten dituzte, tiraka.

Marrazkilaria atearen ingurura iritsi denean, ezinezkoa zatekeen atzera egitea. Multzokatzen den jendearen artean harrapatuta, giza erauntsiak astinduta, erreka batek herrestan eramana iduri. Ez du deus ikusten; gainerakoek ere ez dute, antza, ezer ikusten, oin-puntatan jartzen direnek eta auzoaren sorbaldaren gainean bermatzen direnek. Aldarriak burrunbatsuak dira.

—Mesedez —zurkaitz bezala erabiltzen duen lotsagabe baten aurka protestaka.

Aurrealdean buruak baino ikusten ez dituenek, atzera itzuli ditu begiak. Ikuskizunak merezi du. Plazatik, malda errazean, benetako preso-mordoak jaisten ari dira. Azkar ibiltzerik ez daukaten batzuek beste batzuk bultzatzen dituzte eta, jausiz gero, altxatu egiten dira ezeri kasu egin gabe. Ezerk ez du balio ate haiek izan ezik, jadanik ez ixteko ireki direnak. Eta tankeak zurrungaka errepidean aldatz gora. Eta lehen blindatuaren sarrera ikusteko, indultu definitiboa jasotzeko multzokatzen diren milaka eta milaka kondenatuen bulkada izugari ederra. Boluntario batzuk, ahalegin desesperatuak eginda, eskuetatik oratuta eta soka osatuz, handitzen doan giza uhinari euskarria jartzeko, eta tanke garaileei pasabide bat, denik eta ttikiena, egiteko saiatzen dira. Motoreen marmarra nabarmena egiten da, eta Emili, aurreko aldean daukan masako buruen artean, lehen tankeko sabaian eserita antzeman ditu Komiteko kideak, kanoiaren gainean banderak haizaratuz, zerura destatzen duten atzamarren gisara, zurrun. Kakiz jantzita, hautsez beteta eta kasko desproporzionatuak jantzitako soldadu batzuekin besarkatzen dira, ahoak ireki eta inork entzun ez dituen gora batzuk oihukatzen dituzte.

Jendetzaren orroa are gehiago hazten da tankeak atetzar txinatarra gurutzatu duenean:

—Aupa, aupa! —Emilik aldamenean dauzkan ahots arraro bazu oihuka.

Hizkuntza berriaren, bakearen munduan derrigorrezkoa egingo den hizkuntza unibertsalaren lehen hitza balitz hedatu da oihua.

—Aupa, aupa!

Berbiztutakoen bilkura bateko oihua da.

Tanke nekez doa aurrerantz jendetzaren artean, haragi bizia bisturiaren aurrean irekitzen den bezala. Nabarmen doa bost puntatako izar zuria artefaktuaren berde kakiaren gainean. Soilik beldar-kateen harrabotsa sentitzen da zalaparta hartan. Bozkario histerikoa da.

Blindatu baten atzean beste bat iritsi da, eta are beste bi. Gero *jeepa*, ofizialekin. Denek gurutzatu dute bost urtetan kondenatuek eta borreroek baino igaro ez duten atetzar hura. Marrazkilariak espalaira iristea lortu du, non errazagoa den ibiltzea. Ikuskizuna delirantea da. Eslabiarrek nekerik gabe elkar musukatzen dute; latinoak oihuka, saltoka eta eskuak goraka dabilta. Iugoslaviar batzuk, euren bandera lau haizetara, tankeetako batera igo dira eta hizlari inprobisatu batek bere ahots indartsua entzunaratzten du: mundu guztiak egiten du txalo —ulertuz edo batera ulertu gabe—. Soldadu amerikarrak etengabe irribarreka doaz, iragarkietan bezala, eta zurtuta kontenplatzen dituzte eszena haiek.

—Hotzak dira amerikar hauek —esan dio ezezagun batek Emiliri.

—Zer nahi duk? Dantza egitea?

—Aupa! Aupa! —milaka ahots erlastu garrasika.

lugoslaviarrak diskurtsoak amaitu eta himnoak abesten hasi dira, eta elkarrekin kantatzen dituzte denek. Kuxkuxero batzuek tankeak eta euren ekipoak aztertzen dituzte. Amerikarren janzkera soilak, pixka bat nagia baina kalitate onekoak, esekita daramaten pistolak, *cowboy* balira bezala, kaskoak garondora botata, aire bitxia hartzen dute alemaniarren uniforme zurrunera ohitutako jendearen begietara. *Jeepek* atentzioa erakartzen dute, beren itxura baldarrarekin, antena arrantzazko kainabera bezala zintzilik eta gidariek daramatzaten irratia kaskoak.

—Pelikula komiko bateko Forda zirudik.

Hamahiru urteko preso bat aurkeztu zaie soldauei. Haien musukatu eta txokolatea eman diote jendeak “aupa” gehiagorekin ezta irriak urratzen dituen bitartean. Beste preso batek soldauei batek paper-zati batean sinatzeko ideia eduki du. Etsenplua imitatua izan da eta mundu guztiak bilatzen ditu papertzarrak autografoak erdiesteko. Ordu erdi luze batean sinatu besterik ez dute egin, amerikarrek neke-seinaleak egiten dituzte, eta gertakari lazgarri batek eskaleak apartatzeko aitzakia eman diete.

Emilik ere, gerra-makina haietako bat eta bertan doazen soldaduak arakatzen dabilerarik, oihuak entzun ditu bere atzean. Beso bat pasatu zaio belarri ondoan eta, begiak altxatzerakoan, behatu du beso haren eskuak autograforako txanda itxaroten dagoen subjektu baten lepoa estutzen duela. Gizonak bularrean josita daraman triangulu berdea ikusteko denbora izan du doi, gertatu den istiluak atzera egitera behartu baitu. Alemaniarren lehen belarrondokoarekin galdu du bere kapela eta orain aurpegi jasotzen ditu ukabildak. Amerikar bat tanketik jaitsi eta bakeak egiten saiatu da. Erasotzaileek errusiarrez oihukatzen dituzte beren azalpenak, egurtzeari utzi gabe. Soldaduak interprete bat eskatu du. Ingeleseko hitzen bat ezagutzen duen batean batek kide gaizto bat dela jakinarazi dio eta ondo merezita daukala zigorra. Amerikarrak osterako tankera igo eta egiten uztea erabaki du. Presoetako bat harritzar batekin iritsi eta denen artean burua lehertu diote, hil arte.

Emilik errusiarrei galdetu die zein den lintxatua.

—Harrobiko *kapoaren* laguntzailea —erantzun diote alemanez—. Hiltzaile bat. Errusiar asko eta judu asko. Guk ez dugu ahanzen.

Patruila amerikarraren ofizialburuak beste bisita bat egin du esparrura, “Nazioarteko Komiteko” zenbait kiderekin batera. “Esparru errusiarrean”, erizaindegian eta erraustegian egona da. Zurbil samar, *jeepera* igo da tankeek motorrak piztu dituzten bitartean. Badoaz. Preso-talde batek babestuta, bere fusila indar garaileen esku uztera doan berrogeita hamar bat urteko soldadu alemaniar bat iritsi da. Kasu bakarra izan behar du, izan ere esparruko zelatari guztiek alde egin baitute tankeak iristean. Komiteko interpreteak gizagaixo bat dela adierazi du. Ofizialak, irribarretsu, eskua luzatu dio, bertaratuen txalo artean. Alemaniarren, nahastuta eta hunkituta, aurrean jarri zaizkion preso guztiak besarkatzen ditu.

lugoslaviarrek etengabe himno iraultzaileak kantatzen dituzte, poloniarrek erlijiosoak, espainiarrek ikusarazten dute denetara ohituta daudela eta hura dena ez dela ezer beren gerra zibilaren aldean, frantziarrak sentikor ipintzen dira, italiarrak “porca miseria” esaka dabilta, eta errusiarrek aurreko egunetako borraroen atzetik. Azkeneraino iristeko zortea izan duten judu gutxiek oinak herrestan daramatzate, eskuak igurzten dituzte uzkurkuta, haserrezko begiekin behatzen dute dena eta ez dute deus esaten.

Izar zuriko blindatuek esparrua utzi eta atea irekita geratu da. Preso ohi askok jarraitu diete eremuz harago, plaza libratu egin da eta, ura jasa baten odoren erretiratzen den bezala hondoa ikusaraziz, bost hilotz bortizki mutilatuta agertu dira bakoitza bere odolputzu gainean. Jendeak ez ditu begiratzen.

Atsedean pixka bat hartu. Norbaitek bere oheko burusiak eraman dituenaz, lastozko zakuan etzan da Emili. Nekea muturrekoa denean, inoiz baino gehiago isiltasuna behar da lo egiteko. Barrakako kideek abestu egiten dute, buila atera, borrokatu eta armairuak zapartatzen dituzte estufan errez. Orokorra da desordena. Tankeen sarreran, zentinelek dorreak utzi dituztenean, jendetzak hesi arantzadunak ebaki eta kanpoko itxiturako biltegia asaltatu du. Fede oneko jendeak "aupaka" dabilelarik, harrapakariek hornidurak, arropa eta armak eskuratzen dituzte. Errusiar ordi bat fusil-salbak jaurtitzen hasi da eta tiroek jendetzak askatasunari buruz daukan esanahi eztagarria esnatu du. Etsenpluak imitatzailleak aurkitu ditu; Komitearen parte-hartze azkarrak ezin izan du hondamena ekidin. Odola ixuri da. Zaratarekin dibertitzen direnen tiroak zapartatzen dira edonon, alkoholak sortutako etsaiak esterminatzen dituztenenak edo benetan mendekuaren plazerra dastatzen dutenenak. Jendea bizi-bizi ari da. Askok esparrua utzi dute eta, ogiz kargatuta, burusi bat galtzarbean zeharka, abenturen bila joan dira alorretan zehar, behar bada inguruetan ezkututako SSen bila, behar bada baserriak asaltatzera.

Alferrik lo egitea, argitik babestuko zaituen burusirik gabe. Eskandalu honekin... Emili altxatu egin da. Kalera irten da. Komiteko kide batek geratu eta bulegora joan behar dela esan dio. Zer nahi dute orain? Eta bi gizonak kalean gora joan dira. Kale-kantoiak pasata, ia estropezu egin dute hilotz batekin. Kraneoa zanpatuta dauka eta errotulu bat identifikatzeko: "Popeye, bukatu zaizkizu espinakak". Emilik begiratu egin dio: haragi-eta arropa-multzo honen gainean eskua jarri dion lehen gizona da, eremuaren errealitatea sentiarazi dion lehen gizona. Oso pertsonaia garrantzitsua bere bizitzan. Beste garai batzuetan sentitutako gorrotoa alferrikakoa begitantzen zaio orain. Jipoi haren oroitzapena ekartzen saiatu da, baina bere memoriatik sortzen diren irudiak ez dagozkie zirkunstantzia haiei.

—Merezita zaukak —dio komitekideak—.

—Ez diat asko gogoratzen —Emilik ahopeka iruzkinduz—. Agian esan behar da ondo iruditzen zaiola, mundu guztiari bezainbeste; besteen maila berberean ipini. Urte hauetan guztietan hau iristea itxaron du eta, ordea, orain ez daki zer egin; ez duela asko gogoratzen esanda libratzen du ataka. Lastima ematen al dio *Popeyek*? Soilik botagura sentitzen du eta, berrabiatu, urratsak azkartzen dituela konturatzen da.

Beherago beste lintxamendu bat behatzen duen talde bat dago. Marrazkilariak are azkarrago doa, bulegora iritsi arte. Bere aurrean fusilez eta metrailetaz kargatutako gizon batzuk sartu dira.

—Armategian aurkitu ahal izan diagun guztia da —azaldu du kapiroteak—. Dena eraman dute inkontrolatuek.

Emili Rubiorenagana zuzendu da ahotsean bortizkeria arraroarekin:

—Zergatik joan dituk amerikar hauek? Ikusiko diagu nork eutsiko dion jendeari orain!

Bera ere harrituta dago horrela hitz egin izanagatik. Dardarka dauzka eskuak.

—Ez kezkatu —erantzun dio Rubiok, irribarrez—. Tropa gehienak ez dira atzeratuko. Herrira deitu diagu bijilantzia-txanda bat eskatuz, baina ezin ditek ekidin. Diote, guri dagokigula; horregatik deitu haut.

—Prezeski niri.

—Desordena ez da haziko —jarraitu du Rubiok, entzun ez balio bezala—. Ezerk ez dik gehiago nekatzen inozoarena egitea baino. Arma gutxi hauekin aski izango diagu. Guri, espainiarroi, bederatzietatik hamabietaroinoko goardia-txanda dagokigu. Sukaldeko biltegia da ukitu gabe dagoen bakarra. Asaltatzen baditek, bihar hemen ez dik inork jango. Hartu ardura ekiditeko. Hamabietan frantziarrek hartuko diate txanda.

—Ba al dakik bi egun daramatzadala lorik egin gabe?

—Suposatzen diat; nik gehiago daramatzaat.

—Horrek esan nahi dik onartu beharra daukadala?

—Bihar urte oso bateko loaldia egin dezakek, nahi izanez gero.

Pixka bat beranduago, Emili *Blocketan* sartu eta irten dabil *bere gizonen* bila. Ez du inor inon aurkitzen. Soilik gora eta behera ibilita harrapatu ditu bi, kasualitatez. Erortzen utziz gero, lo hartu egingo luke. Begiak zabalik mantentzen ditu. Baina iristen zaizkion irudi guztiek ametsen lausotasuna daukate. Amesgaiztoen nahasmena! Alde guztietatik lastozko zaku txikitu berberak, zati-zati egindako altzairu berberak, burusi- eta arropa-zati abandonatu berberak. Sute handi batzuk garretan daude plazan eta barrakagunego barraketan. *Blocketako* mahaiak irina zapaldu eta *koka* garatugabeak egiteko balio dute. Askok ahi-pertzakadak egosten dituzte edo berdura lehorrak edo makarroiak prestatzen dituzte. Nekez mantentzen den gizon batek ia-ia zapaltzen duen irin-zaku bat darama bizkarrean. Barraka batetik bi gizon atera dituzte, haietako batek maneatzen duen esku-granada baten eztandak hilak. Ero bat *Arresteko* beirateak harri-kolpez txikitzen entretenitzen da.

—Horrela naziak freskoago egongo dituk, ixten dituztenean —ohikua.

Eta beti tiroen musika. Emilik ulertzen du saldoka doazen haiek, alkandora eta kaltzontzilo hutsez jantzita, “eremu errusiarreko” gaixoak direla. Goseti bat, horma batean bermatuta, irin gordina jaten ari da, eskukadaz.

—Ba al dakik Enric hemen barruan ote dagoen?

—Enric, diok? Uste diat herrira joana dela.

—Zertara joan da?

Batzuk patatak zuritu eta frijidura bat egiten ari dira kalera atera duten estufan. *Block* bateko atean, bi tipo eskeletiko basatiki borrokatzen ari dira ogi batengatik. Bada norbait zoko batean makurtu dena lixeriketarik zailena egitera.

Emili esparruan herrestaka ibili da eta jadanik ez daki zeren bila dabilen. Oso mundu nahasian pentsatzen du eta amesgaizto haren esanahia azaltzen saiatzen da. *Erreakzioa*, *konpentsazioa*, *berbiztea* hitzak eta beste batzuk dauzka buruan dantzan, baina ez dute ezer argitzen. Masarentzat bi termino absolutu daude: onak eta txarrak, gosea eta ugaritasuna, bizitza eta heriotza. Gailendu dena, soilik gailendua izan denaren ifrentzua besterik ez daiteke izan. Jendeak soilik aldaketaren kontzientzia izan dezake batzuen odola dagoen tokian beste batzuen baldin badago, debekatuta egon dena orain baimenduta baldin badago eta alderantziz. Denaren buru, nazka eta nekea sentitzen du marrazkilariak. Suminduta dago, ez daki zeren kontra eta noren kontra. Egia da ikuskizuna ez zaiola berria egiten; primarioek dauzkate armak? Ez zaie tiro egiteko zoroaldirik faltako! Ulertu... ulertu zer? Argudioak astunak iruditzen zaizkio: “Eurijasek txikizioak egiten dituzte. Baina luzaroan emankorrek dira”. Horiek denak esaera pedanteak dira, ezer konpontzen ez dutenak. Bihar iritsiko dira okupazio-indarrak, berria izango da ordena: ara zer den garrantzitsua! Epaitu? Soilik erabilgarri izateko betebeharra dago, orain. Emilik oinak arrastatzen ditu, *Blocketik Blockera*, beste bi gizonen bila.

Jesarrarazi egin du Rubiok. Irrati batek frantsesez ematen ditu azken albisteak. Hiri alemaniar deseginak, amore ematen duten pertsona, general eta buruzagi naziei buruzko zifra astronomikoak. Esatariaren ahotsa entzun eta ongi tinbratua aurkitzen du. Jadanik ez dago ezkutatu beharrik irratia entzuteko! Gizon libre bat da. Irribarre egin eta eder aurkitzen du gelditu gabe hizketan dagoenaren ahotsa. Kanpoko gizon haren ahotsa, beretarren artean hartu nahi duena, beste garaile bat bezala. Garaile? Barre egiteko gogoia dauka.

“Bradley generalaren indarrak beste giza hiltegi bat topatu dute Danubioko erriberan, Linzetik gertu, non nazionalitate guztietako milaka deportatu politiko baldintza imajinaezinetan itxita egon diren; errausketa-labeek ehunka hilotz dauzkate usteletze-prozesu aurreratuan instalazio errausgileen gabeziak direla-eta”,

Nazioarteko Komitekoek dimititu duten sukaldariei ordezkioak bilatzeko moduz eztabaidatzen dute; aldika isildu egiten dira informazioak entzuteko. Bera dagoen esparruari dagokiona bereziki ondo hartua izan da:

—Edizio italiarrean eman duten berbera da —komentatzen du bertaratutako batek.

Denek aitortzen dute entzuna daukatela baina entzumenak gozarazi egiten ditu ostera entzuteak. Askatasuna imajinatzea, ez den bezalakoa, desordenez, makurkeriaz eta odolez, baizik esatariaren ahots liluragarriak, errealitatetik milaka kilometroa, adierazten duen erara.

Aparailuaren koadroa bat-batean ilundu eta lilura apurtu egin da. Norbaitek etengailua probatu du:

—Ez dago argirik.

Elektrizitatean aditu batek, konponketaren ardura eman zaionak, pixka batera itzuli eta adierazten du ezin duela matxura lokalizatu ilundu aurretik.

—Esparrutik urrun gertatu dela dirudi —suposatzen du.

—Argirik gabe! —Frantisekek—. Besterik ez genuen behar!

—Ez eta urik ere —gehitzen du Rubiok.

—Ezin dut ezer egin —dio elektrikariak.

Manuelek gainera datorkien gau baten argi-faltak ekar ditzakeen ondorio larriak zenbakitzen dituen bitartean, espainiar bat lasterka sartu eta Rubio dagoen taldera zuzendu da. Arnasestuak ez dio hitz egiten uzten.

—Zer gertatzen da? —galdetzen du ileapaintzaileak bizpahiru aldiz.

—Ernest... Atentatu bat egin ditek haren aurka... Nire aurrean bertan... Zuek orain ikusten zaituztedan bezala ikusi diat...

—Nork egin dik? —galdetzen du Manuelek, Rubiok ematen ez duelarik ezer sentitu duen seinalerik.

—Zahar haren semeak, zigor-konpainian hil huan harenak. Sukaldean patatak lapurtzen zituenarenak.

—Bai, bazakiagu nor den —mozten du Rubiok ahots-hariarekin.

—Ernest bakarrik zihoan 6. *Blockaren* aurrean. Beste bat hurbildu eta esan dio: “Jada ez daukagogoan nire aita, ez da?”. Eta pistolarekin tiro egin dio sabelean.

—Hil al da?

—Ez zakiat. Erizaindegira eraman ditek.

Rubio altxatu eta irten egin da. Iluntzen ari da eta leihotik sartzen den argitasun apala Manuelen hazpegiak gogor ebakitzen ditu, orain mintzo delarik.

—Rubiok sentituko dik. Adiskidetuta zeudean, ba al dakik? Ernest ondo ibili da azken aldion. Gizon haren heriotzak hunkituta...

Emilik ez du mozten. Nekeak aulkiari lotuta dauka eta inguruan daukan guztia irrealia iruditzen zaio. Ernest erasotua izan da. Gogoan dauka, nola ibili ohi zen beti, aldatuta eta biserako kapelarekin, jantzi marraduna doituta eta oinetakoak oso ondo lustratuta. *Popeye* bezala hilda, beste asko bezala. Odola eta lohia. Ez du errukirik sentitzen; soilik nazka eta nekea.

Laster itzuli da SSen ileapaintzailea.

—Bizirik al zagok?

—Ez —Rubiok, apalki.

Eta mahai gainean papera bilatzen duenaren planta egin du. Gero, erlojuari begiratu eman eta eztarria garbitu du.

—Zortzirak eta laurdenak dituk, Emili —dio, eztiki—. Joan hadi hire gizonak batzera. Abisa iezadak prest zaudetenean.

Begiak altxa ditu Manueli begiratzeko.

—Ez ahaztu sukaldarien arazoa.

Marrazkilaria atera egin da gelatik. Kanpoan, jendea gora eta behera, ilunpean, suteek ke-zutabeak botatzen dituzte eta jaurtitzaille nekaezin batek toki urrunen batean

botatzen dituen tiro tartekatuak entzuten dira. “Odola eta lohia –pentsaten du–. Heriotza zikin eta nekosoa”. Irratiak ziurtatu du orain gizon libre dela.

—Ssen patruilak eremuari eraso egiten —esan du marmarrak.

Eta ilunpean, izuak tiroketa eragin du eskopeteroen artean: bi gizon zauritu dira. Alarma ergel hau kenduta, goardia-txanda lasaia izan da. Orain, Emili bulegotik atera da ordu batzuk lo egiteko xedearekin. Inoiz baino ilunagoa da gaua. Sute ia amatatuen puntu gorritzak ikusten dira kaleetan, oraindik burusiekin babestutako gizon batzuek beilatuta. Oraindik ibiltari asko kaleetan. Sarrerako atetik joan eta etorri dabilta, behar bada ez direlako ohitu nahi inork ez kontrolatzera. 6. *Blockaren* oinaldeko ezpondaren behekaldean, gizon bat dago lorrintzen eta hasperenka. Ur eske dago. Emili hurbildu eta, altxatzen saiatu denean, konturatzen da ez daukala pisurik. Apar itsasgarria irristatzen da haren ahotik. Gehiegi jan eta hil zorian dago. Dena da iluna marrazkilariak bidali duen erizaindegia; mundu guztia lo dago eta, nahiz eta bilatu eta oihi egin, ez du hilzorian dagoenari laguntza eman ahal dion inor aurkitu. Ura! Ezinezkoa inon aurkitzea. Arratsalde hartan asko izan dira ura bilatzeko esparrua utzi behar izan duten egarrituak. Bulegora iritsi da pixka bat lehenago, berak edan duen “kaferik” geratzen ote den. Kandela batek argi gorritzta eta dardartia ematen du. Manuelek dio “kafea” bukatu egin dela baina amerikarrek herritik bidaltzen duten urtanke baten zain dagoela. Gaixoez arduratuko dela agintzen dio, asko baitira.

—Joan hadi lo egitera, arin —aholkatzen dio—. Ez geratu zutik. Edan basotxo bat lehenago, suspertuko hau.

Oso indartsua da alkohola eta ia ito egiten du.

—Begira —Manuel bat-batean oihuka, leioa erakutsiz—. Kalera irten dira. *Sua!* hitza hizkuntza askotan oihukatzen da. Keak esparruan jausi eta eztarrian, beste kearenak, erraustegiarenak, zeinari denok ohituta dauden, bestelako erretura eragiten du. Erabili daitezkeen gizon eskasak mobilizatu egin dira sutearen hedatzea ekiditeko. Esparruko altzari- eta arropa-biltegi bat da, kanpoaldean kokatua, erretzen ari dena. Barrakako egur idorra zuzi bat bezala zabaltzen da. Suhiltzaile inprobisatuak, pala, pikatxoi eta su-itzaltzeko batzuen jabe, desesperatuki borrokatzen dira ahal duten erregai guztia sutik apartatzeko.

Orain, gizagaindiko ahaleginak egiten ditu Emilik kideen erritmoari jarraitzeko, zeinek, katean ipinita, oraindik sugarrek harrapatu ez dituzten barraketako departamenduak hustuzten dituzten. Arropa-, izara-, ezpainsapi-, alkandora- eta kaltzontzilo-paketeak, egur-zatiak, armairuak, mahaiak, oheak, gelditu gabe pasatzen dira haien eskuetatik. Suaren argitasunera, begiek zerebroraino eramaten dizkio kontzentrazio-esparru alemaniar bateko material guztiek daramaten gaininprimaketa, zigilua —kateko mugimendu haren erritmoan mailukada modura errepikatua—:

K.L

REICH

Arroparen gainean tintaz inprimatua, egurrean suarekin irarrita, Emilik etengabe ikusi du lau urte eta erdian zehar, eta badaki markatu nahi izan duten estigma dela, bere kide hildakoez merezi izan duten epitafio bakarra. Baina, orain nekearen zurruntasunean bilduta dagoelarik, bere giharren mugimendu automatikoez sentikortsuna sorgortuta, ahaztu egiten zaio *Konzentrations Lager Reich* hitzek esan nahi dutena, eta soilik hizkien marrazkiak eta ixten dituen hariak obsesionatzen dute. Marka bere begien pean pasaka eta pasaka doa eta, pakete bat alderantziz datorrenean, edo egur bat atzekoz aurrera, berak ipintzen du zuzen irudien erritmoa apurtu ez dadin. Bat-batean egiten ari denaz jabetu eta beldur dio obsesio honek ezkuta dezakeen balio sinbolikoari. Estigmatizatuta al dago benetan? Benetan

kontzentrazio-esparruko hondakin bat al da? Inposatzen zaion ahaleginaren aurrean matxinada bat sortzen zaio barrutik. Galdetzen dio bere buruari: “Zergatik salbatu tresna hauek?” Su hartu dezala esparruak, erre ditzatela barraka guztiak eta marka hau daramaten altzari guztiak eta arropa guztiak! Nork daki askatasuna su hau ez ote den? Zama ikusezin handi batek bere besoak zamatzen ditu, eta giza katea moztu egiten da. Jadanik ez da makurtu lurrera jausten utzi duen fardela jasotzeko, alderantziz, biratu eta alde egin du.

—E, zertan ari haiz? —galdetzen diote.

—Popatik hartzera! —ohiukatzen du erantzun gisara.

Esparruan sartu da. Barrakaguneko teilatuak sutearen argitasun zalantziatik argituta daude. Bi itxituren arteko hormak, beren itzalarekin, plazaren zorua inexistente bihurtzen du eta, une batzutan, Emilik inpresioa du hutsean dabilela. Sute txikien txingarrak fosforeszenteak dira, katuen begiak nola. Kea, laino gorri bat bezala, esekita dago aire geldian, erre arren, atsegina gertatzen den kea, ez baita erraustegikoa...

Nora doa? Ez daki! Barraka ilunak itzal-labirinto batean nahasten dira eta jadanik ez dauka gogoan zein den berea. Jendea gora eta behera dabil oraindik, soraio, ausente eta irreal egiten duen sonanbulismo-egoeran. Erakargarritasun bitxi batek galgatuta, marrazkilaria su ttiki baten aurrean geratu da. Burusi batean bildutako gizon bat esnatu eta, instintiboki, amaitu ezin izan duen ahia gordetzen duen latazko pote gainean ipini du eskua. Emili eseri egin da, hankak gurutzatuta, oraindik epel dagoen lurraren gainean.

—Erre egin nahi al duk? —galdetzen du, lehenago Manuelek eman dion zigarro bat gizonari eskainiz.

Galdetuak ez du alemana ulertzen, baina eskua luzatzen du. Korrokada itzela bota eta barre egiten du, ulertu duelako bere “altxorra” ez dagoela arriskuan. Txingar batekin piztu dute biek. Suaren beroa, tabakoaren keak gidatuta, erraietaraino sartzen zaion inpresioa dauka Emilik. Gauza harrigarria, amesgaizto-egoera honen eraginez lo egiteko gogoia desagertu egin da, nekea batik bat atximur inefable eta gozoa da, eta bere kidearen eta bere arteko isiltasunak ezerk asaldatzen ez duen baretasun definitiboa sortzen du. Gizon honek nola erretzen duen behatzen du, luze behatzen du, gozotasun-sentsazioak orditzen duen arte, gradu altuko ardo batek nola. Argi ikusten du orduan bakea lortu duela eta gizon hartan pertsonifikatuta erdietsi duela. Gizakia! Gizakia, akzidentala den ororen gaineratik, arrazaren gaineratik, nazionalitatearen gaineratik, partiduen gaineratik, adiskide eta indibidualtasun indartsuen gaineratik. Batez besteko gizakia, nora doazen jakin gabe munduko kale eta bideetatik doana; gosea eta egarria pasa duena, urtetan beldurra ezagutu eta orain betekadaz korrok egiten duena, interregno gau baten inpunitatean bromaka dabilena; instinto primario inmutableez mugitzen dena, beraz, edozein kanpoko egitatek zibilizazioaren geruza apurtzen du.

Behatzen du nola bere kideak zigarrokinaren muturra atximur batekin itzali eta belarriaren atzean gordetzen duen; nola begiratzen duen potea zekenkeria-begiez, eta nola azkenean tentazioan erortzen den, adiskideari eskaintzeko gizalege laburra ahaztu gabe. Jatuntasun-mugimenduekin, gizon honek ahi lodi eta pixka bat epela irensten du. Are beteago sentitu nahi du!

Ezezagunak, zeinari ezin izan dizkion hazpegiak baino ikusi, bere jatuntasun eta uzkurtzearekin, indar sinboliko handiagoa dauka egun hauetan irratian mintzo diren pertsonalitate haiek guztiek baino. Hau bezalako milioika gizon dira gerra irabazi dutenak beren susfrimenduekin eta beren umiltasunarekin, baina batik bat beren kontserbazio-instintu hautsiezinarekin. Garaileak ez dira izan Estatu jakin batzuk, ez da politika bat, ez eta ekonomia bat ere, ez eta klase buruzagi batzuk, ez obrerismo iraultzailea, ez partidu batzuk; milioika eta milioika gizonen masa bat, nekazariz, langilez, burgesez, apaizez, aristokrataz osatua —arraza eta klase guztietako, erlijio

guztietako eta ideologia guztietako gizon eta emakumeen masa bat, kexatu gabe dena eman duten gizon eta emakumeen masa bat, beren sakrifizioaren balioa ezagutzen ez duen masa bat, munduaren taupadaren sakonena dena.

Eta Gizakia handitzen doa Emiliren pentsamenduan, bere arnasarekin sortzen arituko bailitzan, eta bizitzea egokitu zaion garaiarekin enmarkatuta ikusten du. Orain ahiz betetzen den gizon hau kuraia fatalistarekin, zoriontasun eta aboslutuaren kimerarik gabe. Hura da, munduaren konbultsio handien jostailu izanik, azkenean, inposatu zaizkion sakrifizioen pisuarekin, balantzakada definitiboa determinatzen duena. Haragi eta odol gauzaturik, Gizonak intuitzen du bizitzea sufritzea dela.

Emilik bere zigarroari azken atxikia eman eta sutara jaurti du. Ondo sentitzen da gizon isilaren ondoan, zeina poliki-poliki identifikatzen doan; eta gertatzen da ezen ordu batzuk lehenago nazka eragiten zion jendetza gizateriaren aldeko samurtasuna eta maitasuna bihurtu dela. Permanentea denarekin komunikatu beharrean, aurkitu du gainerako gauza guztiak anekdota direla.

Gizakiak azkenean bukatu du ahia eta goilararekin potearen hondoa harraskatzen du. Marrazkilariak hotzikara sentitu du bere bizkarrean, ez daki igurtzi metalikoarengatik ala betetzen duen samurtasunagatik. Eta gogoan dauka Wernerren isiltasuna torturatu zutenean, eta Francescen baretasunean pentsatzen du, gaixo kondenatuaren aulkian. Batak zein besteak maiz mintzatu zaizkio beren justiziarekiko fedean; baina, egiazki, euren heriotzaren aurreko kemena ez da fede hartatik sortu, baizik aurkitu duten barne-baketik, Emilik orain aurkitu duen berberetik. Pasibitatea eta errenuntzia ez den bakea, baizik egoera moral aktiboa, grazia-egoera balitz bezala. Egin duen garaipen honekin jadanik ezin dira agorrek izan esparruko lau urte eta erdiak, gerra ere agorra izango ez den bezala, munduan zehar sakabanatuta, barruko bake berbera aurkitu duten beste gizon asko baldin badaude. Munduko bake handia, gizon bakoitzak bere arimaren bake ttikia sentitzen duen egunean baino ezin izango da gertatu. Eta hori ez da anekdota bat. Gizakien arteko borrokek jarraituko dutela, beste gerra batzu etorriko direla, ziurra baino ziurragoa da. Baina, proba bakoitzaren ondoren, bakoitza aurrekoa baino izugarriagoa, gizakien angustiak gero eta gehiago hedatuko du baretasunaren hazia. Bidearen luzeak ez gaitu desesperatu behar, bakoitzak irabazten duenean, gizateria osoak irabaziko du. Soilik bakoitzak sentitu behar du, ongi benetan eta ongi umilki, lastimaren gai den gizateria honen parte, Emili orain sentitzen den bezala. Bizitzak eskaini dezakeen beste edozein asetasun, gehiketa bezala emana izango da.

Emili altxatu egin da; txingarrak iraungiten doaz eta egunsentia hotza da. Sutea ere murriztu da; osteria ilunpean geratu da esparrua. Atzean geratzen da horrorezko lehenaldia; etorkizun esperantzatsua irekitzen da aurrean. Kea lurrari atxikita mantentzen da, beste kearen aurrean, erraustegiarenean, bere garaipena ziurtatu nahiko balu bezala. Oso gertu egon behar du egunsentia; inpazientziaz itxaroten du Emilik. Jakin beharra dauka gau honetako garaipena ez dela amets bat izan, baizik Gizakiaren garaipen erreala *esparru nazional-sozialistaren espirituaren* gainean –bizirik gabe, baina oraindik epel, datzan etsaia.